

TOLOSAKO ZAINZA EKOSISTEMAREN DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

2024



DAITEKE GIZARTE AHOLKULARITZA

943 43 03 12 | berdintasuna@daiteke.com | www.daiteke.eus

#izandaiteke



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE FAMILIA Y MUJER

emakumeen eta gizonen
berdintasunerako
lankidetzaren erakundea



entidad colaboradora
para la igualdad de
mujeres y hombres



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	3
1. SARRERA	6
1.1. Aurrekariak	7
2. KOKAPEN TEORIKOA.....	9
2.1. Zer dira zaintzak?	9
2.1.1. Zaintza hiru dimentsiotan: Mendekotasunari helduz	10
2.1.2. Nola eramaten da arlo publiko-komunitarioa diagnostikora?	13
2.2. Zaintza sistema publiko komunitarioa	14
2.3. Arau markoa	15
3. ZAINZA ESKAERA POTENTZIALA TOLOSAN.....	17
4. DIAGNOSTIKOA OSATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA.....	26
5. NON ZAINTZEN DA TOLOSAN?	33
6. ADINEKOAK ETA DESGAITASUN EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK	37
6.1. Sarrera.....	37
6.1.1. Autonomia pertsonalaren sustapena eta mendekotasunaren arreta sistema	37
6.1.2. Definizioak eta balorazioak	39
6.1.3. Zaintza politiken korapiloak	41
6.1.4. Egungo egoera eta etorkizuneko joeren azterketa	42
6.2. Tolosako Zaintza Ekosistema: adinekoak eta aniztasun funtzionala edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza	58
6.2.1. Etxean mantentzeko laguntza zerbitzuak	64
6.2.2. Mendekotasun eta desgaitasun egoerei lotutako dirulaguntzak	74
6.2.3. Egoitza eta Eguneko Zentroak.....	87
6.2.4. Bizitoki, Harrera eta Eguneko Arretarako Zerbitzuak	99
6.2.5. Haurrentzako arreta	106
6.2.6. Mugikortasuna eta Irisgarritasuna Sustatzeko Zerbitzuak.....	112
6.2.7. Kirol egokitua, zahartze aktiboa eta osasunaren sustapena.....	114

6.2.8.	Hauskortasuna eta kalteberatasuna detektatzeko eta artatzeko esperientzia pilotuak	118
6.2.9.	Lankidetzaren guneak	121
6.2.10.	Tolosan Adinekoak eta desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen errealitatean eragiten duten komunitate eragileak eta hauen egitasmoak	121
6.3.	Ekarpenak eta korapiloak	124
7.	HAUR, NERABEAK ETA GAZTEAK	141
7.1.	Sarrera	141
7.1.1.	Faktore demografikoak eta horien inplikazioak	141
7.1.2.	Atzeritik etorritako haur, nerabe eta gazte integratzeak	142
7.1.3.	Haur, nerabe eta gazteen Eskubideak eta Babes Integrala	143
7.1.4.	Gazteria eta Ongizate Emozionala	143
7.1.5.	Familiak eta kontziliazioa: erronkak eta beharrak	144
7.1.6.	Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteentzako Diagnostikoa eta Ekintza Plana	145
7.2.	Tolosako Zaintza Ekosistema: Haur, nerabe eta gazteen zainketaekin lotutako zerbitzuen, programen eta egituren multzoa Tolosako	146
7.2.1.	Babes integrala eta sistemikoa	153
7.2.2.	Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubideen subjektuak	163
7.2.3.	Kontziliazio erantzunkiderako giltzarriak	177
7.2.4.	Datu kuantitatibo nagusiak	183
7.3.	Ekarpenak eta korapiloak	184
7.3.1.	Analisi kualitatiborako sarrera	185
7.3.2.	Analisiaren antolaketa	185
8.	ZAINZEN DUEN HERRIA	199
8.1.	Sarrera	199
8.2.	Tolosako Zaintza Ekosistema: Zaintza kolektiboarekin lotutako zerbitzuen, programen eta egituren multzoa	201
8.3.	Ekarpenak eta korapiloak	211
9.	NORK ZAINZEN DU TOLOSAN ETA NOLA EGITEN DU?	220

9.1.	Sarrera.....	220
9.1.1.	Zaintzen hiperfeminizazioa	220
9.1.2.	Zaintza lanaren nazioarteko banaketa.....	225
9.2.	Tolosako Zaintza Ekosistema: zaintzaileei zuzendutako zerbitzu nagusien azterketa.....	232
9.2.1.	Tolosako Zaintza Ekosistema: Familia inguruneke zaintzaileei zuzendutako zerbitzuak	235
9.2.2.	Etxeko eta zainketa zerbitzuetako langileak	245
9.2.3.	Tolosan zaintzaileen errealitatean eragiten duten komunitate eragileak eta hauen egitasmoak.....	249
9.3.	Ekarpenak eta korapiloak.....	252
10.	BIBLIOGRAFIA.....	268

1. SARRERA

Tolosako Udaleko Zaintzen Ekosistema Komunitarioaren Diagnosi honen helburu nagusia tokiko zaintza-beharrak identifikatzea eta aztertzea da. Horrez gain, **zaintza-eredu bidezkoago eta parekideago** baterantz aurrera egiteko, egun lan horiek nork hartzen dituen bere gain, nola gauzatzen diren nahiz eman beharreko urratsak zehaztea ezinbestekoa da.

Prozesu hau metodologia partekatua jarraituz garatu da, eta hainbat udal-sailen, gizarte-eragileren eta, bereziki, hainbat errealitatetatik zaintzan aritzen diren pertsonen arteko lankidetzak ekarri du. Haien esperientzien eta bizipenen bidez, egoera modu integralean ikusi ahal izan dugu. Horrenbestez, eguneroko zaintza-beharrak asetzeko duten kezka partekatzen dute, beste erronka batzuen artean, **zahartze-prozesu argi bati aurre egiten dion biztanleriaren testuinguruan**.

Une oro, **ikuspegi feministak eta interseksionalak gidatu du** diagnostikoa, funtsezkoak baitira zainketen egiturazko desberdintasunak ulertzeko. Ikuspegi horiei esker, agerian jarri daiteke nola generoarekin batera beste faktore batzuek, hala nola klase sozialak, jatorriak, etniak edo adinak, eragina duten zaintzak egiteko eta aitortzeko baldintzetan.

Gainera, bereziki azpimarratu da zaintzen banaketa bidezkoago eta erantzunkideago baterantz aurrera egiteko beharra, bai emakumeen eta gizonen artean, bai esparru publikoaren eta pribatuaren artean. Diagnostiko hau **zaintza bizitzaren sostengu nagusitzat hartzeko beharretik abiatzen da**. Zaintza funtsezko elementua den heinean, ezinbestekoa da **sistema publiko bat eskatzeko aldarria egitea**, instituzio publikoen zuzendaritzapean eta erantzukizunpean egongo den zaintza-sistema integral bat alegia.

Diagnostiko honen helburua ez da soilik Tolosako zainketen egungo egoera aztertzea, baita **etorkizuneko zainketa erronka nagusiei oinarri gisa balio dezaketen proposamenak eta ekintza-ildoak planteatzea ere**, zainketa-sistema inklusiboa, irigarria eta herritar guztien beharrei erantzuteko gai izango dena bermatzera bideratuta.

1.1. Aurrekariak

Tolosako Udaleko Zaintzen Ekosistema Komunitarioaren Diagnostikoa bizitzaren jasagarritasunean eta jendarte-antolamenduan zaintzek gero eta garrantzi handiagoa duten testuinguru batean sortu da. Azken urteotan, **zaintza-eredu bidezkoagoak, erantzukideagoak eta sistema publikoak bermatuagoak** lortzeko beharra hainbat gertaera eta mugimenduk bultzatu dute.

Mugarri nagusietako bat, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen antolaketan 1982ko maiatzaren 20ko 6/1982 Legea izan zen, eta honek **euskal gizarte-politiken garapena ahalbidetu zuen, babes sozialeko sistema propio bat ezarri**. Lege hau aitzindaria eta berritzailea izan zen, gizarte-zerbitzuen eredu berri bat ezarri baitzuen, oinarritzko eskubideen eta arreta unibertsalaren ikuspegitik. Ondoren, 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak arreta unibertsal eta integrala bermatu zuen, mendekotasuna, desgaitasuna eta bazterkeria egoerak artatzeko baliabideak garatuz.

COVID-19aren pandemiak, zaintza-sistemaren arintasunak eta kolektibo jakin batzuen gainkarga ikusarazi zuen, bereziki emakumeena. Testuinguru horretan, 2021eko urtarrilean lehen diagnostiko bat egin zen Hiritik-at, Parean eta Deustuko Unibertsitateak egindako ikerketa parte-hartzailearen barruan. Lehen fase horretan, konfinamenduan sortutako zaintza-sareen eta udalen gogoeta jaso zen, zaintza eta lankidetzak publiko-komunitarioaren inguruan, eta gai horretan gobernantza-ereduak eraikitzeko oinarriak ezarri ziren¹.

Feminismoa ere funtsezko motorra izan da zainketen agenda politikoan. Duela bi hamarkada baino gehiagotik, Mugimendu Feministak zainketen krisia salatu du, eta zaintzaren kudeaketa erantzunkidetasunez bere gain hartuko duten politika publikoak eskatu ditu. Pandemia baino bi hamarkada luze lehenago ere hitz egiten zen zainketen krisiaz. Euskal Herriko Asanblada Feministen Koordinakundeak 1993ko martxoaren 8ko goiburu nagusitzat proposatu zuen garai hartan Derrigorrezko Familia Zerbitzua deitu zitzaionari intsumisio kontsigna ematea, zaintza gizonen eta emakumeen artean banatzeagatik. 2005ean, Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Euskal Sistema Publiko baten aldeko Plataforma sortu zen. Eta horren erakusgarri dira Mugimendu Feministak (2017, 2018 eta 2023) deitutako ondorengo greba orokorrak. Gainera, **Tolosako III. Berdintasunerako Plana (2015-2020)** funtsezko erreferentzia izan da bide horretan.

Prozesu horren guztiaren ondorioz, Tolosako Udalak hainbat ekimen bultzatu ditu Berdintasuna, Euskara eta Hezkuntza, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Kirola eta

¹ <https://www.gipuzkoa.eus/documents/13448758/3eb39079-1828-0e15-3994-19b3bd76e250>

Partaidetza sailek, besteak beste, gidatuta. Zainketei buruzko mahai-inguruak antolatu dira, eta Mugi Tolosa proiektua integratu da, besteak beste.

Gainera, Jabekuntza Eskolaren barruan, zaintzaileei buruzko tailerrak, hitzaldiak eta mahai-inguruak antolatzen dira urtero. 2023an, Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailarekin eta Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan, Aholku-sarean, Atzerriartasunaren Arloko Arreta Juridikorako Euskal sarean txertatu zen. 2024an, Andragoran, Tolosaldeko Emakumeen Etxean, zaintzaileei zuzendutako hainbat zerbitzu ezarri dira, hala nola etxeko emakume langileentzako solasaldiak eta zaintzan lan egiten dutenentzako eta zerbitzu horiek kontratatzen dituzten familientzako lan-aholkularitzako zerbitzua

Beste mugarri garrantzitsua **Tolosako Herritarren Batzarra** da, berrikuntza eta parte-hartze sozialaren bidez erronka konplexuei aurre egiteko elkarlanerako gunea. 2022ko urria eta Abendua bitartean, zozketa bidez hautatutako 32 herritarrek hainbat gairi buruz eztabaidatu zuten. Horren ondorioz, Gomendioen dokumentu bat egin zen, non nabarmentzen baitzen beharrezkoa zela zaintza-politikak eta eremu horretako erantzunkidetasuna indartzea.

Tolosako demografiaren bilakaerak eragina izan du udaleko zerbitzu eta programen egokitzapenean, eta **Gizarte Zerbitzuen testuinguruan**, azken urteotan gizarte ongizatea sustatzeko eta zerbitzuak hobetzeko ahalegin handia egin da, herriko errealitate eta beharretara egokitutako baliabideak eskainiz. Horren adibide garbia da **Eguneko Arreta Zerbitzua**, 2023an martxan jarritakoa, menpekotasun-arriskuan dauden adinekoei laguntzeko. Zerbitzu honen oinarriak, hala ere, 2009an jarri ziren, mendekotasun-egoerak prebenitzeko ikastaroaren bidez, eta 2019-2020 urteetan, pandemiak eten aurretik, **Uzturre Zentroan bi esperientzia piloto** garatu ziren, zerbitzu osoago baten beharra aztertzeko. Esperientzia hauen harrera eta balorazio positiboa ikusita, **Tolosako Udalak, Gizarte Zerbitzuen bitartez, programaren egitura egonkortzea eta Eguneko Arreta Zerbitzu integrala eskaintzea erabaki zuen**, zerbitzu pertsonalizatu eta kalitatezko arreta bermatzeko. Horrez gain, **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuan** eskaintzen diren ordu kopurua handitu da, erabiltzaileen beharrak hobeto asetzeko helburuarekin.


Diagnostiko hau, beraz, **ez da hutsetik abiatzen**; aitzitik, hausnarketa sozial eta instituzionaleko prozesu baten gainean eraikitzen da, eta zainketa-eredu bat finkatzea du helburu, non erantzunkidetasuna errealitate bihurtuko den arlo publikoaren eta pribatuaren artean, eta zaintza jasotzeko eskubidea oinarritzko eskubide gisa bermatuko den.

2. KOKAPEN TEORIKOA

2.1. Zer dira zaintzak?

«Emakumeok* eusten diogu munduari» izan da mugimendu feministaren lelo esanguratsuenetako bat. Lelo honek agerian uzten du sistema ekonomikoaren kontraesanetako bat, jendarte industrialaren sorrera ezkerro ezkutuan egon dena: ekonomia produktiboaren eta bizitzarako funtsezkoak diren lanen arteko bereizketa. Azken horiek, hala nola pertsonen eta etheen zaintza, sistemaren funtzionamendurako ezinbestekoak diren arren, bigarren mailan geratu izan dira.

Sexuaren arabera lan-banaketa emakumeek eta gizonek betetzen dituzten zereginen balorazio ekonomiko eta sozial desorekatuan oinarritua dago. Ondorioz, denboren eta espazioen banaketa bereizi eta hierarkizatua zehaztu, eta zaintza



Geuk egina, Mugarik Gabeko Ekonomiako zainketen izebergean oinarrituta.

jendarteak horiei bizkarra emanez eraiki dira, eta erronkarik handienetako bat bihurtu dira jendarte garaikideetan. Ez dugu geure burua ikusi nahi izaki hauskor gisa, ahultasunak definituak, eta elkarren mendekoak eta ekodependienteak direnak, eta bizitzan oinarritutako antolaketa bat sustatu beharrean, kolapsora iritsi gara (Aranguren et al., 2023).

Azken hamarkadetan, aldaketa sozialek eta demografikoek, hala nola biztanleriaren zahartzeak, emakumeak lan-merkatuan sartzeak eta familien sakabanatze geografikoak zainketen antolaketa aldatu dute. Hala ere, gizonen erantzunkidetasuna ez da handitu, eta zeregin horiek arautu gabeko merkatu baterantz kanporatzea izan da irtenbidea. Bitartean, indarrean dugu ongizate-

emakumeena den esfera gisa ezartzen duen eraikuntza sozial eta ideologikoa sortu du, askotan arraza faktoreak baldintzatua. **Eremu erreproduktiboa** (pertsonen zaintza) **eremu produktiboaren** (ekoizpen ekonomikoa) mende egoteak zaintza ikusezin bihurtzea ekarri du iruditegi sozial eta ekonomikoan. Gainera, genero eta jendarte desberdintasunak indartu ditu, eta, besteak beste, lan, hezkuntza eta politika esparruetan aukerak mugatu ditu emakumeentzat (Ezquerria eta Mansilla, 2018).

Zainketek bizitzaren sostenguan duten zentraltasuna ukaezina da, hala ere,

sistema familista², zerbitzu publiko gutxi eskuragarri dituen. Egoera horrek zaintza-eskaera eragin du, eta, neurri handi batean, jatorri atzerritako emakumeek bete dutenez, **migrazioen feminizazioa** izenez ezagutzen den fenomeno sortu da (Monguí, Caceres, Ezquiza, 2021).

Gero eta ohikoagoa da bizitza profesionala eta pertsonala orekatzeko zailtasunek eragindako estresa, buru-karga eta akidura aipatzen dituzten testigantzak aurkitzea; zainketen sektorean emakumeek dituzten lan-baldintza kaltegarriak buruzkoak; edo maite dituzten pertsonen arreta-premiak betetzea lortzen ez duten familiei buruzkoak; eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen artean nahi ez den bakardadea areagotzeko buruzkoak.

Zainketen ekonomia feministak erdigunean jartzen du zaintza-lanen balio sozial, ekonomiko eta politikoa, ordaindutakoena zein ordaindu gabeena, eta zalantzan jartzen ditu horiek behar bezala aitortzen eta balioesten ez dituzten egitura tradizionalak. Pentsamendu-korrante hori **ekonomia feministaren** barruan kokatzen da. Ekonomia feministak harreman ekonomikoak eta sozialak eraldatu nahi ditu, inklusiboagoak, ekitatibo eta bidezkoagoak izan daitezen, batez ere, historikoki zaintza-lanaren arduradun izan diren emakumeentzat eta binarioak ez diren pertsonentzat. Testuinguru horretan, zainketei behar bezalako arretarik ez emateak zaintza-krisia sortu du. Estatuak eta erakundeak ez diete behar bezala erantzuten sistema ekonomikoaren funtzionamenduari eta bizitzari eusteko funtsezko zereginari. Fenomeno hori bereziki nabarmena izan da azken urteotan, gero eta kontzientzia handiagoa hartu baita arazoaren tamainari buruz, etxeko eremua gaindituta, eta, horren ondorioz, gizarte-berrantolaketa eskatzen duten ahots gehiago sortu dira, bizitzaren iraunkortasuna eta sistema osoaren oreka bermatzeko (Pérez Orozco, 2006).

2.1.1. Zaintza hiru dimentsiotan: Mendekotasunari helduz

Zaintzaren kontzeptua konplexua eta definitzen zaila da, barnean dituen subjektibotasunengatik. Amaia Pérez Orozcoren (2014) hitzetan:

“Mendekotasunari eta haurtzaroari eman beharreko arreta gainditzen duten lan ugari eta askotarikoak, bizitzak egunero funtziona dezan ezinbestekoak diren gauza guztiak, alegia. Nolabait esatearren, pertsonen ongizate fisiko eta emozionalaren

² Zainketa-sistema familistak lotura estua du Mediterraneoko ongizate-ereduekin, Europako hegoaldeko herrialdeetan (Espainia, Italia, Grezia eta Portugal) nagusi den eredua baita. Sistema honetan, mendekotasuna duten pertsonen (haurrak, adinekoak, gaixoak edo desgaituak) zaintzaren ardura, nagusiki, familia-nukleoari dagokio, eta bereziki emakumeen gain erortzen da.

eguneroko berreraikitze prozesua dira, etengabe eraldatzen ari direnak. Izan ere, pertsona guztiok gara zaurgarriak, eta guztiok behar ditugu zainketak gure bizitzako egun guztietan, intentsitate desberdinetakoak. Eta izatez zaurgarria den bizitza zaintzeko modu bakarra, elkarrekin lan egitea da, horretan guztian elkarren mendekoak garelako.”

Definizio horrek zainketa fisikoak ez ezik, zaintza emozionalak ere nabarmentzen ditu, eta agerian uzten du pertsona guztiek, bizitzako edozein etapatan, zainduak izan behar dituztela, era batera edo bestera, intentsitate desberdinekin. Azken batean, **zaintza premia unibertsala** da.

Nahiz eta ulertzen dugun zainketak funtsezko premia direla pertsona guztientzat, bizitzako une edo zirkunstantzia batzuetan premia horiek areagotu egiten dira, bizitzan zehar gure ahultasuna areagotzen duten zirkunstantziak daude, berehalako erantzunak edo denboran iraunkorrak direnak eskatzen dituztenak, eta egoera horiek, neurri batean, administrazio publikoak kudeatzen ditu eta legez arautzen dira. Diagnostikoan, desorekarik eta bidegabekeria larrienak agertzen dituzten zaintzaren dimentsioetan jarri nahi dugu arreta. Eten nabarmenak sortzen dituztenak zaintzaile diren edo zaintzea aukeratzen dutenen³ bizitzan, hau da, gizartean mendekotasuna duten pertsonen arretan ari direnen bizitzan (Aranguren et al., 2023).

Horregatik, erratzeko beldurrik gabe, Tolosan zaintzak behar dituzten 20.065 pertsona daudela esan dezakegun arren, (Biztanleria osoa udalerrian, EIN erregistroen arabera, 2023), gure ustez zaintzaren dimentsio jakin batzuen analisiak aukera ematen du zaintzaren kontzepzio berri baterantz aurrera egiteko premia handiagoak eta aukera handiagoak aztertzeke, eta zainketa horiek bizitza osoko etengabeko prozesu gisa jorratzeke.

Diagnostiko honetan zehar, zainketen errealitateari helduko diogu, hainbat ikuspegitik abiatuta honako funtsezko dimentsio hauek aztertuz:

- › **Adinekoak eta/edo mendekotasun-egoeran daudenak:** adineko pertsonak eta adinagatik edo osasun-baldintza desberdinengatik eguneroko jarduerak modu autonomoan egiteko zailtasunei aurre egiten dietenak.
- › **Aniztasun funtzionala duten pertsonak:** desgaitasuna dela-eta, eguneroko bizitzan moldatzeko laguntza behar dutenak.

³ Hainbat bizitza eten egiten dira migrazio-prozesu baten ondoren, egoiliar gisa egitera behartuta dagoen emakumearena; erantzunkidetasun publikorik eta maskulinorik gabe ama izatea erabakitzen duen emakumearena; bere senide nagusiak zaintzera behartuta sentitzen den alabarena; seme edo alaba neurodibergentea duen ama gurasobakarrarena... (Aranguren et al., 2023).

- › **Haurrak eta adingabeak:** haurrak eta adingabeak oro har, eta bereziki, hainbat zirkunstantziagatik zaintza zehatzak behar dituztenak, dela adinagatik, dela familia-kalteberatasuneko egoerengatik.
- › **Zaintzaileak (ordainduak eta ordaindu gabeak):** eginkizun hori lanbide-jarduera gisa betetzen dutenak nahiz modu informalean eta ordaindu gabe betetzen dutenak, askotan familia-ingurunean.

Joan Tronto eta Berenice Fisherren definizioari jarraituz (1990):

“Zainketak dira gure mundua mantentzeko, konpontzeko eta jarraitzeko egiten dugun guztia, bertan ahalik eta ondoen bizi ahal izateko.”

Ikuspegi horren arabera, zaintzak ez dira zeregin edo lan multzo soiltzat hartu behar, baizik eta bizitzarako funtsezko dimentsio gisa, modu kolektibo, demokratiko eta iraunkorrean antolatu behar dena.

Gure sistemako zaintzaren zati handi bat familia-eremuak eusten badio ere, beste eragile batzuek ere hartzen dute parte. Elizalde-San Miguelek dioenez, zaintza-beharrak sortzen direnean, hartzen ditugun erabakiak ez dira soilik ikuspegi individual batetik interpretatu behar. Bere hitzetan, gizarte-egitura batzuen barruan kokatzen diren logika kolektiboek erantzuten diete "Zaintzak gizartean egituratzen eta antolatzen dira, eta egitura horretan hartzen ditugu erabakiak"⁴



Geuk egina, Shahra Razaviren zaintzen diamantean oinarrituta.

Shahra Razavi ikertzaile irandarrak (2017) "zaintzen diamantea" izeneko eskema diseinatu zuen. Lau ardatzek osatzen dute, eta zainketak ekoizteaz, kudeatzeaz eta banatzeaz arduratzen diren egiturak ikusarazi nahi ditu: familia, merkaturak, estatua (autonomia-erkidegoak, udalerrak) eta komunitatea (herriarrak eta elkarteak) (Ceminar eta Stolkiner, 2018). Eskema horrek aukera ematen digu zainketak familia-eremutik haratago ikusarazteko, osagarritasun-logika batetik, non hainbat eragile eta esfera zainketa-hornitzaile izan daitezkeen (Alamillo-Martínez, 2012).

Zaila da horietako bakoitzaren rola eta erantzukizunak argi eta garbi bereiztea, baina zainketek bizitzari eusteko eta gizartearen funtzionamendurako duten

⁴ <https://www.ela.eus/alda/cuidar-cuestion-de-estado>

garrantzia kontuan hartuta, funtsezkoa da horiek bermatuko dituen sistema integral publiko-komunitario bat garatzea, hezkuntza- edo osasun-sistema publiko bat egotea naturaltasunez ulertzen dugun bezala.

2.1.2. Nola eramaten da arlo publiko-komunitarioa diagnostikora?

- › Zaintzak gure bizitzako edozein arlotan presentzia duen heinean, politika publiko guztiek dute zeregina eta eragina. Zainketaren zeharkakotasuna aitortu behar dugu, erakunde publikoen zuzendaritzapean eta erantzukizunpean politika publikoak diseinatzean, zainketarako tokiko ekosistemen sorrera bermatuz, hainbat eragileren sareko lanetik, erantzukizun pertsonala eta autozainketa sustatuz. **Horregatik, diagnostiko honetan aztertuko dugu zaintza nola integratu behar den udal-eremuko hainbat arlotan, kontuan hartuta zaintza ez dela sail jakin baten ardura eksklusiboa, baizik eta zeharkako ardatz bat kudeaketa publikoan.**
- › Bizitza zaintzeko modu bakarra modu kolektiboan egitea da, herritar guztiek zainketak jasotzeko duten eskubidea errespetatuz, baina baita inguratzen gaituen bizitza zaintzeko erantzukizuna bere gain hartuz ere. **Eredu komunitarioak tokian tokiko elkartasunaren eta elkarrekiko laguntzaren garrantzia nabarmentzen du.** Horrek esan nahi du komunitateek eta laguntza-sareek —hala nola, elkarreek, bizilagunek, lagunek eta familiek— zainketa-sarearen parte aktiboa izan behar dutela, interdependentzia- eta lankidetzatza-ingurunea sustatuz. Beraz, zaintza-lanak ez dira familiakotuta, feminizatuta eta arrazializatuta egongo. Ildo horretan, diagnostikoak hainbat eragile komunitarioen laguntza izan du.
- › Zaintza-harremanak: zaindu behar duten pertsonak eta zaintzaileak. Zaintza-harremana ezin da ulertu oinarritzko bi osagai horiek gabe; izan ere, norbait zaintzeko, zaintzaile bat egon behar da, eta alderantziz. Gainera, zaintza-harremanak ez dira hertsiki bitarrak, eta horrek esan nahi du beste pertsona bat zaintzen duen pertsona bat, aldi berean, beste norbaitek zaindu dezakeela, eta "zaintza emaile" eta "zaintza hartzaile" rolak aldizka trukatu daitezkeela. Diagnostikoan zaintzaileen laguntza izan dugu, ordainduak zein ordaindu gabeak. Ildo horretan, **Tolosako zaintzaileen errealitateetara hurbiltzean, egiaztatu dugu prozesu horretan parte hartu duten pertsona askok zaintzaile-rolan zuzenean lagundu ez badute ere, beren esperientziak eta bizipenak partekatu dituztela, bai beste pertsona batzuk zaintzen zituztenean, bai zainketak behar izan dituztenean.** Horrek agerian uzten du askotan zaila izaten dela zaintzen duenaren eta zainketak jasotzen dituenaren arteko bereizketa argia egitea, rolak aldakorrak eta aldiberekoak izan baitaitezke eguneroko interakzioetan.

2.2. Zaintza sistema publiko komunitarioa

Nadine Gasman INMUJEREseko presidentek zainketen dimentsio bikoitza ulertzearen garrantzia azpimarratu zuen:

“*Pertsonak eskura izan behar duten eskubidea da, baina zaintzea ere funtsezkoa da gizartearentzat.*”

Definizio horrek azpimarratzen du pertsona guztiek dutela eskubidea bizitza osoan zehar zaintzak jasotzeko eta emateko, askatasunez eta konpromisoaz, eta aitortzen du zaintzea funtsezko ekintza dela gizartearentzat.

Zaintzak merkantilizatzen diren testuinguruan, zaintza-zerbitzuak jasotzeko aukeretan desberdintasunak areagotu daitezke. Zerbitzu publiko nahikorik ez dagoenean, pertsona batzuek beste batzuen "borondatearen" mende geratzen dira, prekarietatea eta ikusezintasuna sortuz. Fenomeno hori ezkutuko ekonomian eta nazioarteko zaintza-kateetan islatzen da, desberdintasun eta esplotazio-modu berriak eraginez (Comas d'Argemir, 2009). Emakumeek gehienbat egiten duten zaintza-lanak erronka sozialak sortzen ditu, berdintasunerako eskubidean eraginez (Marrades, 2016).

Zaintzarako eskubidea Estatuak bermatutako eskubide unibertsala izan behar du, ez norbanakoen egoera ekonomikoaren menpekoa. Ikuspegi horrek pertsona guztiek behar duten zaintza jasotzeko aukera bermatzen du, gizarte- edo finantza-faktoreek baldintzatu gabe. Nahiz eta hainbat eskubiderekin lotuta egon, ez dago zaintza oinarritzko eskubidetzat aitortzen duen legerik, ez eta genero-ikuspegia duen sistema integrala arautzen duenik ere.



2.3. Arau markoa

Diagnostiko honen helburua araudia zehatz-mehatz berrikustea ez bada ere, beharrezkotzat jo dugu zainketekin zerikusia duten gaiak jorratzen dituen esparrurik garrantzitsuenera hurbiltzea, Tolosako udalerrian eragin zuzena baitute.

Eremua	Araudia
Europa	2030erako Garapen Iraunkorreko Estrategia: Pekinen egindako Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzia (1995)
Europa	LANEren 189. Hitzarmena (Etxeko Langileei buruzkoa)
Estatua	39/1999 Legea, Lana eta Familia Bateragarri egitekoa
Estatua	39/2006 Legea, mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haien zaintzari buruzkoa
Estatua	3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa
Estatua	1379/2008 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, sortzen dituen gizarte, kultura eta komunitateko zerbitzuak izeneko lanbide-arloari dagozkion bi profesionaltasun-ziurtagiri, profesionaltasun-ziurtagirien Estatuko katalogoan sartzekoak direnak
Estatua	1620/2011 Errege Dekretua, etxeko zerbitzuaren izaera bereziari buruzkoa, eta 27/2011 Legea, Gizarte Segurantzaren Araubideari buruzkoa
Estatua	16/2013 Legea, urriaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak babestekoa eta gizarteratzekoa
Estatua	6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enpleguan eta okupazioan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasunerako premiazko neurriena
Estatua	5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, enpleguaren kalitatea eta gizarte-babesa hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa
Estatua	Erkidegoan zaintza-eredu berri bat ezartzeko Estatuko estrategia. Desinstituzionalizazio-prozesua (2024-2030)
Euskadi	12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzkoa
Euskadi	185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa
Euskadi	26/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzkoa

Euskadi	1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena
Euskadi	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII Plana
Euskadi	EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026
Gipuzkoa	2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako
Gipuzkoa	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Foru Plana Gipuzkoan 2020-2023
Gipuzkoa	6/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Zainketa Sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituena
Gipuzkoa	2024-2030 Gipuzkoako gizarte zerbitzuetako mapa
Tolosa	Etkez-etxeko Laguntza Zerbitzuaren Erregelamendua
Tolosa	Adineko Pertsonen Familia-Harrerako Ordenantza
Tolosa	Pertsona Autonomoen Bizitoki Zerbitzuen Erregelamendua
Tolosa	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta III. Plana (2015-2020)
Tolosa	Gazteria Plana Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Ekintza Plana (2023-2027)


3. ZAINZA ESKAERA POTENTZIALA TOLOSAN

Datu demografiko kuantitatiboen analisiaren bidez, udalerriko zaintza-eskaera potentziala identifikatu nahi da. Halaber, datu hauek tresna baliotsua dira zaintzak biztanlerian duen eragina ebaluatzeko eta egungo zein etorkizuneko zaintza-beharrak hurbiletik aztertzeko.

Diagnostiko hau egiteko, 2018 eta 2023 urteak erreferentzia gisa hartu dira. Informazio-iturri nagusiak EUSTAT, EIN (Estatistikako Institutu Nazionala), Udalmap eta Ikuspegi izan dira. Hala ere, zenbait kasutan ez da posible izan 2023ko datu espezifikoak lortzea, eta, horregatik, tarte horretara gehien egokitzen diren datuak erabili dira.

Tolosako biztanleriaren egitura, sexuaren eta adinaren arabera

EIN erregistroen arabera, 2023an Tolosak 20.065 biztanle zituen, horietatik 9.711 gizonak eta 10.354 emakumeak. Banaketa horrek adierazten du emakumeen presentzia zertxobait handiagoa dela biztanlerian, eta datu hori garrantzitsua da zahartzeari eta zaintza-premiei dagokienez; izan ere, emakumeek bizi-itxaropen handiagoa izaten dute, eta, ondorioz, ordezkaritza handiagoa adin-tarte aurreratuenetan.




Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (2023/07/01)

2023an, Tolosako biztanleriaren egitura demografikoak zahartze joera nabarmena erakusten du. 65 urte edo gehiagoko pertsonak biztanleria osoaren % 22,82 dira, eta hori kontuan hartuta, adinekoentzako arreta eta zaintza sistemaren egokitzapena ezinbestekoa izango da. Bestalde, biztanleria gaztea gutxitzen ari da, 0-19 urteko taldea guztizkoaren % 19,65 baino ez baita, jaiotza-tasa baxua eta belaunaldi-ordezkapenaren ahultzea islatuz. Biztanleriaren gehiengoa 20 eta 64

urte bitartekoa da (% 57,53), eta horrek erakusten du oraindik ere biztanleria nagusiki aktiboa dela lan-merkatuan, baina datozen urteetan zahartze prozesuaren eragina nabaria izango dela. Azkenik, 65 urtetik gorako biztanleen artean emakumeen kopurua nabarmen handiagoa da (2.621 emakume eta 1.931 gizon), emakumeek bizi-itxaropen handiagoa dutelako.

Biztanleriaren piramidea aztertuz gero, Tolosak trantsizio demografiko aurreratuan dagoela ikus daiteke. 2024ko piramidean, adinaren eta sexuaren arabera biztanleriaren banaketa islatzen da, eta bertan **jaiotza-tasaren jaitsiera eta biztanleriaren zahartze progresiboa** nabarmenak dira. Oinarrian, 0-14 urteko biztanleria txikia da, belaunaldi berrien ordezkapen ahula islatuz, eta horrek etorkizunean ondorio sozial eta ekonomikoak ekar ditzake. Bestalde, goiko aldean, 65 urtetik gorako biztanleriaren kopurua nabarmen handitzen da, eta adin-tarte horretan emakumeen presentzia handiagoa da, bizi-itxaropen luzeagoaren ondorioz.



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (2023/07/01)

Lehen aipatu bezala, egituraketa honek argi erakusten du etorkizunean zaintza-sistema indartu eta egokitzea ezinbestekoa izango dela, adineko pertsonen beharrei erantzuteko. Zahartzearen eragina ez da soilik zaintza-eskaeraren hazkundean antzemango, baizik eta gizarte- eta osasun-zerbitzuen berrantolaketan ere, udalerrian arreta integrala bermatzeko.

⁵ https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/tolosa.html


Jarraian, Tolosako, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko **biztanleriaren adin-taldean eta sexuaren arabera** jasotzen duen taula aurkezten da. Datuek erakusten dute emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatua dela adin-tarte ezberdinetan, 65 urte eta gehiagokoan tartea kenduta, non emakumeen zenbatekoa nabarmen handiagoa den. Tolosan aurkitzen da sexuaren arabera alde handiena (% 13,14 emakumeak eta % 9,68 gizonak).

65 urte edo gehiagoko biztanleen % 22,82rekin, Tolosak Gipuzkoako (% 23,66) eta Euskal AEko (% 23,80) batez bestekoa gainditzen du. Aldi berean, 0-19 urtekoen tartea biztanleriaren % 19,65 da, eta horrek kontziliazio-estrategiak indartzera, familia gazteak bultzatzera eta biztanleria berria erakartzera gonbidatzen du.

Biztanleria adin tarteka eta sexuaren eta lurralde eremuaren arabera (EUSTAT, 2023)				
Adin tartekak	Sexua	Tolosa	Gipuzkoa	EAE
Guztira	Emakumeak	10.249	368.801	1.133.289
	Gizonak	9.700	351.728	1.067.683
	Guztira	19.949	720.529	2.200.972
0-19	Emakumeak	1.853 (% 9,29)	64.774 (% 8,99)	190.172 (% 8,64)
	Gizonak	2.067 (% 10,36)	68.500 (% 9,51)	201.718 (% 9,16)
	Guztira	3.920 (% 19,65)	133.274 (% 18,5)	391.890 (% 17,81)
20-64	Emakumeak	5.775 (% 28,95)	207.562 (% 28,81)	644.403 (% 29,28)
	Gizonak	5.702 (% 28,58)	209.207 (% 29,04)	640.784 (% 29,11)
	Guztira	11.477 (% 57,53)	416.769 (% 57,84)	1.285.187 (% 58,39)
65 eta gehiago	Emakumeak	2.621 (% 13,14)	96.465 (% 13,39)	298.714 (% 13,57)
	Gizonak	1.931 (% 9,68)	74.021 (% 10,27)	225.181 (% 10,23)
	Guztira	4.552 (% 22,82)	170.486 (% 23,66)	523.895 (% 23,8)

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (2023/07/01)


Datuen arabera, **zahartze progresiboa** nabaria da Tolosan, **gainzahartze-indizea** handituz joan baita: 2014an % 10,77 izatetik 2024an % 11,83 izatera igaro da. Bestalde, **haurtzaroaren indizea** beheranzko joera erakusten du, 2014an % 15,27 izatetik 2024an % 13,89 izatera igaroz.



Joera hauek lurralde osoan antzeman daitezkeen arren, Tolosako gainzahartze-indizea Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino apur bat baxuagoa da. Haurtzaro-indizeari dagokionez, berriz, Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino altuagoa da.

Indizea	Urtea	Tolosa (%)	Gipuzkoa (%)	EAE (%)
Haur indizea (0-14)	2014	15,2	14,7	13,9
	2019	14,9	14,3	13,7
	2024	13,8	12,9	12,6
Gainzahartze Indizea	2014	10,7	10,4	10,6
	2019	10,8	10,8	11
	2024	11,8	12,1	12,1

Beste faktore garrantzitsu bat da zahartzearen feminizazioa. 2023an, emakumeen gainzahartze-indizea % 14,08ra iritsi zen, eta gizonezkoena % 9,24koa izan zen. Horrek adierazten du emakumeak gehiago bizi direla eta, ondorioz, osasun- eta zaintza-behar handiagoak dituztela, mendetasun-egoerak izateko arrisku handiagoarekin. Gainera, adineko emakumeek zaintzaile-rola betetzen jarraitzen dute, baita adin aurreratuetan ere, zaintza-sistemaren funtsezko zutabe bihurtuz.




Bestalde, **mendekotasun-indizeak⁶** gora egin du azken hamarkadan, 2024an 74,06ra iritsiz. Horrek esan nahi du **100 pertsona aktiboko 74 mendekoak direla** (19 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak). Zenbateko altu horrek adierazten du **biztanleria aktiboaren gaineko zama handia dagoela** Tolosan, eta horrek pentsioen, osasun-zerbitzuen eta zaintza-sistemen iraunkortasunari eragiten dio.

Tolosako biztanleria jatorriaren arabera


Ikuspegi, Inmigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, **2023. urtean Tolosako biztanleriaren %12,2k atzerritar jatorria zuen**. Urte berean, Tolosaldean 5.476 jatorri atzerritarreko pertsona bizi ziren, hau da, biztanleria osoaren %11,3.

⁶ Mendekotasun-indizeek aukera ematen dute leku eta denbora jakin batean zaintza-lanen denbora-kargaren ideia bat emateko. Zaintza-eskaera potentzialak eta zaintzaile potentzialen arteko aldea erakusten dute, zainketen kontsumo-maila desberdina esleitzen baitie biztanleriaren azpitalde batzuei. Zaintza-behar horiek esleitzeko, ziurtzat jotzen da adinen *continuum*aren muturretan dauden biztanleek zaintza-kontsumo handiagoa eskatzen dutela eta beste batzuk zaintzeko gaitasun txikiagoa izango dutela (Díaz eta Orozco, 2018).


Sexu-generoaren araberako banaketari dagokionez, 2023an, Tolosaldeko genero-banaketa orekatua da, % 50,2 emakume eta % 49,8 gizon direlako. Biztanleria autoktonoan bi generoen arteko proportzioa ia berdina da (% 50 emakume eta % 50, gizon), baina jatorri atzerritarreko biztanleriaren kasuan, emakumeen kopurua zertxobait handiagoa da (% 51,2 emakume eta % 48,8 gizon). Honek erakusten du immigrazioan ez dagoela genero-desoreka nabarmenik, nahiz eta emakumeen presentzia apur bat handiagoa izan.



Adinari dagokionez, Tolosaldeko jatorri atzerritarreko biztanleria batez ere 25 eta 44 urte bitartekoen artean kontzentratzen da (% 49,4), eta horrek iradokitzen du migrazioa, neurri handi batean, lan-aukerak bilatzeari lotuta dagoela. Bestalde, haurtzaroan eta gaztaroan askoz presentzia txikiagoa dute (0-5 urte: % 1,5; 6-15 urte: % 6,9), eta horrek adierazten du atzerritar jatorriko pertsona gehienak helduaroan iritsi direla, jaiotza-tasak oraindik ez baititu haur biztanleria nabarmen handitu. 18-24 urtekoen artean (%11,6) presentzia moderatua da, eta honek gazte askok lan-aukera edo prestakuntza bilatzeko egiten duten immigrazioa isla dezake. Azkenik, jatorri atzerritarreko biztanleria ia ez da existitzen adinekoen artean (65 urte edo gehiago: %2,6 edo gutxiago), eta horrek berresten du migrazioa fenomeno berria dela, batez ere lanarekin lotura duena.



Jatorrizko herrialdeen arabera, 2023an, Tolosaldeko biztanleria atzerritarra anitza da, nahiz eta **herrialde gutxi batzuetan gehiago kontzentratu**. Maroko da jatorri nagusia, biztanleria atzerritarraren % 17,2 ordezkatuz, eta ondoren datoz Nikaragua (% 13,7) eta Honduras (% 8,6). Guztira, lehen hamar herrialdeek %70,2 osatzen dute, eta tartean daude Ukraina, Errumania, Portugal, Kolonbia, Aljeria, Ekuador eta Venezuela. Zerrendan aurrera egin ahala, herrialde bakoitzaren proportzioa txikiagoa da, baina Asia, Afrika eta Ekialdeko Europatik etorritakoen presentzia ere nabarmena da. Horrek erakusten du Tolosaldeko immigrazioa ez dagoela soilik lan-mugimenduei lotuta, baizik eta babes eta familia-berrelkartze prozesuekin ere baduela zerikusia.



Familia egiturak

Ondorengo atalean Tolosako familia-egiturak aztertuko dira, bertan bizi diren pertsonen kopurua oinarri hartuta. Gipuzkoako Errolda Estatistikaren arabera, Tolosan 9.590 etxebizitza daude, horietatik 1.218 hutsik daude (% 12,7) eta 25 kolektiboak dira (% 0,29).

Datuen arabera, Tolosako etxebizitza gehienetan pertsona bakarra bizi da (% 28), ondoren bi pertsonako etxebizitzak dira ohikoenak (% 25) eta, jarraian, lau pertsona bizi diren etxebizitzak (% 14). 1996ko datuekin alderatuta, bakarrik bizi diren kopurua ia bikoiztu egin da, lehenago familia-egitura jendetsuagoak ohikoagoak zirela erakutsiz.

Etxebizitza mota, bertan bizi direnen arabera Tolosan (Gipuzkoako Errolda Estatistika, 2023-1996)				
2023			1996	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
1 pertsona	2.699	% 28	1.095	% 18
2 pertsona	2.447	% 25	1.370	% 23
3 pertsona	1.263	% 13	1.224	% 20
4 pertsona	1.352	% 14	1.404	% 24
5 edo gehiago	586	% 6	833	% 14
Guztira	8.347	-	5.926	-

Bizikidetza-unitateen murrizketa nabaria da, eta horrek **zaintza-sistemetan eragin handia izan dezake**. Familia-sare tradizionalak murriztearekin batera, **zaintza-lanak banatzeko aukerak urritu egiten dira**, eta ardura handiagoa **familia-unitate txikietan edo erakunde publiko zein pribatuetan** erortzen da.

Bestalde, **bakarrik bizi direnen kopuruaren gorakada kezagarria izan daiteke**. Eustaten (2024) datuen arabera, Gipuzkoan **bakarrik bizi diren pertsonen artean 17.870k (% 18,8) 80 urte baino gehiago dituzte**, eta hauen artean **% 80 emakumeak dira**.

Laburbilduz...

Datuak ikusita, argi dago **Tolosako biztanleria zahartzen ari dela**, eta, horrekin batera, **zahartzearen feminizazioa eta mendekotasun-indizearen igoera nabarmenak dira**. Era berean, familia-egituren aldaketak eta **bakarrik bizi diren pertsonen gorakadak zaintza-sistemen gaineko presioa handitzen dute**. Bestalde, **migrazioak funtsezko papera izan dezake etorkizuneko lan-merkatuan eta biztanleriaren orekan**.

Biztanleriaren zahartzea eta horrek zaintza-eskaeran duen eragina

- › 2023an, Tolosako biztanleriaren **%22,82k 65 urte edo gehiago zituen**, Gipuzkoako (**%23,66**) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (**%23,80**) batez bestekoa gaindituz.
- › 0-19 urteko biztanleria **% 19,65 da**, belaunaldi-ordezkapena ahula dela erakutsiz. Jaiotza-tasaren jaitsierak etorkizuneko **erronka sozioekonomikoak** sor ditzake, adin tarteen oreka aldatuz.

- › Emakumeen bizi-itxaropena handiagoa da, eta, ondorioz, adineko emakumeen kopurua nabarmen handiagoa da (2.621 emakume eta 1.931 gizon 65 urtetik gorakoen artean).
- › Familia gazteen aldeko politikak bultzatu behar dira, jaiotza-tasaren jaitsiera geldiarazteko.
- › Osasun- eta gizarte-arreta sistemaren berrantolaketa funtsezkoa izango da, adineko pertsonen beharrei modu integralean erantzuteko.

Zahartzearen feminizazioa eta mendekotasuna-indizearen igoera

- › 65 urtetik gorako emakumeen kopurua nabarmen handiagoa da gizonezkoena baino (2.621 emakume, 1.931 gizon), haien bizi-itxaropena handiagoa delako.
- › Emakumeen gainzahartze-indizea % 14,08 da, gizonezkoena berriz % 9,24, eta horrek adineko emakumeen mendetasun-arriskua handitzen du.
- › Gainzahartze-indizea igo egin da: 2014an %10,77 zen, eta 2024an %11,83ra iritsi da.
- › Emakume adinekoek mendekotasun-arrisku handiagoa dute, baina, aldi berean, familia barruko zaintza-lanak betetzen jarraitzen dute.

Familia-egitura aldaketa: gero eta pertsona gehiago bizi dira bakarrik

- › Tolosako etxebizitzan %28an pertsona bakarra bizi da, 1996tik ia bikoiztuz.
- › Familia handien kopurua jaitsi da, eta horrek zaintza-lanen banaketa zailtzen du.
- › Gipuzkoan, 80 urtetik gorako bakarrik bizi diren pertsonen %80 emakumeak dira, eta horrek isolamendu-arriskua eta mendekotasun-beharrak areagotzen ditu.
- › Zahartzea eta familia-sare tradizionalen murrizketa kontuan hartuta, beharrezkoa da zaintza-zerbitzu publikoak indartzea eta egokitzea.

Migrazioaren garrantzia: biztanleriaren egituren faktore garrantzitsua

- › Tolosako biztanleriaren % 12,2 atzeritar jatorrikoa da.
- › Atzeritar jatorriko gehiengoa 25 eta 44 urte bitartean dago (%49,4), eta horrek iradokitzen du migrazioa lan-aukerak bilatzeari lotuta dagoela.
- › Etorkizunean, migrazioak merkatuaren eta zaintza-sektorearen etorkizunean funtsezko rola izan dezake.

4. DIAGNOSTIKOA OSATZEKO ERABILITAKO METODOLOGIA

Zaintza-diagnostikoa burutzeko **metodologia integral eta multidimentsionala** diseinatu da, hainbat ikuspegi eta tresna uztartuz. **Ikuspegi feminista eta interseksionala** izan dira diagnostikoaren funtsa, genero-desberdintasunak eta botere-harremanak identifikatzeko, arreta berezia jarritz pertsonen egoera sozioekonomikoari, adinari, generoari eta jatorriari, besteak beste.

Horrez gain, tresna kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatu dira: **elkarriketa indibidualak, taldekoak eta entzute taldeak** osatu dira esperientziak, jakintzak eta iritziak jasotzeko, eta **inkesta estrukturatuak** datu kuantitatibo zehatzak eskuratzeko.

Metodologiaren ezaugarri nagusietako bat ikuspegi partekatua izan da, prozesu osoan komunitatea eta eragile nagusiak inplikatu. Horrela, identifikatutako behar, erronka eta irtenbideen gaineko eztabaida sustatuz eta herritarren bizipenak erdigunean jarritz.

Hau honela, ondorengo helburuei erantzutea bilatu da:

Helburu nagusia

Zaintzen diagnostiko bat egitea, tokiko zaintzen beharrak zein diren, nork konpontzen dituen, nola egiten duten eta zer den ezinbestekoa ulertzeko aukera emango duena, zaintzak bermatuko dituen tokiko eredu baterantz aurrera egin ahal izateko, zeinak ondorengoak kontuan hartuko dituen:

- › Guztiontzako zaintzak;
- › Zaintzen feminizaziorik eza;
- › Gizonen erantzunkidetasuna;
- › Eremu publikoaren, eremu pribatuaren eta komunitatearen arteko erantzunkidetasuna.

Helburu espezifikoak

- › Ikuspegi feminista eta interseksionala aplikatuz herrian zaintza arloaren analisia burutzea, kontuan izanik generoa, adina eta jatorria.
- › Gaur gaurko Tolosan zaintzari dagokionez herritar orok eskura dituen udal mailako baliabideen deskribapena eta hauen erabilpenaren inguruko analisia burutzea.
- › Udal egituratik haratago herri mailan dauden baliabideen deskribapena egin. Hau da, zaintza non eta nola jaso eta ematen den.

- › Zaintza arloan Tolosako herritarrek egun dituzten beharren inguruko analisia (udalak dituen baliabideen erabilizaile direnak eta ez direnak kontuan hartuz).
- › Zaintza arloan Tolosako herritarrek egun dituzten bizipen eta esperientzien inguruko analisia.
- › Etorkizunera begira Tolosan zaintza mailan egongo diren behar nagusien definizioa.

Diagnostiko prozesua osatzeko **lan egiturak** zehaztu dira, bai eta hauetako bakoitzaren funtzioak ere.

Talde eragilea

Udaleko sail hauetako politikariek eta teknikariek osatu dute: Komunitatea eta Gobernantza; Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna; Berdintasuna eta Tolosaldea Garatzenen Migrazio eta Aniztasun saila, Daiteke Gizarte Aholkularitzako lan taldearen lankidetzarekin.

Funtzioak:

- › Prozesu guztia koordinatu eta dinamizatu.
- › Landu eta erabakitzeko gaiak eta irizpideak identifikatzea, definitzea eta bideratzea.
- › Proiektuaren alderdi tekniko eta funtzionalarekin lotutako erabakiak hartzea eta eten gabeko jarraipena egitea.
- › Diagnostiko prozesuaren programazioa, egutegiaren inguruan aztertzea eta prozesuan parte hartzen duten pertsonak identifikatzea eta bideratzea, diagnostikoaren printzipioetara, helburuetara eta lan-ildo estrategikoetara betetzen direla bermatuz.
- › Sor litezkeen arazoaren aurrean irtenbideak aurkitzeko proposamenak egitea.

Sailarteko taldea

Kirola, Hirigintza, Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Gazteria eta Festak, Garapen ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismo, eta Azoka.

Funtzioak:

- › Sailean, zaintzari lotutako zein zerbitzu, programa eta ekintza martxan dauden identifikatzea.
- › Arloan, etorkizunera begira, Tolosan zaintzaren inguruko erronkak definitzea.
- › Diagnostikoaren lanketan zehar ekarpenak egitea.

- › Azterketa kualitatiboari begira herritar, eragile eta erakundeen identifikazioan laguntzea.

Lan-prozesua hainbat **fasetan** egituratu da, helburu espezifikoak betetzeko eta, aldi berean, taldeen arteko elkarreragina ahalbidetzeko. Fase horietan, lan-taldeak, eragile komunitarioak eta zaintzaileak modu koordinatuan aritu dira, esperientziak, ikuspegiak eta ezagutzak partekatuz:



1. FASEA: PROZESUAREN EGOKITZEA ETA LAN ETA PARTAIDETZA EGITURAK SORTZEA

2024ko ekainaren 6an eman zitzaion hasiera prozesuari, eta Talde Eragileak erabaki zuen abiapuntu gisa Tolosako Zaintza Ekosistema osatzen duten programak, zerbitzuak, azpiegiturak eta komunitateko eragileak identifikatzeko lanketa egitea. Horretarako, hainbat baliabide metodologiko erabili ziren, eta Sailarteko Taldearen lankidetzari esker, elementu horien identifikazioa osatu ahal izan zen. Horrez gain, informazioa beste maila batzuetan ere bildu zen, gaiaren inguruan sail guztiek duten gertutasuna baliatuz.

Erabilitako baliabide metodologikoak

1. Tolosako Zaintza Ekosistemaren identifikazio fitxa.
2. Talde eragile eta Sailarteko Taldearen arteko lan saioa, oinarritzko kontzeptuen lanketa, irizpideak eta mapaketaren definizioa zehazteko (2024ko uztailaren 10ean).

Irailaren 20an, Tolosako zaintza Ekosistemaren maparen azken bertsioa aztertu zen. Hau honela, ondorengo Siletako arduradunek hartu zuten parte diagnostiko prozesuan:

Udal sailletako arduradunak
Komunitatea eta gobernantza
Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna
Berdintasuna
Tolosaldea Garatzenen Migrazio eta Aniztasun saila
Kirola
Hirigintza
Euskara eta Hezkuntza
Kultura
Gazteria
Garapen ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismo, eta Azoka

2. FASEA: BEHAKETA

Mapaketa lanetan oinarrituta, behaketa fasean garatuko ziren jarduerak zehaztu ziren. Alde batetik, informazio kuantitatiboa biltzeko fitxa diseinatu zen, eta Talde Eragileko eta Sailarteko Taldeko kideen laguntzaz informazioa bildu zen. Bestetik, lanketa kualitatiborako irizpideak definitu ziren, herritarren eta eragile sozialen inplikazioa ardatz hartuko zuten baliabide metodologikoak eta egiturak sortuz. Helburua, zaintza-sistemaren errealitatea sakon aztertzeke eta ikuspegi anitzak jasotzeko oinarriak ezartzea izan zen:

BANAKAKO EDO TALDEKO ELKARRIZKETAK:

-Zaintza azpiegitura, programa edo zerbitzuetako kudeaketa -

- Zehaztutako zaintza dimentsioekin lotura zuzena duten zerbitzu edo programak eskaintzen dituzte.
- Gertutasuna dute adostu diren adostu diren zaintza dimentsion errealitatea
- Informatzaile giltzarri dira Tolosako Zainketen arloan aurki daitezkeen aurkera eta erronken identifikazioan.

ENTZUTE TALDEAK:

-Familia inguruneke zaintzaileak eta Etxeko eta zainketa zerbitzuetako langileak-

- Zaintzaileen esperientzia, iritziak eta beharrak ezagutzea ahalbidetzen dute.
- Zehaztutako zaintza dimentsioekin lotura zuzena dute.

Komunitateko eragileekin⁷ zaintza-dimentsioen eta nolakotasunaren araberako talde-elkarriketak egitea erabaki zen. Elkarriketa hauek azaro eta abenduan zehar burutu ziren, hala ere, hainbat arrazioen ondorioz, gonbidatutako guztiek ezin izan ziren bertaratu. Parte hartu ezin izan zuten ordezkariekin, banakako elkarriketak antolatu ziren. Ondorengo taulatan parte-hartzaileak zeintzuk izan ziren jasotzen da:

Adinekoak eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak

- Iurreamendiko Adinekoen Egoitza
- Madre María Josefa Eguneko Zentroa
- Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua
- Uzturre Asistentzia Gunea
- Udaltzaingoa (Giltzen gordailua)
- Adinkide
- Nagusilan
- Harizpe Erretiratuen eta pentsiodunen Elkarte
- AFAGI Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerre edo beste Dementziaren bat duten Pertsonen Elkarte

Haurrak eta adingabeak

- Haurren Hiria programa
- Haurrekin, nerabeekin eta beren familiekin komunitate mailako esku-hartze programa
- Gazte Topaguneko hezitzaileak
- Jatorkin Elkarte
- Kirikiño Aisialdi Taldea
- Atsedena Aisialdi Taldea
- Gorosti Guraso Elkarte

Hezkuntza komunitatea

- Samaniego ikastetxea
- Orixe ikastetxea
- Laskorain ikastola
- Herrikide ikastetxea
- Inmakulada Lanbide Ikastola
- Haurreskola

Aniztasun funtzionala

- Goyeneche Fundazioa
- Gurutze Gorria
- Atzegi Adimen Desgaitasuna duten Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Elkarrekin

⁷ Gonbidapenak eragile gehiagori ere bidali zaizkie, betebeharrak, agendako ezintasunen edo bestelako arrazoiengatik zenbaitzuk ez dute parte hartu.

– AransGI Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkarte – Ortzadar Adimen-Muga duten Pertsonen eta Familien Elkarte – Sutargi – Uzturre Asistentzia Gunea
Zaintzaileak
– Andragorako Kafe Tertulia-Aholku Sarea – Ikasketen Homologazio Zerbitzua – Etxeko Lanari Buruzko Aholkularitza Juridikoa – Etxeko Lan Programa – Buru-Bihotzez – Bihotzetik – AFAGI Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste Dementziaren bat duten Pertsonen Elkarte
Mugimendu feminista eta emakumeen elkarteak
– Tolosako Asanblada Feminista – Oneka Emakume Pentsionistak
Osasun sistema
– Tolosako Anbulatorioa – Asuncion Klinika – Tolosako Osasun Mentaleko Zentroa

Entzute-taldeak osatzeko 4 topaketa osatu ziren abenduaren 2an eta 4an. Topaketa hauen bitartez familia inguruneko zaintzaile eta etxeko eta zaintza zerbitzuetako langileekin biltzea bilatu zen, honakoen esperientzia, jakintzak, iritzi eta beharrak jasotzeko. Ondorengoak izan dira gerturatu zirenen profilak:

Zaintzaileak
Emakumea, 60 urte inguru mendekotasun gradu altuko amaren zaintzaile nagusia, egun egoitza bateko erabiltzailea.
Emakumea, 72 urte, menpekotasun egoeran dagoen amaren zaintzaile nagusia, senarrarekin partekatua.
Emakumea, 59 urte, menpekotasun egoeran dauden aita eta ama zaintzen ditu, zaintzak familiako kideekin partekatzen ditu eta etxeko zaintzaile egoiliar baten laguntza dute.
Etxeko zaintza langilea egoiliarra duela 2 urte, Hondurasekoa.

Bildutako informazioaren konfidentziasuna ahal den neurrian bermatzeko, partaideei, taldeei eta erakundeei kode bat esleitu zaio. Kasu batzuetan eta gaur egun, pertsona identifikatu badaiteke ere, parte-hartzaileen identitatea babestu eta informazioa antolatu eta sistematizatzea dira honakoaren helburu nagusiak.

Zaintza diagnostikoaren informazio bilketa eta parte-hartze prozesuaren laburpen kuantitatiboa

Banakako eta taldeko elkarrizketa monografikoak

Guztira 9 talde elkarrizketa monografiko osatu dira:

- › Pertsona nagusiak ema menpekotasun egoeran dauden pertsonen zuzendutako zaintza baliabideak.
- › Aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzendutako zaintza baliabideak.
- › Haur eta nerabeei zuzenduta azpiegiturak eta programak.
- › Hezkuntza komunitatea.
- › Aisialdi taldeak.
- › Osasun sistema.
- › Zaintzaileei zuzendutako zerbitzu eta programak.
- › Zaintzaileei zuzendutako zerbitzu eta programak garatzen dituzten elkarteak.
- › Mugimendu feminista eta emakumeen elkartea.

Guztira banakako 17 elkarrizketa osatu dira.

Entzute guneak

Guztira zaintza diharduten 4 emakume gerturatu dira.

Elkarrizketa eta entzute taldeetan parte hartzaileak: 63 pertsona, 41 emakume eta 12 gizon.

3. FASEA: KONTRASTE ETA PROPOSAMENEN GARAPENA

Aurretik jasotako informazioa aztertu ondoren, martxoan zehar kontraste eta proposamenen garapenerako prozesua gauzatu zen. Fase honen helburu nagusia identifikatutako ondorioak egiaztatzea eta hobekuntza ekarpenak jasotzea izan zen.

Fase honetan zehar egindako jarduera nagusiak honako hauek izan ziren:

- › **Kontraste-saioak** interes taldeekin, diagnostikoaren emaitza nagusiak aurkezteko eta horiek baliozkotzeko eta hobetzeko ekarpenak jasotzeko. Zehazki, honako saioak egin ziren:
 - Talde Eragilearekin saioa martxoaren 12an.
 - Sailarteko taldearekin saioa martxoaren 17an.

4. NON ZAINZEN DA TOLOSAN?

Zaintza-sistema familista batean, non, **familiek arreta- eta asistentzia-erantzukizunen zati handi bat beren gain hartzen duten**, funtsezkoa da erakundeek eta komunitateak laguntza-estrategiak sortzeko betetzen duten zeregina aztertzea. Askotan, estrategia horiek familien eta zaintzaileen ekimen propioetatik sortzen dira, eta horrek azpimarratzen du aliatu komunitarioek garatutako estrategien aitortzea eta indartzearen garrantzia.

Non eta nola zaintzen den aztertzeko, lehen urratsa da Tolosako zaintza ekosistema publikoa eta komunitarioaren azterketa egitea. *Nortzuk osatzen dute ekosistema hau? Zer eragile instituzional, sozial eta komunitariok laguntzen diete familiei, zaintzaileei eta zainketak behar dituztenei, nola zaindu nahi duten eta nola zainduak izan nahi duten erabakitzeko eskubidea gauzatzean? Zer estrategia garatzen ari dira laguntza-sistema eraginkor eta iraunkor bat bermatzeko?* Galdera horiei erantzutea funtsezkoa da **dauden zaintza-mekanismoak ulertzeko eta zaintza-eredu berdinzaleagoak eta feministagoak eraikitzeko**, erantzunkidetasuna, justizia soziala eta zaintza bizitzaren funtsezko zutabe gisa aitortzea bermatzeko.

Ezin da ukatu zaintza-ekosistema aztertzea erronka handia dela, **ez baitago modu bakar bat zainketak zer diren eta zaintza horiei eusten dien komunitatea nola definitzen den ulertzeko**. Gainera, zaintzaren eremua zabala da, eta hainbat dimentsio hartzen ditu. Hori dela eta, jakitun gara **estrategia batzuk gure azterketatik kanpo gera daitezkeela** eta zaintzaren beste esparru batzuetan ekimen ugari daudela, **zainketen horniduran eta iraunkortasunean funtsezko rola betetzen dutenak**.

Atal honetan, Tolosako zaintza-ekosistema aztertu da, udalerrian eskura dauden baliabide nagusiei ikuspegi sistematizatua eman nahi izan diegu. Informazioa **Tolosako Udaleko sail ezberdinen arduradunen lankidetzaren** bidez jaso da, bai eta eragileekin osatutako talde- eta bakarkako elkarrizketen bidez informazio gehigarria eskuratuz.

Identifikatutako ekimenek hainbat harreman-maila dituzte Udalarekin eta beste esparru batzuekin, **hala nola komunitatearekin**. Lehen aipatu bezala, tokiko politikak etengabe elkarreraginean daude beste lurralde-eskala batzuetan jarduten duten dinamikekin (maila anitzeko elkarreragina), eta horrek funtsezko garrantzia du hainbat udalerritan errepikatzen diren errealitateak ulertzeko. Izan ere, **tokiko espazioek askotan testuinguru zabalagoetako dinamika orokorrak islatzen dituzte**.

Tolosako zaintza-ekosistemaren azterketa erakundeek eta eragile komunitarioen arteko elkarreraginean oinarritzen da, kasu batzuetan kudeaketa mistoko ereduen bidez. Eragile horiek udalerriko zaintza-beharrei erantzuteko zerbitzuak, programak eta azpiegiturak antolatzeak ardura dute.

Tolosako zaintza ekosistema publiko komunitarioaren mapa (I. eranskinean).

udal-mailako hausnarketa-prozesu integral baten ondorioz identifikatutako programen, zerbitzuen, politiken eta espazioen zerrenda xehatua aurkezten da, zaintzak premia unibertsal gisa ulertzean oinarrituta.

Diagnostiko honen helburu nagusia aldez aurretik zehaztutako **zaintzaren dimentsioekin lotutako alderdiak aztertzea** da. Hala ere, etorkizuneko gogoeta- eta ekintza-prozesuetarako oinarri izango den ikuspegi orokorragoa ere eskaini nahi da. Ikuspegi horrek aukera ematen du, zainketen hornitzaile edo bideratzaile gisa jarduten duten (bazterkeria edo gizarte-bazterketaren arriskuan eragiteko edo indarkeria matxistaren prebentzioa eta artatzea helburua dutenak adibidez) edo jardun dezaketen (zainketen ikuspegitik garatu ez badira ere, etorkizunean esperientzia zaintzaile bihur daitezkeenak, horretarako neurri egokiak ezartzen badira), pertsonak ere kontuan hartzeko. Beraz, horiek ere jaso dira adierazitako **Tolosako zaintza ekosistema publiko komunitarioaren mapa (I. eranskinean).**

Gogoeta hori honako printzipio hauek gidatu dute:

- › **Zaintzak premia unibertsala dira** → Pertsona guztiok behar ditugu zaintzak bizitzako etapa guztietan.
- › **Zaintzaren zeharkakotasuna** → Politika publiko guztiek, zuzenean edo zeharka, zaintzetan eragina dute.
- › **Ikuspegi komunitarioaren garrantzia** → Tokiko elkartasunaren eta elkarrekiko zaintzaren funtsezko rola aitortzea.

Hau honela, Tolosako zaintza-ekosistemaren mapaketa eragile-bultzatzailearen (erakunde publikoak edo erakunde komunitarioak) eta baliabide motaren⁸ arabera egituratu da:


- › **Zuzenak:** zainketak erraztekoa baliabide ukigarriak eskaintzen dituzten; zaintza zerbitzu, programa, azpiegitura eta beharrak finantziatzeko laguntzak.
- › **Sinbolikoak:** arauak, balioak eta pertzepzio sozialak aldatzea bilatzen dutenak; genero berdintasuna, justizia soziala, zaintza sareak eta zaintza lanaren balioaren aitorpena sustatuz besteak beste. Horiek ez dira nahitaez ukigarriak baina berebiziko garrantzia dute eraldaketa kultural eta sozialean.
- › **Egiturazkoak:** udal-ekintza arautu eta norabidea ezartzen dutenak, eta komunitate eta bestelako eragileekiko, zaintza zuzenean edo zeharka lantzeko lankidetzak guneak.

⁸ Motaren arabera banaketa Institutuzio publikoen konpetentzia diren baliabideetan osatu da. Izan ere erakunde komunitarioen kasu, inizatiba konkretu bakar bat jaso ez denez, zailagoa da hauen jarduna motaren arabera banatzea.

Garrantzitsua da nabarmentzea ekimen bakar bat ere ez dela beste bat baino garrantzitsuagoa zaintza-ekosistemaren barruan. Erabilitako sailkapenak sistematizazio-irizpide bati erantzuten dio, mapari koherentzia emateko eta informazioa biltzeko gida izateko, inolako hierarkiarik ezarri gabe eta ekimen bati balioa kendu gabe. Ekimen guztien arteko oreka funtsezkoa da sistemaren funtzionamendu egokirako.

Gainera, zuzeneko gisa sailkatutako baliabide batek funtzio sinbolikoak eta egiturazkoak ere izan ditzake, baita baliabide sinboliko batek zuzeneko funtzioak bete ditzakeen bezala. Egia esan, ekimen mota guztiak elkarren osagarri eta gainezarri daitezke, eta horrek zaintza-sarea aberastu eta komunitatean duen eragina indartu egiten du.

Irudia: Tolosako ekosistema publiko eta komunitarioaren antolaketa-irizpideak



6. ADINEKOAK ETA DESGAITASUN EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

6.1. Sarrera

Aldaketa sozioekonomikoek eta soziodemografikoek arreta eta prebentzio beharren eta eskaeren igoera nabarmena ekarri dute aztertuko den dimentsioaren baitan. Biztanleriaren zahartzea —bizi-itxaropenaren igoerak eta jaiotza-tasaren beherakadak eraginda—, honakoarekin lotutako gaixotasun kronikoen eta desgaitasunen igoerarekin batera, erronka gero eta handiagoa suposatzen du zaintza sisteman. Gainera, familia-ereduak aldatu dira: familia-unitateak txikiagoak dira, emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzeak eta gizon askok zaintza-rolak ez hartzeak zaintza sare tradizionalak murriztu ditu. Horri gehitu behar zaio hiri-geografiaren aldaketen fenomenoak, bizileku, lan, aisialdi eta prestakuntza guneen arteko distantziak areagotu dituenak, eguneroko antolaketa zailduz. Testuinguru honetan, adineko pertsonen, desgaitasuna edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta ematea eta haien autonomia sustatzea gizarte-politiken erronka nagusietako bat bilakatu da.

6.1.1. Autonomia pertsonalaren sustapena eta mendekotasunaren arreta sistema

2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legea, Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonak Artatzeko, erreferentziazko esparru nagusi bihurtu zen aipatutako errealitateari erantzuteko, gizarte-zerbitzuen eta prestazioen ikuspegia sakonki eraldatuz. Haren planteamenduak sistemaren berrantolaketa eskatzen zuen, hiru zutabe nagusitan oinarrituta: autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen jarduna, familien funtsezko rola —bereziki emakumeek beren gain hartutako "laguntza informala"⁹ izenekoa— eta hirugarren sektorearen ekarpena. Eragile horiei guztiei aitortzen zitzaizkien zaintza-sistemen sostengu gisa duten eginkizun nagusia, mendetasun-egoeran dauden pertsonak eta haien familiak artatzeko eta bazterketa-arriskuen prebentziorako.

Lege honen helburua **Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistema berreraikitzea** zen, egoera horretan dauden pertsonak artatzeko oinarritzko baldintzak eta eskubideak ezarriz. Ildo horretan, mendekotasun-egoeran dauden

⁹ 39/2006 Legearen 2. artikulua arabera, "Zaintza ez-profesionalak edo informalak" honela ulertzen dira: mendetasun-egoeran dauden pertsonen haien etxebizitzan ematen zaien arreta, familiako kideek edo inguruko pertsonen emana.

pertsonen —adinagatik, desgaitasunagatik edo beste hainbat arrazoiengatik— eta haien zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzea zuen xede, arreta emateko baliabide eta zerbitzuen marko egonkor bat bermatuz. Horrez gain, ahal zen guztietan familia-ingurunean egoteko aukera sustatzen zuen, eta bestela, baliabide egokietara iristeko eskubidea bermatzen zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoan, 39/2006 Legearen printzipioak **Gizarte Zerbitzuen Legean (12/2008)** garatu ziren, ongizate-estatuaren laugarren ardatz gisa definituz. Eredu berri honen ardatz nagusia gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboaren aitortza izan zen, hiritartasun-eskubide gisa ezarria. Horrela, Euskal Autonomia Erkidego osoan laguntza-sare asistentzial komun bat eratzea bilatzen zen, katalogo ofizialean jasotako prestazioak hiru lurralde historikoetan baldintza berdinetan eskaini eta jasotzeko eskubidea bermatzeko.

Prestazioak hiru multzotan sailkatzen dira –ekonomikoak, teknikoak eta teknologikoak edo materialak–, eta horien artean daude, besteak beste, etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak, aldi baterako egonaldiak edo telelaguntza. Era berean, **185/2015 Dekretuak Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren zerbitzu eta prestazioen multzoa** arautu zuen, baliabideen kudeaketa eta administrazio publiko ezberdinen betebeharrak zehaztuz, gizarte-beharrizanei erantzun bidezkoa eta eraginkorra emateko.

Eskumenak hainbat erakunderen artean banatuta daude: Eusko Jaurlaritzak araudi-esparrua eta baliabideen koordinazioa bermatzen ditu; foru aldundiek zerbitzu eta prestazio espezializatuak kudeatu eta ebaluatzeko eskumena dute; eta udalek, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen bitartez, hurbileko zerbitzuen kudeaketa, zerbitzu eta prestazio espezializatuen bideratzea, bestelako eragileekin koordinazioa eta sentsibilizazio eta prebentzio programak garatzen dituzte, herritarren beharrei erantzun eraginkorra emateko.

Azken hauek dira herritarrentzat gizarte-zerbitzuen sistemaren sarbide nagusia, hasierako informazioa, balorazioa eta diagnostikoa eskaintzeaz gain, mendetasun edo desgaitasun egoeran dauden pertsonak eta haien familiak zerbitzu eta prestazio egokienetara bideratu eta kasuen jarraipena egiten baitute, informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzuaren bidez.

Udal mailan, **Tolosako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak dira baliabide eta prestazio gehienetarako sarbidea** –izan udaletik, Foru Aldunditik edo Eusko Jaurlaritzatik datozenak–, **Informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio Zerbitzuaren bitartez** eta, aldi berean, hirugarren sektoreko eta elkarteen baliabideei buruzko informazioa eskaintzen dute, haiekin lankidetzan arituz, sistema hurbil eta eraginkorra bermatzeko.

6.1.2. Definizioak eta balorazioak

Aurrez aipatutako lege-esparruak zaintza-eskubidearen hedapenerako ateak ireki ditu pixkanaka, eta, aldi berean, autonomiaren eta mendekotasunaren kontzeptuak zabaldu ditu. Hala ere, ez ditu bere baitan jasotzen autonomia faltaren kausa guztiak, ezta bizitzako une guztietan behar ditugun zaintza guztiak ere. Baina, *zer da mendekotasuna?* 39/2006 Legearen arabera, "adinaren, gaixotasunaren edo desgaitasunaren ondorioz autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsoriala falta edo galdu duten pertsonen egoera iraunkorra da, eta eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsona batzuen laguntza edo sostengu esanguratsua behar dute. Desgaitasun intelektuala edo buruko gaixotasuna dutenen kasuan, autonomia pertsonala lortzeko laguntza behar dute".

Lege-esparru horrek, baldintza jakin batzuen arabera –bereziki mendekotasun-mailaren arabera–, pertsona guztiei prestazio eta zerbitzu jakin batzuetarako sarbide unibertsala bermatzen die. Mendekotasun-mailak 174/2011 Errege Dekretuak (2011ko otsailaren 11koa) eta 39/2006 Legeak ezarritako balorazio-baremoaren arabera zehazten dira. Horren arabera, laguntzaren intentsitatearen arabera, hiru gradu bereizten dira:

- › I. gradua: mendekotasun moderatua.
- › II. gradua: mendekotasun larria.
- › III. gradua: mendekotasun handia.

Puntu honetan, ezinbestekoa da **azpimarratzea desgaitasuna eta mendekotasuna ez direla sinonimoak**. Badira aniztasun funtzionala duten pertsonak, mendekotasunik ez dutenak, baina beren autonomia sustatzeko eta eskubideak erabat baliatzeko baliabide espezializatuak edo irisgarritasun-neurriak behar dituztenak. Behar horiek ez dira mendekotasun gisa ulertu behar, baizik eta inklusio soziala eta aukera-berdintasuna bermatzeko baldintza gisa. Horrenbestez, ezinbestekoa da neurri indibidualetatik harago joatea eta gizarte-bazterketa eragiten duten testuinguru sozialak aldatzea. Horretarako, beharrezkoa da gizarte-esparru bat garatzea (ekonomikoa, laborala, politikoa, etab.) desgaitasunak prebenitzeko eta dagoeneko existitzen direnei berdintasunaren, eskubideen, aitorpen pertsonalaren eta bizitza duinaren ikuspegitik heltzeko.

1/2013 Legea, azaroaren 29ko **Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua**, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko araudia bateratu eta eguneratzen du, % 33 edo handiagoko desgaitasun-maila dutenentzat. Legearen helburu nagusia da **aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta irisgarritasun unibertsala bermatzea**, desgaitasuna duten pertsonak beren eskubideak benetan eta eraginkortasunez baliatu ahal izan ditzaten, gainerako herritarrekiko baldintza berdinetan. Legeak eskubide horiek hainbat arlotan

bermatzen ditu, besteak beste, hezkuntzan, enpleguan, ondasun eta zerbitzuetarako sarbidean eta bizitza independentean, autonomia pertsonala, komunitatean inklusioa eta edozein diskriminazio mota desagerraraztea sustatuz.

Horrela, legeak desgaitasuna honela definitzen du **2. artikuluan**:

"Desgaitasuna da aurreikus daitezkeen urritasun iraunkorrak dituzten pertsonen eta edozein motatako oztopen arteko elkarreraginaren ondorioz sortzen den egoera, zeinak pertsona horien parte-hartze osoa eta eraginkorra mugatzen edo eragozten duen gizartean, gainerako pertsonekin baldintza berdinetan."

888/2022 Errege Dekretuak (urriaren 18koa) desgaitasun-mailaren aitortza eta kalifikazioa egiteko prozedurak ezartzen ditu. Bertan ezarritako baremoen arabera lortutako puntuazioaren arabera, baloratutako pertsonak desgaitasuna dutenentzako zerbitzu eta prestazio espezifiko batzuetara sarbidea izan dezake, horretarako ezarritako gainerako baldintzak betetzen baditu.

Bestalde, **adineko pertsonen kolektiboan** ere aurkitzen dira mendekotasun-egoerak, baina baita **autonomia osoz bizi diren pertsonak ere**. EAEko **Gizarte Zerbitzuen II. Estrategia** Planean jasotzen den bezala, pertsona nagusi gehienak autonomoak dira; hala ere, arreta mendekotasun-egoeran daudenengan zentratzen da, baina garrantzitsua da **adinekoekin lan egitea, autonomia mantentzen dutenetik bertatik**. Horregatik, zaintzaren dimentsioak hainbat behar eta errealitate biltzen ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat estrategia daude **adinekoen eskubideei eta erronka demografikoei erantzuteko**. Adinekoekiko Euskal Estrategia 2021-2024 planifikazio gerontologikoaren oinarria da, eta autonomia-mailan jarduteko hainbat ildo identifikatzen ditu. Nabarmentzekoak dira:

- › Bakardadea.
- › Adinkeria.
- › Ingurune lagunkorrak.
- › Autonomia sustapena eta prebentzioa.
- › Zahartze aktibo eta osasungarria.
- › Belaunaldien arteko elkartasuna.
- › Bizialdi osoko ikaskuntza.
- › Epe luzeko zaintzak eta etxebizitza.

Horrez gain, **adineko pertsonen profil aniztasuna eta epe luzeko zaintza-sistemak eskari berrietara egokitzeko beharra** ere azpimarratzen dira. Gipuzkoan, estrategia espezifikoak ere badaude, hala nola:

- › Gipuzkoako Agenda 2020/30: Gizarte Politiken Trantsizioa.
- › Adinberri Fundazioaren ekimenak, adinekoen zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko.
- › Hariak: Gipuzkoako Estrategia bakardadeen aurka.

6.1.3. Zaintza politiken korapiloak¹⁰

Testuinguru honetan aurrerapenak egin diren arren, oraindik ere zenbait aspektuk eztabaida eta kritika sozialak eragiten dituzte. Nabarmendu beharreko puntuak honako hauek dira:

- › Mendekotasuna artatzeko sistema publikoaren bidez arautzen eta finantzatzen da, baina ez osotasunean. Eskubide gisa aitortzen diren hezkuntza edo osasun sistemen kasuan ez bezala, erabiltzaileek zerbitzuen ordainketan parte hartu behar dute –maila handiagoan edo txikiagoan–. Horrek zalantzan jarri du ongizate-estatuaren laugarren ardatzaren aitortza.
- › Zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko aukera hainbat irizpideren arabera baldintzatuta dago, mendekotasun-mailaren balorazioaz gain, adina edo naziotasuna kontuan hartzen dira. Kasu guztietan ez bada ere, Espainiako Estatuan edo Europar Batasunean legezko egoitza izatea eta lurraldean gutxienez bost urtez bizitzea eskatzen da; horietako bi eskaera egin aurrekoak izan behar dira. Baldintza honek jatorriaren arabera diskriminazioa eragin dezake eta oinarritzko eskubideetara sarbidea mugatu.
- › Zerbitzu sozialak eta prestazio ekonomikoak araututa dauden arren, azken hauek garapen handiagoa izan dute zerbitzuen aldean. Adibidez, senideei ematen zaien zaintzarako prestazioa gehien ematen den laguntza da, nahiz eta legeak salbuespentzat jo. Jasotzaileen gehiengoa emakumeak dira, eta nahiz eta eskubide batzuk aitortzen dizkien (adibidez, gizarte-segurantzaren kotizatzea), zaintza-lana oraindik ere familia-rolaren luzapen gisa ikusten da, ez profesionalizazio aukera gisa. Horrek iradokitzen du zaintzaren balio ekonomikoa behar bezala ez dela aitortzen.
- › Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun-egoerak prebenitzeko zerbitzuek garapen mugatuagoa izan dute. Bizi-kalitatea hobetzeko prestakuntza zaintzaileei eta zaintza-beharrak dituzten pertsonei, aisialdia eta jarduera sozialak sustatzeko programak, osasun mentala indartzeko baliabideak edo egokitzen teknikoak eskaintzea ez da behar bezainbeste garatu.

¹⁰ Aranguren et al., 2023. Lleó, Santillán, López eta Pérez Orozco, 2012.

- › Eredu asistentzialean oinarritutako zaintza-ereduen gabeziei aurre egiteko, joera dago behar hori esparru pribatuan asetzeko. Horrek eragin du sektore pribatuak nagusitasuna izatea zaintza-hornikuntzan, eta, ondorioz, egoera ekonomiko larrienean ez dauden herritarrak eta zaintzaileak babesgabetasun egoeran gera daitezke.
- › Zerbitzuak hedatzeko konpromisoa behar bezala ez da gauzatu, eta horien sarea oraindik ere eskasa da, bereziki desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzu espezializatuak dagokienez.
- › Zaintza-beharrak asetzeko desberdintasun handiak daude autonomia-erkidegoen artean eta baita barruan ere. Horrez gain, zaintza behar duten pertsonen ingurune soziala kontuan hartzeko irizpideetan alde nabariak daude.

6.1.3.1. Mendekotasunaren eta desgaitasunaren legearen etorkizuneko eraldaketa

Azken urteotan, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzako arreta-ereduak garatu dira, eta 39/2006 Legeak eta 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak zerbitzuak eta prestazioak bermatzeko egitura ezarri dute. Hala ere, egungo testuinguruak erronka berriak planteatzen ditu, eta horregatik, lege-esparruan aldaketak aztertzen ari dira.

Gobernu zentralak onartu berri duen lege-aurreproiektuak mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretan hobekuntzak proposatzen ditu, hala nola prestazioen eskuragarritasuna handitzea, baliabideak optimizatzea eta familien eta zaintzaileen laguntza indartzea.

Gaur egun, erreforma oraindik eztabaidan dago, baina onartuz gero, aldaketa esanguratsuak ekarriko lituzke mendekotasunaren eta desgaitasunaren arretan.

6.1.4. Egungo egoera eta etorkizuneko joeren azterketa¹¹

Sarrera gisa, testuinguru demografikoa aztertuko da, eta Tolosako egoerari buruzko joerak eta eskuragarri dauden datuak deskribatuko dira. Horrek lagunduko du zaintza-dimentsioan aztertzen den biztanleriaren behar desberdinen prebalentzia aurreikusten.

¹¹ Atal honetan jasotako datuak hainbat iturritatik bildu dira. Iturri bakoitzaren metodologia desberdina denez, datuetan zenbait alde edo desberdintasun egon daitezke. Horregatik, datuen arteko gurutzaketatik ateratako emaitzak orientazio orokor gisa ulertu behar dira, eta ez interpretazio zehatz gisa.

Azterketa hau egiteko, **hiru iturri** nagusi hartuko dira kontuan:

- › Tolosako Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emandako informazioa.
- › Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa (2024-2030).
- › Behagiren datu-basea.

6.1.4.1. Mendekotasuna aitortua duten biztanleak Tolosan


Tolosan, **mendekotasun-graduren bat aitortuta duten 1.091 pertsona** daude. Horietatik **701 (% 64) emakumeak** dira eta **390 (% 36) gizonak**.

2018ko datuekin alderatuta, **mendekotasuna aitortuta duten pertsonen kopuruak jaitsiera arina izan du**; orduan, **1.096 pertsona** ziren, horietatik **686 (% 62) emakumeak** eta **410 (% 38) gizonak**.

Joera orokorrak ez du aldaketa esanguratsurik erakusten mendekotasuna aitortuta duten biztanleen kopuruan. Hala ere, **genero-arrakala nabarmena da**, izan ere, **emakumeek gizonak baino ehuneko handiagoan aurkezten dute mendekotasun-egoera** aztertutako aldi osoan zehar.

2023an, Tolosako biztanleriaren % 5,4k¹² mendekotasun-graduren bat aitortua zuen, emakumeen % 6,7k eta gizonen % 4k.


2018an, berriz, biztanleriaren % 5,5k zuen aitortuta mendekotasun-graduren bat, emakumeen % 6,7k eta gizonen % 4,2k.



¹² Datu hauek mendekotasun balorazioa duten pertsonen kopuruari dagozkio, eta, beraz, ez dute ezinbestean kontingentzia horren prebalentzia zehatz-mehatz islatzen.


Adinaren arabera azterketak erakusten du mendekotasuna aitortua duten pertsonen artean 80 urtetik gorakoek pisu nabarmena dutela. 0-19 urte bitartekoek guztizkoaren % 4 osatzen dute, 80 urtetik gorakoek, berriz, % 60.

2018ko adinaren arabera banaketak ere antzeko proportzioak erakusten ditu, aldaketa esanguratsurik gabe.



Tolosako 80 urtetik gorako biztanleria osoaren eta mendekotasuna aitortua duten pertsonen datuak gurutzatuta, ondoriozta daiteke talde horretako pertsonen % 48k mendekotasuna aitortua dutela udalerrian¹³ (Tolosan, 80 urtetik gorako eta mendekotasuna aitortua duten 661 pertsona daude).

Generoaren arabera, emakumeen kasuan, zenbatekoa % 54koa da, eta gizonen kasuan, berriz, % 36koa.





¹³ Norberak egina INE-ko Errolda jarraituaren estatistika (2011-2022); Biztanleriaren urteko zentsua-tik lortutako datuen bitartez. 80 urte edo gehiago dituen biztanleria Tolosan: 1.378 (emakumeak: 908 eta gizonak: 470).

Tolosan, 80 urtetik gorako 10 pertsonetatik 5ek mendekotasun-egoera aitortua dute.


- › Mendekotasuna aitortua duen biztanleriaren batez besteko adina: 76 urte.
- › Mendekotasuna aitortua duten emakumeen batez besteko adina: 81 urte.
- › Mendekotasuna aitortua duten gizonen batez besteko adina: 67 urte.

Adinaren eta generoaren arabera aitortutako mendekotasunaren proportzioan bi joera nagusi nabarmentzen dira: **emakumeen proportzioa progresiboki handitzen da adinarekin, puntu gorena 80 urtetik gorako taldean (% 74) lortuz**, eta, aldiz, **gizonen kasu mendekotasuna adin-tarte gazteagoetan da altuagoa (0-19 urtekoetan % 79 eta 20-39 urtekoetan % 66)**. 2018ko datuekin alderatuta, **80 urtetik gorako emakumeen mendekotasun-proportzioa egonkor mantendu da (% 73, 2018an)**. Eredu honek **bizitza-itxaropenaren eta generoaren eragina** islatzen du mendekotasunaren banaketan.




Mendekotasun-graduen banaketari dagokionez, Tolosan I. gradua aitortua duten 451 pertsona daude (255 emakume eta 196 gizon), II. gradua duten 346 (233 emakume eta 113 gizon) eta III. gradua duten 294 (213 emakume eta 81 gizon).


2018an, kopuruak antzekoak ziren: I. gradua 450 pertsonak (% 41), II. gradua 319k (% 29) eta III. gradua 327k (% 30) zuten. 2023an, I. gradua % 41ean mantendu da, baina II. gradua % 29tik % 32ra igo da, eta III. gradua % 30etik % 27ra jaitsi da, mendekotasun larriena duten pertsonen kopuruaren jaitsiera islatuz.



Mendekotasun-gradua eta generoa kontuan hartuta, desberdintasun nabarmenak ageri dira. Emakumeen banaketa orekatuagoa da: % 36 I. graduko mendekotasunean, % 33 II. gradukoan eta % 30 III. gradukoan. Aldiz, gizonen artean I. gradua nabarmen nagusitzen da (% 50), eta mendekotasun larriagoak (II. gradua % 29 eta III. gradua % 21) proportzio txikiagoan daude.

2018ko datuekin alderatuta, joerak antzekoak dira. Emakumeen artean, II. graduko mendekotasuna zertxobait txikiagoa zen (% 28) eta III. gradukoa handiagoa (% 34), I. gradua egonkor mantenduz (% 38). Gizonen kasuan, I. graduko mendekotasuna apur bat txikiagoa zen (% 47), eta III. gradukoa zertxobait handiagoa (% 23), II. gradua (% 30) ia aldaketarik gabe mantenduz.





Mendekotasuna duten pertsonen artean ohikoena 76 urteko emakume bat da, I. graduako mendekotasuna aitortua duena. Aldiz, gizonen artean III. graduako mendekotasuna dutenek dute ordezkari txikiena.


Mendekotasun-gradua eta generoaren arabera banaketa:

- > I. gradua: emakumeak % 23, gizonak % 18.
- > II. gradua: emakumeak % 21, gizonak % 12.
- > III. gradua: emakumeak % 19, gizonak % 7.

Batez besteko adina, graduaren eta generoaren arabera:

- > I. gradua: emakumeak 76 urte, gizonak 64.
- > II. gradua: emakumeak 83 urte, gizonak 69.
- > III. gradua: emakumeak 85 urte, gizonak 72.

Grafikoek erakusten dutenez, **Tolosako mendekotasun-mailen bilakaeran aldaketa nabarmenak izan dira 2008 eta 2023 bitartean**. I. gradua pixkanaka hazi da, 2020an puntu gorena lortu arte, eta ondoren apur bat jaitsi da. II. gradua egonkor mantendu da, nahiz eta 2023an hazkunde arina izan duen. Aldiz, III. gradua nabarmen jaitsi da 2017tik aurrera. Horren arrazoiak balorazio-irizpideen aldaketak edo bizi-kalitatearen hobekuntza izan daiteke. Oro har, **datuek erakusten dute mendekotasun moderatua duten kasuak ugartzen ari direla, eta mendekotasun handia dutenen kopurua murrizten ari dela**.



Jatorri atzerritarra duten pertsonen egoera




2023an, 29 jatorri atzerritako pertsonak zuten mendekotasuna aitortua Tolosan, (17 emakume –% 58– eta 12 gizon –% 41–). 2018an, kopurua 20 pertsonakoa zen (13 emakume –% 65– eta 7 gizon –% 35–), hau da, igoera nabarmena izan da.



Atzerritar jatorriko populazioaren pisu konparatiboak erakusten du **mendekotasuna aitortuta duten pertsonen artean igoera gertatu dela**: % 1,8 (2018) → % 2,6 (2023). Aldaketa bereziki gizonen kasuan nabaritzen da, % 1,7tik % 3ra igaro baitira, eta emakumeen kasuan ere hazkundera sumatzen da, % 1,8tik % 2,4ra.

Datu hauek erakusten dute **populazio atzerritarraren presentzia handitzen ari dela mendekotasunaren dimentsioan**, nahiz eta ordezkaritza oraindik txikia izan. Arrazoiaren artean izan daitezke **populazio migratua, oro har, gazteagoa izatea, baina baita sistema ezagutza eza, oztopo administratiboak edo laguntza-sare eskasia ere.**

Generoaren arabera, joera aldatzen da. 2023an, emakume gehienak I. graduaren mendekotasunean daude, baina 2018an nagusi III. graduaren zen (% 46). Gizonen kasuan, aldaketa are nabarmenagoa da: II. graduaren proportzioa % 43tik % 8ra jaitsi da.

Azkenik, **datuen aldakortasuna neurri batean lagin txikiak eragin dezake**, urte batetik bestera aldaketa handiak gertatuz.





Batez besteko adina: 52 urte.

- > Emakumeen batez besteko adina: 63 urte.
- > Gizonen batez besteko adina: 36 urte.

Atzerritar jatorriko mendekotasun-graduen banaketa:

- > I. gradua: 13 pertsona (7 emakume, 6 gizon).
- > II. gradua: 5 pertsona (4 emakume, 1 gizon).
- > III. gradua: 11 pertsona (6 emakume, 5 gizon).

Eboluzioa 2018-2023 artean:

- > I. gradua igo da (% 40 → % 45).
- > II. gradua ere handitu da (% 17 → % 25).
- > III. gradua, aldiz, jaitsi da (% 38 → % 35).

6.1.4.1.1. Ondorio nagusiak: Tolosan mendekotasuna

Mendekotasunaren egoera orokorra

- › 2023an, Tolosako biztanleriaren % 5,4k mendekotasun-graduren bat aitortua zuen; emakumeen kasuan % 6,7 eta gizonen kasuan % 4.
- › 2018tik 2023ra, mendekotasuna aitortua duten pertsonen kopuruan aldaketa esanguratsurik ez da egon, baina emakumeen eta gizonen arteko arrakala nabarmena da. Emakumeek mendekotasuna ehuneko handiagoan aurkezten dute, batez ere adinean gora egin ahala.

Adinaren eragina mendekotasunean

- › 80 urtetik gorako pertsonak dira mendekotasunaren eragin handiena dutenak, eta talde horretako % 48k mendekotasuna aitortua du (emakumeen kasuan % 54 eta gizonen kasuan % 36).
- › Mendekotasun aitortua duten pertsonen batez besteko adina 76 urtekoa da, baina emakumeen kasuan 81 urtekoa, eta gizonen kasuan 67 urtekoa.
- › Gizonen artean, mendekotasuna adin-tarte gazteagoetan da ohikoagoa (0-19 urtekoen % 79k eta 20-39 urtekoen % 66k dute aitortua). Emakumeen kasuan, mendekotasuna 80 urtetik gorakoetan da nabarmenagoa (% 74).

Mendekotasun-graduen bilakaera


- › I. gradua da gehieneko mendekotasun-maila (% 41), eta egonkor mantendu da aztertutako aldian
- › II. gradua apur bat igo da (% 29tik % 32ra), eta III. gradua jaitsi egin da (% 30etik % 27ra), mendekotasun handia duten pertsonen kopurua murriztuz.
- › Gizonek nagusiki I. graduako mendekotasuna dute aitortua (% 50), eta emakumeen artean banaketa orekatuagoa da.

Atzerritar jatorriko pertsonen mendekotasuna:

- › Atzerritar jatorriko mendekotasuna duten pertsonen kopurua igo egin da 2018tik (20 pertsona) 2023ra (29 pertsona), nahiz eta oraindik ere ordezkartza txikia izan (% 2,6).
- › Batez besteko adina 52 urtekoa da, baina generoaren arabera oso desberdina da:
 - Emakumeen kasuan, 63 urtekoa.
 - Gizonen kasuan, 36 urtekoa.

6.1.4.2. Desgaitasun aitortua duten biztanleak Tolosan

Tolosan 1.591 pertsonak dute desgaitasuna aitortua, horietatik 718 emakumeak (% 45) eta 873 gizonak (% 55). 2018arekin alderatuta, kopurua % 3 jaitsi da (orduan 1.642 pertsona ziren), baina genero-banaketak egonkor jarraitzen du (% 45 emakumeak eta % 55 gizonak bi urtetan). Datuen arabera, mendekotasuna emakumeen artean ohikoagoa da, aldiz, desgaitasuna gizonengan maizago agertzen da.




2023an, Tolosako biztanleriaren % 7,9k desgaitasunen bat aitortua zuen: emakumeen % 6,9k eta gizonen % 9k.

2018an, berriz, desgaitasuna aitortua zuten biztanleen proportzioa % 8,2koa zen: emakumeen % 7,1 eta gizonen % 9,3.


Datu hauek erakusten dute desgaitasunaren prebalentziak behera egin duela (% 8,2tik % 7,9ra), batez ere gizonen artean (% 9,3tik % 9ra), baina genero-desberdintasunak egonkor jarraitzen duela.

Azken grafiko honek desgaitasuna aitortua duen Tolosako biztanleriaren gorazko joera adierazten du 2008-2023 aldian.



Adinaren arabera azterketak erakusten du desgaitasuna gehienbat 60-79 urteko pertsonengan ematen dela, talde horrek guztizkoaren % 43 osatzen baitu. Aldiz, 0-19 urte bitarteko adin-tartean, desgaitasuna duten pertsonen proportzioa oso txikia da (% 3).

Tolosako 60-79 urteko biztanleriaren % 11k desgaitasuna aitortua du, udalerriko biztanleria orokorreko datuekin alderatuta. 2018ko datuekin konparatuta, joera antzekoak dira, aldaketa esanguratsurik gabe.





Generoaren eta adinaren arabera joera esanguratsuak nabarmentzen dira desgaitasuna aitortua duten pertsonen artean. 0-19 urteko taldean, gizonen nagusitasun nabarmena dute (% 79), baina emakumeen proportzioa handituz doa adinarekin, 80 urtetik gorakoaren artean gehiengoa osatuz (% 55 emakume eta % 45 gizon).

Desberdintasun hauek hainbat faktorekin lotzen dira:

- › Gizonen artean desgaitasun kongenitoak eta jaiotzetiko gaixotasunak ohikoagoak izatea.
- › Gaztetan arrisku, istripu eta lesioen esposizio handiagoa izatea.

- › Emakumeen bizi-itxaropen handiagoa, desgaitasunaren prebalentzia zahartzaroan areagotuz.



Azken urteetan, **adina eta generoaren arabera**ko banaketa nahiko egonkorra izan da, nahiz eta adin-tarte jakin batzuetan aldaketa txikiak egon diren. **Aldaketa horiek** populazioaren dinamika demografiko naturalen isla dira.



Tolosan, desgaitasuna aitortua duten 73 pertsona jatorri atzerritarra dute, horietatik % 36 emakumeak (26) eta % 64 gizonak (47). Talde honek desgaitasuna aitortua duen biztanleria osoaren % 4,5a ordezkatzeko du: gizonen artean % 5,5 eta emakumeen artean % 3,6.

2018an, desgaitasuna aitortua zuten atzerritar jatorriko 45 pertsona baino ez zeuden (% 35 emakumeak eta % 65 gizonak), Tolosako biztanleriaren % 2,7a suposatuz. Horrela, 2018 eta 2023 artean proportzioa % 1,8 igo da.

Datu hauek erakusten dute atzerritar jatorriko pertsonen presentzia gorantz doala desgaitasuna duten biztanleen artean, nahiz eta oraindik kolektibo txikia izan.



Batez besteko adina: 47 urte.

- › Emakumeen batez besteko adina: 40 urte.
- › Gizonen batez besteko adina: 43 urte.

Datu hauek erakusten dute atzerritar jatorriko biztanleen artean desgaitasunaren prebalentzia handiagoa dela gizonen kasuan, eta oro har, batz besteko adina txikiagoa dela Tolosako desgaitasuna aitortua duten biztanleria orokorrarekin alderatuta.

6.1.4.2.1. Ondorio nagusiak: desgaitasuna Tolosan

Desgaitasunaren egoera orokorra

- › 2023an, Tolosako biztanleriaren % 7,9k desgaitasuna aitortua zuen (emakumeen % 6,9 eta gizonen % 9).
- › 2018tik desgaitasuna duten pertsonen kopuruak % 3ko jaitsiera izan du (1.642tik 1.591ra), baina generoaren arabera banaketak berdin jarraitzen du (% 45 emakume eta % 55 gizon).
- › Gizonek desgaitasuna gehiago dute emakumeekin alderatuta, joera hau mendekotasunaren kasuan alderantzizkoa da.

Adinaren eragina desgaitasunean

- › Desgaitasuna gehienbat 60-79 urteko pertsonengan agertzen da (% 43), eta 0-19 urteko taldean oso gutxikoa da (% 3).
- › 60-79 urteko biztanleen % 11k desgaitasuna aitortua du, eta joera hau 2018an ere antzekoa zen.
- › Generoaren arabera, gazteen artean (0-19), desgaitasuna dutenen gehiengoak gizonetzkoak dira (% 79), baina adinean gora egin ahala emakumeen proportzioa handitzen da, 80 urtetik gorakoan artean % 55 emakume eta % 45 gizon izanik.
- › Emakumeen kasuan, desgaitasunaren prebalentzia zahartzaroan handitzen da, bizi-itzaropen luzeagoaren ondorioz.

Atzeritar jatorriko pertsonen desgaitasuna

- › 2023an, Tolosan desgaitasuna aitortua duten 73 pertsona jatorri atzeritarrekoak dira (% 36 emakume eta % 64 gizon).
- › Tolosako desgaitasuna duten biztanleria osoaren % 4,5 ordezkatzan dute: gizonen artean % 5,5 eta emakumeen artean % 3,6.
- › 2018an kopurua 45 pertsonakoa zen (% 2,7 guztizko biztanleriaren artean), eta 2023an % 4,5era igo da, hau da, % 1,8ko hazkundera.
- › Batez besteko adina: 47 urte (emakumeen kasuan 40 urte, eta gizonen kasuan 43 urte).
- › Desgaitasuna duten pertsonen artean, atzeritarren presentzia handitzen ari da, baina oraindik kolektibo txikia da.

6.1.4.3. 2030erako proiektzioa

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako 2030erako aurreikuspenen arabera, ez dago adostasunik bizitza-itxaropena handitzeak zahartzaroan hilkortasuna eta mendekotasun-mailak murriztuko dituen, mantenduko diren edo handituko diren.

Mendekotasunaren eragina kalkulatzeko, **egungo tasak mantenduko direla hartu da hipotesi gisa**. Horren arabera, mendekotasuna aitortua duten pertsonen kopurua 29.609tik 32.181era igoko da. 65 urtetik gorako biztanleria gehien haziko den taldea izango da, eta 2030ean biztanleria osoaren % 26,2 osatuko du. Hazkunde handiena adinekoenen artean gertatuko da, gain-zahartze prozesua areagotuz. 80 urtetik gorako emakumeen proportzioa % 64tik % 61,5era jaitsiko da, gizonen bizi-itxaropena handitzearekin lotuta.

Hazkunde demografiko honek **zerbitzu-eskaera handitzea** ekarriko du:

- › Plaza, ordu eta prestazio gehiago beharko dira 2030erako aurreikusitako estaldurak betetzeko.
- › Narriadura kognitiboarekin eta gaixotasun mentalekin lotutako zerbitzuen eskariak ere gora egingo du.

Desgaitasunaren arloan, erronka nagusiak hauek izango dira:

- › Desgaitasuna duten pertsonen eta haien zaintzaileen zahartzea.
- › Multidesgaitasunen ugaritzea, arreta intentsiboagoa eskatuz.
- › Desgaitasuna duten pertsonentzako bizitza independentea sustatzeko zerbitzuak indartzea, eta estaldura-plazak % 10 handitzea.

Osasun mentalaren arloan, helburu nagusiak hauek dira:

- › Sare soziosanitarioarekin eta komunitatearekin lankidetzaz eta koordinazioa bultzatzea.
- › Gaixotasun mental kronikoa dutenentzako zerbitzuak indartzea, eta plazak % 15 handitzea.

Ondorioz, 2030erako aurreikuspenek erakusten dute adinekoen populazioaren hazkundeak eta mendekotasunaren gorakadak gizarte-zerbitzuen beharra areagotuko dutela, arreta intentsiboagoa eskatuz.

6.2. Tolosako Zaintza Ekosistema: adinekoak eta aniztasun funtzionala edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza

Atal honetan Tolosako zaintza-ekosistemaren parte diren **zerbitzu eta prestazioak aztertuko dira**, zuzenak, sinbolikoak edo egiturazkoak izan. Bereziki nabarmenduko dira Gizarte Zerbitzuen Legean jasotakoak eta Tolosan garatzen direnak, baita komunitate-eragileen (GKEak, fundazioak eta elkarteak) ekimenak ere, modu kogestionatu edo autonomoan osatzen badira ere.

Argibide moduan, aipatu behar da familia-inguruko zaintzaileentzako ongizate-ekimenak (Gizarte Zerbitzuen Legeak eta Mendekotasunaren Legeak jasotzen dituztenak) modu espezifikoan aztertuko direla 'Nor ari da zaintzen Tolosan?' eta 'Nola egiten du?' ataletan.

Amaitzeko, datorren taulan Tolosako zaintza-ekosistemaren parte diren eragile, prestazio eta zerbitzu guztiak jasoko dira, nahiz eta haietako batzuekin elkarriketarik edo datu kuantitatiboak eskuratu ezin izan diren. Ondorioz, ondorengo azterketan, maparen baitan kokatzen diren zerbitzu, programa eta prestazioen ikuspegi orokorra osatuko da.

TOLOSAKO UDALAREN ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOEN EGITASMOAK			
Jasotzaileak	Zerbitzu edo prestazioa	Konpetentzia	Izaera
-Herritar guztiak. Dagokigun honetan: Adineko pertsona, desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak.	1. Oinarrizko gizarte zerbitzuen informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazio zerbitzua dira.	Udala	Zuzena
ETXEAN MANTENTZEKO LAGUNTZA ZERBITZUAK			
-Adinekoak desgaitasuna edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak.	2.Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua. 2.1.Blister Zerbitzua.	Udala	Zuzena
-Adinekoak desgaitasuna edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak.	3.Tele-laguntza. 3.1.Giltza gordailua.	Eusko Jaurlaritza Udala	Zuzena
-Desgaitasuna edo mendekotasuna egoeran dauden pertsonak.	4.Laguntza Teknikoak. 4.1.Larrialdi egoerei erantzuteko eskualdeko laguntza teknikoak.	Foru Aldundia Udala	Zuzena
MENDEKOTASUNA ETA DESGAITASUNA DIRULAGUNTZAK			
-Mendekotasuna aitortua duten pertsonak.	4. DIRULAGUNTZAK: 4.1.Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa. 4.2.Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa. 4.3.Zerbitzuari lotutako dirulaguntzak.	Foru Aldundia	Zuzena
-Desgaitasuna aitortua duten pertsonak.	4.4. Bizimodu independentea errazteko laguntza ekonomikoak	Foru Aldundia	Zuzena
EGOITZAK ETA EGUNEKO ZENTROAK			
Adineko pertsonak:			
-Adineko pertsonak.	5. EGUNEKO ZENTROAK: 5.1.Uzturre Asistentzia Gunea. 5.2.Madre María Josefa.	Foru Aldundia	Zuzena
-Adineko pertsonak.	6. EGOITZAK: 6.1.Uzturre Asistentzia Gunea + UPSI Unitatea. 6.2.Lurreamendi Adinekoen Egoitza.	Foru Aldundia	Zuzena
DESGAITASUNA EDO BURUKO GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK			
7. EGUNEKO ZENTROAK:		Foru Aldundia	Zuzena
-Desgaitasun intelektuala duten pertsonak.	7.1.Ibarrako Garagunea (Goyeneche Fundazioa).		
-Buruko osasun arazo larriak eta iraunkorrak dituzten pertsonak.	7.2.Larramendi Eguneko Zentroa (Gurutze Gorria).		

8. EGOITZA ZENTROAK:		Foru Aldundia	Zuzena Zuzena
-Buruko osasun arazo larriak eta iraunkorrak dituzten pertsonak.	8.1.URTMS Unitatea (Uzturre Asistentzia Gunea).		
	8.2. Tutoretzapeko Etxebizitza (Gurutze Gorria).		
-Mugako adimen duten pertsonak	8.3 Tutoretzapeko Etxebizitza (Ortzadar).		
	8.4. Etxebizitza Zerbitzua (Atzegi).		
BIZITOKI, HARRERA ETA EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUAK			
-Desgaitasuna edo mendekotasun arriskua edo mendekotasun arineko egoeran dauden adineko pertsonak.	9.1.Tutoretzapeko apartamentuak.	Udala	Zuzena
-Mendekotasun arriskuan edo mendekotasun arineko egoeran dauden adineko pertsonak.	9.2.Adineko pertsonentzako eguneko arreta zerbitzua.	Udala	Zuzena
-Adineko pertsonak.	9.3.Familia harrera mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat	Foru Aldundia	Sinbolikoa
HAURRENTZAKO ARRETA			
-Garapen arazoak edo arazo horiek izateko arriskuan dauden 0-6urteko haurrei eta familiak-zaintzaileak.	Haurrentzako arreta goiztiarra.	Foru Aldundia	Zuzena
IRISGARRITASUNA			
-Desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak.	Ibilgailua aparkatzeko txartela.	Udala	Zuzena
-Desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak.	Zeinu hizkuntza zerbitzua.	Udala	Zuzena
KIROL EGOKITUA ZAHARTZE AKTIBOA ETA OSASUNAREN SUSTAPENA			
-Adineko pertsonak.	+65 Mantenu ikastaroak.	Udala	Zuzena
-Desgaitasuna duten pertsona heldu eta haurrak.	Kirol egokituko ikastaroak.	Udala (Kirol Egokituen Federazioa – GKEF) Foru Aldundia	Zuzena
-Adineko pertsonak.	Do re ni	Udala	Sinbolikoa

HAUSKORTASUNA ETA KALTEBERATASUNA DETEKTATZEKO ETA ARTATZEKO ESPERIENTZIAK			
-Adineko pertsonak.	Adinbera (Muñoa Fundazioa)	Udala	Sinbolikoa
-Adineko pertsonak.	Hauskortasun Diagnostikoa	Udala	Sinbolikoa

Lankidetza Guneak**Adinekoen mahaia:**

Adinekoen arloan diharduten elkarte eta eragileekin lankidetzan aritzeko gunea, kolektibo horren nahiak eta beharrak aztertzeko. Era berean, Udalak beharrian horiek nola ase ditzakeen aztertu, eta horretarako sustatu beharreko ekintza edo lan-lerroak identifikatzeko espazioa.

ERAGILE KOMUNITARIOAK	
Jasotzaileak	Jarduera eremua
ADINEKO PERTSONEN ARLOA	
-Bakardade egoeran dauden adineko pertsonak.	-Nagusilan. -Adinkide.
-Adineko pertsonak.	-Beti Ikasten Elkartea. -Harizpe Pertsona erretiratuaren eta pentsiodunen elkarte. -Iturriza Tolosaldeako Helduen Elkartea. -Duintasuna Jubilatutako eta Pentsiodunak. -Onea Emakume pentsionisten Plataforma.
DESGAITASUNA-MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN ARLOA:;	
-Desgaitasun intelektuala eta/edo mugako adimena duten pertsonak.	-Atzegi Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte. -Ortzadar mugako adimen duten pertsonen elkarte. -Goyeneche Fundazioa.
-Pertsona gorrak.	-AransGI Gipuzkoako Familia Gorren Elkartea.
-Buruko osasun arazo larriak edo egonkorak dituzten pertsonak.	-Gurutze Gorria.
-Alzheimerre duten pertsonak.	-AFAGI Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerre edo beste demenziaren bat duten pertsonen Elkartea.
ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK ETA OKUPAZIONALAK:+	
-Desgaitasuna duten pertsonak	-Gureak. -Sutargi. -Katealegia.

6.2.1. Etxean mantentzeko laguntza zerbitzuak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera honako zerbitzuen helburu nagusia, adineko eta desgaitasunak dituzten pertsonen baliabideak eskaintzea eta beren ohiko ingurunean (etxea, familia eta abar) ahalik eta denbora gehien geratzeko baliabideak ematean datza.

Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua, asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, eta erabiltzaileei ahalik eta denbora luzeenean norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematea du helburu. Horretarako, etxeko laguntza eta/edo laguntza pertsonala eskaintzen zaie erabiltzaileei, etxean moldatzeko eta beren komunitatean integratzeko, bakartzea saihestuz (Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuko Erregelamendua, 3. Artikulua, 2021). Honakoa, bereziki, adinekoei, baina baita, desgaitasuna edo autonomiaren galera duten pertsonen laguntzeko zerbitzua eskaintzean datza.

Tolosako **Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuko Erregelamenduak (2021)** zerbitzura sartzeko baldintzak arautzen ditu. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan, pertsonak baloratu, eskubidea aitortu (hala badagokio), arreta pertsonalizatuko plana osatu eta prestazioaren esleipena zehazten da: zerbitzuaren iraupena, mota, intentsitatea eta kostua eta onuradunaren ekarpen ekonomikoa zehaztuz. Gainera, zerbitzuak informazio-ematea eta jarraipen-balorazioa ere barne hartzen ditu.

Erregelamenduan, salbuespen egoeretan larritasunezko prozedura martxan jartzeko aukera ageri da Eskaera egin eta gehienez 24 orduko epean zerbitzua aktibatuko dela adieraziz.

Jarraian, zerbitzuaren ezaugarri nagusi batzuk aurkezten dira:

Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua	
Baldintza nagusiak	- Autonomia-galera edo ahultasuna dela eta, etxean bizitzen jarraitzeko eguneroko jardueretan aldi baterako edo iraunkorreko laguntza behar duten pertsonak eta/edo familiak. (Honakoak erregelamenduaren 8. Artikuluan zehazten dira). - Tolosan erroldatua egotea. - Salbuetsi ahal izango da: familia-rotazio egoeran dagoen pertsona.
Zerbitzuaren ezaugarriak	- Gehienez 28 orduko laguntza astean. Gehienez 4 ordu egunean. - Urteko egun guztietan. - Zerbitzua 07:00etatik 22:00etara eskaintzen da. Salbuespenetan gaueko ordutegian (22:00-07:00) ere eman daiteke. - Laguntzak ondorengo ezaugarria izan ditzake: etxeko laguntza, laguntza pertsonala eta gizarte laguntza.

Zenbatekoa ¹⁴	– Udalaren eta onuradunaren arteko ordainketa partekatua. – Onuradunaren ahalmen ekonomikoaren arabera zehazten da. Gehieneko (15euro/ orduko). – Orduko zenbatekoaren gutxienezkoa, gehienekoaren % 1,5a (gaitasun ekonomikoa SMIren % 75 edo txikiagoa denean).
--------------------------	--

Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileek botikak kontrolatzeko farmaziek eskaintzen duten **Blister-programan** parte har dezakete, non farmaziek prestatzen duten botika dosia eta etxeko laguntzaileek era egokian ematea bermatzen duten (Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Prestazio eta Zerbitzuen Gida).

Etxean mantentzeko beste laguntza zerbitzuen artean, **Tele-laguntza zerbitzua** dago. Telefono bidezko laguntza zerbitzu honek, urteko egun guztietan, 24 orduz, larrialdi abisuak jasotzeko helburua du. Zerbitzua emateko, etxean terminal bat instalatzen da eta erabiltzaileari eraman behar duen sakagailu edo domina bat ematen zaio. Honakoa telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 28ko 144/2011 Dekretuan arautzen da. Zerbitzua mendetasun-egoeran dauden edo mendetasun-arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonentzako, bakarrik bizi diren 75 urtetik gorakoentzat eta desgaitasun intelektual, fisiko, sentsozial edo buru-gaixotasuna duten pertsonentzako zuzenduta dago, betiere eskumeneko organoak aitortua badute. Zerbitzuak hilean 4 euroko kostua du. Baina salbuespenak egon daitezke bizikidetzako unitatearen diru-sarrerak kontuan hartuta.

Tele-laguntza zerbitzuaren gehigarri gisa, Tolosako Udalak **Giltzen Gordailu Zerbitzua** eskaintzen du. Etxebizitzako giltzak Udaltzaingoaren zaintzapean gordetzeko aukera alegia, larrialdi-egoeretan erantzun eraginkorra bermatzeko (Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Prestazio eta Zerbitzuen Gida).

Azken zerbitzua **Laguntza Teknikoei** dagokie, laguntza hauen bidez, mendekotasun-egoerek edo desgaitasunek eragindako autonomia-galera konpentsatu nahi da, egokitutako altzarien, gailu elektronikoen, laguntza-tresnen, etxebizitzaren egokitzapen-obren, ibilgailuen moldaketen eta antzekoen bitartez, eguneroko bizitzako jardueretan lagunduz. Eskaera jasotakoan, Aldundiaren zerbitzu-emaila harremanetan jartzen da eskatzailearekin eta, hala behar denean, etxean egingo zaio bisita orientazio zerbitzua emateko. Horrez gain, Donostiako eta Eibarko ETXETEK zentroetan laguntza-produktuei eta oztopoen ezabapenari buruzko informazio eta aholkularitza orokorra eskaintzen da, aipatutako produktuen erakusketa barne. Honakoa abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuan arautzen da.


¹⁴ Tolosako Udaleko Ordenantza fiskalak (2025).

Laguntza Teknikoak:	
Baldintzak nagusiak	– Mendekotasun I,II edo III graduaz baloratu egotea. – % 33 edo gehiagoko desgaitasun maila aitortua izatea. – Aurreko 6 urteetan antzeko laguntzarik jaso ez duten pertsonak, bidezko txosten teknikoaren bidez justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik. – Gipuzkoan erroldatua egotea, gutxienez urte beteko antzinatasunarekin.
Zerbitzuaren ezaugarriak	Bi mota: – Berreskuragarriak: berrikusi eta garbitu ondoren, beste pertsona batzuek berrerabili ditzaketenak. Etxetek biltegietatik jasoak eta erabileran utziak. Salbuespen gisa, diru-laguntza bidez eskuratuak beti ere Foru aldundiko jabetzakoak izanik. – Berreskuratu ezinak: berrerabili ezin diren produktuak, hala nola egokitzapen-obra edo finkatutako gailuak. Laguntza ekonomikoaren ebazpena jaso ondoren, ordainketa egiten da.
Zenbatekoak	– Laguntza tekniko motaren arabera eta eskatzaileen diru-sarreraren eta ondasunen arabera, Foru Aldundiak eta erabiltzaileek partekatzen dute.

Era berean, Tolosaldea mailan **larrialdi egoerei erantzuteko laguntza teknikoen zerbitzua** eskaintzen da, aurrez aipatutako laguntzak kudeatu bitartean behin-behinean erabiltzeko (gurpildun aulkiak, ohe artikulatuan etab.).

1. Generoaren araberako banaketa etxean mantentzeko laguntza zerbitzuetan

1.1. Etxean mantentzeko laguntzen erabiltzaileak generoaren arabera
2023. urtean (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



Etxez- etxeko Laguntza Zerbitzua:


- › Generoaren araberako banaketa: zerbitzuaren erabiltzaileen **gehiengoa emakumeak dira, % 66** (139). Gizonak, berriz, % 33 dira (70).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, zerbitzuaren erabiltzaileen zenbatekoak **% 1,4ko hazkundera** izan du.
 - Emakumeak: % 3,4ko jaitsiera (144tik 139ra).
 - Gizonak: % 12,9ko igoera (62tik 70ra).

Blister zerbitzua:

- › Etxez-Etxeko laguntza jasotzen duten pertsonen artean % 8,6ak Blister Zerbitzua jasotzen du.
- › Generoaren araberako banaketa: **oreka mantentzen da** zenbatekoetan (9 emakume eta 9 gizon).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, zerbitzuaren erabiltzaileen zenbatekoak **% 260ko hazkundera** izan du (5etik 18ra).

Tele-laguntza:

1.2. Etxean mantentzeko laguntzen erabiltzaileak generoaren arabera
2018.urtean (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



- › Generoaren araberako banaketa: zerbitzuaren erabiltzaileen **gehiengoa emakumeak dira, % 77** (430). Gizonak, berriz, % 26a dira (130).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, zerbitzuaren **erabilera % 23ko hazkundera izan** du. 2018-2023 aldian, hau da, zerbitzu hau jasotzen dutenen artean **105 pertsona gehiago** daude.

Giltzen gordailua:


- › Tele-laguntza jasotzen duten pertsonen artean % 66ak Giltzen Gordailua erabiltzen du.
- › Generoaren araberako banaketa: erabiltzaileen artean, **gehiengoa emakumeak dira, % 74** (275). Gizonak, berriz, % 26 dira (96).

Laguntza teknikoak:

- › Generoaren araberako banaketa: Laguntza teknikoak jaso dituztenen artean, **gehiengoa emakumeak dira, % 67** (77). Gizonak, berriz, % 33a dira (38).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta laguntza teknikoaren erabilera **% 19,8ko hazkunde izan** du.
 - Emakumeak: % 30,5ko hazkundera (59tik 77ra).
 - Gizonak: % 2,7ko hazkundera (37tik 38ra).

2. Adinaren eta generoaren arabera banaketa etxean mantentzeko laguntza zerbitzuetan

2.1. **Etxez etxeko laguntza zerbitzua:** Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




Etxez etxeko laguntza:

- Adinaren arabera joera orokorra: adin-tarteak gora egin ahala, zerbitzuaren erabilera handitzen da, **80 urtetik gorakoak** izanik gehiengoa (% 65). Zerbitzuaren erabiltzaileen **bataz bete adina 80 urtetakoa da**.
- Adinaren eta generoaren arabera joera: joerak antzekoak dira adin-tarte ezberdinetan, baina alde nabarmenak 80 urtetik gorakoaren artean ikus daitezke. Tarte horretan, gizonen % 46ak eta emakumeen % 75ak zerbitzua erabiltzen dute. Erabiltzaile **emakumeen bataz besteko adina 83 urtetakoa da**, gizonena berriz 75 urtetakoa.
- 2018an erabiltzaileen bataz besteko adina 77 urtetakoa zen.** Beraz, 3 urtetan igo da. Emakumeen bataz besteko adina 80 urtetakoa zen, gizonena berriz 72.

Tele-laguntza:

- Adinaren arabera joera orokorra: kasu honetan, zerbitzuaren erabileraren joera nabarmenagoa da adineko pertsonen artean. 60 eta 70 urte bitartean, zerbitzuaren erabilera nabarmen hasten da, baina 80 urtetik gorakoek erabiltzaile guztien % 84 osatzen dute.

2.2. **Tele-laguntza zerbitzuaren**, genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




Zerbitzuaren erabiltzaileen batz besteko adina 84 urtetakoa da.

- Adinaren eta generoaren arabera joera: generoaren arabera joera esanguratsuak aurki daitezke kasu honetan ere. Emakumeen % 84ak 80 urte edo gehiago ditu, aldiz, gizonen kasu zenbatekoa txikiagoa da (% 66). Zerbitzuaren erabiltzaileen batz besteko adina 84 urtetakoa da. Erabiltzaile emakumeen batz besteko adina 84 urtetakoa da, gizonena berriz 81.
- 2018an erabiltzaileen batz besteko adina 2023an aurki daitekeenaren berdina da, baita emakumeena ere, gizonena ordea 2 urtetan jaitsi da 2018an 83 urtetakoa baitzen.

Laguntza teknikoak:


- Adinaren arabera joera orokorra: aurrez aztertutako zerbitzuen antzera, jasotzaileen zenbateko altuenak 80 urtetik gorako pertsonen artean aurki daiteke (% 73). Zerbitzuaren erabiltzaileen batz besteko adina: 82.
- Adinaren eta generoaren arabera joera: behin ere, emakume erabiltzaileen artean, 80 urte edo gehiago dituztenen zenbatekoa (% 79) gizonena baino altuagoa da (% 60). Erabiltzaileen batz besteko adina 82 urtetakoa da. emakumeen batz besteko adina 85 gizonena berriz 76.

2.3. **Laguntza Teknikoen** erabilera adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



- 2018an erabiltzaileen bataz besteko adina 82 urtetakoa zen. Emakumeen bataz besteko adina 87 urtetakoa zen, gizonena berriz 74.

3. Jatorriaren eta generoaren arabera banaketa etxean mantentzeko laguntza zerbitzuetan



- > Etxean mantentzeko laguntzen erabilerari eta jatorri aldagaiari buruzko argibidea: Tele-laguntza eta Giltzen Gordailua zerbitzuetan, ez dago jatorri aldagaiarekin lotutako informaziorik. Blister zerbitzuan ez dago atzerritar jatorriko pertsonarik.
- > Atzerritar jatorriko biztanleria eta generoaren arabera banaketa: Etxez etxeko Laguntza, zein, Laguntza Teknikoetan, zerbitzua jasotzen duten 4 pertsona daude, eta horietatik % 75a gizonak (3) dira, % 25a berriz, emakumeak (1).
 - o Laguntza teknikoan jasotzaileen batz besteko adina 50 urtetakoa da. Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen dutenak berriz 70.
- > Atzerritar jatorriko biztanleriaren proportzioa jasotzaileen artean: 2018. urtearekin alderatuta Etxez etxeko Laguntza zerbitzuan 3tik 4 pertsonatara igo da (% 33ko igoera). Laguntza Teknikoen kasu ordea 0tik 4 pertsonatara igaro da.
 - o Zerbitzua jasotzen duten guztizko pertsonen artean, atzerritar jatorrikoen ehunekoak gora egin du laguntza teknikoan kasu, zerbitzua jasotzen dutenen % 3,4a izanik. Etxez-etxeko laguntzaren zenbatekoa ia parekoa da.

6.2.1.1. Ondorio nagusiak: etxean mantentzeko laguntza zerbitzuak

Zerbitzuen helburua eta erabilera

- › Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua, Tele-laguntza eta Laguntza Teknikoak zerbitzu nagusiak dira, adinekoei eta desgaitasuna duten pertsonei autonomia sustatzeko.
- › Zerbitzu hauen erabilera oro har hazi egin da 2018 eta 2023 artean, bereziki telealarma zerbitzuan (% 23ko igoera).
- › Emakumeak dira erabiltzaileen gehiengoa zerbitzu guztietan (% 66tik gora).
- › Erabiltzaileen batez besteko adina 80 urtetik gertu dago, nahiz eta gizonen adina emakumeena baino baxuagoa izan.

Generoaren arabera joerak

- › Etxez-Etxeko Laguntza Zerbitzua: Emakumeen % 66, gizonena % 33. 2018tik gizon jasotzaileen zenbatekoa % 12,9 igo da, emakumeena, berriz, % 3,4 jaitsi.
- › Tele-laguntza: Emakumeen % 77, gizonen % 26. Erabiltzaileen kopurua 105 pertsonatan handitu da 2018tik.
- › Laguntza Teknikoak: Erabiltzaileen % 67 emakumeak dira; 2018tik emakume erabiltzaileen kopurua % 30,5 hazi da.

Adinaren eragina

- › 80 urtetik gorako pertsonak dira erabiltzaile gehienak (% 65 zerbitzu orokorretan, % 84 tele-laguntzan, eta % 73 laguntza teknikoetan).
- › Etxez-etxeko laguntza jasotzen duten emakumeen batez besteko adina 83 urtekoa da; gizonen kasuan, 75.
- › Tele-laguntza erabiltzaileen batez besteko adina 84 urtekoa da (emakumeen % 84k 80 urtetik gora dute, eta gizonen % 66k).

Atzeritar jatorriko biztanleriaren presentzia

- › Migratutako biztanleriaren parte-hartzea handitu egin da, baina oraindik oso portzentaje txikia da.
- › Etxez-Etxeko Laguntza eta Laguntza Teknikoak jasotzen dituztenen artean 4 pertsona atzeritar jatorrikoak dira (% 75 gizonak, % 25 emakumeak).
- › Migratutako erabiltzaileen batez besteko adina nabarmen baxuagoa da (laguntza teknikoetan 50 urte, eta etxez-etxeko laguntzan 70 urte).
- › Etxez-etxeko laguntza jasotzen duten atzeritar kopurua % 33 igo da 2018tik.

6.2.2. Mendekotasun eta desgaitasun egoerei lotutako dirulaguntzak

Hasierako atalean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arretaren gastuak estaltzeko hiru dirulaguntza nagusi aztertuko dira, zeinak **6/2023 Foru Dekretuan** (apirilaren 18koa)¹⁵ araututa dauden.

Mendekotasunaren prestazio ekonomikoak eskubide subjektibo gisa konfiguratzeko dira, eta baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiek eskuratzeko eskubidea izango dute, betiere 185/2015 Dekretuaren 9.4 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

Prestazio ekonomikoak jasotzeko baldintza nagusiak

- › Gipuzkoan errolatua egotea eta bertan bizitzea.
- › Espainiako nazionalitatea izatea edo legezko egoitza Espainian izatea.
- › Gutxienez bost urtez Espainian edo Europar Batasuneko estatu batean legez bizitzea (horietatik bi eskaera aurkeztu aurretik jarraian).
- › Adingabeei eta itzulitako emigrante espainiarrei ez zaie azken baldintza hau eskatuko.
- › Zaintza ematen den etxebizitzak bizigarritasun-baldintza egokiak bete behar ditu.

Eskaeraren prozesua eta jarraipena

- › Eskaerak Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar dira, eta zerbitzu hauek Foru Aldundiaren eta eskatzaileen arteko bitartekaritza lana egiten dute.
- › Hasierako eta aldizkako esku-hartze teknikoak egiten dira zaintza benetan eskaintzen dela eta pertsonaren beharretara egokitzen dela bermatzeko.
- › Zaintzaileek baldintza egokietan jarduten dutela eta inguruneak nahiz testuinguruak behar besteko ongizatea eskaintzen duela ziurtatuko da.

Honako bi diru laguntzek, mendeko pertsona bere etxean jasotzen duen zaintza diruz laguntzea dute helburu:

- › **Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (LPPE)**, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzea eta laguntzaile pertsonal bat edo batzuk kontratatzea du helburu, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen hezkuntza edo lana eskuragarri izan dezaten eta/edo autonomia

¹⁵ 6/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzen dituenak.

handiagoa izan dezaten eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko, baita komunitatean erabat integratzeko eta parte hartzeko ere.

- › **Familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa (FIZPE)**, mendekotasun egoeran dagoen pertsonari bere familia inguruneke zaintzaileak emandako arretak eragiten dituen gastuak ordaintzen laguntzea du helburu.

Ondorengo taulan, dirulaguntza hauen baldintza espezifiko eta ezaugarri nagusiak jaso dira.

	LPPE	FIZPE
Baldintza nagusiak	– 3 urte edo gehiago izatea. – Mendekotasun I,II edo III graduaz baloratu egotea. Kontratu bat egiaztatzea.(merkataritza-kontratua edo lan-kontratua). Onuradunak zuzenean zaintzailea (-k) kontratatzen duenean, langilearen Gizarte Segurantzaren altako eskaera aurkeztu beharko du. Enpresa baten bidez kudeatzen bada, enpresak Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatuta egon behar du.	– Ohiko etxebizitzan arreta eta zaintzak jasotzea. – Mendekotasun I., II. edo III. graduaz baloratu egotea.
Zaintzailearen baldintzak	– Mendeko Pertsonentzako Arreta Soziosanitarioko kualifikazioa edo salbuespenezko gaikuntza izatea. – Ezin dira izan: ezkontidea, bikotekidea, 3. mailara arteko ahaidea, tutorea edo harreragilea.	– Zaintzaileek (75 urtetik beherakoek) Foru Aldundiak emandako zainketei buruzko oinarritzko prestakuntza bat (16 ordukoa) egin beharko dute. – Izan behar du: ezkontidea edo izatezko bikotea, 3. mailara arteko ahaidea, tutorea edo harreragilea, edo gutxienez 5 urtez mendeko pertsonarekin bizi izan dena. – Mendeko pertsonarekin bizitzea eta etxe berean erroldatuta egotea. – Mendeko pertsonak II. edo III. graduako mendekotasuna badu, zaintzaileak 85 urte baino gutxiago izatea. Ez edukitzea aitortuta % 65eko edo goragoko desgaitasuna. Horrela izango balitz, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen egokitzapen txostena behar da. – Ez izatea aitortutako mendekotasun egoerarik.
Zenbatekoa	– Mendekotasun-gradua arabera: gehienez 876 €, gutxienez 100 €. II. eta III. graduak kasuan osagarria jaso daitezke. – Murrizketak: murrizketa aplikatu daiteke, eskatzailearen eta bere bizikidetzaren unitatearen PFEZan aitortutako errendimenduen arabera, edo izaera publikoko prestazio antzeko eta helburu berekoak jasotzeagatik. – Muga: prestazioak ez du zerbitzuaren kostua gaindituko. Behin murrizketak aplikatuta, laguntza ez da gutxieneko kopurua baino txikiagoa izango.	– Mendekotasun-gradua arabera: gehienez 424 €, gutxienez 100 €. II. eta III. Osagarriak jaso daitezke. adin txikikoen kasuan. – Murrizketak: murrizketa aplikatu daiteke, eskatzailearen eta bere bizikidetzaren unitatearen PFEZan aitortutako errendimenduen arabera, edo izaera publikoko prestazio antzeko eta helburu berekoak jasotzeagatik. – Muga: prestazioaren zenbatekoak lege onartutako gutxienekoa errespetatu beharko du.
Bateragarritasuna	– Bateragarria: Eguneko zentroko Zerbitzuarekin (% 40ko murrizketarekin), Zentro Okupazionalak edo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua.	– Bateragarria: Eguneko Zentroko zerbitzuarekin (% 40kmurrizketarekin), Zentro Okupazionalarekin eta Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuarekin. – Aldi baterako bateragarria (gehienez urtean 2 hilabetez): aldi baterako egonaldiarekin, Zentro Soziosanitarioekin edo Ospitale Psikiatrikoekin.

	– Aldi baterako bateragarria: (gehienez urtean 2 hilabetez); Aldi baterako egonaldiak, Zentro Soziosanitarioak eta Ospitale Psikiatrikoak. – Bateraezina: Egoitza-arreta iraunkorra (publikoa edo pribatua) eta Familia Ingurunean Zainketak emateko Diru-laguntza (FIZPE).	– Bateraezina: Egoitza Arreta Iraunkorrarekin (publikoa nahiz pribatua) eta Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoarekin (LPPE).
Bitartekaritza/ formakuntza Zerbitzuak Tolosan	› Tolosan, familiei eta zaintzaileei laguntzeko bitartekaritza-zerbitzuak daude. Hauek, lan baldintzak, kontratuak, nominak eta bestelako tramiteak kudeatzen laguntzen dute. Adibide batzuk: Etxeko Lan Programa eta Andragora Aholkularitza Juridikoa.	› Tolosan familiei zuzendutako zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira, kasu honetan Zaintzaileei zuzendutako formakuntza programak eta laguntza psikologikoa Sendia bezalako programetatik.

- › **Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren xedea da (ZLPE)** eguneko zentroetako eta egoitza zentroetako plazen kostua ordaintzen laguntzea, plazak foru saretik kanpo badaude. Prestazio ekonomiko hori emango da, baldin eta, dagozkion baldintzak beteta, mendekotasun egoeran dagoen pertsonak ezin izan badu eskuratu gizarte zerbitzuen foru sareko plaza bat eskaera ebazten denean.

Kasu honetan, prestazioaren helburua aurrekoetatik bereizten da, etxetik kanpoko zaintza-baliabideetara sarbidea erraztea duelako helburu. Jarraian, diru-laguntza honen baldintza espezifikoak eta ezaugarri nagusiak aurkezten dira:

LPPE	
Baldintza nagusiak	– Kontratu bidez egiaztatzea plaza pribatuan egoitza zerbitzua edo eguneko arreta jasotzen duela. – Mendekotasun I., II. edo III. graduaz baloratu egotea. – Zerbitzu publikoaren itxaron zerrendan egotea (3 hilabete eguneko arretarako zerbitzurako).
Zenbatekoa	– Mendekotasun-gradua arabera: minimoak eta maximoak 100 eta 800 euro bitartekoak dira. Mendekotasun graduaz gainera aldatu egiten dira erabilitako baliabidearen arabera. – Murrizketak: murrizketa aplika daiteke, eskatzailearen eta bere bizikidetzaren unitatearen PFEZan aitortutako errendimenduen arabera, edo izaera publikoko prestazio antzeko eta helburu berekoak jasotzeagatik. – Muga: prestazioak ez du zerbitzuaren kostua gaindituko. Behin murrizketak aplikatuta, laguntza ez da gutxieneko kopurua baino txikiagoa izango.
Bateragarritasuna	EGUNEKO ZENTROA: – Bateragarria: Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua, FIZPE eta LPPE-arekin. – Aldi baterako bateragarria: (gehienez urtean 2 hilabetez): Aldi baterako egonaldiak, zentro soziosanitarioak eta ospitale psikiatrikoak. – Bateraezina: Egoitza-arreta iraunkorra. EGOITZA: – Bateraezina: Eguneko Zentro, Zentro okupazional, Etxez Etxeko Laguntza, Aldi Baterako Egonaldiak, Zentro Soziosanitarioa, Ospitale Psikiatriko, FIZPE edo LPParekin.

Bizitza independenteko eskaera Tolosatik egina zuten 2 onuradun zeuden 2018an (batez beste 4.750,98 euro), eta onuradun bakarra izan zen 2023an (11.860,08 euro).

Gaur egun altan dagoen bakarraren zenbatekoak berdina izaten jarraitzen du (11.860,08 euro)


› Bizimodu independentea errazteko laguntza ekonomikoak autonomia sustatzea dute helburu. Laguntza pertsonala kontratatzeke kostua estaltzen laguntzen datza. **24/2017 Foru Dekretuak arautzen du** Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa jasotzeko eskubidea. Zehazki, xede hauetara bideratzen da:

- Komunitatean sartzen laguntzea eta ez isolatzea.
- Partaidetza osoa ahalbidetzea bizitza politikoan, ekonomikoan, sozialean, hezkuntza, lanean eta bizitza kulturean, besteen baldintza beretan.
- Ostatu edo egoitza zerbitzu batean ez sartzea.
- Emantzipazio prozesuak erraztea.

BIZIMODU INDEPENDENTEA ERRAZTEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK	
Baldintza nagusiak	– Eskaera gauzatzean 18 eta 64 urte bitartean izatea. – Desgaitasuna duen pertsona dela aitortua izatea. – Mendekotasun egoeran egotea (1. graduako edo gehiagoko MBBa; edo hirugarren baten laguntza behar izatea, BLB, 15 puntukoa edo gehiagokoa). – Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa eskuratuta izatea. – Etxebizitza egokia edukitzea. – Laguntza pertsonaleko azpiegitura nahikoa edukitzea. – Bideragarritzat joko den bizitza independenterako proiektua aurkeztea. – Lan kontratua duela, Gizarte Segurantzaren alta emana dagoela eta laguntza pertsonala ematen dutenen prestakuntza maila akreditatzea, programan ematen duen denbora guztian zehar. – Udalaren egokitasuneko gizarte txostena.
Bateragarritasuna	– Laguntza hau osagarria da xede bererako edozein administrazio publikok emandako edozein laguntzarekin (bereziki baliaezintasun handiko osagarria, % 75eko desgaitasuna edo gehiago duen eta ardurapean dagoen 18 urtetik gorako seme edo alabaren diru esleipena, balioezintasun pentsioko hirugarren baten laguntza premia edo subsidioa hirugarren baten laguntzarengatik, EGL).

4. Generoaren araberako banaketa mendekotasunari lotutako diru laguntzetan

4.1. Mendekotasunari lotutako diru laguntzen jasotzaileak generoaren arabera **2023** (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




LPPE

- > Generoaren araberako banaketa: dirulaguntzaren jasotzaileen artean **gehiengoa emakumeak dira, % 71** (237). Gizonak, berriz, % 29a dira (96).
- > Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, jasotzaileen kopuruak **% 19ko hazkundera** izan du. Alegia, 2018an baino 53 jasotzaile gehiago daude 2023an.
 - Emakumeak: % 25ko hazkundera (189tik 237a).
 - Gizonak: % 5,2ko jaitsiera (96tik 91ra).

FIZPE

- > Generoaren araberako banaketa: dirulaguntzaren jasotzaileen artean **gehiengoa emakumeak badira ere** (% 53 - 144), **zenbatekoek parekotasun handiagoa** aislatzen dute izan ere gizonak % 47a suposatzen dute (126).
- > Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, jasotzaileen kopuruak **% 31ko jaitsiera** izan du. Alegia, 2018an baino 121 jasotzaile gutxiago daude 2023an.
 - Emakumeak: % 34,5ko jaitsiera (220tik 144a).
 - Gizonak: % 26,3ko jaitsiera (171tik 126ra).


4.2. Mendekotasunari lotutako diru laguntzen jasotzaileak generoaren arabera **2018** (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



ZLPE

- > Generoaren araberako banaketa: dirulaguntzaren jasotzaileen artean **gehiengoa emakumeak dira, % 78** (18). gizonak % 22a suposatzen dute (5).
- > Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, jasotzaileen kopuruak **% 28ko jaitsiera** izan du. Alegia, 2018an baino 121 jasotzaile gutxiago daude 2023an.
 - Emakumeak: % 18ko jaitsiera (22tik 18a).
 - Gizonak: % 50ko jaitsiera (10tik 5era).

5. Adinaren eta generoaren arabera banaketa mendekotasunari lotutako diru laguntzetan




LPPE

- › Adinaren arabera joera orokorra: adin-tarteak gora egin ahala, zerbitzuaren erabilera handitzen da, **80 urtetik gorakoak** izanik gehiengoa (% 80). Dirulaguntzaren jasotzaileen **bataz beste adina 85 urtetakoa da**.
- › Adinaren eta generoaren arabera joera: joerak antzekoak dira adin-tarte ezberdinetan, baina alde nabarmenak 80 urtetik gorako artean ikus daitezke. Hala ere, gizonen artean jasotzaile gazteagoen zenbatekoa emakumeen artean baino nabarmenagoa da (gizonen % 26a 60-79 urte ditu). 80 urtetik gorako artean, gizonen % 68ak eta emakumeen % 85ak jasotzen du dirulaguntza. **Emakumeen bataz besteko adina 86 urtetakoa da, gizonena berriz 82 urtetakoa**.
- › **2018an jasotzaileen bataz besteko adina 82 urtetakoa zen**. Beraz, 3 urtetan igo da. Emakumeen bataz besteko adina 85 urtetakoa zen, gizonena berriz 77.

FIZPE

- › Adinaren arabera joera orokorra: adin-tarteek gora egin ahala, prestazioa jasotzen duten pertsonen ehunekoa handitzen da, 80 urtetik gorako artean % 43ra iritsiz. Hala

5.2. **FIZPE:** Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023
(Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




ere, aurreko azterketekin alderatuta, adin-tarte baxuagoetan aniztasun handiagoa ikusten da, 60 eta 79 urte bitartekoen artean % 25, eta 0 eta 19 urte bitartekoen artean % 15. Jasotzaileen **bataz besteko adina 65 urtetakoa da.**

- › Adinaren eta generoaren arabera joera: kasu honetan, ikusten da emakumeen erdiak baino gehiagok (% 55) 80 urtetik gora dituela, eta ondoren 60-79 urte bitartekoen taldea dator, % 25arekin. Gizonen kasuan, adin-tarte gazteagoetan proportzio handiagoa dago. Nahiz eta gehienek 80 urte edo gehiago izan, % 29a baino ez dute osatzen. Azpimarratzekoa da, gainera, 0-19 urte bitartekoen taldea, % 25ekin. Honakoa bataz besteko adinetan islatzen da: **emakumeak, 74, gizonak berriz 55.**
- › **2018an jasotzaileen bataz besteko adina 72 urtetakoa zen.** Emakumeen bataz besteko adina 77 urtetakoa, gizonena berriz 64.

ZLPE

- › Adinaren arabera joera orokorra: kasu honetan 80 urte edo gehiago dituzten pertsonek guztizkoaren % 87a suposatzen dute. **Bataz bete adina 88 urtetakoa da.**
- › Adinaren eta generoaren arabera joera: gizon zein emakumeen artean gehiengoa 80 urte edo gehiago ditu.


5.3. **ZLPE:** Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023
(Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



Emakume, zein, gizonen batz besteko adina 88 urtetakoa da.

- › 2018an jasotzaileen batz besteko adina 88 urtetakoa zen. Emakumeen batz besteko adina 87 urtetakoa zen, gizonena berriz 85.

6. Jatorriaren eta generoaren arabera banaketa mendekotasunari lotutako diru laguntzetan



- › Erabilerari eta jatorri aldagaiari buruzko argibidea: ZLPEaren kasuan ez dago jasotzaileen artean atzerritar jatorriko pertsonarik.
- › Atzerritar jatorriko biztanleria eta generoaren arabera banaketa: LPPEaren kasu atzerritar jatorriko 3 jasotzaile daude, 2 emakume eta gizon 1. FIZPEaren kasuan 8, hauetatik % 62a emakumeak dira (5), % 38a berriz gizonak (3).
 - LPPE jasotzaileen bastaz besteko adina 94. FIZPE, 35.
- › Atzerritar jatorriko biztanleriaren proportzioa jasotzaileen artean: datuak ia ez dira aldatu, eta % 1eko igoera izan da jatorri atzerritarra duten pertsonen proportzioan 2023ko FIZPEan.

Mendekotasun egoerei lotutako dirulaguntzak

6.2.2.1. Ondorio nagusiak: mendekotasun egoerei lotutako dirulaguntzak

Generoaren eragina

- › Emakumeak dira mendekotasunari lotutako diru-laguntzen onuradun nagusiak.
- › LPPEn, onuradunen % 71 emakumeak dira; ZLPEn, % 78.
- › FIZPEn, gizonen presentzia nabarmenagoa da (% 47).

Onuradunen kopuruaren bilakaera (2018-2023)

- › LPPEn onuradunen kopuruak % 19 egin du gora.
- › FIZPEren eta ZLPEren onuradunen kopurua, aldiz, % 31 eta % 28 jaitsi da, hurrenez hurren.
- › Jaitsiera hau LPPEn lege erreformarekin lotu daiteke, haren baldintzak hobetuz.

Adinaren eragina

- › LPPE eta ZLPE jasotzen dutenen batez besteko adina oso altua da (85 eta 88 urte, hurrenez hurren).
- › FIZPEn, jasotzaileen batez besteko adina askoz txikiagoa da (65 urte), eta beherezko joera erakusten du (2018an 72 urtekoa zen).
- › Emakumeen batez besteko adina beti gizontzakoena baino handiagoa da.

Migratutako biztanleriaren presentzia

- › Oso txikia da, FIZPE jasotzaileen artean adibidez % 4 baino ez dira jatorri atzeritarrekoak.
- › LPPEn eta FIZPEn atzeritar jatorriko onuradunak oso gutxi dira (3 eta 8 pertsona, hurrenez hurren).

Diru-laguntzen bateragarritasuna eta baldintzak

- › LPPE eta FIZPE mendeko pertsona bere etxean geratzeko laguntzak dira, baina baldintza desberdinak dituzte (zaintzaileen profilak eta prestakuntza eskatzen da).
- › ZLPE, aldiz, egoitza eta eguneko arreta pribatuaren kostua estaltzera bideratuta dago.
- › Laguntza batzuk bateragarriak dira zerbitzu batzuekin (adibidez, eguneko zentroa eta etxez etxeko zerbitzua), baina beste batzuk (egoitza-arreta iraunkorra) ez dira bateragarriak.

Laburbilduz, emakumeak dira mendekotasuneko laguntzen hartzaile nagusiak, LPPEn erabilera hazten ari da, baina FIZPE eta ZLPEko onuradunen kopurua

nabarmen jaitsi da. Adineko pertsonak dira laguntzen hartzaile nagusiak, eta migratutako biztanleriaren parte-hartzea oso mugatua da.

6.2.3. Egoitza eta Eguneko Zentroak

Gipuzkoan 2015eko martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretuak mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sareaosatzen duten egoitza eta eguneko zentroetarako sarbidea arautzen du. Honakoak adineko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak eta buruko gaixotasun larri eta kronikoak dituztenak barne hartzen ditu.

Gipuzkoan, 7/2015 Foru Dekretuak (2015eko martxoaren 24koa) mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sareaosatzen duten egoitza eta eguneko zentroetara sartzeko arauak ezartzen ditu. Zerbitzu hauek adineko pertsonentzat, desgaitasuna dutenentzat eta buruko gaixotasun larria eta kronikoa dutenentzat dira.

Foru-dekretuaren arabera, erabiltzaile izan daitezke mendekotasun-egoeran dauden eta 39/2006 Legearen eskubideen titularrak diren pertsonak, baldin eta eskaera egitean Gipuzkoan errolatuta badaude eta Espainian edo EBko estatu batean gutxienez bost urtez lege zuzenekoak badira (adingabe eta itzulitako emigrante espainiarrentzat salbuespenekin). Gainera, Foru Aldundiak salbuespenak egin ditzake mendekotasun-egoera larrian dauden pertsonentzat.

Eskaerak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar dira, eta osasun mentaleko zerbitzuetarako, Osakidetzako Osasun Mentaleko Zentroetan. Foru Aldundiak eskaerak ebaluatuko ditu eta gehienez hiru hilabeteko epean ebaztuko dira. Larrialdi kasuetan, lehentasunezko sarbidea aurreikusten da.

Plaza hutsak daudenean, itxaron zerrendan dauden pertsonak ezarritako ordena jarraituz hautatuko dira, plazaren egokitasuna eta pertsonaren profila kontuan hartuz, hainbat irizpideei jarraiki. Era berean, erreferentziako udalerrira gertutasuna bezalako faktoreak kontuan hartuko direla jasotzen du Dekretuaren 24. artikulua.

Plazak esleitzeko, itxaron-zerrendako ordena eta pertsonaren profila kontuan hartzen dira, baita udalerriaren gertutasuna ere (24. artikulua). 10. artikulua arabera, erabiltzaile-izaera eskatzailearen baimenarekin baino ez da eskuratuko, eta ezintasun-kasuetan, legeko ordezkariaren bidez.

Zerbitzuen ordainketa partekatua da erabiltzailearen eta Foru Aldundiaren artean, eta ekarpen ekonomikoa pertsonaren egoera ekonomikoaren arabera zehazten da (15/2015 eta 12/2016 Foru Dekretuen arabera). Gehieneko ordainketak 55/2023 Foru Dekretuan jasotzen dira.

Tolosako zaintza-ekosisteman dauden zerbitzuak bi multzotan sailkatuko dira, alde batetik, adineko pertsonentzako baliabideak, eta bestetik, desgaitasuna duten pertsonentzako eta gaixotasun mentala dutenentzat bideratuak daudenak.

6.2.3.1. Pertsona nagusiei zuzendutako egoitza eta eguneko zentroak

Egoitza-zentroak

3.1 artikuluaaren arabera, adinekoentzako egoitza-zentroak etxebizitza iraunkor edo aldi baterako gisa eratutako baliabideak dira, mendekotasun-egoeran dauden eta beste bizileku arinagoetan beharrei erantzun ezin dieten pertsonentzat. Zentro hauek arreta integrala eta etengabea eskaintzen dute, autonomia mantentzeko, funtzio-mugak konpentsatzeko eta behar duten laguntza pertsonalizatua emateko.

Tolosan bi egoitza daude¹⁶:

- › **Uzturre Asistentzia Gunea:** 79 plaza ditu (67 hitzartuak) eta 16 plaza gehiago psikogeriatria unitatean. Epe laburreko egonaldiak ere eskaintzen dira.
- › **Iurreamendi Adinekoen Egoitza:** 147 plaza ditu (119 hitzartuak¹⁷) eta epe laburreko egonaldien zerbitzua ere badu. 2018tik Kabian¹⁸ integratuta dago.

Bi egoitzek osasun- eta ongizate-zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola, medikuntza, erizaintza, gizarte-langintza eta psikologia. Arreta pertsonalizatua sustatzen dute, elkarbizitza-unitateak garatuz, egoiliarak etxean bezala senti daitezen. Gainera, dinamizazio eta prebentzio ekintzak antolatzen dituzte, komunitatearekin eta boluntariora sareekin lankidetzan.

Eguneko zentroak

3.2 artikuluaaren arabera, mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroek arreta integrala eskaintzen dute, beren ohiko ingurunean beharrei erantzun ezin dietenentzat.

Tolosan bi eguneko zentro daude:

- › **Uzturre Asistentzia Gunearen Eguneko Zentroa:** 25 plaza hitzartuta, zerbitzua 10:00-18:00 artean astean zehar edo astebukaeratan.

¹⁶ Plazen zenbatekoa eta hauen izaera: Behagi-Gipuzkoako Gizarte Behatokia.

¹⁷ Plaza hauek 2023ko azaroaren 14ko 53/2023 Foru Dekretuaren arabera araututa daude; dekretu honek Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte-osasun egoitza-unitateetara sartzeko erregimena ezartzen du.

¹⁸ Kabia Organismo autonomo bat da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuari atxikitakoa. Kabiaren funtsezko helburua honakoa da: Eusko Legebiltzarrak onartutako Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, ezarritako eskumen esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak agindutako zerbitzu eta funtzioak kudeatzea, ematea eta gauzatzea. Egun Gipuzkoa mailan 16 egoitza kudeatzen ditu.


- › **Madre María Josefa Eguneko Zentroa:** 60 plaza (40 hitzartuak eta 20 pribatuak), zerbitzua 9:00-18:00 artean.

Zentro hauek hainbat ekimen eskaintzen dituzte autonomia eta aktibazioa sustatzeko, hala nola gimnasia, jolasak eta eskulanak. Halaber, medikamentu-kontrola, elikadura egokitua, garraioa, fisioterapia eta terapia okupazionala bezalako zerbitzu osagarriak ematen dituzte.


Ondorengo taulan, zerbitzu hauen sarbiderako baldintza espezifiko eta ezaugarri nagusiak jasoko dira.

7. Generoaren araberako banaketa Tolosan adinekoei zuzenduta Egoitza eta Eguneko Zentroetan

7.1. Egoitza Zerbitzu eta Eguneko Zentroetako erabiltzaileak generoaren arabera 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



7.2. Egoitza Zerbitzu eta Eguneko Zentroetako erabiltzaileak generoaren arabera 2018 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



Eguneko Zentroak


- › Generoaren araberako banaketa: adineko pertsonei zuzenduta Eguneko zentroetako erabiltzaileen artean **gehiengoa emakumeak dira, % 79** (41). Gizonak, berriz, % 21a dira (11).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, erabiltzaileen kopuruak **% 18,2ko hazkundea** izan du.
 - Emakumeak: % 19,5ko hazkundea (33tik 41ra).
 - Gizonen kasu 2023 eta 2018ko zenbatekoak berdinak dira.

Egoitzak

- › Generoaren araberako banaketa: adineko pertsonei zuzenduta Egoitzetako erabiltzaileen artean **gehiengoa emakumeak dira, % 78** (137). Gizonak, berriz, % 22a dira (39).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, erabiltzaileen kopuruak **% 2,2ko jaitsiera** izan du.
 - Emakumeak: % 0,74ko hazkundea (136tik 137a).
 - Gizonak: % 11,3ko jaitsiera (44tik 39ra).

8. Adinaren eta generoaren arabera banaketa Tolosan adinekoei zuzenduta Egoitza eta Eguneko Zentroetan

8.1. **Eguneko Zentroak:** Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




Eguneko Zentroak

- Adinaren arabera joera orokorra: erabiltzaileen artean zenbateko esanguratsu bat (% 61) 80-89 urte tartean kokatzen dela ikus daiteke, jarraian 90-99 urte tartea ageri da (% 25). Erabiltzaileen batzuetan bete adina 85 urtetakoa da.
- Adinaren eta generoaren arabera joera: kasu honetan kontzentrazio altuagoak aurki daitezke gizonen (% 27) artean emakumeen (% 10) artean baino 70-79 urte tartean. Aldiz 80-89 urte tartean emakumeen artean aurkitu daitezkeen zenbatekoa (% 65) gizonenak baino altuagoa dira (% 45). Emakumeen batzuetan beste adina 85 urtetakoa da, gizonena gertu dago 84 urterekin.
- 2018an erabiltzaileen batzuetan beste adinak 2023an aurki daitezkeen berdinak dira, gizonena kenduta, 83 urtetakoa baitzen 2018an.

Egoitzak

- Adinaren eta generoaren arabera joera: erabiltzaileen artean zenbateko esanguratsu bat (% 44) 90-99 urte tartean kokatzen dela ikus daiteke, jarraian 80-89 urte tartea ageri da (% 35). Erabiltzaileen batzuetan bete adina 87 urtetakoa da.


8.2. **Egoitza Zerbitzuak:** Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



- › Adinaren eta generoaren arabera joera: eguneko zentroarekin alderatuta emakumeen (% 47), zein gizonen (% 31) zenbateko altuago bat kokatzen da 90-99 adin tartean. Kasu honetan adin tarte gazteagoetan gizonen arteko proportzio (% 5 60-69 eta % 20 70-79 adin tartetean.) altuagoak ageri dira emakumeen zenbatekoekin alderatuta. Emakumeen batz besteko adina 88 urtetakoa da, gizonena ordea 84.
- › 2018an erabiltzaileen batz besteko adina 86 urtetakoa zen. 87 emakumeen kasu eta 81 gizonen kasu.

9. Jatorriaren eta generoaren arabera banaketa Eguneko eta Egoitza zentroetan

9.1. Atzerritar jatorriko biztanleria generoaren arabera Eguneko eta Egoitza Zentroetan 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



- › Atzerritar jatorriko biztanleria eta generoaren arabera banaketa: Eguneko Zentroaren kasu jasotzaileen artean atzerritar jatorriko emakume 1 dago. Egoitzen kasu ordea 3 eta guztiak dira emakumeak.
 - Egoitza zentroetako erabiltzaileen batz besteko adina: 84.
- › Atzerritar jatorriko biztanleriaren proportzioa jasotzaileen artean: zenbatekoek gora egin dute 2018ko datuekin alderatuta. Eguneko zentroetan % 0tik - % 2ra eta Egoitza Zentroetan % 1etik - % 2ra.

6.2.3.2. Desgaitasuna eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonen zuzendutako Egoitza eta Eguneko Zentroak

1. Egoitza eta Etxebizitza Zerbitzuak

Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuak

7/2015 Foru Dekretuaren 3.2 artikulua arabera, desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen egoitza edo etxebizitza zerbitzuak jaso ditzakete, beren ohiko ingurunean beharrei erantzun ezin dietenean. Zerbitzu hauek laguntza-maila desberdinak eskaintzen dituzte, autonomia pertsonala hobetzeko, funtzio-mugak konpentsatzeko eta behar den laguntza emateko.

Tolosan honako baliabideak daude:

- › **ATZEGIren Etxebizitza Zerbitzua:** adimen-urritasuna duten pertsonentzat 3 etxebizitza, guztira 15 plaza.
- › **Ortzadar Tutoretzapeko Etxebizitza:** mugako adimena duten pertsonentzat 6 plaza.

Honakoetan, aldizkako laguntzak jasotzen dituzte, beren gaitasun eta zailtasunetara egokituak. Halaber, bizikidetzak, etxeko antolaketa, baliabideen erabilpena, erabakiak hartzea eta gatazken bitartekaritza lantzen dira, baita eguneroko bizitza dinamizatzeko jarduerak ere.

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak

7/2015 Foru Dekretuaren 3.3 artikulua arabera, buruko gaixotasun larri eta kronikoa duten pertsonentzat egoitza-zerbitzuak eskaintzen dira, autonomia sustatzeko eta ospitaleratze psikiatrikoak saihesteko.

Tolosan bi baliabide nagusi daude:

- › **Gurutze Gorriko Tutoretzapeko Etxebizitza:** 8 plaza hitzartuak.
- › **URTMS Unitatea (Uzturre Asistentzia Gunea):** buruko gaixotasun larriak dituztenentzat, 25 plaza hitzartuak.

Bi zentro hauek errehabilitazio eta gizarteratze programak eskaintzen dituzte.

2. Eguneko Zentroak

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zerbitzuak

7/2015 Foru Dekretuaren 3. artikulua arabera, desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen eguneko arreta zerbitzuak eskaintzen zaizkie, autonomia eta gizarteratzea sustatzeko.

- › **Garagunea (Goyeneche Fundazioa):** adimen-desgaitasuna duten helduentzat 22 plaza hitzartuak. Nahiz eta Ibarran kokatuta egon, Tolosako ekimenetan parte hartzen du.

Buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko zerbitzuak

Foru Dekretuaren 3.4.C artikulua araber, buruko gaixotasun larri eta kronikoa duten pertsonen errehabilitazio psikosozialeko eguneko zerbitzuak eskaintzen zaizkie, autonomia sustatzeko eta ospitaleratzeak saihesteko.

- › **Larramendiko Errehabilitazio Psikosozialeko Eguneko Zentroa (Gurutze Gorria):** 20 plaza hitzartuak.


Zentro hauek arreta soziosanitarioa, terapia eta gizarte-laguntza eskaintzen dituzte.

Hurrengo taulan, zerbitzu hauetara sartzeko baldintza espezifikoak eta ezaugarri garrantzitsuenak aurkeztuko dira:

	Egoitza zentroa edo etxebizitza zerbitzua desgaitasuna duten pertsonentzat. Eguneko zentroa desgaitasuna duten pertsonentzat.	Egoitza zentroa edo etxebizitza zerbitzua buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonentzat. Errehabilitazio psikosozialeko eguneko zentroa buruko gaixotasun kronikoa duten pertsonentzat.
Baldintza nagusiak	– Egoitzaren kasu: 18 eta 64 urte bitarteko adina izatea. – Eguneko Zerbitzuaren kasu: 20-64 urte bitartean izatea. – Baldintza hau betetzetik salbuetsi ahal izango dira, aldeko txosten medikuaren eta sozialaren ondotik, mendekotasun egoera aitortu zaien eta dituzten zertzelada pertsonal edo sozialak direla-eta mota horretako zentroetan ematen den arretaren onuradun izan daitezkeen pertsonak. – Mendekotasun I., II. edo III. graduaz baloratu egotea. – % 33 edo gehiagoko desgaitasun maila aitortua izatea. – Baliabidearen egokitasuna zehazten duen orientazio txostena edukitzea, desgaitasuna duten pertsonentzako orientazioaren arloan Gipuzkoako Foru Aldundian eskumena daukan lantalde teknikoak emana.	– Egoitzaren kasuan: 18 eta 64 urte bitarteko adina izatea. – Eguneko Zerbitzuaren kasuan: 20-64 urte bitartean izatea. – Baldintza hau betetzetik salbuetsi ahal izango dira, aldeko txosten medikuaren eta sozialaren ondotik, mendekotasun egoera aitortu zaien eta dituzten zertzelada pertsonal edo sozialak direla-eta mota horretako zentroetan ematen den arretaren onuradun izan daitezkeen pertsonak. – Mendekotasun I., II. edo III. graduaz baloratu egotea. – Osasun mentaleko arreta sare publikoan arta jasotzea eta Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordeak egokitzen bideratua izatea, eskatutako zerbitzurako.
Ebazpenaren gehieneko epea	– Itxarote-zerrenda onartua izateko: 3 hilabete, behar bezala betetako eskaera oinarritzko gizarte zerbitzuetan sartu denetik kontaktzen hasita. – Itxaron-zerrenda puntuazioaren arabera antolatzen da, eta irizpide hauek hartzen dira kontuan: mendekotasun-maila, balorazio ekonomikoa eta familia-balorazioa. – Sartzeko: ez dago eperik. Sei hilabetetik gorako eskaerek lehentasuna izango dute.	– Itxarote-zerrenda onartua izateko: 3 hilabete, behar bezala betetako eskaera sartu denetik kontaktzen hasita. – Itxaron-zerrenda puntuazioaren arabera antolatzen da, eta irizpide hauek hartzen dira kontuan: mendekotasun-maila, balorazio ekonomikoa eta familia-balorazioa. – Sartzeko: ez dago eperik. Sei hilabetetik gorako eskaerek lehentasuna izango dute.


10. Desgaitasuna eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonen zuzendutako Tolosako baliabideen analisi

10.1. Zerbitzuen erabiltzaileak generoaren arabera 2023 (Iturria: Elkarrizketak eta memoriak)*



* Datuak iturri ezberdinetatik jaso dira. Gurutze Gorriaren eta Ortzadarren kasu beraiek emanak, Atzegiren kasu 2023. Urteko memoriatik jasoak.

10.2. Egoitza Zerbitzuetako erabiltzaileak generoaren arabera 2018 (Iturria: Gurutze Gorria, 2024)



- › Generoaren araberrako banaketa: Gurutze Gorriak kudeatutako Tutoritzapeko Etxebizitza (% 63), zein, Errehabilitazio psikosoziako (% 63) baliabideetan erabiltzaileen gehiengoak gizonak dira.
- › Atzegik kudeatutako etxebizitza programak (% 94) gizonen gehiengoak osatzen dute. Ortzadarrek kudeatutako Tutoritzapeko Etxebizitzan ordea zenbatekoak parekoak dira.
- › Elkarrizketetan lortutako informazio kualitatiboaren bitartez, Garagunetik adierazi zen erabiltzaileen artean gehiengoak emakumeak direla. Uzturre Asistentzia Guneako URTMS unitatean berriz gizonak. Aipatzekoa da, Atzegiren kasu ere kudeatzen dituzten etxebizitza guztietako kopuruak ikusita zenbatekoak Tolosan ageri direnak baino parekoagoak direla (% 47a emakumeak izanik).
- › Adinari dagokionez, zerbitzu bakoitzetik jasotako adin-tarteek ez dute aukera ematen adin zehatzak islatzen dituzten batez bestekoak kalkulatzeko.

6.2.3.3. Ondorio nagusiak: Egoitza eta Eguneko Zentroak

Egoitza eta Eguneko Zentroetako erabilera Gipuzkoan

- › Gipuzkoan mendekotasun-egoeran dauden adinekoek, desgaitasuna duten pertsonak eta buruko gaixotasun kronikoak dituztenek Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sareko egoitza eta eguneko zentroen bidez arreta jasotzen dute.
- › Zerbitzu hauek Gipuzkoan errolatuta dauden eta gutxienez bost urtez Espainian edo EBn bizi izan diren pertsonen bideratuta daude.

Tolosako Egoitza eta Eguneko Zentroetako egoera

- › Tolosan bi egoitza-zentro eta bi eguneko zentro daude adineko pertsonentzat, eta hainbat etxebizitza eta eguneko zentro daude desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzat.
- › Zerbitzuak erabiltzaileen mendekotasun-mailaren eta beharren arabera egokitzen dira, autonomia eta bizi-kalitatea mantentzea helburu izanik.

Zerbitzuen erabileraren bilakaera (2018-2023)

- › Eguneko Zentroetako erabiltzaileak % 18,2 hazi dira azken bost urteetan.
- › Egoitza Zentroetako erabiltzaileen kopurua, aldiz, % 2,2 jaitsi da.
- › Generoari dagokionez, erabiltzaileen gehiengoa emakumeak dira:
 - Eguneko zentroetan, % 79 emakumeak dira.
 - Egoitza zentroetan, % 78 emakumeak dira.
- › Adinak eragin handia du zerbitzuen erabileran:
 - Eguneko Zentroetan erabiltzaileen batz besteko adina 85 urtekoa da.
 - Egoitza Zentroetan, batz besteko adina 87 urtekoa da.
 - Emakumeen adina beti gizonen gainetik dago.

Desgaitasuna eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako zerbitzuak

- › Tolosan hainbat etxebizitza eta eguneko zentro eskaintzen dira desgaitasuna edo buruko gaixotasuna dutenentzat.
- › Zerbitzu hauetan gizonak nagusi dira, batez ere buruko gaixotasuna dutenentzako egoitza eta eguneko zerbitzuetan.
- › Desgaitasuna dutenentzako etxebizitza-zerbitzuetan parekotasun handiagoa dago, eta eguneko zentroetan emakumeen proportzioa handiagoa da.

Atzeritar jatorriko erabiltzaileen presentzia

Oso urria da:

- › Eguneko Zentroetako erabiltzaileen artean atzeritar jatorriko emakume bakarra dago.
- › Egoitza Zentroetan, atzeritar jatorriko hiru emakume erabiltzaile daude.
- › 2018ko datuekin alderatuta, atzeritar jatorriko pertsonen proportzioak % 1etik % 2ra egin du gora.

Laburbilduz...

- › Adinekoen egoitza eta eguneko zerbitzuetan emakumeak dira erabiltzaile nagusiak, baina desgaitasuna eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako baliabideetan gizonen presentzia handiagoa da.
- › Eguneko zentroen erabilera igo den bitartean, egoitza zentroetako erabiltzaileen kopurua apur bat jaitsi da.
- › Atzeritar jatorriko erabiltzaileen presentzia oso baxua da, eta gehienak emakumeak dira.

6.2.4. Bizitoki, Harrera eta Eguneko Arretarako Zerbitzuak

Orain arte aztertutako zerbitzu eta prestazioez gain, Udalak beste batzuk ere baditu. Horietako batzuk Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasotako oinarritzko gizarte-zerbitzuen eskumenen barruan kokatzen dira.

Bizitzako oinarritzko jarduerak modu autonomoan egiteko gai diren baina beren beharretarako egokia den bizitoki baten beharra duten pertsonen erantzuteko, Tolosako Udalak **Bizitoki Zerbitzua** kudeatzen du. Zerbitzu hau **adinekoei, desgaitasuna duten pertsonen edo mendekotasun-arrisku arinean daudenei** zuzenduta dago, eta **Tolosako Udaleko Pertsona Autonomoen Bizitoki Zerbitzuen Udal Erregelamenduak (2011)** arautzen du.

Araudiak bi egoitza-mota nagusi bereizten ditu: alde batetik, **tutoretzapeko edo balioanitzeko apartamentuak** –batzuk alokairu-erregimenean eta beste batzuk gela-eskubidea modalitatean–, eta bestetik, **Etxebizitza Komunitarioa**, guztiak Uzturre Asistentzia Gunean kokatuak. Kasu honetan, alokairu-erregimenean dauden tutoretzapeko etxebizitzak sakonago aztertuko ditugu, izan ere, gaur egun, aztergai dugun biztanleriari estaldura handiena eskaintzen dioten baliabideak baitira.

Tutoretzapeko etxebizitzak –alokairu-erregimenean– mendekotasun-arriskua edo mendekotasun arina duten adineko pertsonen edo desgaitasuna dutenei zuzendutako apartamentuak dira. Bertan, intentsitate baxuko laguntza eskaintzen da. Zerbitzu hauek Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek kudeatzen dituzte, eta erabiltzaile

izateko, gizarte-txosten baten bidez egokitasuna baloratu behar da. Gaur egun, modalitate honetako sei etxebizitza daude Tolosan, eta mantenua edo garbiketa bezalako zerbitzu gehigarriak kontratatzeko aukera eskaintzen da.

Tutoretzapeko Etxebizitzak (alokairu erregimenean)	
Baldintza nagusiak	– Pertsona autonomoa izatea, edo I. graduko mendekotasuna edukitzea. – 65 urte edo gehiago izatea (beharra txosten tekniko baten arabera egiaztatuta badago, salbuespenak ezarri daitezke). – Tolosan erroldatu egotea azken 5 urteetan edo azkeneko 15 urteetan 10 urtetan zehar. (Berrelkartzeagatik edo lotura pertsonal eta familiarra dela eta salbuespenak baloratuko ditu Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak). – Etxebizitza bat jabetzan izanda sei hilabeteko epean, adjudikazioa formalizatzen denetik, aipatu etxebizitza salgai jartzeko, errentan edo zesioan uzteko konpromisoa. – Urteko sarrera gordinak ez gainditzea IPREM-en % 325, eskatzailea pertsona bakarra denean; edo IPREM-en % 450, bi pertsonako elkarbizitza unitate bat denean. – Pertsonaren ondasunen zenbatekoak, ohiko etxebizitza alde batera utzita, ezin du 100.000 euroak gainditu.
Zenbatekoa eta baldintza ekonomikoak	– Finantzaketa partekatua Udalaren eta onuradunaren artean. Prezioa gaitasun ekonomikoaren arabera, errenta eta ondarea kontuan hartuta.

Nabarmentzekoa den beste zerbitzu bat **Adineko Pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua** da. 2019an abiarazi eta 2023an egonkortu zen zerbitzu honek aukera eskaintzen die mendekotasun arinean edo mendekotasun arriskuan dauden adineko pertsonen taldean parte hartzeko eta, era horretan, fisikoki, adimenez eta sozialki aktibo mantentzeko.


Zerbitzua bi taldetan banatzen da: talde batek astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, jasotzen du arreta; beste taldeak, berriz, astean bi egunetan arratsaldean.

Eskaerak Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Departamentuan jasotzen dira, eta eskatzaile bakoitzak zerbitzuan parte hartzeko baldintzak betetzen dituen bertan ebaluatzen da.


Familia harrera mendekotasun egoeran dauden pertsonentzat: Bakarrik daude mendeko adineko pertsonen familia ingurune normalizatuan bizitzeko aukera ematen die, zaintza-sare informalaren arreta eta laguntza bermatuz. Harrera egiteko prest dauden familiek zenbait baldintza bete behar dituzte, eta trukean, konpentsazio ekonomikoa jasotzen dute. Honakoa, 2008ko abenduaren 23ko **89/2008 Foru Dekretuan** arautzen da.

11. Generoaren araberako banaketa, Bizitoki, Harrera eta Eguneko Arreta Zerbitzuetan

11.1. Bizitoki, Harrera eta Eguneko Arretarako Zerbitzuko erabiltzaileak generoaren arabera 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



11.2. Ostatu, harrera eta eguneko arretarako zerbitzuko erabiltzaileak generoaren arabera 2018 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



Tutoretzapeko Apartamentuak

- Generoaren araberako banaketa: erabiltzaileen artean gehiengoa emakumeak dira, % 57 (4). Gizonak, berriz, % 43a dira (3).
- Konparaketa: 2018ko datuei dagokionez, emakumeak, gehiengoa ziren % 66 (4) gizonak berriz % 33 (2).

Eguneko Arreta Zerbitzua


- Generoaren araberako banaketa: erabiltzaileen artean gehiengoa emakumeak dira, % 71 (20). Gizonak, berriz, % 29a dira (8) dira.

Adinekoentzako familia harrera

- Generoaren araberako banaketa: programa honetan pertsona bakarra egon da aztertutako bi aldietan, honakoa emakumea izanik.

12. Adinaren eta generoaren arabera banaketa

12.1. Tutoretzapeko Apartamentuak: Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




Tutoretzapeko Apartamentuak

- Adinaren arabera joera orokorra: erabiltzaileen zenbateko esanguratsu bat (% 86) 70-79 urte bitartean ditu. kasu honetan ez dago 80 urtetik gorako erabiltzailearik. **Erabiltzaileen batzete adina 74 urtetakoa da.**
- Adinaren eta generoaren arabera joera: kasu honetan gizon guztiak 70-79 urte tartean aurki daitezke, emakumeen zenbateko altu bat tarte honetan kokatzen bada ere (% 75), 60-69 urte tartean honakoen % 25a kokatzen da. **Emakumeen batzete besteko adina 74 urtetakoa da, gizonena berriz 76 urtetakoa.**
- 2018an jasotzaileen batzete besteko adina 80 urtetakoa zen. Batzete besteko hau emakume, zein, gizonen artean agertzen zen berdina da.

Eguneko Arreta Zerbitzua

- Adinaren arabera joera orokorra: erabiltzaileen artean gehiengoa 80-89 urte bitartean ditu (% 61). **Erabiltzaileen batzete bete adina 84 urtetakoa da.**
- Adinaren eta generoaren arabera joera: Kasu gizonen artean (%62) emakumeen artean baino pertsona gehiago kokatzen dira 80-89 adin tartean, baita 90-99 urte tartean

12.2. Eguneko Arreta Zerbitzua: Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



ere, non, gizonen % 25 eta emakumeen % 15a aurkitzen den. Emakumeen batzuetan besteko adina 84 urtetakoa da, gizonena berriz 85 urtetakoa.

Adinekoentzako familia harrera

- › Aurrez aipatu bezala, programan pertsona bakar batek parte hartzen du, eta honek 70 eta 79 urte bitarteko adina du.

6.2.4.1. Ondorio nagusiak: Bizitoki, Harrera eta Eguneko Arretarako Zerbitzuz

Tolosako udalaren zerbitzu osagarriak

- › Mendekotasunari eta desgaitasunari lotutako prestazioez gain, Tolosako Udalak beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasotakoak.
- › Zerbitzu hauek autonomia maila ezberdina duten adinekoei eta desgaitasuna edo mendekotasun-arrisku arina dutenei zuzenduta daude.

Tutoretzapeko apartamentuak eta bizitoki-zerbitzuak

- › Tutoretzapeko apartamentuak mendekotasun-maila arina duten adinekoentzako alokairu-erregimeneko etxebizitzak dira, intentsitate baxuko laguntzarekin.
- › Tolosan sei etxebizitza daude, eta erabiltzaile izateko, oinarrizko gizarte-zerbitzuen bidez egokitasun-txosten bat behar da.
- › Zerbitzua finantzaketa partekatuaren bidez kudeatzen da, erabiltzailearen errenta eta ondarea kontuan hartuta.

Adineko Pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzua

- › Zerbitzua 2019an sortu zen eta 2023an egonkortu da.
- › Bi talde daude:
 - Astelehenetik ostiralera 10:00-13:00 bitartean.
 - Asteko bi arratsaldez parte hartzen dutenak.
- › Zerbitzura sartzeko, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Saila eskaera egin behar da.

Zerbitzuen erabiltzaileen bilakaera eta generoaren eragina

- › Emakumeak dira zerbitzu gehien erabiltzaile nagusiak, nahiz eta pisu tutelatuetan proportzio orekatua aurkitu (% 57 emakume, % 43 gizon).
- › Eguneko Arreta Zerbitzuan emakumeek % 71 osatzen dute.
- › Familia-harrera programan emakume bakar batek parte hartu du, ez dago gizonik.

Adinaren eragina zerbitzuen erabileran

- › Tutoretzapeko apartamentuak: Erabiltzaileen gehiengoa 70-79 urte bitarteko pertsonak dira (% 86).
 - Ez dago 80 urtetik gorako erabiltzaileen erregistrorik.
 - Batez besteko adina 74 urtekoa da, 2018ko 80 urteko adinaren aldean beherakada nabarmena dago.

Eguneko Arreta Zerbitzua

- › Erabiltzaileen gehiengoa 80-89 urte artekoak dira (% 61).
- › Batez besteko adina 84 urtetakoa da.
- › Gizonek emakumeek baino adin handiagoa dute (85 urte vs. 84 urte).

Atzerritar jatorriko erabiltzaileen presentzia

- › Aztertutako zerbitzu guztietan ez dago atzerritar jatorriko erabiltzaileen erregistrorik.

Laburbilduz...

- › Emakumeak dira zerbitzu hauen erabiltzaile nagusiak, baina tutoretzapeko apartamentuetan banaketa orekatua dago.
- › Adinaren batez bestekoa baxuagoa da pisu tutelatuetan, baina eguneko arreta zerbitzuetan 80 urtetik gorakoa da.
- › Atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartzea oso murriztua da, eta ez dago erregistrorik zerbitzu hauetan.

6.2.5. Haurrentzako arreta

Haurrei zuzendutako bestelako esku-hartze zerbitzuak haurrak, nerabeak eta gazteak atalean landuko badira ere, honakoa atal honetan jasotzea baloratu da. Garapen arazoak edo arazo horiek izateko arriskuak dituzten 0 eta 6 urte arteko haurrei eta beren senitarteko edo zaintzaileei eskainitako **Haurrentzako Arreta Goitiarra** Zerbitzu multzo bati dagokio, eta diziplina anitzeko ikuspegia du, osasuna, hezkuntza eta soziala barne hartuz. Helburua da haurraren beharrei ahalik eta azkarren eta modu osoan erantzutea, izan hauek iragankorrak edo iraunkorrak.

Zerbitzua espezializatutako guneetan (kabinete, elkarte, zerbitzu) eskaintzen da eta psikoterapia psikomotrizitate, pedagogia, logopedia edo fisioterapiari oinarritutako esku-hartzeak osatzen dituzte bestak beste. Hauek tratamendu indibidualizatuak eskaintzen diete haurrei eta haien familiei edo tutoreei, eta, aldi berean, osasun, hezkuntza eta gizarte arloetako profesionalekin koordinazioa bermatzen da.


Eskaeran Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan aurkezten dira, honakoa egiteko **ez da beharrezkoa desgaitasun edo mendekotasun aitortza izatea baina bai, adingabearentzako arreta goiztiararen beharra justifikatzen duen txosten medikoa**. Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldeak, planifikatzen ditu esku-hartze hauek. Talde honek diziplina anitzeko profesionalak ditu, eta haien ardura da beharrezko esku-hartzearen arloak eta intentsitatea ebaluatzea eta erabakitzea besteak beste. Zerbitzu hauek doakoak dira familientzat.

Zerbitzu hau honako araudi hauen bidez arautzen da: 24/2023 Foru Dekretua, uztailaren 18koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Haurren Arreta Goiztiarreko Zerbitzu Publikoaren prestazioa arautzen duena, eta 13/2016 Dekretua, otsailaren


2koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Haurren Arreta Goiztiarrean esku-hartze integrala arautzen duena.

13. Generoaren araberako banaketa Haurrentzako Arreta Goiztiarrean

13.1. Haurrentzako Arreta Goiztiarra zerbitzuko erabiltzaileak generoaren arabera
2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




13.2. Haurrentzako Arreta Goiztiarra zerbitzuko erabiltzaileak generoaren arabera
2018 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



- › Generoaren araberako banaketa: jasotzaileen artean **gehiengoa mutilak dira, % 76** (57). Neskak, berriz, % 24a dira (18).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, erabiltzaileen **kopuruak hazkunde deigarria izan du; 63** erabiltzaile gehiago.
 - Neskak: hazkundera 4tik 18ra.
 - Mutilak: hazkundera 8tik 57ra.

14. Adinaren eta generoaren arabera banaketa Haurren Arreta Goiztiarrean


14.1. Haurrentzako Arreta Goiztiarra: Genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




- › Adinaren arabera joera orokorra: adinak gora egin ahala, erabilera handitzen da, hau honela gehiengo batek (% 37) 5 urte izango lituzke. batz bete adina 4,5 urtetakoa da
- › Adinaren eta generoaren arabera joera: joerak nahiko aldakorak dira hala ere adin nagusiagotan -5 eta 6 urte tartetan- nesken % 72a kontzentratzen da, mutilen kasuan berriz zenbateko % 57koa litzake. Aldiz 0tik 4 urte arte mutilen % 43 aurki daiteke, nesken artean berriz zenbateko % 28koa da. Nesken batz besteko adina 5 urtetakoa da, mutilena berriz 4,4 urtetakoa.
- › 2018an erabiltzaileen batz besteko adina 3,6 urtetakoa zen. Nesken batz besteko adina 2,5 urtetakoa, mutilena berriz 4,2.

15. Jatorriaren eta generoaren arabera banaketa Haurrentzako Arreta Goiztiarrean

15.1. Haurrentzako Arreta Goiztiarrean Atzerritar jatorriko biztanleria generoaren arabera (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024):



15.2. Haurrentzako Arreta Goiztiarreko erabiltzaileak jatorria eta generoaren arabera guztizko zenbatekoarekin (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



- › Atzerritar jatorriko biztanleria eta generoaren arabera banaketa: atzerritar jatorriko 6 jasotzaile daude, 2 neska (% 44) eta 4 mutil (% 66). Erabiltzaileen batz besteko adina 4 urtetakoa da. 2018. Urtean ez zen atzerritar jatorriko biztanlerik egon zerbitzuaren jasotzaileen artean.
- › Atzerritar jatorriko biztanleriaren proportzioa jasotzaileen artean: kasu honetan, atzerritar jatorriko biztanleriak, guztizkoaren aldean, orain arte aztertu direnen proportziorik altuena suposatzen duela ikus daiteke. Proportzio hori handiagoa da nesken artean mutiletan baino.

6.2.5.1. Ondorio nagusiak: haurrentzako arreta

Haurren Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren hazkundera

- › Zerbitzuak hazkunde esanguratsua izan du, 2018tik 2023ra bitartean.
 - 2018an 12 erabiltzaile zituen, eta 2023an 75era iritsi da.
 - Bai mutilen eta bai nesken parte-hartzeak nabarmen egin du gora.
- › Helburua da garapen-arazoak edo horiek izateko arriskua duten 0-6 urte bitarteko haurrak ahalik eta azkarren artatzea.

Zerbitzuaren maskulinizazioa

- › Erabiltzaileen % 76 mutilak dira, eta % 24 neskak.
- › Adinaren arabera, neskak gehiago kontzentratzen dira 5-6 urte bitartean (% 72), eta mutilen artean, erabilera uniformegoagoa da (% 57 5-6 urte artean).
- › Nesken batzuetan besteko adina 5 urtetakoa da, mutilena berriz 4,4 urtetakoa.

Atzeritar jatorriko haurren parte-hartzea

- › Atzeritar jatorriko erabiltzaileen proportzioa % 8koa da, eta aztertutako zerbitzu guztien artean altuena.
- › 2018an ez zen atzeritar jatorriko erabiltzaile erregistratu, eta 2023an 6 erabiltzaile daude:
 - 4 mutil (% 66) eta 2 neska (% 44).
- › Atzeritar jatorriko nesken proportzioa mutilen baino handiagoa da.

Laburbilduz...

- › Zerbitzuaren hazkundera nabarmena izan da, eta mutilen parte-hartzea nabarmen handiagoa da.
- › Adin nagusiagoetan (5-6 urte) nesken kopurua handitzen da, baina zerbitzuan nagusiki mutilak daude.
- › Atzeritar jatorriko haurren presentzia zerbitzu honetan handiagoa da beste zerbitzuetan baino, % 8ra iritsiz.
- › Arreta Goiztiarreko Zerbitzuak haurren garapen-arazoak goiz detektatzea eta diziplina anitzeko ikuspegi batekin esku hartzea du helburu.

6.2.6. Mugikortasuna eta Irisgarritasuna Sustatzeko Zerbitzuak

Pertsonen egunerokoa erraztea funtsezkoa da, haien ongizatea eta komunitatearekiko gertutasuna sustatzeko. Atal honetan, mendekotasun-egoeran edo desgaitasuna duten pertsonen mugikortasuna eta elkarrekintza hobetzen laguntzen dieten baliabide eta zerbitzuak bildu dira.

Zeinu Hizkuntza eta Interpretazio Zerbitzua

Horren adibide da Tolosako Udalak eskainitako Zeinu Hizkuntza eta Interpretazio Zerbitzua, 2023an martxan jarri zena. Zerbitzu hau entzumen-aniztasun funtzionala duten pertsonen zuzenduta dago, eta hauei informazioa eskura izateko aukera ematen die, arreta eta zerbitzuak beren beharretara eta gaitasunetara egokituta jasotzeko. Horrela, irisgarritasuna eta berdintasuna bermatzen dira.

2023tik 2024ra bitartean, zerbitzua 19 aldiz eskatu da, bai Udalak bai herritarrek, hitzaldi, ipuin-kontaketa eta bileretan erabiltzeko, besteak beste. Tolosan bizi diren pertsonen eska dezakete, eta zerbitzua doakoa da.

Era berean, Udalak herritar guztiek Udalarekin harremanetan jartzeko erraztasunak izan ditzaten lan egiten du. Horretarako, zeinu-hizkuntzaren bidezko arreta zuzena eskaintzeko bideak zabaltzeaz gain, udal webguneko hainbat eduki zeinu hizkuntzara itzuli dira.


Mugikortasun murriztua dutenei aparkatzeko txartela

Mugikortasun murriztua duten pertsonen aparkatzeko txartela eska dezakete. Baimen honek ibilgailua iritsi nahi den lekutik ahalik eta hurbilen aparkatzeko aukera ematen du, baita erreserbatutako aparkalekuak erabiltzeko eskubidea ere.


Aparkaleku-txartela 50/2016 DEKRETUAK, martxoaren 22koak, arautzen du, eta bertan, eskubide honen titular izan daitezkeen pertsonak 3. artikuluan jasotzen dira. Txartela eskuratzeko izapidea doakoa da, eta udalek ematen dute, gehienez 3 hilabeteko epean.

16. Generoaren araberako banaketa Mugikortasuna Murriztua duten Pertsonentzako aparkatzeko txartela

16.1. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkatzeko txartela aktiboak **generoaren arabera** 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



16.2. Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkatzeko txartela eskabideak* **generoaren arabera** 2019-2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024) 2023.



* Urtean egindako eskabide guztiak onartu ziren, 2019. urtean 3 ukatu ziren.

- > Generoaren araberako banaketa: 2023an, 428 txartel aktibo zeuden. Zenbatekoak nahiko parekoak dira, nahiz eta emakumeen -222- kopurua zertxobait altuagoa izan (% 52). Gizonak ordea % 48a suposatzen dute eta 202 dira txartelen jabe.
- > Aldien konparaketa: aldiak aztertzeko, 2023 eta 2019. urteetan egindako eskabideak hartu dira kontuan. Kasu honetan, nabarmena da 2023an egindako eskabideen kopurua 2019koa baino askoz handiagoa dela. Datuak alderatuta, eskabideen kopuruak % 82,1eko hazkundera izan du.
 - o Emakumeak: % 47,7ko hazkundera (44tik 65ra).
 - o Gizonak: % 134,4ko hazkundera (29tik 68ra).

6.2.6.1. Ondorio nagusiak: mugikortasuna eta irisgarritasuna sustatzeko zerbitzuak

Mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko zerbitzuen garapena

- › Tolosako Udalak 2023an martxan jarri zuen Zeinu Hizkuntza eta Interpretazio Zerbitzua, entzumen-aniztasun funtzionala duten pertsonei arreta errazteko.
- › 19 aldiz erabili da 2023tik 2024ra bitartean, hitzaldi, ipuin-kontaketa eta bileretan.
- › Herritarrek doan eska dezakete, eta udalaren webguneko eduki batzuk zeinu hizkuntzara egokitu dira.

Mugikortasun murriztua dutenentzako aparkaleku-txartela

- › 428 txartel aktibo zeuden 2023an, horietatik % 52 emakumeek (222) eta % 48 gizonak (202) zituzten.
- › Eskabideen kopurua % 82 ko hazkundera 2019tik 2023ra.
 - Emakumeen eskabideak % 47,7 igo dira (44tik 65era).
 - Gizonen eskabideak % 134,4 igo dira (29tik 68ra).

Mugikortasun txartelen banaketa eta erabilera

- › 2023an Tolosa udalerriko biztanleriaren % 2k zuen txartel hau.
- › Bai emakumeen bai gizonen artean ehuneko berdina da (% 2).
- › Eskabideen hazkundera nabarmena izan da, baina ezin da joera argirik baieztatu.
- › Baliteke mugikortasun-arazoak dituzten pertsonen kopurua handitzen ari dela adieraztea.

6.2.7. Kirol egokitua, zahartze aktiboa eta osasunaren sustapena

Bizitza aktiboa, jarduera fisikoa eta jarduera kognitiboa sustatzeko estrategiek funtsezko zeregina dute bizi-kalitatea hobetzeko eta autonomia sustatzeko eta are garrantzitsuagoak dira dimentsio honetan aztertzen den populazioarentzat. Ohitura osasungarriek ongizatea indartzeaz gain, norberaren independentzia luzatzeko tresna eraginkorra dira.


Tolosako Kirol Saitetik helburu honekin osatutako jardueran ezberdinak garatzen dira. Pertsona nagusien kasu, **65 urtetik gorakoentzako mantenu fisikorako kirol ekintzak antolatzen dira kiroldegian.**

Era berean, behar bereziak dituzten pertsonei zuzendutako **kirol egokituko ikastaroak** ere antolatzen dira. Honakoak haur, zein, pertsona nagusiei zuzenduak daude eta igeriketa eta soinketa bezalako alternatibak eskaintzen dituzte. Nagusiei zuzendutakoak astean bi egunetan eskaintzen dira, eta Goyeneche Fundazio edo Atzegiko elkarteetako kideek erabiltzen dituzte. Umeei zuzendutakoak berriz astean behin eskaintzen da. Era berean Eskola Kiroleko programaren baitan egokitutako kirol alternatibak ere eskaintzen dira.

Pertsona nagusiei zuzendutako beste programa bat **Do Re Ni** da, esperientzia pilotu hau 2023an jarri zen martxan eta hizkuntzaren araberako bi talde osatu ziren. 65 urtetik gorako pertsonei musikaren bitartez garuna entrenatzeko helburua du eta Musika Eskolan eskaintzen da.


Hurrengo taulan baliabide hauen azterketa osatzeko eskuratu diren datuen analisia osatuko da.

17. Generoaren arabera banaketa



Generoaren arabera banaketa: kirol egokituko programetan, nagusiei (% 60). zein hurrei (% 74) zuzendutako ekintzatan gizonak osatzen dute parte

17.2. Kirol egokitua, zahartze aktiboa eta osasunaren sustapena generoaren arabera **2018** (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



hartzaileen artean gehiengoa. Aldiz Do Re Ni¹⁹ emakumeak suposatzen dute parte hartzaileen artean gehiengo nagusia, konkretuki % 85a.

› konparaketa: 2018ko datuak erreferentzia hartuta, 2023an emakume parte-hartzaileen proportzioa murriztu dela ikusten da. 2018an, emakumeek % 46 osatzen zuten helduei zuzendutako jardueretan eta % 35 haurrei eta gazteei zuzendutakoetan. 2018ko datuekin alderatuta, jasotzaileen kopuruak % 35eko jaitsiera izan dute helduei zuzendutako ekintzatan eta % 58koa haurrei zuzendutakoetan.²⁰

Helduak:

- Emakumeak: % 25ko jaitsiera (39tik 25era).
- Gizonak: % 5,2ko jaitsiera (46tik 19ra).

Haurrak (0-6):

- Neskak: % 68ko jaitsiera (16tik 5era).
- Mutilak: % 53ko jaitsiera (30tik 14ra).

¹⁹ Do RE Nin 6 pertsonen baja eman zuten arrazoi pertsonalengatik: 5 emakume eta gizon 1.

²⁰ Aipatzekoa da haurrei zuzendutako kirol modalitateak eta aukerak aldatu direla eta horrek zuzenean izan dezakeela eragina erabiltzaileen zenbatekoetan.

6.2.7.1. Ondorio nagusiak: kirol egokitua, zahartze aktiboa eta osasunaren sustapena

- › Bizitza aktiboa eta jarduera fisikoaren sustapena funtsezkoak dira adinekoen autonomia eta bizi-kalitatea mantentzeko.
- › Kirol egokituko programetan gizonak dira nagusi:
 - Helduetan, % 60 gizonetzkoak dira.
 - Haurren artean, % 74 mutilak dira.
- › Do Re Ni programan, emakumeak dira parte-hartzaileen % 85.
- › 2018tik 2023ra parte-hartzaile kopurua jaitsi egin da:
 - Helduen artean, % 35 gutxiago.
 - Haurren artean, % 58 gutxiago.

Laburbilduz...

- › Kirol egokituko eta zahartze aktiboko programetan parte-hartzea jaitsi egin da azken urteetan, eta gizonen presentzia handiagoa dute.

6.2.8. Hauskortasuna eta kalteberatasuna detektatzeko eta artatzeko esperientzia pilotuak

Tolosako Udalak hainbat ekimen garatu ditu adineko pertsonen kalteberatasuna eta hauskortasuna prebenitzeko eta horiei aurre egiteko. Horien artean, bi proiektu nabarmendu daitezke.

Hauskortasunaren Diagnostikoa

Gizarte Zerbitzuek 2023an kudeatutako esperientzia pilotu honek adineko pertsonen hauskortasun-maila diagnostikatzea du helburu. Gainera, egoera horri erantzuteko esku-hartze pertsonalizatua planifikatzea ere barne hartzen du, adinekoen ongizatea eta autonomia sustatzeko.


Adinbera Proiektua

Bestalde, Adinbera hiru urtez Tolosan garatuko den ikerketa da. 65 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago eta haien bizitza-kalitatea hobetzeko tresnak garatzea du xede. Horretarako, hauskortasunari eta kalteberatasunari eragiten dioten faktoreak murriztea bilatzen du.

Proiektua Muñoa Fundazioak finantzatzen du, eta Biodonostia Institutua ari da gidatzen, Tolosako Udala eta Tolosaldeko OSIren laguntzarekin.


18. Generoaren araberako banaketa Hauskortasun Diagnostikoan

18.1. Hauskortasun diagnostikoa osatutako pertsonen generoaren arabera 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzu eta kirol sailak, 2024)



- › Generoaren araberako banaketa: parte-hartzaileen banaketa orekatu samarra da: Hauskortasun Diagnostikoa osatu zaien 25 pertsonetatik 13 (% 52) emakumeak dira 12 (% 48) berriz gizonak.

19. Adinaren eta generoaren araberako banaketa Hauskortasun Diagnostikoan



Adinaren araberako joera orokorra

- › Gehiengoa 70-79 urtekoen taldean dago (% 40), eta ondoren 80-89 urtekoen taldean (% 36).
- › 60-69 eta 90-99 urteko taldeek parte-hartze txikiagoa dute, % 16 eta % 8, hurrenez hurren.

Adinaren eta generoaren araberako joera

- › Gizonak gazteagoak dira oro har: gehienak 70-79 urte bitartekoak (% 50) dira, eta beste batzuk 60-69 urte bitartekoak (% 16).
- › Emakumeak adin-tarte aurreratuenetan pilatzen dira: % 54 80-89 urtekoak dira, eta % 8 90-99 urtekoak.

90-99 urteko taldean gizonen eta emakumeen kopurua berdina da

- › Normalean, adin-tarte hauetan emakumeen kopurua handiagoa izaten da, baina diagnostiko honetan gizon eta emakume kopurua orekatuta dago (% 8 bakoitza).

6.2.8.1. Ondorio nagusiak: hauskortasuna eta kalteberatasuna detektatzeko eta artatzeko esperientzia pilotuak

- › Hauskortasun Diagnostikoaren bidez, adinekoen hauskortasuna aztertzen eta artatzen da.
- › 25 pertsona aztertu dira, banaketa nahiko orekatua izanik (%52 emakume eta %48 gizon).
- › Gizonak gazteagoak dira (gehienak 70-79 urte artekoak), emakumeak, aldiz, adin-tarte aurreratuenetan daude (gehiengoa 80-89 urte artean).

Laburbilduz...

- › Hauskortasun Diagnostikoan parte-hartzaileak modu orekatuan banatzen dira generoaren arabera, baina adin aurreratuenetan emakumeak dira nagusi.

6.2.9. Lankidetzaren guneak

Adinekoen Mahaia 2024. urtean sortu zen eta 3 hilabetez behin biltzen dira. Honakoaren helburu nagusia adinekoen arloan diharduten elkarte eta eragileekin lankidetzaren eta hausnarketa kolektiboa sustatzea da, biztanleria honen nahiak aztertuz eta ekintza edo lan-lerro berriak sustatuz.

6.2.10. Tolosan Adinekoak eta desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen errealitatean eragiten duten komunitate eragileak eta hauen egitasmoak

Azterketan zehar argi geratu da komunitateko eragileek funtsezko zutabea osatzen dutela biztanleria honen zaintza-ekosisteman, tokian tokiko eta espezializatutako erantzunak eskainiz.

Atal honetan, eragile horiek hobeto ezagutzen saiatuko gara.

Adineko pertsonen arloa

- › **Adinkide:** Tolosan 2020 urtean bere ibilbidea hasi zuen elkarte honek, laguntza afektiborako programa bat garatzen du, eta bere helburu nagusia bakardadea prebenitzea da. Pertsona bakoitzari boluntario bat esleitzen zaio, eta honek astero bisitatzen du bere etxean edo egoitzetan. Bisita horien bidez, paseoak eta elkarriketak eskaintzen zaizkio, adiskidetasun-loturak

- sendotzeko. Halaber, animazio eta sozializazio ekimen ezberdinak ere antolatzen ditu eta telefono bidezko akonpainamenduak osatzen dira.
- › **Nagusilan:** irabazi-asmorik gabeko elkarte da, adineko pertsonen laguntza integralean aritzen dena, eta Tolosan boluntario talde bat duena. Elkarreak adinekoei laguntza eskaintzen die haien etxeetan eta egoitzetan. Halaber, animazio eta sozializazio ekintzak antolatzen ditu, eta telefono bidezko laguntza ere garatzen du.
 - › **Beti Ikasten:** irabazi-asmorik gabeko kultura-elkarte da, 2010ean sortua. Zahartzaro aktiboa sustatzea du helburu, adineko pertsonen jakituria eta esperientzia oinarri hartuta, hauek zabaltzeko eta jakin-mina areagotzeko asmoz, bereziki Esperientzia Eskola ekimenaren bidez. Elkarreak berak adierazi duenez, 250 bazkide ditu.
 - › **Harizpe:** Erretiratuen eta pentsiodunen elkarte Adinekoentzako gizarte-zentroa kudeatzen du, eta mota guztietako tailerrak eta zerbitzuak eskaintzen dira bertan.
 - › **Iturriza** Tolosa eta eskualdeko adineko pertsonen elkarte. izena emandako 2200 bazkide inguru dituen eta helburu nagusi bezala bere kideen aisialdi eta lasaigarriako jarduerak antolatzean datza.
 - › **Duintasuna Gipuzkoako Jubilatuek eta Pentsiodunen elkarreak** delegazioa du Tolosaldean 2017. urtetik, honakoa Adineko pertsonak mobilizatzen ditu, kolektibo horren eskubideak erreibindikatzeko, ongizatea eta zahartzaro duina izateko erronkak ditu bere oinarrian.
 - › **Oneka Emakume pentsionisten Plataforma:** elkarreak ekitaldi kulturalak, aisialdikoak eta aldarrikapenekoak antolatzen ditu, eta pentsiodun emakumeen eskubideak defendatzen ditu.

Desgaitasun eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen arloa

- › **Atzegi** Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarreak ekimen ugari garatzen ditu Tolosa mailan. Horien artean aurrez aipatutako Etxebizitza programa, Tolosako Txolarte, -aisialdiko jarduerak garatzen dituen programa- Edo Bizitza Independenteterako Programa -langile-erreferente batek laguntza eskaintzen du, baita beharrezko beste zerbitzu batzuk bilatzen laguntzen ere bizitza independentea sustatzeko-.
- › **Ortzadar** adimen-muga profila duten pertsonen eta familien elkarte da. Aurrez aipatutako Etxebizitza Programak eta gizarte-laguntzaz gain, aisialdi eta denbora libreko jarduerak eskaintzen ditu, baita bizitza independenteterako laguntzak ere, besteak beste.
- › **Goyeneche Fundazioa**, Ibarako Garagunea kudeatu eta dinamizatu, eta Gipuzkoa mailan besteko programak garatzen ditu, hauen artean Auzoan -Pertsonaren bizitza-ingurunean laguntza eskaintzen duen programa, zentro

espezifikoetatik kanpo, eta komunitate-ingurunera bideratua- edo Pausoak - natura-ingurunean garatzen den programa okupazionala- aurkitu daitezke.

- › **AransGI** Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkartek, Tolosan Logopedia Zerbitzua eskaintzen du. Hala ere, honakoak Gipuzkoa osoan gor pertsonen era guztitako baliabideak eskaintzen dizkio hala nola; Hezkuntza Arretarako Zerbitzua, Gazte Gorrentzako Programak, Lan Babeserako Zerbitzua, edo Diagnostika Zerbitzua besteak beste.
- › **Gurutze Gorria:** Larreamendiko Eguneke Zentroa eta Tutoretzapeko Etxebizitzak kudeatzeaz gainera, egoera ahulean dauden pertsonak artatzen dituzte eta era desberdinetako programak garatzen dituzte: horniduren ordainketa programa, elikagai-txartelak, eskola-materiala eta Gabonetako kanpainak, besteak beste, biltzen dituzten laguntza-programak eskaintzen dituzte.
- › **AFAGI:** Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen elkartetik, akonpainamendua, aholkularitza eta kontzientziazioa lantzen dira besteak beste. Alzheimerra duen pertsonaren bizi-kalitatea hobetzea bideratutako estimulazio kognitiboa lantzeko saioak eskaintzen dira Tolosan.

Enplegu zentro bereziak eta okupazionalak

Desgaitasuna duten pertsonen beren beharretara egokitutako lan-ingurunea eskaintzen dien lan-modalitate, eta laguntza eta babesa bermatzen ditu beren gaitasunak garatu eta ordaindutako enplegua lor dezaten. Horien artean **Sutargi, Katealegaia eta Gureak** aurki daitezke.

6.2.10.1. Ondorio nagusiak: adinekoentzako eta desgaitasuna edo mendekotasuna dutenentzako komunitate eragileak

Tokian tokiko komunitate-eragileek funtsezko rola dute zerbitzuen osagarri gisa, hainbat behar sozial estaltzen dituzte:

- › Adinekoen bakardadearen aurkako programak: Adinkide, Nagusilan.
- › Zahartze aktiboa eta kultura: Beti Ikasten, Harizpe, Iturriza, Oneka.
- › Eskubideen aldeko elkarteak: Duintasuna.
- › Desgaitasun eta mendekotasunaren arloko elkarteak: Atzegi, Ortzadar, Goyeneche Fundazioa, AransGI, Gurutze Gorria, AFAGI.
- › Enplegu zentro bereziak eta okupazionalak: Sutargi, Katealegaia, Gureak.

Laburbilduz...

- › Tokiko komunitate-eragileek funtsezko lana egiten dute adinekoen, desgaitasuna duten pertsonen eta mendekotasun-egoeran dauden ongizatea bermatzeko.
- › Tolosan adinekoentzako eta desgaitasun-egoeran daudenentzako zerbitzu eta eragile-sarea zabala eta aktiboa da, baina parte-hartzearen bilakaerari eta beharren aldaketei erreparatu beharra dago.

6.3. Ekarpenak eta korapiloak

Atal honetan, Tolosako adinekoak, desgaitasuna edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen dimentsioaren zaintza ikuspegi kualitatibotik aztertzea izan da helburua, dimentsio honetan eragiten duten eragile ezberdinen esperientziak partekatu eta ulertzeko. Horretarako, jarraian aipatzen diren eragileen ordezkariekin bildu gara.

Adinekoei zuzendutako zerbitzuak eta azpiegiturak	M.1
– Uzturre Asistentzia Gunea. – Iurreamendiko Adinekoen Egoitza. – Madre María Josefa Eguneke Zentroa. – Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua. – Udaltzaingoa (Giltzen Gordailua).	
Desgaitasuna edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonen zuzendutako elkarte, zerbitzu eta azpiegiturak	M.2
– Gurutze Gorria. – Ibarrako Garagunea. – Atzegi. – Ortzadar. – Aransgi. – Afagi. – Sutargi.	
Adineko pertsonen elkarteak	M.3
– Nagusilan. – Adinkide. – Harizpe.	
Mugimendu feminista emakumeen elkarteak	M.4
– Oneka. – Asanblada feminista.	
Osasun sistema	M.5
– Asuncion Klinika. – Tolosako Osasun Mentala. – Tolosako Anbulatorioa.	

Aurreko atalean azaldu bezala, Tolosak zaintza-mapa anitza du, non eragile desberdinek elkarrekintzan diharduten eta arreta-aukera ugari dauden. Testuinguru horretan, azpimarratzekoa da elkarrizketatutako parte-hartzaile batek esandako hurrengo esaldiarekin hastea: *"Baliabideak hobetu dira, eta horrek beste gauza batzuei buruz pentsatzen hasteko aukera eman du."*



ERABILTZAILEEN FEMINIZAZIOA

Aurrez ikusi bezala, adinekoei zuzendutako baliabideen erabiltzaile gehienak emakumeak dira. Elkarrizketetan bi faktore nabarmendu dira: alde batetik, bizi-itxaropen luzeagoa dutela eta bestetik, zaintza-lanak beren gain hartzen dituztelako adinean aurrera egin ahala, sarritan laguntza-sare murrizagoak dituztela. Bestalde, desgaitasuna edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonen baliabideak kudeatzen dituztenen artean, batzuek adierazi dute kopuruak orekatuta daudela, baina beste batzuek azpimarratu dute faktore kulturelek eta sozialek ere eragina izan dezaketela errealitate honetan.

Desgaitasuna eta buruko gaixotasunak dituzten zerbitzuei zuzendutako pertsonen kasu (M.2):



"Garagunean gizonak daude baina gehienak orokorrean emakumeak izaten dira, leku ezberdinetatik etortzen dira deribatuak, baina nagusiagoak direnen artean asko etxeko lanak egitetik etortzen dira, emakumeak isolatuago egon dira eta aukera gutxiago izan dituzte. Gazteen artean egia da hau ez dela hainbeste ikusten. Gizonezko asko, adibidez, Gureak-en lan egitetik datoz; emakumeen artean ere badaude horrelako kasuak, baina nagusiak diren gehienak etxetik datoz."

"Gure kasuan gehienak gizonak, egon izan gara soilik emakume batekin. Orain gehiengo gizona badira ere, badaude emakumeak. Buruko nahasmendua zuten emakume asko etxean geratzen ziren eta ez zuen atentzioa deitzen. Orain ordea gehiago daude bizitza publikoan, lan egiten dute adibidez eta ikusten hasi da nabariagoa da."

"Gure kasuan egia da profila maskulinizatua dela, agian aktibitate motagatik, Industria arlora gehiago bideratzen da; une honetan, gutxi gorabehera %56 gizon dira."



BIZTANLERIAREN ETA ERABILTZAILEEN ZAHARTZEA

Hau izan da elkarrizketa eta talde guztietan behin eta berriz aipatutako gaietako bat. Oro har, erabiltzaileen profila gero eta zaharragoa dela nabarmendu da, eta, aldi berean, mendekotasun handiagoa duten pertsonen kopurua hazten ari dela ere azpimarratu da. Horrek, zuzenean, eskaeren gorakada baldintzatzen duela adierazi da.

Eguneko Zentroak (M.1):

“Askotan dirudi egoera hobean dauden pertsonentzat bideratuta dagoela, egoitzara sartzeko urratsa bezala, baina Eguneko Zentroetara gero eta okerrago iristen dira.”

“Joera dago geroz eta dependentzia maila altuko pertsonak Eguneko Zentroetan topatzeko, beranduagoa gerturatzen direlako zerbitzuetara.”

Egoitzak (M.1):

“Gehiengoa emakumeak dira eta azken urteetan adinez oso nagusiak, lehen gazte eta autonomoak sartzen ziren batzuk, baina geroz eta dependentzia maila altuarekin sartzen dira.”

“Adin handiarekin etortzen dira, jendea oso zahartuta iristen da.”

Desgaitasuna eta buruko osasun larria edo iraunkorra duten pertsonentzako baliabideen kasuan ere, adina faktore garrantzitsu gisa aipatu da. Zehazki, profil horretako adineko pertsonentzako baliabideen gabezia orokorra nabarmendu da (M.2).

“Zer gertatuko da pertsona hauekin adineko bihurtzen direnean eta inork zaintzen ez dituenean? Askotan, premiaz sartzen dituzte nonbait. Askotan, euren ingurutik kanpo. Egoitza bereziak daude adibidez Uliazpi. Baina tristeena da asko egoitza arrunt batean amaitzen dutela, eta han, askotan, ez daudela prest dibertsitate funtzionala duen pertsona bat behar bezala artatzeko.”

“Buruko nahasmenduaren kasuan antzekoa gertatzen da. Adibidez, Ordizian badago adineko buruko nahasmendua duten pertsonentzako zentro bat, baina ez dago askoz gehiago. Zer gertatzen da? Normalizatura joaten badira, desorekatzen dira, bai haiek, bai zaintzaileak, baita inguruko guztiak ere. Izan ere, ez daude egokituak, kolektibo bakoitzak bere behar zehatzak baititu. Ez da aurreikuspenik izan, izan ere, lehen, pertsona hauen bizi-itxaropena txikiagoa zen.”

“Pertsona nagusiei dagokionez Programa instituzionalak ez daude pertsona gorrentzat egokituta. Etxez-etxeko Langile bera etortzen bada, kodigo bat sor daiteke bien artean komunikatzeko, baina egoitzetan hori askoz zailagoa da. Egokitzen falta hau landu beharreko gaia da. Tele-alarma zerbitzua ez da irisgarria adibidez. Aniztasun funtzional sentsorialerako baliabide egokituak falta dira.”

Enplegu Bereziko Zentroa den Sutargitik ere kezka agertu dute gai honen inguruan, eta adierazi dute, elkarrizketak egin diren unean, arazoari aurre egiteko hausnarketa-prozesuan daudela:

“Barne mailan hausnarketa-prozesu batean gaude, gurekin lan egiten duten pertsonen profilagatik. Hasi gara ikusten erretiroa hartzeko orduan pertsona askok ez dutela jarduerarik izango, eta horrek beren bizi-kalitatean eragin negatiboa izan dezakeela. Askotan, pertsona hauen gurasoak hil dira edo oso adinekoak dira, eta horrek zaintzan izan dezakeen eraginean kezkatzen gaitu. Barne mailan, lan-esparrutik haratago doazen gabezia horien diagnostikorako tresna bat lantzen gabiltza”



ETXEAN ZAINZEA

Politika publikoek hainbat ekimen abian jarri dituzte zaintza etxeko ingurunean sustatzeko, pertsonak beren etxeetan eta komunitateetan mantentzearen garrantzia aitortuz eta arreta-eredu horiek lehenetsiz. Politika publikoek hainbat ekimen abian jarri dituzte zaintza etxeko ingurunean sustatzeko, pertsonak beren etxeetan eta komunitateetan mantentzearen garrantzia aitortuz eta arreta-eredu horiek lehenetsiz. Literatura espezializatuaren zati handi batek gomendatzen du mendekotasun-egoeran dauden pertsonak beren familia-ingurunean mantentzea, eta hori bera adierazi dute askotan interesdunek, beraiek ere, etxean lagunduta egotea baloratzen baitute.

Hala ere, etxean denbora gehiago egoteak erronka dakartza zenbait zerbitzuetan. Alde batetik, egoitza edo eguneko zentroetan, menpekotasunari lotutako beharrianak handiagoak direlako. Bestetik, etxean zaintzeak senide edo zaintzaile nagusientzat zama handia dakar, eta horrek eragin negatiboa izan dezake haien osasun fisikoan eta emozionalean.

Azken finean, txanponaren beraren bi alde dira: etxean jarraitzeko nahia eta horrek mendeko pertsonarentzat zein haren laguntza-sarearentzat dakartzan erronkak.

Pertsona nagusiei zuzendutako Egoitza eta Eguneko Zentroak (M.1):

“Mendekotasuna duten pertsonak etxean jarraitzen dute ahal duten bitartean, baina, egoera jasanezina bihurtzen denean, egoitzetara jotzen dute. Hala ere, egoitzetan egoera desberdinak aurkitzen dira: batzuk narriadura arina duten pertsonak dira, eta beste batzuk, berriz, askoz egoera larriagoan daude. Baina, ahal dugun neurrian, egokitzen saiatzen gara. Etxean gehiago irauten dute, ezin den arte, egoera jasanezina den arte. Lehen, askoz gauza gehiago egin zitezkeen, baina orain asko kostatzen da, iristen diren baldintzak direla eta. Ia guztiak gurgildun-aulkian daude; lehen ez zen horrela.”

“Azken urteotan, aldaketa nabarmena izan da: egoitzetara iristen diren pertsonak gero eta adintsuagoak dira, eta mendekotasun-maila handiagoa dute. Etxez etxeko laguntzak

eta eguneko zentroek gero eta gehiago luzatzen dute etxean jarraitzeko aukera, eta, ondorioz, egoitzak azken aukera gisa ikusten dira. Horrek arreta-ereduaren inguruko eztabaida piztu du. Nahiz eta egoitzetan emaitza positiboak lortu, egoera honek zaintza-lana zailtzen du neurri batean, erabiltzaileen beharrak gero eta handiagoak direlako."

Osasun zerbitzuetatik ere honakoa nabarmendu da:

“*"Pazientea etxean mantendu behar da, eta hori oso ondo dago, baina iristen da une bat non jada ezinezkoa bihurtzen den. Gainera, etengabe ari gara etxeko baliabideak gehitzen. Azken unera arte pertsona etxean mantentzen badugu, azkenean, Eguneko Zentroetara edo Egoitzetara oso mendeko edo psikogeriatriakoak diren pazienteak bidaltzen ditugu."*

Etkez-etxeko laguntza zerbitzuaren kasua:

“*"Gure kasuan, egia da prozesua progresiboagoa dela. Askotan, erabiltzaileek ahal duten neurrian etxean jarraitu nahi izaten dute, eta egoera hori luzatzen da. Gure langileei esaten diegu abisatzeko erabiltzaileak oso larri ikusten badituzte, eta horrelako kasuetan, Gizarte Langilearekin eta familiarekin hitz egiten dugu."*

Askotan, familiakoak desesperatuta daude, eta egoera ez da erraza, askok pentsatzen dutelako guk ez dugula ezer egin nahi. Ulertzen dut etxean egon nahi izatea edo zaindu nahi izatea, baina batzuetan baliteke erabiltzaileak beste zerbitzu mota bat behar izatea. Hala ere, hori askotan ukatzen dute."

Batzuetan, jendeak galdetzen digu: 'Baina nola daukazue pertsona hau etxean?' Erantzuna argia da: pertsona honek etxean egon nahi duelako. Zenbat aldiz hitz egin dugun berarekin galdetu diguzu? Zenbatetan saiatu garen konbentzitzen? Egoera horietan, guk askotan igo eta hitz egiten dugu erabiltzailearekin, baina erabakia berea da."

Honakoan, beste faktore erabakigarri bat ere badago. Aurrez aipatu bezala, Eguneko eta Egoitza Zentroetako sarbidea arautzen duen **7/2017 Foru Dekretuak** ezartzen duenez, erabiltzaile-izaera eskuratzeko, eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak/baimendutako pertsonak baimena eman behar du.

Bestalde, arreta-zerbitzuetako plazen kopurua ere kontuan hartu beharreko elementua da. **Behagiren arabera, 2023an**, Tolosan **24 pertsona** zeuden **Nagusien Egoitzetan** sartzeko itxaron zerrendan, **9 pertsona Adinekoentzako Eguneko Zentroetan**, eta **1 pertsona desgaitasuna dutenentzako egoitzetan**. Gizarte Zerbitzuek adierazi dutenez, ez da beharrezkoa izan Etkez-etxeko Laguntzaren itxaron zerrenda aktibatzea, Udalak beti lehenetsi duelako beharrezkoa den guztietan oinarrizko arreta hori bermatzea.

Zenbait baliabideetan nabaritzen hasia da erabiltzaile kopuruak gora egin duela eta honek neurriak edo estrategiak hartzeko beharra agerian uzten du.

Giltzen Gordailuaren kasu:

“Udaltzaingoak dio: “Honi buelta bat eman behar diogu. Nabaritzen dugu tele-alarman erabilera gero eta handiagoa dela, eta gure lanean ohikoagoa bihurtzen ari da horrelako egoerak atenditu behar izatea. Normala da gu izatea horrelako kasuetan lehenengo iristen garenak, baina egia da uste dugula asistentzia sanitarioak atzetik etorri behar duela.

Askotan aurkitzen ditugu egoerak non pertsonak benetako arreta sanitarioa edo asistentzialagoa den lana behar duten, eta hori ez dagokigu guri. Gainera, sarri gertatzen da senitartekoek telefonoa ez hartzea ere. Hau mahai gainean jarri eta ondo aztertu behar da. Ez dugu formakuntzarik jaso horretarako, eta ez dago inolako protokolorik. Askotan, gure logika erabiliz jarduten dugu, eta hori ezin da beti irtenbide egokia izan.”

Osasun sistematik:

“Baliabide falta dago, eta, balorazioa edo bestelakorik eginda ez dutenean, prozesua askoz zailagoa bihurtzen da. Guk, ahal dugun neurrian, ingresuak luzatzen ditugu zerbait aurkitu arte... eta hori aurkitzen badute.”

Aurreko ataletan aztertu den bezala, biztanleriaren zahartzea etorkizuneko errealitate ukaezina da. Egoera honek kezka sortzen du diagnostikorako elkarriketatutako eragile askoren artean, bai gaur egungo beharrei erantzuteko zaintza-zerbitzu nahikorik ez dagoelako, bai laguntza-sarerik eza adineko biztanleriaren zati handi bati eragiten diolako.

Horrez gain, familia-nukleoak gero eta txikiagoak dira, eta kideak geografikoki sakabanatuago daude, faktore horrek familia-eremuko zaintza- eta laguntza-aukerak nabarmen mugatzen ditu.

“Familiak gero eta txikiagoak gara, bizitzako erritmoa gero eta estresagarriagoa da, eta, aldi berean, adineko pertsonen kopurua etengabe hazten ari da. Zer espero dezakegu? Arazo larria dago jada, eta etorkizunean egoera okerragoa izan daiteke. Luzaroago bizi gara, gero eta pertsona nagusi gehiago gaude, baina ez daude bitarteko nahikorik hauei erantzuteko.

Instituzioek honi nola aurre egin pentsatu beharko dute, baina guk ere antolatu eta prestatu behar dugu. Behar ditugu baliabide berriak, esperientzia berriak eta zaintza-espazio desberdinak, egungo eta etorkizuneko beharrei modu egokian erantzuteko.” (M.4)

“Joera argia da: gero eta gehiago biziko gara, eta, horren ondorioz, zerbitzuen katalogoa handitu beharko da. Baina ez da kontua soilik zerbitzu gehiago eskaintzea; kalitatea ere bermatu behar da.” (M.1)

EREDU ALDAKETA

Elkarrizketatutako pertsona askok azpimarratu dute **pertsonan zentratutako eredia** sustatzearen garrantzia. Eredua honek **pertsonen autonomia, lehentasunak eta bizimodua errespetatzea** du helburu, arreta pertsonalizatua eskainiz eta ingurune hurbilago eta esanguratsuago bat sortuz.

“Arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu, eta gelak beste modu batera antolatzeko ahalegina egiten ari gara. Horrez gain, ekintza ezberdinak eskaintzen ditugu, hala nola gimnasia, eskulanak, bertsolaritza saioak eta beste hainbat dinamika, erabiltzaileen ongizatea sustatzeko.

Aurre-ingresua egiten denean, egoiliarrek zentroa ezagutzeko aukera du, eta, horretarako, gizarte-langilea eta erizaina joaten dira harekin harremanetan jartzera. Honek gertutasuna ematen du eta egokitzen errazten du. Lehen, bazkarirako menua bakarra zen, baina orain aukera ezberdinak ditugu, pertsonen lehentasunak errespetatzeko. Ahalegin berezia egiten dugu erabiltzaileek etxean bezala senti daitezen, eta horretan ari gara lanean.” (M.1)

“Gure jardueren programa etengabe aldatzen eta egokitzen da; beti bizirik dago eta pertsonen nahi eta interesetatik abiatuta sortzen dugu. Nahiz eta batzuetan zaila izan, ahalegintzen gara bakoitzaren behar eta desioei erantzuten.” (M.2)

“Pertsona bat beste zerbitzu batera bideratzen denean, aurkezpen-gutun bat egiten dugu, ez soilik txosten mediko huts bat. Benetako aurkezpen bat izatea bilatzen dugu, pertsonaren ibilbidea, balioak, gustuko dituen eta ez dituen gauzak gal ez daitezen. Horrek trantsizioa errazten du eta pertsonalizatutako arreta bermatzen laguntzen du.” (M.2)

Desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako eguneko eta egoitza-zerbitzuen eremuan, erabiltzaileen zahartzeak eta ratioek eredu berriaren garapena zailtzen dutela adierazi da.

“Ratioak txikiak dira, eta langileak askotan denboraz larri dabilta. Nahita ere, ezinezkoa da arreta guztiz pertsonalizatua eskaintzea, ratioak ez badira egokiak; ez dago profesional nahikorik horri aurre egiteko. Arreta pertsonalizatua ideia bikaina da, baina baliabiderik gabe, ez da erraza gauzatzea.

“Ratioak ez dira errealak eta ez dira nahikoak. Arazo handia da, eta nik behintzat, azken urteetan ez dut hobekuntza nabarmenik ikusi zentzu honetan.”

Nabarmendu den beste ideia bat euskaraz artatua izateko eskubideari dagokio.

“Erregelamenduak jasotzen du erabiltzaileek euskaraz artatuak izateko eskubidea dutela, baina praktikan zailtasun handiak ditugu, eta egoera okerrera doa. Askotan, ezin diegu zerbitzua beraiei hizkuntzan eskaini.”

Gure beste kezka nagusietako bat da euskaraz ulertzeko aukera bermatzea. Erabiltzaile asko daude erdaraz moldatzen ez direnak, eta egoera hau gero eta zailagoa bihurtzen ari da.”

Zenbait taldetan zaintzen balorazio sozial eta ekonomikoaren faltak eraginda, egun, eta etorkizunean zaintzaren eremuan suposa dezakeen profesionalen falta nabarmendu dute:

“Zaintzak ez daude baloratuak, ez sozialki ez ekonomikoki ere. Rotazio handia egoten da. Jende askok ez du hau etorkizunean geratzeko lan gisa ikusten”

“Lan hau gustatu egin behar zaizu, eta hala ere oso gogorra da; lan fisikoa da, eta egunerokoan heriotzari aurre egin behar diogu. Ez dago edonor prest horretarako. Pertsonak zaintzen ditugu, pixkanaka okertzen doazenak, eta hori kudeatzen jakin behar da; maitasuna hartzen diezu eta horrek ere zailtasuna gehitzen dio”.

“Nere beldurra da etorkizunean profesional faltan egongo de la, lan-baldintza kaxkarren eta gizartearen aitortza faltaren ondorioz. Nola esango diot nere amari soziosanitarioa ikasi nahi dudala? Jende askok beste lanbide edo ikasketa batera salto egiteko erabiltzen du hau, eta oso gutxik egiten dute benetan hemen geratzeko asmoarekin”.



ZAINZA-ZERBITZUEN ESTIGMA ETA ONARPENERAKO ERRONKAK

Elkarriketatutako askok sumatu dute zaintza-zerbitzuek nolabaiteko estigma dutela, baita erabiltzaileek bizi duten egoeratik eratorritako zaugarritasuna onartzeko zailtasunak ere, askotan tabu moduan ulertzen direnak. Era berean, nahiz eta gai hau geroago sakonago landuko dugun, “zaintzaile ona” izatearen esanahiari buruzko gizarte-ikuspegiak eragin nabarmena duela ere azpimarratu da.

Honek, oro har, “berandu iristen” garenaren sentsazioa sortzen du, eta, ondorioz, zerbitzu bakoitzak eskain ditzakeen aukerak eta potentzialtasunak behar bezala aprobetxatzea zailtzen du.

Desgaitasuna duten pertsonekin lan egiten duten elkarten kasuan (M.2):

“Familiek laguntza eskatzen dutenerako, batzuetan beranduegi izaten da. Maiz, joera nagusia arazoa estaltzea da, eta hori bereziki larriagoa bihurtzen da pertsona hauek zahartu ahala. Askotan, desgaitasuna duten pertsonak zaintzaile rola hartzen dute, baina zaintzen ari diren pertsona hil egiten denean, beraiek ez dira autonomoak, ez daude prestatuta bakarrik bizitzeko, eta ez dute inolako legezko onarpenik. Hau behin

eta berriz gertatzen zaigu: 50 urteko pertsonak, inolako baloraziorik jaso gabe, babesik gabe geratzen dira. Desgaitasun intelektualaren esparruan, askotan, joera nagusia egoera hau ezkutatzea da."

"Desgaitasuna duten pertsonak zahartzen ari dira, eta haien zaintzaileak ere zaharragoak dira. Horrek oso zail egiten du familia-eremuan egoera egoki planteatzea. Nola antolatu seme-alabaren etorkizuna? Honen inguruan tabu handia dago. Sarritan, gurasoek uste dute hartzen dituzten erabakiak haien seme-alabentzat onenak direla, baina, azkenean, askotan, pertsona horiek bakarrik geratzen dira, inolako babesik gabe."

Hala ere, badira eremu honetan eman diren aurrera pausuak (M.2):

“ *"Familia gazteekin egoera hau gutxiago ikusten da, normalean inplikatuago egoten direlako."*

"Pertsona gorrei dagokienez, egia da gazteentzat nahiko baliabide daudela. Adibidez, hezkuntza-komunitatearen esparruan, baliabideak nahiko egokituak daude haien beharretara."

Adinekoei zuzendutako zerbitzuen kasuan (M.1):

“ *"Etxez-etxeko Laguntza izan dezakezu, baina, hala ere, ama egun osoa bakarrik dago. Egoitza ez da erantzuna guztientzat, ezta Eguneko Zentroa ere, baina elkarrekintzaren beharra hor dago."*

Adinkidek, adibidez, lan handia egiten du, baina askok beldurra diote bertara joateari. Jende askok nahiago du laguntzaile bat etxera etortzea 10 orduz, edo nahiago du laguntza jaso inork ikusi gabe, bere egoera ezkutuan mantenduz. Hemen falta dena sentsibilizazioa da, baita komunitate-lan sendoago bat ere."

"Estigma bat badago, eta herri txiki batean hori are nabarmenagoa da, onerako zein txarrerako. Gure helburua da egoiliarrek etxean bezala sentitzea, baina zaintzaile askok kulpa-sentsazioa izaten dute. Hala ere, egoitzetan jasotzen duten arreta eta ongizatea ikusita, askok konturatzen dira hasieran pentsatzen zutena ez zela errealitatea. Estigma hori apurtzen saiatzen ari gara, eta horretan ari gara lanean."

"Askotan, laguntza eskatzea kostatu egiten da. Etxeko zaintzak maitasuna eta afektua ditu oinarri, baina batzuetan ez dago baliabide edo gaitasun nahikorik zaintza behar bezala egiteko. Senidearentzako onena dela pentsatuz jarduten dugu, baina batzuetan hori ez da nahikoa. Zaintzarako jarraibideak behar dira, baina agian ez dakigu pertsona nola mugitu edo artatu. Jendartean hain barneratuta dago zaintza erantzukizun pertsonala dela, non oharkabea hartzen dugun ardura hori. Baina zaintzea ez da erraza."

"Eguneko Zerbitzuetan ekintza asko egiten dira, pertsonak aktibo mantentzeko. Etxean oso ondo egon daitezke, baina askotan gaitasun asko galtzen dira. Zahartze aktiboa eta

prebentzioa funtsezkoak dira, baina horretan berandu hasten gara. Eguneke Zentroek laguntza handia ematen dute, baina 80 urterekin hastea askotan beranduegi da."

Adinekoen zuzendutako programak garatzen dituztenen kasuan (M.3):

“*Estigma handia dago, eta, seguruenik, Tolosa herri txiki bat izatean, hori are nabarmenagoa da. Askotan, pertsonak ez dute nahi boluntarioekin agertzea, bestela ingurukoek jakingo dutelako Alzheimerra dutela. Halaber, herrian antolatzen ditugun saioetan parte hartu beharrean, beste herri batean egitea eskatzen dute, inork ez ikusteko."*

"Adinekoekin hitz egitean, bakardade hitza saihesten saiatzen gara, ez baitute entzun nahi bakarrik daudela, eta ez dute horrela adierazi nahi. Herri txikietan elkar ezagutzen dugu guztiok, eta, askotan, familiek ere ez dute onartzen edo ondo ikusten bere aitak bakarrik sentitzen dela esatea. Hori dela eta, batzuetan hitza bera saihestu behar izaten dugu."

**NAHI GABEKO BAKARDADEA ETA HONI AURRE EGITEKO BALIABIDEAK**

Nahi gabeko bakardadea elkarrizketetan maiz aipatutako gai bat izan da. Hona hemen horri aurre egiteko zenbait adibide eta eredu:

“Gero eta bakarrago egongo gara bizi-dinamikaren ondorioz: etxetik kanpo denbora gehiago pasatzen dugu, gero eta lan gehiago egiten dugu, eta familia-egiturak aldatu dira. Baina bakardadea hautatutako egoera batetik nahi gabeko egoera batera pasa daiteke, eta horren inguruko kontzientzia piztea funtsezkoa da.” (M.3)

"Bakardadeak animorik eza eta depresioa eragin ditzake, eta hori bizi-kalitatean islatzen da. Zaintza profesionala egokia da, baina ez nahikoa; harreman pertsonalak falta dira. Egoitzetan eta beste baliabide batzuetan, boluntarioek akonpainamendua eskaintzen dute, eta askorentzat ezinbestekoa bihurtu da. Askotan erabiltzaileek honela esaten dute: «Ezin baduzu egun honetan, beste batean, baina etorri.» Hala ere, akonpainamenduaren bidez, pertsona batzuk etxetik irteten hasi dira, eta haien osasunean hobekuntza nabaria ikusi da. Hilabete batzuen buruan aldaketa positiboak sumatzen dira, baita familientzat ere, haientzat atseden bat delako.” (M.3)

"Erabiltzaileen artean bakardade-sentimendu ikaragarriak daude. Askotan, paseoan ateratzen dira laguntzaileekin. Kasu gehienetan familia atzetik dago, baina beste askok bakarrik bizi dira; batzuk bikotean, eta beste batzuk guztiz bakarrik daude. Azken horien jarraipena zorrotzagoa egiten dugu. Gure lana zerbitzuak martxan jartzea eta laguntzaileak koordinatzea da, baina baita erabiltzaileen jarraipena egitea ere, bereziki guztiz bakarrik dauden pertsonen kasuan. Horretarako, anbulatorioko gizarte-langilearekin, udalarekin eta beste zerbitzuekin koordinatzen gara, medikura lagundu edo bestelako beharrak artatzeko.” (M.1)

"Tolosako CSMtik azken urteotan ikusi dugu bakardadearen inguruko eskaerak nabarmen gora egin duela. Gero eta kezka handiagoa sortzen duen errealitate hau ikusita, programa espezifikoak sortu dira, hala nola akonpainamendu-programak eta boluntariora-jarduerak. Programa horien helburua ez da soilik laguntza emozionala eta soziala eskaintzea, baizik eta bakardadeak osasun mentalean eta fisikoan izan ditzakeen ondorio negatiboak arintzea. Horrez gain, buruko osasun arazo larriak dituzten pertsonen zuzendutako komunitate-laguntzako programa bat dugu, asteen bitan hezitzaileen bisitak eta hilean behin psikologia-zerbitzua eskaintzen dituenena.” (M.5)

Bakardadeari aurre egiteko garrantzitsutzat jo den baliabide bat, Adinkide edo Nagusilan bezalako elkarten ekimenez gain, besteak beste, Eguneko Arreta Zerbitzua da:

“*Etxean bakarrik daude, eta pozik etortzen dira; bizipoza ematen die eta errutina bat eskaintzen die. Zaintzaileentzat ere atsedeen hartzeko aukera da, senideak ondo zainduta daudela jakinda lasaitu egiten baitira. Askok honela esaten dute: 'Lehenago jakin izan banu, lehenago etorriko nintzateke.'* Bakardade asko dago, eta hori da pertsona nagusien kexa nagusienetarikoa. Prebentzio mailan, bakardadeak eragin handia du bai psikologikoki, bai fisikoki.”



ELKAR ZAINDUZ: KOMUNITATEAREN PAPER A ZAINZETAN

Zaintzetan, komunitatearen ikuspegiak lankidetzaren eta elkarrekiko laguntza nabarmentzen ditu ongizate kolektiborako, eta elkarriketatutako pertsona askok alderdi positibotzat jo dute ezaugarri hori. Hala ere, erronkak ere identifikatu dira.

Adinekoei zuzendutako zerbitzuek kasuan (M.1):

“*Komunitatearekin harremana izatea funtsezkoa dela uste dugu. Haurrekin hartu-eman oso aberasgarria da, dinamika politak sortzen dira, eta herriko elkarteekin ere lankidetzaren sendoa dugu. Mugi Tolosa oso positiboa da guretzat, egoitzatik ateratzeko eta herriarekin kontaktua izateko aukera ematen duelako. Hartu-eman hori badago, eta oso onuragarria da.*

Askotan, gertatzen da elkar ezagutzen duten pertsonak bata lurreamendin eta bestea Uzturren egotea, eta Mugi aukera ematen du harreman horiek berreskuratzeko. Agian, zentzu honetan gehiago lan egin daiteke, Eguneko Zentro eta Egoitzekin batera txangoak edo bestelako ekintzak antolatuz.”

“Mugi Tolosa, adibidez, oso esperientzia positiboa da, herrira irteteko aukera ematen dielako. Generazioen arteko harremanak sustatzeko programa ugari daude, eta ia egunero etortzen dira haur eta gazteak. Eskoletatik ere etortzen dira, eta elkarrekin ekintzak egiten dituzte. Oso lagungarria da bai adinekoentzat, bai gazteentzat. Orain, adibidez, haiekin bizitza-liburua lantzen ari dira.

Kirol-ikasketak egiten ari diren ikasleak ere etortzen dira, baita Nagusilan eta beste hainbat elkarte ere. Mugimendu handia dago, eta sarea nahiko egonkorra da, hau oso positiboa da. Horrez gain, honek ere laguntzen digu egoitzek batzuetan duten estigma apurtzen, komunitatearekin harreman zuzena sortuz.”

Desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuek kasuan (M.2):

“Orain ekimen askoz gehiago jasotzen ditugu, eta oso baliagarriak dira, pertsonen egunerokotasuna antolatzeke eta bakarrik senti ez daitezene. Izan ere, gure erabiltzaileek, askotan, baliabide ekonomiko mugatuak dituzte, enplegu babestutik datozelako gehienetan. Guk ere parte hartzen dugu leku ezberdinetan, adibidez, Inmakuladara joaten gara.”

"Badaude alternatibak: Mugi dago, Usabalera goaz, irakurketa erraza lantzen dugu, aisialdi-zerbitzuak daude, eta Inmakuladarekin harremana dugu, beste hainbat ekimenekin batera. Gauza asko egiten dira, eta horrek erabiltzaileei aukera berriak zabaltzen dizkie."

"Tolosako Udala irisgarritasuna hobetzeko sentsibilizatuta dagoela esan daiteke, izan ere, interprete-zerbitzua dute, eta horrek, nolabait, irisgarritasuna indartzen laguntzen du."

Badaude zentzu honetan egin diren hainbat ekarpen (M.2):

“Gauza asko egiten dira, eta oso ondo daude; gu pozik gaude. Baina batzuetan ekintzak ez dira guztiz inklusiboak. Askotan, antolatzen diren jardueretan beti pertsona berdinak gaude, eta erabiltzaileek beraiek ere adierazten dute desgaitasunik ez duten pertsonekin partekatzeke aukera gehiago faltan botatzen dutela. Integrazioa bai, baina aisialdi inklusiboan oraindik badago zer eginga. Sentsibilizazioa falta da esparru honetan, eta, batzuetan, egokitu gabeko ekintzetan parte hartzen dutenean, ez dira benetan barneratuta sentitzen.”

"Lekuren batean kolaboratu nahi dugunean, pertsonen benetako hartu-emana izatea bilatzen dugu, eta gauza asko egin ditzakegula uste dugu. Kolaborazioak oso baliagarriak dira, adibidez, Gabonetako karamelak boltsatan prestatzea, lasterketa baterako dortsalak prestatzea, edo eskaparateak apaintzeko eskulanak egitea. Baina Tolosan hori lortzea oso zaila egiten zaigu. Erabiltzaileentzat oso garrantzitsua da egiten duten lana ikusgai bihurtzea. Eskoletan agian gehiago lortzen da, baina askotan ekimen puntualetan geratzen da, eta jarraipena ematea kostatzen da. Hemen ere sentsibilizazioa behar da."

"Pertsona gorra ez badira signatzaileak, interprete-zerbitzuak ez du beti irtenbiderik eskaintzen. Kasu horietan, azpituak eta bestelako tresna egokituak behar dira. Bestalde, gizartean integratzeko zailtasunak ere badituzte, askotan komunitatean parte ez hartzea erabakitzen dutelako, pentsatuz 'Total, ez naiz ezer enteratuko.' Ondorioz, pertsona gorra batzuetan ikusezin bihurtzen dira."

Koordinazioaren garrantzia nabarmendu da ekarpen askotan, eta elkarlana indartzeko espazio eta egiturak sortzearen beharra azpimarratu da:

“Elkarlana zerbitzuen eta programen artean funtsezkoa da. Nik ematen dudana zerbitzua beste batek ezin du eman, edo alderantziz, eta horregatik elkarlanak berebiziko garrantzia du. Elkarlanerako guneak eta topaguneak sortzea ezinbestekoa da. Mugi horren adibide argia da, topagune bat baita. Saiatu behar gara guk besteen ekintzetan parte hartzen, eta alderantziz, elkarlana indartuz.” (M.3)

“Koordinazio gehiago behar dugu, eta hau zuzena eta eraginkorra izan behar da. Gure artean ezagutzea, profesionalen artean elkarlana eta harremanak sustatzea interesgarria izan daiteke. Honek aukera emango liguke zein zailtasun ditugun jakiteko, informazioa partekatzeko eta erabiltzaileen arteko sareak sortzeko. Horrez gain, gure artean egiten dugun lana hobeto ulertzeko bide bat ere izango litzateke.” (M.1)

“Batzuetan, ematen du bakoitza irla batean gaudela; koordinazioa handiagoa izan behar du gure artean, baita Udalarekin ere.”

“Elkarren arteko harremanak sustatzeko espazio komun bat oso lagungarria izango litzateke. Gune bat izatea, non elkartu eta ekintza amankomunak antolatu ahal izango genituzkeen, funtsezkoa izango litzateke elkarlana sendotzeko.”

6.3.1. Ondorio nagusiak: ekarpenak eta korapiloak

Laburbilduz...

Tolosak zaintza-ekosistema anitza eta egituratua du, zuzeneko zein hurbileko baliabideen sare zabalarekin eta laguntza sinbolikorako oinarri sendo batekin, baita herritarren beharretara egokitutako erantzunak eskaintzen dituzten elkarte, gizarte-mugimendu eta erakunde espezializatuak osatutako komunitate-sare zabal batekin ere. Aldaketa demografikoek, bereziki biztanleriaren zahartze progresiboak, erronka berriak dakartza, eta, horrenbestez, ezinbestekoa da ekintzak eta baliabideak sustatzea birdefinitzen eta dimentsionatzen jarraitzea, jasangarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko:

- › Mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun moderatua duten pertsonen **kopuruaren hazkundera aurreikusiaz**, udaleko arreta eta laguntza baliabideak zabaltzea eta indartzea: Etxez-etxeko laguntza, Eguneko Arreta Zerbitzua edo Bizitoki Zerbitzua.
- › **Zahartze aktiborako ekimenak** garatu eta sendotzea, adineko pertsonen autonomia, sozializazioa eta ongizatea sustatuz.
- › **Arreta-baliabideen arteko koordinazioa sendotzea**: hala nola, eguneko zentroen, egoitzen, Etxez-etxeko Laguntzaren eta osasun-sistemaren arteko koordinaziorako egiturak sortzea.

- › Beharrak identifikatzeko lankidetza sustatzea, **desgaitasuna eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako eskaeraren bilakaera** eta zerbitzu espezializatu berrien premia azaleratzeko eta ahal denean proposamenak garatzeko.
- › Neurriak hartzea giltzen gordailu zerbitzua eta telealarma bezalako detektatutako beharrak estaltzeko.
- › **Ekintza inklusiboa eta irisgarria sustatzea**: desgaitasuna edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonek aisialdiko, kulturako, gizarteko eta kiroleko eta bestelako jardueretan parte har dezaten sustatzea. Eta irisgarritasuna sustatzeko neurriak hartzea Piktogramak, azpigituluak eta irakurketa erraza bezalako tresnak erabiliz
- › Eragileak sentsibilizatzea eta prestakuntza: udal eta komunitateko eragileen etengabeko prestakuntza bultzatzea, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa sustatze aldera.
- › Atzeritar jatorriko biztanleriaren **arreta-zerbitzuetarako** sarbidearen jarraipena osatzea.
- › Zaintza-lanetan aritzen diren langileentzako, **euskara ikasteko** aukera malguak bilatzeko aukeren inguruan hausnartzen jarraitzea.
- › Zaintza Baliabideei buruzko informazioa zabaltzen jarraitzea.

Indargune nagusiak

Baliabide eta azpiegitura nagusiak:

- › Tolosako Udalak, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasotako eta bere eskumenekoak diren zerbitzu eta prestazio guztiak eskaintzen ditu, aztergai den dimentsioari dagokionez.
- › Tolosan, hurbileko hainbat baliabide daude eskuragarri, hala nola eguneko zentroak eta egoitzak, pertsona ezberdinen beharretara egokituak, baita osasun-baliabide espezializatuak ere, esaterako Osasun Mentaleko Zentroa (CSM).
- › Azken urteotan, hainbat zerbitzu sortu edo egokitu dira, hala nola Eguneko Arreta Zerbitzua edo Etxez Etxeko Laguntzaren ordu kopuruaren igoera.
- › Biztanleriaren zahartze aktiboa sustatzeko ekintzak garatzen dira, eta Do Re Ni programa edo 65 urtetik gorakoentzako mantentze-gimnasia ikastaroak positibotzat hartzen dira.
- › Hauskortasuna eta kalteberatasuna detektatzeko eta artatzeko esperientzia pilotuak martxan jarri dira.

Irisgarritasuna eta inklusioa:

- › Desgaitasuna duten haur eta helduentzako egokitutako kirol eta kultur aukerak positiboki baloratzen dira.
- › Pertsonen zerbitzuetarako irisgarritasuna hobetzeko egin diren aurrerapausoak, hala nola, Zeinu Hizkuntzako Zerbitzuaren ezarpena edo entzumen desgaitasuna duten pertsonentzako baliabideen egokitzapena.
- › Eskuragarri dauden zerbitzuak ezagutarazteko ekimenak garatzen dira, hala nola Gizarte Zerbitzuen Gida, baliabideetara irispidea errazteko eta haien erabilera sustatzeko.
- › Euskarari dagokionez Tolosako Udaletik zaintzan diharduten langileekin hizkuntza gaitasuna areagotzeari begira neurriak aztertu dira.

Sare-lana eta lankidetza publiko-komunitarioa:

- › Erantzun espezializatuak emateko gaitasuna duten elkarte eta beste eragile komunitarioen sarea.
- › Bereziki adineko pertsonentzako, bakardadeari aurre egiteko eta laguntasuna sustatzeko komunitate ekimenak.
- › Komunitate-loturak sendotu eta belaunaldien arteko trukea sustatzeko jarduera eta kolaborazio egonkorrak.
- › Udalaren eta eremu horretan jarduten duten eragileen arteko koordinazio eta lankidetza egiturak: hala nola Adinekoen mahaia, edo bestelako zerbitzuekiko koordinazioa.
- › Gizarte alorreko elkartegintzaren koordinazio gunea sistematizatua dago Gizarte Zerbitzuetan. 4 hilabeteen behin osatzen dira, diru laguntza deialdiak, eraikinen lagapena eta bestelako intereseko gaiez jarduteko.

Erronkak

Baliabide eta azpiegitura nagusiak:

- › Aurreikusten da biztanleriaren zahartze progresiboak mendekotasun-arriskuan edo mendekotasun moderatuan dauden pertsonen kopuruaren igoera suposa dezakeela.
- › Erabiltzaileen adina eta menpekotasun mailek gora egin dute, eta horrek zenbait zerbitzuren ahalmena erabat aprobeitatzeari zaildu dezake, baita komunitatean parte hartzea ere. Halaber, zahartze aktiboa lantzearen garrantzia azpimarratu da.
- › Estigmatizazioa gizarte zerbitzuen eta mendekotasun edo desgaitasun duten pertsonentzako zerbitzuen inguruan.
- › Itxaron-zerrendak daude izaera asistentzialagoa duten baliabideetan, hala nola eguneko zentroetan eta egoitzetan.

- › Desgaitasuna edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako eguneko eta egoitza-baliabideen gabezia orokorra, bereziki adin nagusikoei zuzendutakoetan.
- › Etxez Etxeko Laguntza, eguneko zentroak edo etxebizitza- eta/edo egoitza-baliabideak bezalako zerbitzuen arduradunen arteko koordinazio zuzeneko espazioa egonkorra.

Irisgarritasuna eta inklusioa:

- › Zailtasunak daude, erabiltzaileek zerbitzua euskaraz jasotzeko duten eskubide bermatzeko. Hala ere, egungo ohiko ikastaro eskaintzarekin eta langileen egutegi eta ordutegiagatik zailtasunak identifikatu dira.
- › Menpekotasun egoeran daude pertsonak zuzenduta hainbat zerbitzu eta prestazioetako jasotzaileen artean atzeritar jatorriko biztanleriaren proportzioa baxua da.
- › Hainbat prestazio eta zerbitzu, hala nola telealarma, egoitzak eta bestelakoak, ez daude egokituak desgaitasun sentsozialak dituzten pertsonentzat.
- › Gabezia identifikatu da aisialdi, kultura eta kirol ekintza inklusiboak desgaitasuna edo buruko gaixotasunak dituzten beharrak kontuan hartuko dituztenak.
- › Balorazio prozesuetan oztopoak egoera administratibo irregularrean dauden atzeritar jatorriko biztanleen artean: Profil demografiko gazteagoak presentzia txikiagoa izatea azal badezake ere, egoera honetan dauden biztanleak ez dute mendekotasun edo desgaitasun balorazioa osatzeko eskubiderik. Honek zerbitzutarako sarbidea oztopatzen du. Udal baliabideetan ez da bereizketa hori aplikatzen eta sarbidea errazagoa da.

Sare-lana eta lankidetzaren publiko-komunitarioa:

- › Ez hautatutako bakardadearen areagotzea.
- › Espazio fisikoen falta, komunitateko eragileen arteko elkarrekintza eta ekintza komunitetan parte hartzeko.
- › Elkarleen, gizarte, kulturako eta kiroltako ekimenen eta desgaitasun duten pertsonen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren hobetzea.

7. HAUR, NERABEAK ETA GAZTEAK

7.1. Sarrera

Tolosako haurren, nerabeen eta gazteen ongizateari eta haien garapenari eragiten dieten funtsezko alderdiak aztertzea izango da diagnostikoaren atal honen helburua. INEren 2023ko datuen arabera, Tolosan 20.065 biztanle bizi dira, eta horietatik 3.479 adingabeak dira (1.808 neska eta 1.671 mutil). Beraz, **Tolosako biztanleen % 17,36 adingabeak lirатеke.**

7.1.1. Faktore demografikoak eta horien inplikazioak

Konposizio demografikoak biztanleriaren zahartze-joera erakusten du, eta horrek ez dio soilik Tolosako herriari eragiten, Euskadi osoari baizik. Eustatek 2030. urterako inoiz ezagutu gabeko biztanleri piramidea aurreikusten du. Askoz gehiago izango dira adin tarte zaharragoetan gazteetan baino. 1970ean genituen 16 urtetik beherako gazteak erdia izatera pasako dira, eta gaur egun baino %12 gutxiago. 65 urtetik gora biztanleria 465.000 pertsonetik 616.000 izatera pasako da, %32 gehiago. “Laburbilduz, 16 urtetik beherako biztanleria populazio osoaren %13 izango omen da 2031n, gaur baino 3 puntu gutxiago; 16 eta 64 urte artekoena %58,8, gaur baino 5 puntu gutxiago; eta adin nagusikoen pisua %28,2 izango omen da, gaur baino 7 puntu gehiago” (J. Garmendia, 2018)²¹.

Joerak erakutsi digu **jaiotzeen kopuruak behera egin duela**, gazteek ez dutelako seme-alabarik izan nahi edo proiektu hori geroratzen delako eta, horrekin lotuta, seme-alaba gutxiago izaten direlako. Jaiotze-tasaren jaitsierarekin oso lotuta dago emakumeek beren lehenengo seme edo alaba edukitzeko adinean gertatu den pixkanakako atzerapenarekin.

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak txostenaren arabera²² EAEko batezbesteko **amatasun-adina 33,3 urte** izan zen 2021ean. Hala, seme-alaben kopurua jaisten ari den bitartean, emakumeen zein gizonen bizi-itxaropena 80 urtetik gorakoa izan da 2022an.²³

²¹ 1975ean, Euskadik 2.000.000 biztanleen muga gainditu zuen lehen aldiz, eta ordutik hona biztanleriaren hazkundera txikia izan da. Gazteen kopuruak, ordea, behera egin zuen modu jarraituan eta bizian, 2017. urtera arte. Urte horretan, 15 eta 29 urte bitarteko biztanle kopuruak behera jo zuen, eta 284.184 izan zen. Harrezkero, pixkanaka hasi da igotzen, eta 2023an gazteen kopurua 319.744 zen, 2011ko zifraren antzekoa. (Gazteen Euskal Behatokia 2024).

²² https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2022.pdf

²³ [GEBeren txostena: Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa \(2024\)](#)

Guzti honek inplikazioak ditu lan-arloan, ekoizpen-ehunean, asistentzia-sisteman, gizarte-babesean, baita **haien aldarrikapenak sustatzeko pisu politikoari dagokionez ere**, besteak beste.

7.1.2. Atzeritik etorritako haur, nerabe eta gazte integratze erronkak

Testuinguru horretan, migrazioak berebiziko garrantzia du biztanleria gaztetzeko orduan, bai atzeritik etorritako gazteen etorreragatik, bai emakume atzeritarren ugalkortasun-tasa handiagoa delako.

EAEEn bizi diren emakumeen eta gizonen profil demografikoarekin jarraituz, **nabarmena da haurren, nerabeen eta gazteen (29 urtera arte) presentzia, atzeritar jatorriko pertsona guztien % 38,5 baitira, zenbatekoa, handiagoa izanik gizonen artean (% 40) emakumeen artean baino (% 37)**. Datu hauek deigarriak dira kontuan hartzen badugu, adibidez, EAEEn, adin tarte horietan, emakumeak ez direla % 26ra iristen. Aitzitik, atzeritarren % 5,5 baino ez dira 60 urtekoak eta hortik gorakoak (Emakunde Zifrak, 2022).

Jatorri atzeritako haur, nerabe eta gazteek integratze-oztopo ugari gainditu behar dituzte. Hezkuntzak gizarteratze prozesuan berebiziko garrantzia du, batez ere atzeritar jatorriko biztanleen seme-alabei dagokienez. Kanpotik iritsi berrientzat ikasketa-prozesua errazteko, **lehentasunezkoa izan beharko litzateke euskararen irakaskuntza indartzeko baliabide osagarriak eskaintzea**. Erronka hori gainditzeko, ezinbestekoa da laguntza-estrategia espezifikoak garatzea, hizkuntzaren erabilera sustatzeko, ahozko gaitasuna garatzeko eta hizkuntzarekiko lotura sendotzeko.

Bestalde, jatorri atzeritako ikasleen **eskola-segregazioa** gizarte eta politika mailan kezka nagusietako bat da, bereziki bigarren belaunaldien testuinguruan. Gizartean kezka sortzen du jatorri atzeritako ikasleak ikastetxe jakin batzuetan, batez ere titulartasun publikoko zentroetan, pilatzeak.²⁴

2022. urtean, Tolosaldeko Atzeritar Jatorriko Biztanleriaren Egoeraren Diagnostikoa burutu zen²⁵. Tolosaldean hezkuntzari buruzko datu espezifikorik ez zegoenez, azterketa Gipuzkoa mailan egin zen. 2021-2022 ikasturtean, Gipuzkoako ikastetxeetan atzeritar nazionalitateko 9.014 ikasle zeuden, hau da, guztien % 9,0a. Atzeritar nazionalitateko ikasle gehienak ikastetxe publikoetan matrikulatuta zeuden (% 68,4), Espainiako nazionalitatekoen kasuan baino proportzio handiagoan (% 48,7). Afrikako kontinentetik etorritako ikasleen kasuan, proportzio hori are

²⁴ https://www.ikuspegi.eus/documentos/investigaciones/2G/Haur_gazteen_aniztasuna_EAE.pdf

²⁵ https://www.tolosaldeagaratzen.eus/wp-content/uploads/2024/02/tolosaldea_diagnosia-2022-euskaraz.pdf

handiagoa izan zen, % 79,6ra iritsiz. Hizkuntza-ereduei dagokienez, atzerriko nazionalitatea zuten ikasleek ordezkari txikiagoa izan zuten D ereduan eta handiagoa B ereduan, nahiz eta Espainiako nazionalitatea zuten ikasleek aldea txikia izan. Hala ere, adinarekin alde hori nabarmenagoa izan zen; izan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle atzerritarren presentzia % 6,1ekoa izan zen D ereduan, eta B ereduan, berriz, % 16,7koa. Laburbilduz, **atzerritar jatorriko ikasleek ikastetxe publikoetan presentzia handiagoa izan zuten, eta adinarekin hizkuntza-ereduen arteko desberdintasunak areagotu egin ziren, batez ere D ereduan parte-hartze txikiagoarekin.**

7.1.3. Haur, nerabe eta gazteen Eskubideak eta Babes Integrala

Funtsezkoa da onartzea haurrak eta **nerabeak eskubide propioak dituztela**, Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Konbentzioak ezartzen den bezala. Azken urteotan gure inguruneko haurren, nerabeen eta gazteen ongizateari eta babesari zuzenean eragiten dieten bi legek esparru juridikoa indartu dira Euskal Autonomi Erkidego maila:

- › 8/2021 Lege Organikoa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babestekoa (LOPVI).
- › 2/2024 Legea, Euskadiko Haur eta Nerabeei buruzkoa, ongizatearen eta tratu onaren ikuspegia funtsezko ardatz gisa zabaltzen duena.

Eusko Jaurlaritzak onartutako Legea zabalagoa da, haur eta nerabeen ongizate osoari begiratzen dio, eta tratu onaren kultura du ardatz²⁶. Araudi horrek ezartzen du komunitate osoak adingabeen bizitzako eremu guztietan tratu onaren kultura sustatzeko betebeharra duela, arlo horretako nazioarteko estandarrekin bat datorren esparru juridiko bat sendotuz.

7.1.4. Gazteria eta Ongizate Emozionala

Bestalde, haur, nerabe eta gazteek aurre egin behar **diete babesgabetasunarekin eta ongizate emozionalarekin** lotutako zailtasunei. Baliabide psikosozialak eskuratzeko zailtasunek, lan-prekarietateak eta parte-hartze eraginkorrerako espaziorik ezak erantzun integralak behar dituen kalteberatasun-testuinguru bat sortzen dute. Ildo horretan, **ezinbestekoa da haien autonomia, ongizate emozionala eta gizartearen eraikuntzan protagonismoa sustatuko duten politikak garatzea**. Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera, gazteen osasun emozionalak

²⁶ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/hezkuntza-baliabideak/tratu-ona>

okerrera egin du. Aurreko urteetan baino gazte gehiagok adierazi dute aurreko hilabeteen antsietate- edo depresio-sintomak izan dituztela, buru-nahasmenduen edo jokaeraren nahasmenduen ondorioz ospitaleratu behar izan dituzten gazte-kopurua ere gero eta handiagoa da. Halaber, gero eta gazte gehiagok hitz egiten dute beren osasun mentalari edo beste batzuenari buruz.²⁷.

7.1.5. Familiak eta kontziliazioa: erronkak eta beharrak

Bestetik, **familia** izango da adin goiztiarrenetan erreferentziazko instituzio nagusia. Eginkizun nagusia betetzen du haurren eta nerabeen eskubideak babesteko, eta gizarte-kohesiorako eta babeserako gune gisa funtzionatzen du.

Halaber, **familien zaintza- eta kontziliazio-beharrak erronka** garrantzitsua dira. Zaintzaren zama emakumeen gain dago oraindik ere, eta horrek eragina du **enplegua lortzean eta bizi-kalitatean**. Lehentasunezkoa da kontziliazioari laguntzeko zerbitzuak bermatuko dituzten estrategiak diseinatzea, zaintza-erantzukizunen banaketa ekitatiboa sustatuz eta haurren garapen integrala bultzatuz.

Langileak Lana eta Familia Bateragarri Egiteko Legea (39/1999 Legea, azaroaren 5eko) aurrerapen handia eta mugarrria izan zen bere garaian, eta urte askotan Estatuan familia erantzukizunen eta lan-erantzukizunen arteko bateragarritasuna errazteko tresna arau emaile nagusia izan da. **Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, otsailaren 18ko 4/2005 Legea arau-tresna garrantzitsua izan zen emakumeen eta gizonen berdintasunerako**. Gaur egun, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak 38. artikuluan ezartzen du euskal botere publikoek **gizarte-erantzukidetasuna sustatu behar dutela etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zaintzan**. Horren barruan sartzen da enpresa-kultura eraldatzea, zainketen hornidura publikoa eta unibertsala bermatzea, eta gizonen inplikazioa sustatzea zeregin horietan, desberdintasunak prebenituko dituen zaintzaren etika baten zati gisa.

Era berean, azpimarratu behar da, zainketen ekonomia feminista programaren bidez, "ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzea" dela EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren lehentasunezko ardatzetako bat.

²⁷ [GEBeren txostena: Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa \(2024\)](#)

7.1.6. Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteentzako Diagnostikoa eta Ekintza Plana

Testuinguru horretan, haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako udal-politikak garatzeko erreferentzia-esparru sendo bat izateko, **Tolosako Udalak kolektibo horiek herrian duten egoerari buruzko diagnostiko bat egin zuen 2021ean**. Azterketa horretatik abiatuta, eta tokiko eragileekin eta gazteriarekin berarekin lankidetzan, **Haur, Nerabe eta Gazteen Plana egiteko oinarriak ezarri ziren**. Plan horren helburua da haien errealitatea ezagutzea, ildo estrategikoak definitzea eta haien beharretara egokitutako Udal Plana diseinatzea.

Diagnosi horren ondorio nagusiak izan ziren, besteak beste:

- › Herriko espazio eta ekipamenduei dagokienean, gazteek ondo baloratzen zituzten Usabal kiroldegiko instalazioak eta Gazte Topagunea, baina ordutegia zabaltzeko eskaera egin zuten, baita kalean espazio estali gehiago sortzea ere.
- › Aisialdiaren inguruan, adierazi zuten Tolosa herri bizi eta aktiboa dela eta eskolaz kanpoko jarduera antolatuek nerabeen denbora librearen zati handi bat hartzen dutela. Bestalde, hiru ikastetxe nagusien artean bereizketa argia zegoela eta elkar topaketarako gune eta momentu gutxi dutela adierazi zuten.
- › Komunitatearekiko loturari dagokionez, Haurren Hiria programa positiboki baloratu zuten, ikasleen parte hartzea eta herritartasuna lantzen duelako. Dena den, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako programa gehiago sustatzeko eskatu zioten Udalari, hala nola, udaleku publikoak.

Aipatu bezala, diagnosi hori abiapuntu, **Tolosako Udala garatu zuen Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Ekintza Plana (2023-2027)**²⁸. Helburua, 0 eta 30 urte bitarteko tolosarren ongizatea bermatzeko egin beharreko esku-hartzeak eta eskaini beharreko zerbitzuak definitu eta zehaztea. Plana 2023 eta 2027 bitartean gauzatuko du Udalak, eta guztira 5 ardatz, 17 helburu eta 69 ekintza jasotzen ditu.

Ardatz nagusiak dira:

- › Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren erabileran esku-hartzea eta herriko espazioak eta ekipamenduak haur, nerabe eta gazteen beharretara egokitzea.
- › Parte-hartzea, herritartasuna eta komunitatearekiko lotura sustatzea.

²⁸ https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/Tolosako_Haur-Nerabe-Gazteak_Ekintza-Plana_2023-2027_AZKENA.pdf

- › Bizi estilo osasuntsua, jasangarritasuna eta berdintasuna bultzatzea.
- › Emantzipazioa eta autonomia sustatzea: enplegua eta etxebizitza.
- › Haur, nerabe eta gazteen saila indartzea, zabaltzea eta ikusaraztea.

Plan honek jasotzen dituen helburuak eta ardatzak guztiz uztartzen dira diagnostiko honetan jorratutako zaintza-ikuspegiarekin, eta horregatik, ahalegina egin da lan ildoak bikoiztea saihesteko. Horren bidez, baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea eta ekintzak hobeto koordinatzea bilatu da, gazteen eta familien beharrei erantzun integral eta koherente bat emateko.

7.2. Tolosako Zaintza Ekosistema: Haur, nerabe eta gazteen zainketarekin lotutako zerbitzuen, programen eta egituren multzoa Tolosako

Diagnostiko honek arau-esparru berrian eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako paradigma-aldaketan bultzatutako **tratu onaren politikaren ildoari jarraitzen dio**. Testuinguru horretan, haurrentzat, nerabeentzat, biztanle gazteentzat eta haien familientzat erabilgarri dauden zerbitzu, programa eta baliabide guztiak egituratu eta antolatu ditugu, zainketen ikuspegi integral batetik. Antolaketa honetan funtsezko **hiru kategoria** proposatzen ditugu:

- i. Babes integrala eta sistemikoa.
- ii. Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubideen subjektuak.
- iii. Kontziliazio erantzunkiderako giltzarriak.

Atal honetan, **ohar bat hartu behar da kontuan**: haurrei eta nerabeei dagokien dibertsitate funtzionalarekin edo mendekotasun-egoerekin zerikusia duten zerbitzu nagusiak, kategoria honetan sar badaitezke ere, **'Adinekoak eta dibertsitate funtzionala edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak'** atalean zehazten dira.

Zerbitzuak eta programak ordena alfabetikoaren arabera antolatu dira, baina horrek ez du esan nahi hierarkiarik dagoenik garrantziari, jarduera-bolumenari edo xede-publikoari dagokienez. Sailkapen-irizpide horrek informazioa modu argi eta bidezkoan bilatzea eta eskuratzea bilatzen du, komunitatearen barruan duen garrantzia edo irismena gorabehera.

Tolosako Udalaren eta Bestelako Erakunde Publikoen Egitasmoak				
BABES INTEGRALA ETA SISTEMIKOA				
Programa edo zerbitzua	Nori dado zuzenduta?	Estimatutako estaldura	Konpetentzia/eragileak	Izaera
1. Aukerak Suspertzen programa.	Aukerak Suspertzen programa Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatzen du. Elkartea arduratzen da programa hau eskaintzeaz, lehen edo bigarren hezkuntzan ikasten duten haur eta nerabeei zuzenduta. Salbuespen gisa, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleentzat ere eskuragarri egon daiteke.	128 parte-hartzaile.	- Jatorkin Al-Nahda elkarte - Tolosako ikastetxeak - Eusko Jaurlaritza - Udala	Sinbolikoa
2. Gazteak Ongi Etorri.	6 eta 12 urte bitarteko haur eta gazteei.	43 parte-hartzaile.	- Tolosaldea Garatzen - Udala - Tolosako ikastetxeak	Sinbolikoa
3. Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua	Zerbitzuak hiru lan-esparrutan jarduten du: - Adingabeen babesgabetasun-egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea. - Bazterkeria-arriskuko egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea. - Mendekotasun-arriskuko egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.	172 erabiltzaile. 114 familia eta 96 haur/gazte artatu dira.	Udala	Zuzena
4. Familia Gunea	Bertan familiei zuzendutako zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira: -Familia Elkargunea -Familia Bitartekaritza Zerbitzua -Garaitu Programa	--	- Eusko Jaurlaritza - Udala	Zuzena
5. Suizidioa prebenitzeko programa.	Gazteak	Proiektu hau 2024-2025 ikasturtean jarri da martxan.	Udala	Sinbolikoa

Tolosako Udalaren eta Bestelako Erakunde Publikoen Egitasmoak				
HAURRAK, NERABEAK ETA GAZTEAK ESKUBIDEEN SUBJEKTUAK.				
Programa edo zerbitzua	Nori dato zuzenduta?	Estimatutako estaldura	Konpetentzia/eragileak	Izaera
1. Haurren Hiria egitasmoa.	– 8-12 urte bitarteko hurrek.	42 haur ordezkari moduan eta zeharka LH3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek.	– Udala – Tolosako ikastetxeak	Sinbolikoa
2. Hezkidetza Programa.	– LH6mailatik Lanbide Heziketara.	2.268 parte-hartzaile.	– Udala – Tolosako ikastetxeak	Sinbolikoa
3. Gazte Topagunea.	– 12-17 urte arteko nerabeei zuzenduta.	579 parte-hartzaile.	– Udala	Zuzena
4. Eskolara oinez.	--	--	– Udala – Tolosako ikastetxeak	Zuzena
5. Eskola Kirola.	– 6 eta 16 urte bitarteko ikasle guztiei zuzenduta.	2.156 parte-hartzaile.	– Udala – Tolosako ikastetxeak – Tolosako kirol elkarteak – Foru Aldundia	Zuzena
6. Kirol Eskolak/ Adingabeei zuzendutako kirol eskaintza.	– Adingabeentzako zerbitzua, bereziki 6-16 urte bitartekoentzat.	199 parte-hartzaile.	– Udala	Zuzena
7. Nerabeen parte-hartze foroa.	– 12-17 urte bitarteko nerabeak.	30 parte-hartzaile.	– Udala – Tolosako ikastetxeak.	Sinbolikoa
8. Non Bizi naiz programa.	– Batxilergoko 1. mailako ikasleak.	1. batxilerreko ikasleak.	– Udala – Tolosako ikastetxeak.	Sinbolikoa
9. Gazteei zuzendutako tailerrak.	– 16-35 urte bitarteko gazteak.	25 parte-hartzaile.	– Udala	Sinbolikoa
10. Belaunaldien arteko harremanak sustatzeko esperientzia pilotua.	– 12-17 urte bitarteko gazteak.	--	– Udala	Sinbolikoa

KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDERAKO GILTZARRIAK				
Programa edo zerbitzua	Nori dado zuzenduta?	Estimatutako estaldura	Konpetentzia/eragileak	Izaera
1. Andragorako Ama taldea	– Saioak irekiak dira, eta ama izan berri diren eskualdeko emakumeei zuzenduta daude.	--	– Udala	Zuzena
2. Dirulaguntzak eskola kanpoko ekintzak eta kontziliazioa antolatzeko.	– Haur, gazte eta nerabeei.	60.000 euroko partida.	– Udala	Zuzena
3. Guraso Eskolak eta Treba Gurasoak	– Familiak.	--	– Foru Aldundia – Udala	Sinbolikoa
4. Kiroletako zerbitzuak ikuspegi zabalean.	– 6-16 urte bitarteko haur eta gazte.	--	– Udala	Zuzena
5. Liburutegia.	– Herritarrek.	9.500 bazkide baino gehiago.	– Udala	Zuzena

Lankidetza Guneak
Tolosako Udalak, mahai sektorial desberdinak ditu antolatutak, udal politika, programak eta ekintzak herritarren parte-hartzearekin kontrastatu eta koordinatzeko. Mahai horietan, haur, nerabe eta gazteekin zerikusia duten programa eta ekimen desberdinen antolaketa eta jarraipena egiten da.
Adingabeen babesgabetasun egoerak detektatzeko mahaia Gizarte Zerbitzuen Sailak haurren eta nerabeen babesgabetasun egoerak identifikatu eta prebenitzeko ardura du. Haurren babeserako legeak ezartzen du haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten eragile guztiek adierazleak atzemanaz gero, horren berri eman behar diotela eskumena duen erakundeari, hau da, Udaleko Gizarte Zerbitzuei.
Hezkidetza mahaia Udalak eta ikastetxeek Hezkidetza programa duten koordinazio-gunea da. Informazioa trukatzear gain, programaren nondik norakoak landu eta erabakitzen dira. Hiru hilean behin batzen dira. Horretan honako hauek parte hartzen dute: Berdintasun Zerbitzua, Gazte Topaguneko hezitzaileak, Gizarte Zerbitzuak, Ikastetxe guztietako Hezkidetza arduradunak eta laguntza teknikoak ematen duten erakundeak.
Hezkuntza kontseilua Kontseiluaren helburua da eragileen parte-hartzea areagotzea, eta hezkuntza-arloan lankidetza sustatzea. Elkarlan horren bitartez, lortu nahi da ikastetxeen eta gizarte-ingurunearen arteko elkarrenergina areagotzea, ikasleentzako baliabide komunitarioak antolatzea herrian, eta hezkuntza formala eta ez-formala gehiago uztartzea.
Nerabeen prebentzio mahaia Gizarte Zerbitzuen lan-ildoetako bat Ohitura Osasuntsuen eta Adikzioen Prebentzioa sustatzea da (Adikzioen Prebentziorako Tokiko Plana). Duela 15 bat urte, nerabeen portaerak, arriskuak eta behar berriak aztertze beharra identifikatu zen, eta prebentzio-ekintza komunitarioak modu bateratuan sustatzen hasi ziren. Mahaia hiru hilabetero biltzen da ikasturtean zehar.

Azpiegiturak eta komunitateko zerbitzuak (hezkuntza komunitatea)		
Ekipamendu/Zerbitzua	Estimatutako estaldura	Eragileak
Ikastetxe publikoak	4 ikastetxe publiko	1. Orixe (Bigarren Hezkuntzako Institutua) 2. Samaniego (Lehen Hezkuntza) 3. Tolosako Haurreskola 4. Tolosaldea (Lanbide Heziketa Institutua)
Ikastetxe kontzertatuak	5 ikastetxe	1. Gainberri Kirol Heziketa (Lanbide Heziketa) 2. Herrikide ikastetxea (Kristau Eskola): HH, LH, DBH, Batxilerra 3. Inmakulada Lanbide Ikastola 4. Laskorain Ikastola: HH, LH, DBH, Batxilerra 5. Peñasca, Koop. Elk; Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) eta Prestakuntza Iragankor Bateratua emateko Programa (PIBP)
Helduentzako Hezkuntza (HHE)	2 ikastetxe publiko	1. Hizkuntza Eskola Ofiziala 2. HHE helduentzako eskola
Guraso Elkarateak	5 elkarte aktibo	1. Gorosti Guraso Elkaratea (Samaniego) 2. Asmoberri (Orixe) 3. Herrikideko Gurasoak (Herrikide) 4. Laskorain Guraso Elkaratea (Laskorain) 5. Altzoan Elkaratea
Aisialdi Taldeak	4 elkarte aktibo	1. Atsedena Aisialdi Taldea 2. Gorosti guraso elkaratea (Samaniego ikastetxea) 3. Kazkabarra (Laskorain ikastetxea) 4. Kirikiño (Herrikide ikastetxea)

Azpiegiturak eta komunitateko zerbitzuak (hezkuntza komunitatea)		
Ekipamendu/Zerbitzua	Estimatutako estaldura	Eragileak
Kirol elkarteak eta eskola kirola	Urtero 2.000 parte-hartzaile baino gehiago	Uzturpe kiroldegia: Tolosa areto futbol eskola: 8-12 urte. Astean behin. Igandea goizean. Irristaka patinai eskola: 6-12 urte. Astean behin. Ostiral arratsaldean. Beotibar frontoia: Tolosa CF Pilota eskola: 6-12 urte. Astean behin. Ostiral arratsaldean. Zesta punta CD Taldeko eskola: 6:12 urte. Astean behin. Ostiral arratsaldean. Berazubi estadioa: Tolosa CF atletismo eskola: 8-12 urte. Astean bitan. Astearte eta ostegunetan arratsaldean. Tolosa CF Futbol eskola: 8-12 urte. Astean behin. Ostiral arratsaldean. Usabal kiroldegia: 1.- TAKE SASKIBALOA: 6-12 urte. Astean behin. Ostiral arratsaldean. 2.- Tolosa CF eskubaloia eskola: 6-12 urte. Astean behin. Ostiral arratsaldean. 3.- Tolosa CF erritmikoa eskola: 6-12 urte. Egunero gutxienez 2 egun astean, arratsaldean. 4.- Judo Tolosa eskola: Astean bitan. Egunero 2 egun astean, arratsaldean. 5.- Tolosaldea IKT eskola: Egunero gutxienez 2 egun astean, arratsaldean. Pototxo ontziraletua: BTT, Eskalada eta Piragua eskola: 8-12 urte. Eskola kiroleko egutegia. Udazkenean eta udaberrian.

7.2.1. Babes integrala eta sistemikoa

1. Aukerak Suspertzen programa

Aukerak Suspertzen programa Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak kudeatzen du. Elkartea arduratzen da programa hau eskaintzeaz, lehen edo bigarren hezkuntzan ikasten duten haur eta nerabeei zuzenduta. Salbuespen gisa, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleentzat ere eskuragarri egon daiteke.

Programan parte hartzeko, ezinbestekoa da ikasleak aldezturik identifikatzea, Gizarte Zerbitzuekin lankidetzan. Oro har, artatutako ikasleek zailtasunak izaten dituzte hezkuntza-prozesuarekin jarraitzeko, dela baliabide digitalik eta konektibitatez ez dutelako, dela prestakuntzarako beharrezkoak diren gaitasunak garatzeko laguntzarik ez dutelako.

Aukerak Suspertzen programaren helburua ikasleei eskolaz kanpoko laguntza eskaintzea da, zeregin akademikoak egitea eta gaitasun digitalak eta linguistikoak garatzea errazteko. Era berean, ikasleen ikaskuntza-teknikak hobetzea eta familiei tresnak ematea du helburu, seme-alabei hezkuntzan lagundu ahal izan diezaieten. Beharrezkoa izanez gero, material teknologikoa ematen da, hala nola ordenagailu eramangarriak eta konektagarritasuna bermatzen duten gailuak, nahiz eta telefono mugikorraren erabilera ez den baliabide egokitzat hartzen.

Programa modalitate presentzialean zein birtualean garatzen da, ikasleen beharrei erantzuteko malgutasun handiagoa ahalbidetuz. Aurrez aurreko saioak hainbat espaziotan egiten dira:

- › Inmakuladako zentroan, astelehenetik ostegunera, 17:30etik 19:00etara.
- › Elkaratearen lokalean, astelehenetik ostegunera, 16:00etatik 19:00etara.
- › Adin txikiko ikasleen kasuan, programa bereziki euskarari laguntzean zentratzen da.

Gaur egun, programak 6 eta 16 urte bitarteko 128 ikasle hartzen ditu²⁹. Hala ere, hezitzaile bakoitzeko ikasle-ratioa handia dela identifikatu da, bi irakasleko 15 ikasle bakoitzeko jarraipena egitea zailtzen baitu. Ikasle bakoitzak behar espezifikoak ditu, eta horrek konplexu egiten du talde osoarentzat erritmo homogeneoa mantentzea.

²⁹ Iturria: Jatorkin Al-Nahda elkaratearen bitartez «Aukerak Suspertzen» programaren ordezkariarekin izandako elkarriketa.

Erronka horiek gorabehera, programa komunitatearentzat oso onuragarria den ekimentzat jotzen da, hezkuntza-ekitateari lagunduz eta egoera ahulean dauden ikasleek garapen akademiko eta pertsonalerako behar dituzten baliabideak eskura izatea bermatuz.

2. Gazteak Ongi Etorri

Eskualdera iristen diren 6-12 urte bitarteko haur eta gazteei zuzenduta eta gizartean izango dituzten aukera berdintasuna bermatu nahian, "Gazteak ongi etorri" programa eskaintzen du Tolosaldea Garatzenek. Zaintzarekin duen harremana harrera-ingurune seguru eta afektibo bat sortzean datza, gizarteratzea, ongizate emozionala eta komunitateko kide izatearen zentzua sustatuz.

2022-2023 ikasturtean, astelehenetan 6-9 adin tartean Villabonan 15 haur batatz besteko izan ziren. Tolosan asteartetan 9-12 adin tartean Kultur etxean 18 haur eta asteazkenetako taldean Tolosan batatz beste 20.

2023-2024 ikastaroan, 3 adin tarte ezberdinetan lan egiten jarraitu zen:

- › 6-9 adin tartekoak astelehenetan Villabonako Gaztelekuan elkartzen dira 17:15etatik 19:15etara.
- › 9-12 adin tartekoak asteartetan Tolosako Gazte topagunean elkartzen dira 17:30etatik 19:15etara.
- › 6-9 adin tartekoak asteazkenetan Tolosako Gazte topagunean elkartzen dira 17:30etatik 19:15etara.

Ikasturte honetan batatz beste 43 hurrek parte hartu zuten programan.

Egitasmo honen helburu nagusia Tolosaldera etortzen diren haur eta gazte etorri berriei harrera egitea da. Bertan, Euskal Herriko eta Tolosaldeko ohituren berri ematen zaie eta baita munduko beste herrietako informazioaren berri ere beti ere euren jatorriko kultura besteekin konpartitzeko espazioa eskainiz. Haur eta gazte hauei ingurunean eroso eta gustura bizitzen laguntzeko baliabideak eskaintzen zaizkie modu erakargarrian hala nola, jolas, tailer eta dinamika desberdinen bitartez eta baita herriko baliabide ezberdinetara bisitak eginaz (haurren liburutegia, Aranburu jauregia, erakusketak etab.). Bestalde, hizkuntzak ere garrantzi handia duenez gazteen integrazioarako, euskara modu informal batean lantzeko aukera izaten dute³⁰.

³⁰ Tolosaldea Garatzen 2023ko memoria. <https://www.tolosaldeagaratzen.eus/wp-content/uploads/2023/06/TG-MEMORIA-2023.pdf>

3. Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua

Zerbitzu honen xedea da Tolosako udalerrian «Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzua garatzea», Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailarekin lankidetzan eta hark ikuskatuta eta gidatuta.

Zerbitzu honen bidez, harreman-prestazio indibidualak, familiakoak eta/edo taldekoak ematen dira, gizarte eta hezkuntzan arloan eta arlo psikosozialean laguntzeko. Prestazio horiek familiaren bizilekuan (etxeko hezkuntza, familiaren gaineko oinarritzko esku-hartzea) zein ingurune komunitarioan (kaleko hezkuntza, gizarte- eta kultura-arloko bitartekaritza) garatzen dira.

Zerbitzuak hiru lan-esparrutan jarduten du:

- Adingabeen babesgabetasun-egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.
- Bazterkeria-arriskuko egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.
- Mendekotasun-arriskuko egoerak atzematea, artatzea eta prebenitzea.

Zerbitzu honen onuradunak honako hauek dira:

a) Tolosan bizi diren familiak, adingabeen zaintza bere gain dutenean, eta Gizarte Zerbitzuek egindako balorazioan babesgabetasunaren aurreko zaurgarritasun egoera dutela edo/eta babesgabetasun-arrisku arinean edo ertainean daudela ondorioztatzen badute, beti ere haurren eta nerabeen babeseko zerbitzu espezializatuek esku-hartzen ez badute.

Salbuespen gisa, onuradun izaten jarraituko dute:

- 18 urte bete dituzten gazteak, esku-hartzea mantentzea komenigarria dela onartzen badu erreferentziazko gizarte langileak.
- Haurren eta nerabeen babeseko zerbitzu espezializatuek esku-hartzen duten familietako kideek, garatzen ari diren esku-hartzearekin bateragarria eta adingabeen interesekoa dela onartzen badu erreferentziazko gizarte langileak.

GARATZEN DIREN ESKU-HARTZE PROGRAMAK

a- *Esku-hartzearen komunitate-sarea osatzen duten gizarte-eragileei zuzendutako formaziorako, sentsibilizaziorako eta prebentziorako programa*

Programa honen helburua da profesionalak eta gizarte-eragileak formatzea eta gaitzea, babesgabetasun-egoerak eta arrisku-adierazleak detektatu eta erantzun

egokia eman dezaten. Detekzio goiztiarra eta esku-hartze azkarra sustatzen dira, komunitateko babes-sarea indartzeko.

Horretarako, koordinazio gune iraunkorrak ezartzen dira ikastetxe, anbulatorio, kirol elkarte eta beste zerbitzu batzuekin, formazio-ekintzak bideratuz eta eragileen arteko lankidetzak sustatuz.

b- Beren kargura haurrak edo nerabeak dituzten familien aholkularitza-programa; guraso-gaitasunen edo heziketa-jarraibideei buruzko kezkak artatzeko informazio- eta orientazio-puntua

Programa honek haurrak eta nerabeak dituzten familiei laguntza eta orientazioa eskaintzen die, batez ere heziketa eta guraso-gaitasunak lantzeko.

Orokorrean, telefono bidezko 2 saio egiten dira familia bakoitzarekin (bigarrena aurrez aurrekoa izan daiteke, beharrezkoa bada). Babesgabetasun-arriskuaren adierazleak hautemanaz gero, familia beste programa batera edo baliabide komunitarioetara bideratuko da.

c- Haurren eta nerabeen babesgabetasun-egoerak atzemateko, baloratzeko eta jarraipena egiteko programa

Programa honen xedea da haurren eta nerabeen balizko babesgabezia egoeren balorazioa egitea, babesgabezia egoerako edo arriskuko adierazleak ikertuz, eta horiek duten larritasun maila zehaztuz.

Horretarako, haurren eta nerabeen babeserako indarrean dagoen arautegia hartuko da oinarri; eskumenen banaketa esku-hartzea antolatzeke gida, eta babesgabezia-adierazleak neurtzeko Balora tresna.

Esku-hartze hori gauzatzeko, trebatutako profesionalak garatuko ditu beharrezko ikerketa- eta balorazio-jarduerak (informazioa biltzeko eta kontrastatzeko koordinazioak, elkarriketak, jarraipenak...) zerbitzu honetarako aurreikusitako esku-hartze mota desberdinen bidez, eta balorazioa eta egin beharreko esku-hartze prozesuaren proposamena jasoaz dagokion txosten teknikoa egingo du, eskumena duen erakundera bideratua izango direnak hala behar izanez gero.

d- Babesgabetasuneko arrisku-egoera arin edo ertainean dauden adingabeekin eta beren familiekin esku-hartzeko programa

Babesgabetasuneko arrisku egoera arina edo ertaina baloratzen denean, esku-hartzearen arduradunak esku-hartzeko banakako plana proposatuko du,

familiarekin elkarlanean esku-hartu eta egoera horri aurre hartu eta ingurune babestaileak garatzeko.

Xedea da zerbitzu honetarako aurreikusitako esku-hartzeko tresna desberdinen bidez lortzea babesgabezia arriskuaren adierazleak desagertzea, edo duten larritasun maila apaltzea, beti ere haurren eta nerabeen garapen osasuntsua sustatze aldera.

e- Gizarteratzeko zailtasunak edo/eta arrisku-adierazleak dituzten nerabeekin komunitate mailan esku-hartzeko programa

Gizarteratzeko zailtasunak edo arrisku-adierazleak dituzten nerabeekin lan egiteko programa da. Banakako edo taldeko esku-hartze planak diseinatzen dira, ingurune irekian garatzeko.

Hezkuntza-komunitatearekin, gizarte-eragileekin eta familiekiko lankidetzan egiten da lana, nerabeen gizarteratzea sustatzeko eta arrisku-adierazleak murrizteko.

f- Gizarteratzeko zailtasunak edo arrisku adierazleak dituzten gurasoekin komunitate mailan esku-hartzeko programa

Gizarteratzeko zailtasunak edo arrisku-adierazle arinak dituzten gurasoekin lan egiteko programa da.

Banakako arreta-plana proposatzen da, komunitatearekin, hezkuntza-eragileekin eta familiekiko lankidetzan, haurren eta nerabeen babesa sustatzeko.

5. Suizidioa prebenitzeko programa

Nerabeen suizidioa prebenitzeko programak martxan jartzeko inizatiba dago. Helburua formazio plana eta etorkizuneko eskuhartze gida diseinatzea izango dira.

Programa 2024-2025 ikasturtean martxa jarri da.

6. Familia Gunea

Familiei arreta ematera bideratua dagoen espazio hau, Gorosabel eraikinean kokatua dago, eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dira bertan, honakoen artean:


- Familia Elkargunea: Epaitegitik datorren aginduaren arabera erabiltzea dute Tolosaldeko eta Goierriko familiek. Adin txikikoen bisitak egiteko erabiltzen da, batzuetan haurrak eman-hartu egiteko, besteetan gainbegiraturako bisitak egiteko.
- Familia Bitartekaritza Zerbitzua: Edozein pertsonak erabili dezakeen zerbitzu publikoa da, familiako gatazkak bideratzeko (banaketa prozesua, mendekotasuna duenaren zaintza antolatzeke,...). Aurretik hitzordua eskatu

behar da. Tolosan astelehenetan daude.

- Garaitu Programa: Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei laguntza eta esku-hartze integrala eskaintzen die (esku-hartze psikosoziala, soziojuridikoa eta sozioedukatiboa). Zerbitzurako sarbidea ez da zuzena, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Aldundiak bideratzen dute.
- Aholku Sarea: Atzerritartasun legeak eragiten dien pertsonak erabili dezakete zerbitzu publiko hau, egoera juridikoa legeztatzearen inguruan aholkularitza juridikoa jasotzeko.

20. Hurrekin, nerabeekin, eta beren familiekin gizarte-zerbitzuetatik egiten diren esku-hartze eta programen buruzko laburpena eta ondorioak

20.1. Arreta jaso duten adingabeen ehunekoa, Tolosako haur-biztanleriarekiko (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak)




Tolosako adingabeen % 7.70ek, gutxi gorabehera, gizarte-zerbitzuetan jaso du arreta 2023an³¹.

- > Artatutako neskak: Tolosako neska guztien % 6.75.
- > Artatutako haurrak: Tolosako haur guztien % 8.74.

Datu horiek erakusten dutenez, adingabeen proportzio handi batek hartzen ditu programa horiek, eta mutilen parte-hartzea zertxobait handiagoa da neskena baino.

31 INEren datuen arabera, 2023an Tolosan 3.479 adingabe daude (1.808 neska eta 1.671 mutil), eta horietatik 268 gizarte zerbitzuetan artatuak izan ziren. Horrek esan nahi du mutilen % 8,74k eta nesken % 6,75ek nolabaiteko esku-hartzea behar izan zutela. Kalkulu hau artatutako adingabe kopurua udalerriko adingabe guztien kopuruarekin zatituz egin da, babes sozialeko sistemak eskualdean duen eragina estimatzeko.

20.2. Genero-banaketa programetan (2023) (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak)




Datu kuantitatiboak

- › Nerabeekin esku hartzea ingurune irekian:
 - 2023: 172 erabiltzaile (75 neska eta 97 mutil).
 - 2018: 94 erabiltzaile (37 neska eta 57 mutil).
 - Bilakaera: hazkunde esanguratsua zerbitzuaren estalduran (+% 83).
- › Familiekin esku hartzea:
 - 114 familia artatu dira (74 emakume eta 40 gizon).


96 haur artatu dira (47 neska eta 49 mutil).

21. Hurrekin, nerabeekin, eta beren familiekin gizarte-zerbitzuetatik egiten diren esku-hartze eta programen buruzko laburpena eta ondorioak

21.1. Artatutako nerabeen bilakaera 2018 vs. 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak)



21.2. Familiekin esku-hartzea, **generoaren banaketa 2023** (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak)



Ondorioak

- › Nerabeei zuzendutako esku-hartze zerbitzuaren irismena handitu egin da: 2018tik 2023ra artatutako erabiltzaileen kopurua %83 hazi da. 2023. urtean zerbitzu integral eta indartsua eratu zen, baliabide pertsonal eta lantalde egonkor eta espezializatuarekin, honakoa izanik erabiltzaileen artean eman den gorakadaren arrazoi nagusietako bat.
- › Mutilek parte-hartze handiagoa dute «ingurune irekian esku hartzeko zerbitzuan»: bi urteetan, artatutako mutilen proportzioa neskena baino handiagoa da, nahiz eta genero-aldea murriztu egin den 2023an.
- › Banaketa ekitatiboa hurrekiko esku-hartzean: familiekiko esku-hartzean artatutako haurrak proportzio ia berdinetan daude, eta horrek adierazi dezake zaurgarritasuna ez dela genero bakar batean kontzentratzen.
- › Baliabideak indartzen jarraitzeko beharra: zerbitzuaren hobekuntzak arreta handiagoa eskaintzea ahalbidetu badu ere, baliabideak zabaltzen eta indartzen jarraitzea

	garrantzitsua da, arriskuan dauden familia eta nerabe gehiagori laguntza egokia emateko.
--	---

7.2.2. Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubideen subjektuak

1. Haurren Hiria egitasmoa (2022tik)

Proiektu honen helburua Tolosako haurrei ahotsa ematea da, beren hiriaren plangintzan parte har dezaten. Haur Kontseilu baten bidez, espazio publikoan dituzten esperientziak eta beharrak aztertzen dituzte. Kontseilua 8-12 urte bitarteko haurrek osatzen dute, LH3 LH6 mailetakoko gela bakoitzeko ordezkari banak. Proiektuak, udalaren eta tokiko elkarten laguntzarekin, hezkuntza- eta komunitate-sisteman integratu nahi du, jarraitutasuna eta erakundeen konpromisoa bermatuz. Aldizkako bilerak eta dinamika ludikoak antolatzen dira, parte-hartzea errazteko eta hiria hobetzeko proposamenak jasotzeko. Programa honek harreman estua du zainketekin, hainbat ikuspegitatik; izan ere, hiri-eredu inklusiboagoa, seguruagoa eta haurren beharrei arreta handiagoa jartzen diena sustatzen du, eta horrek zuzenean eragiten du komunitate osoaren bizi-kalitatean.

Tolosako haur, nerabe eta gazteen egoerari buruzko diagnosiaren arabera, Programaren inguruko balorazioa, oro har, oso positiboa da, haurren parte hartzearen eta herritartasunaren sustapena, Udalarekiko harremanak eta udal politika lotzen dituelako.

2024-2025 ikasturtean proiektuaren 11. ekitaldia egingo da eta hurrekin landuko den gaia "Tolosan elkar zainduz" izango da. Adituak diren profesionalen laguntzarekin zaintzarekin loturiko esparru ezberdinak landuko dira, gaur egungo egoera hobetzeko adibideak eskainiz. Aurten zainketen diagnostikoa egiten ari direla eta, horri buruzko saio monografiko bat egin da³².

2. Hezkidetza Programa

Tolosako Udalak, 2012an, konpromisoa hartu zuen Tolosako ikastetxeetan Hezkidetza Integralaren Proiektuan laguntzeko, hura bideratzeko eta martxan jartzeko. Proiektu honen helburua da ikas komunitateari laguntzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren balioak bultzatzen, hala, balio eta begiramen bera izan dezaten publikoa denak eta pribatua denak, politikoa denak, etxekoa denak, arrazionala denak, afektiboa denak, maskulinoa denak eta femeninoa denak. Era berean, kontua da ikasleak heztea aniztasunean eta ezberdintasunean, aukera-berdintasunean eta indarkeriaren eta sexu-erasoen prebentzioan.

³² Saioaren eta programaren inguruko informazioa ikus daiteke bere webgunean: <https://sites.google.com/view/thh2425/kaixo>

3. Gazte Topagunea

Ostegunetik igandera eskaintzen den 12-17 urte bitartekoei berariaz zuzendutako aisialdi hezitzaile zerbitzu publiko bakarra da Gazte Topagunea. Mahai jokoak, ordenagailuak, Wi-Fia, billarra, ping-ponga, futbolina eta bulego txoko bat eskaintzen ditu. Aisialdiaren erabilera hezitzailea sustatzea du helburu, autonomia, parte-hartzea eta harreman positiboak sustatuz. Hileroko jarduerak antolatzen ditu, hala nola sukaldaritza tailerrak, proiektzioak eta eskulanak, baita txango eta ekitaldi bereziak ere, hala nola Gazte Astea Gabonetan edo Uda Gaztea udan. Tokiko elkarteekin ere aktiboki lan egiten du bizitza komunitarioa indartzeko.

Gazte Topaguneak zaintza komunitarioa sustatzen du, nerabeentzako espazio segurua eta hezitzailea eskainiz, haien ongizate emozionala eta soziala sustatuz. Gainera, gazteen zaintzan erantzunkidetasuna bultzatzen du, familiak arinduz eta laguntza-sareak sortuz. Parte-hartzean eta autonomian duen ikuspegiak indartu egiten ditu autozaintza eta komunitatean integratzea.

4. Eskolara oinez

Eskolara Oinez proiektuak haurrak eskolara modu aktibo, seguru eta autonomoan joatea sustatu nahi du, ohitura osasungarri eta jasangarriak sustatuz. Osasunerako eskubidean oinarrituta, ekimen honek motorizatu gabeko baliabideen erabilera sustatzen du, hala nola ibiltzea, bizikleta edo patinetea. EHUrekin lankidetzan, proiektu pilotu bat abiarazi zen duela bi urte, haren onurak aztertzeko, eta, horrela, haurren ingurunea eta ongizatea gehiago errespetatzen dituen mugikortasuna bultzatu zen.

5. Eskola kirola³³

³³ **Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Ekintza Plana (2023-2027).**

1.3.3.Ekintza: Eskola Kirolaren programa indartzea: balioak gizarteratzeko sentsibilizazio kanpaina egitea eta baliabideak handitzea

Eskola Kirola Gipuzkoako Foru Aldundiak arautzen duen programa bat da, 6 eta 16 urte bitartekoei zuzendutakoa. Eredu hau multikirolaren kontzeptuan oinarritzen da, kirola zenbat eta praktika zabalagoa eta anitzagoa izan aberatsagoa dela. Ohitura osasuntsuak sustatzeaz gain, egokia da giza-baloreak transmititzeko: talde-lana, taldearekiko konpromisoa, elkarri laguntzea.

Nahiz eta programaren planteamenduarekin bat egin, diagnostikoaren arabera oro har ez da lortu Eskola Kirolaren ereduaren balioa modu egokian komunikatzea. Gainera, elkarteei Kirol Eskolarako baimena eman zaie: elkarte baten barnean kirol baten bueltan aritzeko aukera ematen die haurrei, baina lehiatu gabe. Kasu honetan, ezinbestekoa da Eskola Kirolaren programan ere parte-hartzea, teorian, osagarriak baitira. Egoerak baina, Eskola Kirola ahuldu du: batetik, eskolek ezin dutelako lehiatu elkarteek dituzten baliabideekin; eta bestetik, haurrek eta zenbait gurasoek ez dutelako ulertzen Eskola Kirolean parte hartzeko derrigortasuna.

Hori guztia ikusita, Eskola Kirolaren programa indartzea proposatzen da. Batetik, programaren beraren balioak Tolosa mailan gizarteratzeko sentsibilizazio-kanpaina bat eginez; eta bestetik, udalak bideratu ditzakeen baliabideak handituz.

Eskola Kirola programak jarduera fisikoa bultzatzen du Gipuzkoako 6-16 urteko haurren artean, kirol-hezkuntza, joko garbia eta balioak, hala nola errespetua eta laguntasuna, sustatuz. Zainketekin duen lotura osasunaren sustapenean, ongizate emozionalean eta haurren hazkunde osasuntsua bermatzen duen komunitate baten sorreran oinarritzen da. Horrez gain, familiei eta hezitzaileei ere protagonismoa ematen die, kirola errespetuz, autonomiaz eta presiorik gabe bizitzeko eredu baten barruan.

6. Adingabeei zuzendutako kirol eskaintza

Adingabeentzako zerbitzua, bereziki 0-12 urte bitartekoentzat. Helburua da: Kontziliaziorako baliabideak eratzea; Osasuna eta ongizatea sustatzea; modalitate ezberdinetako kirol ekintza, urtean zehar eta udako ikastaro bereziak eskaintzea.

7. Nerabeen parte-hartze foroa (2023tik)

Nerabeen parte hartzea sustatzeko ekimena. Nerabeen eskubide eta beharrak identifikatzeko, eta erantzun integral eta hezitzailea emateko Tolosako 12-17 urte bitarteko gazteekin.

8. Non Bizi Naiz programa


Batxilergoko 1. mailako ikasleek parte hartzen dute programa honetan. Gazteen eta instituzioen arteko elkar ezagutza sustatzeko sortutako proiektua da "Non bizi naiz", eta horixe bera da, hain zuzen, helburua: erakundeak eta gazteak elkarlanean jartzea, eta instituzioak gazteengana gerturatzea. Proiektua guztiz kokatzen da Tolosaten Eskola Irekiaren elkar ezagutzaren eta "instituzioak ezagutzen" lan lerroen baitan, eta gainera, lotura zuzena du Tolosako Udaleko Gazteria saileko ildo estrategikoekin, garatu berri den Haur, Nerabe eta Gazteen Planean jasotako helburu eta lan ildo nagusietako bat baita herritartasun aktiboa eta gazteen parte hartzea sustatzea.

9. Gazteei zuzendutako tailerrak


16-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaroak beren autonomia eta emantzipazioa sustatzeko prestakuntza eskaintzen die, bizitza independenterako, enplegurako eta ongizate pertsonalerako funtsezko tresnak emanez. Programa honek autozaintza eta zaintza komunitarioa sustatzen ditu, laguntza-sareak indartuz eta bizitza osasungarri, jasangarri eta interakzio sozial handiagoko baterako funtsezko ezagutzak erraztuz.

22. Haurren Hiria Programa

22.1. Ikasleen banaketa generoaren arabera eta ikasmailaren arabera. (Iturria: Haurren Hiria Programaren memoria, 2024)



22.2. Ikasleen banaketa generoaren arabera eta ikasmailaren arabera. (Iturria: Haurren Hira Programaren memoria, 2024)



Hartzaileak eta Adin Banaketa

- › Haurren Hiria Programaren barruan, proiektua 8 eta 12 urte bitarteko Tolosako haurrei zuzenduta dago. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleei eskaintzen zaie, eta guztira 42 haur ordezkari izendatu dira 2024-2025 ikasturtean. Adinaren arabera, parte-hartzaileen banaketa orekatua da, LH 3 eta LH 4 mailakoek % 24 eta LH 5 eta LH 6 mailakoek % 26 osatzen dutelarik.

Generoaren Banaketa


- › Generoaren araberako banaketa nahiko orekatua da, nesken kopurua zertxobait handiagoa (% 52) izanik mutilen aldean (% 48). Hau erakusten du zozketa zibikoak genero-oreka bermatzeko helburua lortu duela.

Ikastetxeen Araberako Banaketa


- › Ikasleen banaketa Herrikide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeen artean berdintsua da, bakoitzean 14 ordezkari izendatu direlarik (% 33).

Jatorriaren Araberako Banaketa

22.3. Ikasleen banaketa jatorriaren eta ikastetxearen arabera.
(Iturria: Haurren Hira Programaren memoria, 2024)



22.4. Ikasleen banaketa jatorriaren eta ikastetxearen arabera.
(Iturria: Haurren Hira Programaren mamoria, 2024)




› Jatorriari dagokionez, gehiengoa Tolosa bertakoa da (% 67), baina Gipuzkoako beste eskualdeetako (% 19), Europako (% 9) eta Amerikako (% 5) haurrak ere badira. Horrek adierazten du proiektuak haur guztien parte-hartzea sustatu duela, aniztasuna barne hartuz.

Parte-hartze Sistema eta Ordezkaritza

› Haurren ordezkariek zozketa zibiko baten bidez hautatzen dira, faktore anitz kontuan hartuz: adina, generoa, jatorria, bizitokia eta ikastetxea. Horrek bermatu du errepresentazio orekatua eta anitza izatea, eta haur guztiek aukera berdinak izan dituztela parte hartzeko.

23. Hezkidetza programan parte hartzen duten ikasleen kopurua generoaren arabera

23. 1. Hezkidetza programan parte hartzea, ikastetxearen arabera
(Iturria: Daiteke Gizarte Aholkularitza, 2024)



Aurkeztutako datuak hurbilketa bat dira; izan ere, programan parte hartzen duten ikasleen zenbaketa gutxi gorabeherakoa da, eta, gainera, ikastetxeetan Tolosako gazteak ez ezik, Tolosaldeakoak ere badaude, eta horrek eragina izan dezake kalkulaturako ehunekoetan.

Hezkidetza programak eragin handia du Tolosako haur-komunitatean. Udalerrian bizi diren 3.479 adingabeetatik 2.268k parte hartzen dute programan, hau da, haurren % 65,2k. Datu horrek erakusten du programa oso barneratuta dagoela hezkuntza-komunitatean.

Generoaren arabera aztertuz gero:

- › Nesken % 69,7 (1.808tik 1.260) programan sartuta daude.
- › Haurren % 60,2 (1.671tik 1.006) ere Hezkidetzako kide dira.

Ehuneko horiek erakusten dute Tolosako adingabeen erdiak baino gehiago zuzenean inplikaturik daudela ekimenean. Datu horrek indartu egiten du Hezkidetza udalerriko gazteen arteko berdintasuna eta bizikidetzaren sustatzeko funtsezko tresna gisa finkatu delako ideia.


Lanbide-heziketako ikastetxeetan, hala nola Tolosaldean eta Inmakuladan, desoreka nabarmena dago nesken eta mutilen parte-

hartzean. Hori lotuta dago ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-eskaintzarekin eta genero bakoitzak prestakuntza-adar jakin batzuk aukeratzeko duen joerarekin.


- › Tolosaldea Lanbide Heziketa: nesken % 87 (147) eta mutilen % 13 (22).
- › Inmakulada Lanbide Eskola: % 75 neskak (79) vs. % 25 mutilak (24).
- › Tolosako Peñaskal Fundazioa: 12 neska (% 23) eta 40 mutil (% 77).

24. Gazte Topagunearen langile eta erabiltzaileen kopuruak generoaren arabera


24.1. Topaguneko langileak (Iturria: Tolosako Gazteria Zerbitzua, 2024)




24.2. Topaguneko langileak (Iturria: Tolosako Gazteria Zerbitzua, 2024)



24.3. Topaguneko erabiltzaileak (Iturria: Tolosako Gazteria Zerbitzua, 2024)



24.4. Topaguneko erabiltzaileak (Iturria: Tolosako Gazteria Zerbitzua, 2024)



Topaguneko langileak

- > Langileak guztira: 3.
- > 2 emakume (% 67).
- > 1 gizon (% 33).

Topaguneko erabiltzaileak

- > Artatutako pertsonak guztira: 579.
- > 288 neska (% 50).
- > 291 mutil (% 50).

Generoen arteko partaidetza-oreka oso nabarmena da: % 50 neskentzat eta % 50 mutilentzat.


Gaztelekuak haur eta nerabeen zaintza erdigunean jartzen duten zerbitzu publiko eta profesionalak dira, aisialdia tresna gisa baliatuz nerabeak herritar aktibo gisa prestatzea helburu dutenak. Gehienek 12-17 urte bitarteko erabiltzaileak dituzte, eta Gipuzkoa osoan 50 ekipamendu baino gehiago daude. Gazte Topaguneak, Haur, Nerabe eta Gazteria Arloko doako zerbitzu gisa, nerabeei aisialdiaz gozatzeko aukera eskaintzen die, lagunekin egoteko eta euskaraz modu aktiboan parte hartzeko espazioa izanik. Horrez gain, herriko ekimen eta ekintza komunitarioetan parte hartzea sustatzen du, nerabeei iritzia eman eta beraien presentziari garrantzia ematen

	lagunduz. Beraz, Gaztelekuak ez dira aisialdirako gunek hutsak, baizik eta nerabeen garapen pertsonala eta komunitarioa sustatzen duten espazioak, zaintza lan garrantzitsua betez. ³⁴
--	---

³⁴ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/ekipamenduak/gaztelekuak>

25. Generoaren arabera banaketa Eskola Kirola programan 2017/2018ko eta 2022/2023 ikasturteen arteko konparaketa

25.1. Kirolarien bilakaera generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)



Eskola kirolean nesken parte-hartzea handitu da azken urteetan, bai begiraleen bai kirolarien kasuan. Hala ere, mutilek oraindik nagusitasuna dute kirolari kopuruan. Berdintasunerantz urratsak ematen ari dira, baina oraindik badago tartea oreka handiagoa lortzeko.

Begirale kopuruaren parekidetasuna handitu da

- › 2022/2023 ikasturtean, begiraleen artean emakumeak (% 49) eta gizonak (% 51) oso antzeko proportzioan daude.
- › 2017/2018ko datuak ez ditugu banakatuta, baina guztira 77 begirale zeuden. Orain, 91 dira, beraz, begirale kopurua handitu da.


Neska kirolarien gorakada nabarmena

- › 2017/2018an nesken parte-hartzea % 28koa zen, eta 2022/2023an % 38ra igo da.
- › Neska kirolari kopurua ia sei aldiz handitu da (131 → 820).
- › Mutilen kopurua ere igo da (343 → 1.336), baina nesken parte-hartzearen hazkundera handiagoa izan da.

Oraindik mutilen nagusitasuna kirolarien artean

- › 2022/2023an, kirolarien artean mutilen portzentajea oraindik altuagoa da (% 62).

25.2. Begiraleen bilakaera generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)




> Hobekuntza nabarmena dago 2017/2018ko % 72rekin alderatuta, baina oraindik ez da berdintasuna lortu.

Eskola Kirola handitu da orokorrean


- > 2017/2018an 474 kirolari bazeuden, 2022/2023an 2.156 daude, ia bost aldiz gehiago.
- > Parte-hartze handiagoa dagoela ikusten da, bai nesken bai mutilen kasuan.

26. Generoaren araberako banaketa Kirol Eskolak programan 2019/2020ko eta 2022/2023 ikasturteen arteko konparaketa


26.1. Kirolarien bilakaera generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)




26.2. Kirolarien bilakaera generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)



26.3. Entrenatzaileen bilakaera generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)



26.4. Entrenatzaileen bilakaera generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)




- › Emakumeen parte-hartzea txikiagoa da arlo guztietan (kirolariak, entrenatzaileak eta zuzendaritza).
- › Arrakala esanguratsuena entrenatzaileen eremuan dago, non emakumeak % 26 baino ez diren.
- › Entrenatzaile eta zuzendarien kopuruak gora egin duen arren, emakumeen proportzioa ez da nabarmen hobetu.
- › Oro har, kirolarien kopuruak behera egin du, eta hori antolakuntzarako arreta puntu bat izan daiteke.


Eskola Kirola eta Kirol Eskolen arteko konparaketa

- › Eskola Kirolak kirolarien guztizko partaidetza handiagoa izan du 2022/2023an (2.156) Kirol Eskolarekin (199) alderatuta.
- › Eskola Kirolako emakumeen proportzioa (% 38) Kirol Eskolakoa (% 41) baino txikiagoa da.
- › Bi egituretan, generoen arteko aldea dago emakumeen parte-hartzean, nahiz eta Kirol Eskolak banaketa parekideagoa duen.
- › 2017/2018ko Eskola Kirolaren datuekin alderatuta, emakumeen parte-hartzeak gora egin du (% 28tik % 38ra).
- › Araudiak behartzen du futbol, saskibaloia, eskubaloia edo errugbi kiroletan izena eman nahi duen edozein haur Eskola

26.5. Zuzendarien kopuruak generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)




26.6. Zuzendarien kopuruak generoaren arabera (Iturria: Tolosako Kirol Zerbitzuak, 2024)



Kiroletik pasatzera. Horrek eragina izan dezake Eskola Kirolaren oinarrian parte-hartze handiagoa izateko.

- > Litekeena da, derrigortasun hori gabe, Eskola Kirolan genero-arrakala are handiagoa izatea.

27. Gazteei bideratutako programen erabiltzaileak generoaren arabera banaketa



Udalerrian, gazteei zuzendutako hainbat programa garatzen dira, zaintza komunitarioaren ikuspegi zabalaren barruan. Horien artean, funtsezko hiru ekimen nabarmendu dira 2023an: **gazteentzako tailerrak** (25 parte-hartzaile, % 100 emakumeak), **Nerabeen Parte Hartze Foroa** (30 parte-hartzaile, % 57 emakumeak eta % 43 gizonak) eta **Lurrean Mendiko Auzolandegiak** (40 parte-hartzaile, % 60 emakumeak eta % 40 gizonak). Programa horiek adierazgarriak badira ere, ez dira udalerriko zainketa komunitarioen sarean laguntzen duten bakarrik.

2023ko Diagnostikoan identifikatutako erronka bat Udalaren eta gazteen arteko komunikazio-bide egonkorren falta zen. Lerro honetan, **"Non Bizi Naiz" proiektua** jarri da abian, gazteen eta erakundeen arteko harremana sendotzeko, herritartasun aktiboa eta gazteen parte-hartzea sustatuz.

Belaunaldien arteko elkarrekintza sustatzeko ekimenak ere bultzatzen ari dira, hala nola **Mugi Tolosa** edo **lurramendiko auzolandegiak**, belaunaldien arteko elkarguneak eta elkarlanerako guneak sortzen dituztenak. Ekintza horien helburua zaintza komunitarioko sare bat sendotzea eta gazteen eta haien ingurunearen arteko lotura hobetzea da.

7.2.3. Kontziliazio erantzunkiderako giltzarriak

1. Dirulaguntzak eskola kanpoko ekintzak eta kontziliazioa antolatzeke

Atal honetan eskola-orduetatik kanpo egiten diren jarduerak antolatzeke laguntzak jasotzen dira. Baliabide horiei esker, honako hauek bilatzen dira:

- › Ikastetxeen eta guraso-elkarteen beharrei erantzungo dieten eskolaz kanpoko jarduerak ezarri eta mantentzeko beharrezko baliabideak ematea.
- › Eguneko une desberdinetan (goizez, eguerdiz eta arratsaldez) arretara eta zaintzara zuzendutako ekimenen antolaketa erraztea, horrek lana eta familia bateragarri egiten laguntzen baitu.

Finantzaketa eta jarduerak (2023-2024)

Dirulaguntza horiek Euskara eta Hezkuntza arloak kudeatzen ditu. 2023-2024 ikasturtean, Udalak 60.000 euroko partida esleitu du horrelako ekimenak finantzatzeko. Finantzazioa eskolaz kanpoko jarduerak eta kontziliazio-jarduerak laguntzeko deialdi baten bidez bideratzen da. Finantzatutako jardueren artean, hauek nabarmentzen dira:

- › Goizeko zaintza: familia-ordutegiak bateratzea errazten duen goizeko arreta-zerbitzua.
- › Robotika: ikaskuntza teknologikora eta berrikuntzara bideratutako robotika-jarduerak.
- › Baratza: lorezaintzarekin eta ingurunearen zaintzarekin lotutako ekimenak.
- › Antzerkia: antzerki- eta antzerki-trebetasunen garapena bultzatzen duten proiektuak.
- › Abesbatza: kantuari eta musika-prestakuntzari eskainitako jarduerak.
- › Ukelelea: musika tresna hau jotzen ikasteko eskolak.
- › Yoga: ongizate fisikoa eta mentala sustatzen duten saioak.
- › Marrazketa eta Eskulanak: marrazketa eta eskulan tailerrak sormena sustatzeko.
- › Xakea: xake-jarduerak, pentsamendu estrategikoa sustatzen dutenak.
- › Irristaketa: jarduera fisikoa sustatzen duten kirol-ekimenak.
- › Euskal dantzak eta dantza modernoa: kultura dantzaren bidez bultzatzen duten proposamenak.
- › Komikia: komikigintzan oinarritutako sormen-tailerrak.
- › Judoa: judo-praktika, diziplina eta errespetua bezalako balioak sendotzen laguntzen duena.

Testuingurua eta bilakaera

Garrantzitsua da aipatzea laguntza-deialdi hau berrikuntza bat dela aurreko urteekin alderatuta. 2018an ez zegoen antzeko deialdirik, eta horrek iradoki dezake finantzaketa-politika eta administrazioek hezkuntza, kultura eta familia-kontziliazioa integratzen dituzten jarduerak bultzatzeko konpromisoa aldatu direla.

2. Haur eta gazteen zaintza eta arretara bideratutako zerbitzuak: liburutegia eta kirol zerbitzuak

Liburutegia eta kirol-zerbitzuak sartu ditugu atal honetan, biek funtsezko zeregina baitute haurren, nerabeen eta gazteen zaintzari dagokionez. Liburutegiak dira kontsumitu beharrik gabe aisialdiaz gozatzeko aukera ematen duten gune bakanetako bat, eta, gainera, guztiz doakoa eta komunitate osoarentzat eskuragarria da.

Liburutegia

Liburutegia ikaskuntzarako gunea da, liburuen mailegu hutsetik haratago doana. Irakurtzeko ohitura sustatzeko, informazioa eskuratzeko eta gaitasun kulturalak eta digitalak garatzeko diseinatutako ingurunea da.

Kirol Zerbitzuak

Kirola zaintza- eta arreta-mekanismo gisa ulertzen da oso-osorik. Ikasleak eskola-egunaren amaieran biltzen diren unetik, eskolaz kanpoko zaintza-programetan sartzen dira, eta 6 eta 16 urte bitarteko gazteak hartzen dituzte. Kirol-zerbitzu horiek, jarduera fisikoa eta ongizate orokorra sustatzeaz gain, trebetasun sozialak, emozionalak eta balioak garatzea ere bultzatzen dute, hala nola diziplina, talde-lana eta errespetua.

Nabarmentzekoa da 6-12 urtekoen taldean egungo ratioek agerian uzten dutela oso antzeko parte-hartzea dagoela nesken eta mutilen artean, eta horrek bermatzen du ekitatea dagoela programa horien eskaintzan eta sarbidean. Parte-hartzearen berdintasun horrek indartu egiten du kirola ikasle guztien integrazioa eta garapen orekatua bultzatzen dituen tresna inklusiboa delako ideia.

3. GURASO ESKOLAK ETA TREBA GURASOAK:


Herrian familientzako prestakuntza espazioak ere badaude, helburua izanik laguntza, orientazioa eta tresnak eskaintzea haurren heziketa eta hazkuntzari aurre egiteko. Espazio hauen artean nabarmentzen dira **Guraso Eskolak eta Treba Gurasoak** programa, familia-giroan garapena sustatzeko diseinatutako ekimenak.

Treba Gurasoak programa, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) antolatua, gurasoei eta legezko tutoreei zuzendutako prestakuntza eskaintzen du, hainbat gai esanguratsu jorratuz: hezkuntza emozionala, teknologia berrien erabilera, familia-

komunikazioa edo gatazken kudeaketa. Tailer, hitzaldi eta saio praktikoen bidez, programa honek gurasoei haurren hazkuntzako erronkei aurre egiteko baliabideak eskaintzen dizkie, ingurune aldakorrean.


Bestalde, Guraso Eskolak gurasoek esperientziak partekatu eta profesionalen laguntza jaso dezaketen hausnarketa eta ikaskuntza guneak dira. Ekimen hauen helburua gurasotasun positiboa sustatzea, guraso eta seme-alaben arteko harremana hobetzea eta hezkuntzan erantzunkidetasuna indartzea da. Kasu askotan, espazio hauek ere familien arteko laguntza-sareak sortzeko baliagarriak dira eta komunitate-baliabideetarako sarbidea errazten dute.

28. Gurasoen parte hartzea Treba Gurasoak eta Guraso Eskoletan generoaren arabera banaketa




29. Liburutegiaren datuak generoaren arabera banaketa

29.1. Maileguen kopurua genero eta adinaren arabera (Iturria: Liburutegia, 2024)



29.2. Maileguen kopurua genero eta adinaren arabera (Iturria: Liburutegia, 2024)




2023ko datuek liburutegi-zerbitzuen erabileraren banaketa askotarikoa dela adierazten dute, adinaren eta generoaren arabera. Liburu-maileguak ohikoagoak dira 16 urtetik beherakoek artean, emakumeen partaidetzaren ehunekoa handiagoa baita (% 35) gizonena baino (% 30). Helduek gutxiago parte hartzen dute maileguan: % 24 emakumeetan eta % 11 gizonetan.


Afiliazioari dagokionez, 16 urtetik beherakoek banaketa zuzena dute generoen artean; helduen artean, berriz, emakume afiliatuen ehunekoa handiagoa da (% 32). Nabarmenezkoa da 2023an kide bitarra ez den pertsona bat sartu zela bazkide gisa, nahiz eta oraindik ez den argi islatzen bazkide kopuruan duen ordezkaritza osoa.

Ordenagailuen erabilera antzekoa da mutilen eta nesken artean, baina helduetan gizonak gehiago erabiltzen dute. Gainera, antolatutako jardueren kopuruak nabarmen egin du gora 2018arekin alderatuta, batez ere emakume helduen taldean.

29.3. Bazkideen kopurua genero eta adinaren arabera (Iturria: Liburutegia, 2024)



29.4. Bazkideen kopurua genero eta adinaren arabera (Iturria: Liburutegia, 2024)



7.2.4. Datu kuantitatibo nagusiak

Babes eta Ongizatea

- › 114 familia eta 96 pertsona artatu dira familia-esku-hartze eta babesgabetasun egoeren balorazioan.
- › 43 haur eta gazte parte hartu dute Gazteak Ongi Etorri programan (6-16 urte).
- › 172 nerabe integratu dira komunitate mailako esku-hartze programetan.
- › 128 haur eta nerabe aritu dira "Aukerak Suspertzen" programan (Al-Nahda elkarte).

Hezkuntza eta Ikastetxeak

- › 5 ikastetxe publiko Tolosa udalerrian.
- › 4 ikastetxe kontzertatuak.
- › 2 helduentzako hezkuntza-zentro (HHE), tartean Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Kirola eta Aisialdi Eskaintza

- › Eskola Kirola programan 2.156 haur eta gazte parte hartzen dute (820 neska, 1.336 mutil).
- › Kirol Eskolak: 199 haur eta gazte ari dira adingabeei zuzendutako kirol eskaintzan.
- › Tolosako kirol eskola eta klubetan 2.000 parte-hartzaile baino gehiago daude urtero.
- › Kirol instalazio nagusiak: Uzturpe Kiroldegia, Beotibar Frontoia, Berazubi Estadioa, Usabal Kiroldegia eta Pototxo Ontziralekua.

Parte-hartze eta Gazteria Programak

- › Haurren Hiria: 42 haur ordezkari eta LH3-LH6 mailako ikasle guztiek parte hartzen dute zeharka.
- › Gazte Topagunea: 579 parte-hartzaile (12-17 urte).
- › Nerabeen parte-hartze foroa: 30 parte-hartzaile.
- › Non Bizi Naiz programa: batxilergoko 1. mailako ikasleak parte hartzen.
- › Gazteei zuzendutako tailerrak: 25 parte-hartzaile (16-35 urte).
- › Hezkidetza Programa: 2.268 parte-hartzaile LH6 mailatik Lanbide Heziketara.

Belaunaldiarteko Harremanak eta Kontziliazioa

- › Belaunaldiarteko foroak aktibo daude Mugi Tolosa eta lurramendiko auzolandegiekin.

- › Eskola kanpoko ekintzak eta kontziliaziorako udal dirulaguntzak martxan daude.
- › Liburutegia funtsezko aisialdi eta hezkuntza-baliabide gisa erabiltzen da.

Mahai Sektorialak eta Koordinazioa

- › 4 mahai sektorial aktibo:
 - Adingabeen babesgabetasuna detektatzeko mahaia.
 - Hezkidetza mahaia.
 - Hezkuntza kontseilua.
 - Nerabeen prebentzio mahaia (adikzioen eta ohitura osasungarrien sustapena).

7.3. Ekarpinak eta korapiloak

Diagnostikoa egiteko, elkarrizketak entzute guneak egin dira hezkuntza-komunitateko hainbat eragilerekin. Prozesu horri esker, hezkuntza- eta komunitate-errealitateari buruzko ikuspegi zabala bildu ahal izan da, bai ikastetxeen ikuspegia, bai haurren, nerabeen eta gazteen prestakuntzan eragina duten programak eta aisialdi-espazioak integratuz.

Zerbitzu eta programen kudeaketa Hurrei, nerabeei eta haien familiei zuzendutako programa komunitarioen arduradunak elkarrizketatu ziren, honako hauek barne	H.1
– Haurren Hiria programa. – Haurrekin, nerabeekin eta beren familiekin komunitate mailako esku-hartze programa. – Gazte Topaguneko hezitzaileak. – Jatorkin programa.	
Hezkuntza komunitatea Elkarrizketak egin ziren hainbat mailatako ikastetxeetako ordezkariekin	H.2
– Samaniego ikastetxea. – Orixe ikastetxea. – Laskorain ikastola. – Herrikide ikastetxea. – Inmakulada Lanbide Ikastola. – Haurreskola.	
Aisialdia Aisialdiarekin eta hezkuntza ez-formalarekin lotutako erakundeak elkarrizketatu ziren	H.3
– Kirikiño Aisialdi Taldea. – Atsedena Aisialdi Taldea. – -Gorosti Guraso Elkarte.	

7.3.1. Analisi kualitatiborako sarrera

Atal honek hiru iturri nagusitan oinarritutako azterketa kualitatiboa jasotzen du. Hauek dira iturriak:

- › Egungo diagnostikoa: Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako tratu onaren paradigma berriaren esparruan egina, diagnostiko honek haur, nerabe, gazte, familia edo herritar ororentzat eskuragarri dauden zerbitzu, programa eta baliabideak egituratu eta antolatu ditu, zainketen ikuspegi integral batetik. Horretarako, oinarritzko hiru kategoria definitu dira: babes integrala eta sistemikoa, haurrak, nerabeak eta gazteak eskubideen subjektuak eta kontziliazio erantzunkiderako giltzarriak.
- › Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Diagnostikoak eta Planak (2023): txosten hauek aisialdiari, kirolari, segurtasunari, gazteen parte-hartzeari eta udalerriko hezkuntza-eskaintzari buruzko funtsezko informazioa eman zuten. Informazio horri esker, gazteen egungo errealitatean jarraitutasunak, aldaketak eta behar berriak identifikatu ahal izan ditugu.
- › Elkarriketen eta entzute-guneetako balorazio kualitatiboak: analisia aberasteko, haur, nerabe eta gazteekin zerikusia duten eragileei egindako elkarriketen bidez lortutako testigantzak eta balorazioak gehitu ditugu. Ekarpen horiei esker, Tolosako zerbitzuen eskaintzari eta erronkei buruzko pertzepzioak eta esperientziak zehaztu eta sakondu ahal izango dira.

7.3.2. Analisiaren antolaketa

Hiru iturri horietatik abiatuta, informazioa funtsezko hiru kategoria hauetan egituratu da:

- › Babes integrala eta sistemikoa: haur, nerabe eta gazteen ongizate emozional eta laguntza-zerbitzuekin lotutako alderdiak biltzen ditu.
- › Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubideen subjektuak: haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea, hezkuntza- eta aisialdi-baliabideetarako sarbide zuzena eta udal-eremuan dituzten eskubideen aintzatespena aztertzen ditu.
- › Kontziliazio erantzukiderako gakoak: aisialdi-eskaintza, familia-kontziliazioa eta jolas- eta komunitate-zerbitzuetarako sarbidea aztertzen ditu, parekidetasunaren ikuspegitik.

Ikuspegi horrek aukera ematen digu diagnostiko egituratu bat eskaintzeko, datu kuantitatiboak biltzeaz gain, Tolosako haur nerabe eta gazteen errealitatea islatzen duten balorazio subjektiboak, pertzepzioak eta esperientziak ere jasotzen dituen.

7.3.2.1. Babes integrala eta sistemikoa

Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Diagnostikoak eta Plana (2023):

- › Hiru ikastetxeen artean bereizketa argia dago: bai ikastetxe bakoitzak duen ikasle zein familien profilen aldetik (ikastetxe publikoak du ikaslego zaurgarriena), baita eskaintzen dituzten zerbitzuen aldetik ere. EAEko Hezkuntza Lege berrirako aurreakordioak eskola-segregazioari aurre egiteko neurriak aurreikusten ditu eta Tolosan ere eragina izango du.

Egindako entzute-guneetan haur eta nerabeentzako lau ideia nagusitu ziren: atzerriko jatorrien harreraren garrantzia; ongizate emozionala; gurasoen inplikazioa eta zaintzaren transmisioaren beharra.



HARRERAREN GARRANTZIA

Tolosako Udalak kudeatzen duen **Gazteak Ongi Etorri eta Jatorkin** bezalako programek jatorri atzerritarreko haur, nerabe eta gazte berrien integrazioa sustatzen du, baina elkarriketatu batzuek adierazi dute integrazio oztupoak daudela:

Estigmatizazioa: segregazioa eta komunitate falta

Eskola publikoek estigmatizazioa pairatzen dutela aipatu dute parte-hartzaile batzuek. Haien iritziz, ikasleen arteko desberdintasunak nabarmenak dira, eta haur askori estereotipo negatiboak ezartzen zaizkie, eskolaren arabera. Horrek, besteak beste, euskararen ezagutza-mailarekin lotutako aurreiritziak areagotzen ditu.



"Eskola Publikoa estigmatizatuta dago. Herrian, eskolen artean desberdintasun handiak daude, eta publikoan ikasten duten umeei maiz estereotipo negatiboak ezartzen zaizkie."

"Familia askok euskarazko maila baxua dutelako aurreiritziak jasaten dituzte, eta haurrei integrazioa zailtzen zaie."



"Ikastetxe bakoitzak bere jarduerak eta taldeak antolatzen ditu, eta horrek komunitate ikuspegia eta elkarlana indartzea zailtzen du. Inauterietan, adibidez, taldeak bereizi egiten dira, eta horrek ez du elkartasuna sustatzen."

"Sarerik gabeko emakume migratuek zailtasunak dituzte beren seme-alabekin egoteko, zaintza lanean dihardute eta umeak uzteko tokirik edo pertsonarik ez dituzte."

"Emakume migratuek euren seme-alabak ekartzea lortzen dutenerako oraindik ez dute sarerik lortu, ordu gehiegi egiten baitute lan. Ume horiek ere behar dute sare bat".

Inklusioaren eta kulturarteko harremanen erronkak

Inklusioa eta kulturarteko harremanak sustatzeko ekimenak beharrezkoak direla azpimarratu da. Parte-hartzaileen iritziz, eskolen eta komunitateen arteko interakzioa bultzatu ezean, isolamendua eta segregazioa larriagotu daitezke. Horregatik, kulturartekotasuna sendotzeko espazioak sortzea funtsezkoa dela nabarmendu dute.

“Eskolen arteko harremana lantzeko dinamikak egitea erronka bat da. Askotan entzuten dugu badagoela horrelako korapilo bat.” (H.1)

"Kulturartekotasuna eta inklusioa sustatzeko beharrezkoa da espazioak sortzea, bestela 'ghettoak' sortzen ari gara." (H.1)



HAUR ETA NERABEEN ONGIZATE EMOZIONALA

Entzute-prozesuan parte hartu dutenek haur eta nerabe askok bakardadea eta isolamendua sentitzen dutela nabarmendu dute. Ongizate emozionalaren inguruko kezka nagusietako bat haur eta nerabeek euren emozioak kudeatzeko dituzten zailtasunak dira. Horrez gain, parte-hartzaileek azpimarratu dute zaintza erdua eta babes maila muturrekoak bihurtzen ari direla, kontrolarekin nahasteko arriskua dagoela eta horrek ongizate emozionalean eragin dezakeela. Hori dela eta, esku-hartze koordinatua eta baliabide gehiago behar direla azpimarratu dute.

Osasun mentalari dagokionez, **eskoletan baliabide eskasia** dagoela nabarmendu dute parte-hartzaileek. Irakasleek eta familiek **ikasleen ongizate emozionalari erreparatzeko zailtasunak** dituztela aipatu dute, eta horretarako beharrezkoa da **esku-hartze estrategikoak garatzea eta baliabide gehiago eskuratzea**.

“Bakardadea eta isolatuak dauden ikasleak ikusten ditugu, baina egoera emozionala ere askotan ez dakitela kudeatzen.” (H.2)

"Oso babestuak ditugun ikasleak ditugu, zaintza maila muturrekoetara eramaten da, zaintza kontrolarekin nahasten da eta umeak etengabe zainduta daude. Beldur asko ditugu eta beldur horiek gabeziak dira." (H.2)

"Zaintza akonpainamenduan egon behar da, ez bijilantzia eta kontrolan." (H.2)

"Irakasleak ez dira gai ikasleen garapen pertsonala kudeatzeko. Zer da ongizatea? Gaude belaunaldi bat non zeharkako gaitasunetan muga asko dituguna, behar ditugu kanpoko adituak garapen pertsonalean." (H.2)

"Osasun mentalean dago hutsune handia eskoletan erantzun egokia eman ahal izateko. Begirada jarri behar dugu eta agian ez da konpontzen gauza gehiago jarrita, oinarrietara jo behar dugu." (H.2)

"Pandemia garaian haurrek adierazi zuten gurasoekin edo familiekin pasatutako denbora asko eskertu zutela, baina badirudi hori galdu egin dela." (H.1)

"Tolosan ez dago gazteentzako osasun mentalerako baliabiderik. Inguruko herri batean, Andoainen, zerbitzu bat dago, baina ez da nahikoa." (H.1)

"Osasun mentalean dago hutsune handia. Gure inguruan gero eta kasu gehiago daude antsietatearekin eta auto-lesioekin lotutakoak." (H.1)

"Osasun mentalaren inguruko taldeak eta doako zerbitzuak sortzea premiazkoa da." (H.1)

7.3.2.2. Haurrak, nerabeak eta gazteak eskubideen subjektuak

Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Diagnostikoak eta Plana (2023):

- › Tolosa herri bizia eta aktiboa da (beti dago zerbait), elkarrekin eta talde ugari dago, baita aisialdiaren esparruan ere (ia ikastetxe bakoitzak talde bat du).
- › Herri-ekimenetik sortutako aisialdiko ekimenak dira nerabe eta gazteek gehien baloratzen dituztenak (3x3 txapelketa, Tolobolei Txapelketa, Kintoen bazkaria...).
- › Aisialdi taldeek ondo baloratzen dute COVID-19aren garaian Udalak haiekiko izan zuen erantzuna.
- › Haurren Hiria Programaren inguruko balorazioa, oro har, oso positiboa da, haurren parte-hartzearen eta herritartasunaren sustapena, Udalarekiko harremanak eta udal politika lotzen dituelako. Baina ez dauka jarraipenik nerabezaroan (egun ez da eskalablea).
- › Horrekin batera, zenbait proiektu eta ekimen burutu dira gazteei parte-hartzea eskatuz, baina sentzazioa da gazteek ez dutela parte-hartze horren emaitzarik ikusten.
- › Udalak ez dauka gazteekin komunikatzeko eta beren premia eta nahiak ezagutzeko kanal edo sistema egokirik eta egonkorrik.
- › Historikoki, Tolosan elkartegintza eta herritarren dinamizazioa, inplikazioa eta parte-hartzea indartsuak izan dira. Horri eusteko ekimenak ere sustatzen dira gaur egun: Inmakulada ikastetxeko Bolondres azoka; Miserikordia edo Uzturre azpiko pozak berreskuratzeko egin diren auzolanerako deiak, etab.
- › Dena den, gaur egun inplikazioa puntualagoa eta mugatuagoa da, eta lan boluntarioaren onuren ikuspegia gainbeheran dago.



HAURREN ETA NERABEEN PARTE HARTZEA

Haurren eta nerabeen parte-hartzea funtsezkoa da komunitate sendo eta kohesionatu bat eraikitzeko. Entzute-prozesuan parte hartu dutenek haurrek eta gazteek tokiko bizitzan eta aisialdi-taldeetan duten parte-hartzearen bilakaera aztertu dute.

Haurren Hiriaren dinamika eta zaintzaren inguruko hausnarketa

Tolosan Haurren Hiriaren haurrek gai ezberdinak lantzen dituzte. Pandemiaren garaian, osasun emozionala ardatz izan zen, eta hortik abiatuta, zaintzaren inguruan hainbat ideia eta proposamen sortu ziren. Haurrek euren gurasoekin eta familiekin gehiago egoteko beharra azpimarratu zuten, baina badirudi denborarekin hori ahazten joan dela.

“Haurren Hiriaren dinamizazioa daramagu bost edo sei urtez, eta gai ezberdinak landu izan ditugu. Pandemia garaian, osasun emozionala izan zen gure ardatza, eta zaintzaren inguruan hainbat ideia eta proposamen sortu ziren. Ikasturte honetan, Tolosan elkar zaintzea izango da gai nagusia. Pandemia garaian haurrek adierazi zuten gurasoekin edo familiekin pasatutako denbora asko eskertu zutela, sukaldean edo beste jarduera batzuetan elkarrekin eginez. Badirudi hori galdu egin dela, eta bakoitza bere errutinara itzuli dela. Zaintzaren inguruko hausnarketan, haurrek gurasoekin denbora gehiago pasatzeko beharra adierazi zuten”. (H.1)

Haur eta gazteen aisialdi-taldearen parte-hartzea eta bilakaera (H.3)

Aisialdi-taldeek komunitatearen bizitzan duten funtzioa aldatu egin da azken urteotan. Parte-hartzaileek adierazi dutenez, lehen gurasoek ere aktiboki parte hartzen zuten aisialdiko taldeetan, baina belaunaldi aldaketarekin parte-hartze hori desagertzen ari da. Horrez gain, aisialdi-taldeetan atzerriko jatorria duten haur eta nerabeen parte-hartzea oso baxua dela ere azpimarratu dute.

“Duela 10 urte harreman gehiago zegoen, eta gurasoak ere parte hartzen zuten, baina belaunaldi aldaketarekin guztiz galdu da. Bertan daukagu erronka: lehen zer zen berreskuratzea eta urtetik urtera gehiago betetzea.”

“Guraso batzuk inplikaturik daude, baina beste batzuk zerbitzu gisa hartzen dute aisialdi taldea.”

“Eskolan % 16 inguruko atzerriarren proportzioa dago, baina aisialdi taldeetan ez da kopuru hori islatzen. Saiatzen gara animatzen, baina zaila da; agian zaintzarekin lotura duen zerbait da.”

“Lehenengo gurasoak elkartearen parte ziren, baina gaur egun ez.”

Boluntariotza eta parte hartzea

Boluntariotza haur eta nerabeen garapen pertsonalarekin lotutako funtsezko elementu bat dela nabarmendu da, baina parte-hartzaileen ustez, gazteei horretarako aukerak eskaintzea zaila izaten da. Gainera, boluntariotza ereduak aldatzen ari da: orain arte batez ere emakumeek hartu dute ardura hori, baina etorkizunean, ereduak inklusiboagoak izan behar direla nabarmendu dute.

“*Boluntariotza lantzen dugu beren garapen pertsonalarekin lotuta, baina askotan gazteek ez dute aukera egokia jasotzen. Eskoletan sartuak daude, baina kanpora atera eta errealitatea ezagutu behar dute.*” (H.2)

"Boluntariotza Tolosan indar handia izan du, baina desaktibatzen ari da. Nik uste hor dagoela arazo bat: gu boluntario asko gaude, baina nor zainduko gaitu gu?" (H.2)

"Gaur egun gazteek boluntariotza beste eredu batzuekin lotu behar dute, ezin dugu jarraitu zaintza eta boluntariotza emakumeen esku egoten." (H.2)

"Boluntariotza gehiago sustatu behar da haur eta nerabeen artean: janaria banatu, espazio publikoak garbitu, naturan lan egin." (H.1)



GAZTE TOPAGUNEAREN BALORAZIOA

Tolosako Gazte Topagunea gazteei aisialdi hezitzaile bat eskaintzeko gunea da, non harreman sozialak, genero-ikuspegia eta balio unibertsalak lantzen diren. Entzute-prozesuan parte hartu dutenek hezkuntza ez-formalaren garrantzia azpimarratu dute, gazte askorentzat espazio honek berezko funtzio prebentiboa betetzen duelako. Halaber, gazteen aisialdirako dauden aukerak, parte-hartzearen desberdintasun ekonomikoak eta boluntariotzaren inguruko genero-rolak ere aztertu dira.

Hezkuntza ez-formalaren garrantzia

“*11 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako aisialdi hezitzailearen eskaintza eskaintzen dugu. Hemen, balio unibertsalak lantzen dira, bi hezitzaile (gizon bat eta emakume bat) dituzten taldeekin. Gazteen arteko harremanak sustatzen dira, ikastetxe desberdinetako haur eta nerabeak elkar ezagutzeko espazio bat sortuz, eta genero ikuspegia ere kontuan hartzen da. Genero rolen eta estereotipoen gainean hausnartzeko jarduerak egiten ditugu, eta maiz jolasekin edo dinamika zehatzekin lantzen dugu hau. Adibidez, batzuetan zailagoa izaten da gizon bat sukaldaritza saio bat gidatzen ikustea edo emakumeak kirol txapelketa bat koordinatzen. Halaber, generoaren arabera parte-hartze desberdina izan dezaketen ekintzak identifikatzen ditugu. Ostegunetan, talde egonkor bat etortzen da askotan, eta horrek gertuko lan bat egiteko aukera ematen digu. Asteburuetan, berriz, gazte gehiago etortzen dira.*” (H.1)

"Gazte askok esaten digute: 'Hona nator, bestela etxean bakarrik egongo nintzen eta aspergarria litzateke.'" (H.1)

"Topaguneak funtzio prebentibo bat betetzen du, gazteek kalean edo heldu baten ikuskaritzarik gabe egon beharrean hemen egoteko aukera eskainiz." (H.1.)

"Gazteek sexualitate tailer batera ez dira agertzen gehienetan, baina mural bat margotzera gonbidatuz gero, bai. Jarduera horien bidez, eguneroko egoeretan jarrera sexistak identifikatzea eta lantzea errazagoa izaten da."

"Gazteek Topagunearen erabilera maiz lotzen dute beraien egoera sozioekonomikoarekin. Baliabide gutxiago dituztenek, ingeles klaseetara joan beharrean, hemen parte hartzea hautatzen dute."

"Aniztasun funtzionala duten gazteak ere Topagunera etortzen dira. Espazio honek beraientzat eta familientzat arnasmune bat eskaintzen du."

"Espazioaren erabileran desberdintasunak nabaritzen dira nesken eta mutilen artean. Mutilak zarata gehiago egin eta espazio handiagoa hartzen dute. Oro har, Gaztelekueetan mutilen presentzia handiagoa izaten da, baina jarduera zehatzak planifikatuz nesken parte-hartzea sustatzen ari gara. Esaterako, eskulan jarduerak antolatzen direnean, neska gehiago gerturatzen dira."

Gazteen aisialdirako espazioak eta alternatibak

Parte-hartzaileek aisialdirako alternatiben beharra azpimarratu dute, batez ere negu garaian. Gazte Topagunea erreferentziazko espazio bat den arren, baliabide gehiago behar direla aipatu dute. Halaber, gazteen aisialdirako espazio publikoak mugatuak direla adierazi dute, eta aukera gehiago eskaini beharko liratekeela, batez ere gazteek naturarekin edo animaliekin harremanak izateko espazioen inguruan dituzten eskaerei erantzunez.



"Negua luzea da, eta aisialdi alternatibak bilatzea ezinbestekoa da." (H.3)

"Topagunearen espazioa ere aipatzekoa da. Bi hezitzaile daude bertan, eta gauza interesgarriak egiten dituzte, baina baliabide gehiago behar dira." (H.3)

"Asteburuetan kiroldegian egiten diren jarduerak indartzea aukera interesgarria izan daiteke." (H.3)

"Haurrak askotan esaten dute: animaliekin egoteko guneak nahi dituztela, naturarekin kontaktu handiagoa." (H.1)

"Ludoteka baten diseinua landu genuen beraiekin, baina oraindik ez da iritsi proposamena gauzatzerara." (H.1)

"Eskola Publikoa irekita dago beti, baina pribatuak ez. Patioen irekiera bultzatu behar da." (H.1)

"Geroz eta gazte gehiago daude aisialdi antolatu gabeen eta espazio publiko gutxi dituzte. Denak ordaindu behar dira." (H.1)

"Parketarrak eredu oso interesgarria izan daiteke. Bi hezitzaile joaten dira parke batera eta haurren arteko harremanak lantzeko jolasak antolatzen dituzte." (H.1)

"Topagunea txikia da, eta gazteentzako espazio gehiago behar dira, baita gauetan irekita egon daitekeen erreferentziazko leku bat ere." (H.1)

"Ez dago espazio itxi eta irisgarririk gurasoak haurrekin joan daitezen edo euria egiten duenean familiarekin egoteko lekurik." (H.1)

"Hiru eskolek ludoteka eskaintzen dute, eta igeriketa eta futbol taldeak ere badira. Umeek aukera ugari dituzte Tolosan. Beste talde bat sortu ordez, baliabideak hobetzea izan beharko litzateke helburua". (H.3)

Desberdintasun ekonomikoak eta horiek aisialdiko parte-hartzeari nola eragiten dioten (H.3)

Gazteen aisialdirako aukerek sarritan familien egoera ekonomikoaren arabera desberdintasunak erakusten dituzte. Eskola-kiroletan DBH mailarako alternatiba gutxi daudela aipatu da, eta aukera pribatuak garestiak izan daitezkeela.

“*"Eskola-kirola LHn egiten da, baina DBHn ez dago horren alternatibarik. Klubak aukera nagusi dira, baina horiek 500-600 euroko kostua izan dezakete, entrenatzaileak eta beste gastuak direla eta. Kluben helburu nagusia errendimendua izaten da, ez gizarteratzea."*

"Kanpaldien kostua eztabaidagai izan da. Prezioak garestitzen diren heinean, beste foro batzuetan udal aisialdi talde bat sortzea proposatu izan da. Baina horrek «ghetto» berriak sortzea suposatuko duela uste dut."

"Guk inauterietan eskatu diegu ume bakoitzari diru kopuru bat ekartzeko. Ume batek ez zuen guztia ekarri eta gero pentsatu genuen agian ezin zuela. Egia da kasu horietan ez daukagula ezer araututa."

Dirulaguntzak eta baliabideak kudeatzeko zailtasunak (H.3)

Entitate eta talde askok udal dirulaguntzen tramitazioan zailtasunak dituztela adierazi dute. Prozesuak oso konplexuak izan daitezke, eta askotan gehiegizko burokraziak lana oztopatzen du. Gainera, diru-laguntzen banaketa ez dela beti bidezkoa iruditzen zaie batzuei, eta prozesu horiek sinplifikatu beharko liratekeela proposatu dute.

“*"Diru-laguntzak eskatzea oso zaila da: baldintza piloa betetzea eskatzen digute, eta hori guztia borondatez egiten dugun lana da."*

"Diru-laguntzak eskatzea ez da erraza, lupa batekin begiratzen da guztia, duela bi urtetako fakturak eskatu izan dizkigute. Uste dut sinplifikatu egin behar dela."

"Guk 4.000 euroko diru-laguntza jaso dugu, baina beste talde batzuek, adibidez, inauterietarako 2.000 euro jaso dituzte. Atzean entitate bat dugunez, defizita gure gain hartzen dugu, baina talde txikietan, nork sostengatzen du hau?"

Boluntariotza, genero-desberdintasuna eta zaintza-rolak (H.3)

Boluntariotzaren inguruan ere genero-rolen banaketa oraindik ere nabaria dela adierazi dute parte-hartzaileek. Sarritan, aitzak jarduera fisiko eta logistikoetan parte hartzen dute, eta amak koordinazio-lanetan edo eskulanetan aritzen dira. Hau da, zaintzarekin lotutako rolen banaketa tradizionala mantendu egiten da boluntariotzan ere.

“ *"Telefono eta boluntariotza rolak banatuta daude: aitzak gauzak muntatzen laguntzen dute, eta amak beste jarduera batzuetan aritzen dira, adibidez, koordinazio edo eskulanetan."*

"Kurtso hasierako bileretan gizonezkoak egoten dira, baina gero ez da antzematen benetako inplikaziorik."

"Boluntariotzan ere rolak banatuta daudela ikusten da: aitzak normalean gauzak muntatzen laguntzen dute (logistika edo antolakuntza fisikoagoak), eta amak bestelako jardueretan aritzen dira."

"Telefono zenbakiak gehienetan amena izaten dira (% 98)."

7.3.2.3. Kontziliazio erantzukiderako gakoak

Tolosako Haur, Nerabe eta Gazteen Diagnostikoak eta Plana (2023):

- › **Aisialdiko eskaintza mugatua eta desorekatua:**
 - **10-12 urtetik beherakoentzat:** aisialdi hezitzaile eskaintza, neurri handi batean, pribatua da, ez dago eskaintza publiko, doako eta integratzailearik.
 - **10/12-17 urte bitartekoentzat:** Gazte Topagunea da zerbitzu publiko bakarra. Nerabeen artean ezaguna da, baina ez da erakargarria denentzat.
 - **17 urtetik aurrera,** ez dago aisialdirako eskaintzarik.
- › Haur eta nerabeek jolasteko, kirola modu librean egiteko eta egoteko **espazio estaliak falta dira.** Baita zenbait azpiegitura edota ekipamendu ere: **bizikletak aparkatzeko lekuak, iturri publikoak.**
- › Espazio irekietan kirol eta aisialdi eskaintza: Naturguneak ondo baloratuak daude, baina kirol eta aisialdi jardueretarako gehiago sustatu behar dira.
- › Eskola Kirolaren programaren bidez txikitatik dute tolosarrek kirola egiteko aukera. Programa indartu behar da, dituen balioak ondo komunikatuz, besteak beste.

- › Kirol instalazioak modernoak eta erakargarriak dira; bereziki, Usabal kiroldegia: asteburuetan gazteen elkargune bihurtzen da. Hala ere, txiki geratu da –udalak oro har espazio eskasia du–, eta gazteen ustez, ordutegia murrizta du, garestia da eta bertako gimnasioak adin-muga du.

Familiak eta kontziliazioa

Familien egungo egoera eta zaintza-beharrak aldaketa sakonak bizitzen ari dira. Gurasoen lan-baldintzak aldatu ahala, kontziliazioa gero eta zailagoa bihurtzen da, batez ere arratsaldetan eta udan. Askotan, gurasoek seme-alaben zaintzan aktiboki parte hartu nahi badute ere, oinarrizko beharrak asetzea dute lehentasun. Zaintza-espazio egokiak behar direla nabarmendu da, bai eskola aurretik eta ondoren, baita herri-mailako formakuntza kolektiboaren beharra ere.

“Antolaketa familia ereduak aldatzen ari dira, eta zaintza beharra areagotzen da arratsaldetan eta udan. Familia askorentzako zaintza ezinbestekoa da.” (H.2)

“Gurasoekin lan egiten dugu, baina argi dago beste lehentasun batzuk dituztela. Askotan oinarrizko beharrak dira, ez da ez dutela nahi parte hartu.” (H.2)

“Lan baldintzak direla eta, gurasoak saturatuta daude, eta denbora gutxi dute haur eta nerabeekin egoteko.” (H.1)

“Gurasoek ez dituzte seme-alabak autonomoak izateko prestatzen, eta gero eta gehiago babesten dituzte.” (H.1)

“Eskola aurreko eta ondorengo zaintza espazioak beharrezkoak dira. Egungo ereduak ez da jasagarria.” (H.1)

“Guraso Eskolak daude, baina eskola bakoitzean egiten dira. Beharrezkoa da herri mailan antolatutako formakuntza kolektiboa.” (H.1)



FAMILIEN INPLIKAZIOA ETA ZAINTZAREN TRANSMISIOA

Genero-desberdintasuna zainketetan eta familia-partaidetzan

Gurasoen parte-hartzea eta zaintza-ereduen transmisioa funtsezko gaiak dira haurren hezkuntzan eta garapenean. Hala ere, entzute-prozesuan parte hartu dutenek azpimarratu dute familietan oraindik ere zaintzaren ardura emakumeen esku dagoela, eta horrek kontziliazioaren eta berdintasunaren arazoak larriagotzen dituela. Zaintzaren profesionalizazioaren beharra eta boluntariorzaren inguruko ereduak birpentsatzea proposatu dute.

“Gure generazioak ez dugu diskurtsoa ekintzara eraman. Berdintasunari buruz hitz egiten diegu, baina ez ditugu lanak berdintasunean banandu, eta hori da nire ustez zaintzaren arazo potoloena.”

"Oraindik familietan zaintzaren ereduak emakumeen esku dago. Sistema dago lehertzeke. Zaintzetik kentzen badituzu emakumeak, eta zaintza beste batek egin behar duela esaten baduzu, zein gizartek asumitzen du?"

"Zaintza ereduak ezin dira boluntariorik oinarritu. Zaintza profesionalizatu egin behar da, baina ezin du orain arteko ereduarekin jarraitu."

"Boluntariorik hitza emakumeen kontra doa, hemendik atera behar dugu. Gizonak ez dira izan boluntarioak askotan, eta zaintza emakumeen boluntariorik esker mantendu da."

Eskaerak eta aldarrikapenak

Entzute-prozesuan parte hartu dutenek hainbat eskaera eta aldarrikapen plazaratu dituzte, diru-laguntzen kudeaketari, aisialdirako baliabideen hobekuntzari eta gazteentzako espazio gehiagoren beharrari lotuta. Beharrezkoa da baliabideen hobekuntza eta optimizazioa, baita aisialdirako dauden espazio eta zerbitzuak errealitate berrietara egokitzea ere.

“ *"Diru-laguntzetan laguntza gehiago behar da: Elkarre guztiak ez daude baldintza berdinetan. Dokumentazioa eta baldintza zorrotzak oso zailak egiten dute prozesua."* (H.3)

"Gu boluntarioak gara, eta abendutik martxora arte larunbat guztietan entseguak ditugu. Hori guztia borondatez egiten dugu, eta laguntza gehiago behar dugu." (H.3)

"Agian diru-laguntza ez da guri eman behar, agian gerturatu ezin diren adingabeei lagundu behar zaie, kuota ezin dutenek eskatu dezaten, edo etxean ez dutelako eskatu nahi." (H.3)

"Tolosan bi aisialdi eskola daude, agian ez da beste bat sortu behar, baizik eta laguntza eman behar da dagoenari." (H.3)

"Topagunea egun bat gehiago irekitzea; adibidez, asteazkenetan, talde egonkor berriak sortzeko eta lanketa sakonagoak egiteko." (H.1.E.1.3)

"Interesgarria litzateke ludoteka zerbitzu antzeko bat sortzea LH 6tik aurrera." (H.1.E.1.3)

"Adin-tarte ezberdinetarako espazio egokituak sortzea. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatik zerbitzua eskaintzea prebentzio lanak lehenago hasteko baliagarria izan daiteke." (H.1.E.1.3)

7.3.2.4. Ondorio nagusiak: ekarpenak eta korapiloak

Laburbilduz...

Tolosa komunitate eta elkarre-sare sendoa duen herria da, baina integrazioari, bateragarritasunari, zerbitzuetara sarbide berdintasunari eta gazteen parte-hartzearen jarraikortasunari lotutako erronka nagusiak ditu:

- › Adin-tarte guztientzako **aisialdi publiko eta doako** eskaintza zabaltzea.
- › **Erantzunkidetasunaren** inguruko **programak indartu** eta hobetu.
- › Jatorri atzerrikako haur, nerabe eta gazte inklusiorako **espazioak sortzea**.
- › Gazteen **parte-hartzea eta komunikazio-kanalak** indartzea.
- › Gazteen **ongizate emozionala** eta osasun mentala artatzeko estrategiak garatzea.

Tolosa komunitate sendoa duen herria da, baina zaintza-politikak indartzen jarraitu behar ditu, haur, nerabe eta gazte guztiek aukera-berdintasuna izan dezaten.

Indargune nagusiak

Harrera eta integrazio programak

- › Gazteak Ongi Etorri: jatorri atzerrikako haur eta gazteen integrazioarako programa ondo egituratua, jarduera erregularrekin.
- › Eskola-segregazioa arintzeko eta inklusioa sustatzeko ekimenak daude.

Ongizate emozional eta sozialarekiko konpromisoa

- › Haurren eta nerabeen ongizate emozionalaren garrantziaz kontzientzia hartu da.
- › Zaurgarritasun-kasuak detektatzeko ekimenak daude, eta esku-hartzea hobetzeko beharra aitortzen da.
- › Haurren Hiria proiektuak haurrek parte hartzeko espazioak sortu ditu, ongizateari eta elkarbizitzari buruz hausnartzeko.

Kirol-azpiegitura eta eskaintza

- › Kirol-instalazio moderno eta erakargarriak, hala nola Usabal kiroldegia.
- › Alternatiba gisa, gazteen antolatutako kirol ekimenak daude (3x3, Tolobolei).

Haurren eta gazteen parte-hartze espazioak

- › Haurren Hiria eta Gazteen Parte-hartze Foroak haurren ahotsa entzunarazi dute.
- › Gazte Topagunea 11-17 urte bitarteko gazteen erreferentziazko gunea da, ikuspegi hezitzaile eta sozialarekin.
- › Berdintasun-balioak sustatzen dira gazte-espazioetan egiten diren jarduera eta tailerretan.
- › 2012.urtetatik Hezkidetza Programa martxan dago.

Aisialdi eta boluntarioria talde-sarea

- › Tolosa gazteen dinamizazio eta boluntarioria-tradizioa duen udalerria da.
- › Herritarren ekimenez sortutako aisialdi-eskaintza dago, nerabeek eta gazteek oso ondo baloratzen dutena.

Erronkak

Aisialdi-eskaintzan desoreka:

- › 10-12 urte artekoentzat: aisialdi pribatuaren nagusitasuna, aukera publiko eta doakoen gabezia.
- › 10-17 urte bitartekoentzat: Gazte Topagunea zerbitzu bakarra da, baina gazte guztientzat ez da erakargarria.
- › 17 urtetik aurrera: ez dago aisialdi-eskaintza espezifikorik.
- › Estalitako espazio egokien falta haurrek eta nerabeek libreki jolasteko.
- › Kirol- eta aisialdi-espazio batzuek berrikuntza edo hobekuntzak behar dituzte.

Bateragarritasun eta erantzunkidetasun arazoak

- › Zaintza-lanen pisua emakumeengan jarraitzen du, erantzunkidetasunaren banaketa desorekatua islatuz.
- › Eskola-ordutegitik kanpo haurren zaintzarako programak familia askorentzat ez dira nahikoak.
- › Aisialdi-taldeak eta familien arteko koordinazio falta, jardueren plangintzan gatazkak sortzen dituena.
- › Kirol-jardueretara sartzeko zailtasunak kostu ekonomikoagatik: familia askok ezin dituzte klub pribatuak ordaindu.

Integrazio eta parte-hartze desorekatua

- › Eskola-segregazioa: Ikastetxeen arteko alde esanguratsuak hautematen dira, gizarteratzeari eraginez.
- › Jatorri atzerritarreko ikasleen inguruko estereotipo negatiboak eta hizkuntza-oztopoak daude, haien inklusioa zailduz.
- › Jatorri atzerritarreko familia batzuek ez dute haurrak hezteko laguntza-sarerik, eta horrek haien sozializazioari eragiten dio.

Hezkuntza emozionalaren eta ongizatearen arazoak

- › Ongizate emozionalaren inguruko kezka handitzen ari den arren, hezkuntza-eragileek ez dute beti horri aurre egiteko tresnarik.
- › Haurren eta gazteen osasun mentala artatzeko esku-hartze koordinatua behar dela identifikatu da.
- › Nerabeek segurtasunik eza sentitzen dute zenbait espaziotan, batez ere nesken kasuan.

8. ZAINZEN DUEN HERRIA

8.1. Sarrera

Orain arte, diagnostiko honetan zainketen errealitatea hainbat ikuspegitatik aztertu da, eta honako funtsezko dimentsioak landu dira:

- › Adinekoak, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak eta/edo desgaitasuna dela-eta, eguneroko bizitzan moldatzeko laguntza behar dutenak.
- › Haurrak, nerabeak eta gazteak.

Hirugarren atal honetan, dimentsio horiek guztiak barne hartzen dituen **ikuspegi multidimentsionala jorratuko dugu**. Diagnostiko honen parte-hartze prozesuan elkarrekotasuna sustatzen duten hainbat programa, ekimen eta eragile identifikatu dira, eta atal honetan horiek jasoko ditugu.

Artikulatu nahi dugun **zaintza-ereduak ohiko laguntza-zerbitzuetatik harago joan behar duela uste dugu eta antolaketa kolektibo berri baten alde egin**, non pertsona guztiek beraien eta komunitatearen ongizatea eraikitzen parte hartu ahal izango duten. Horrek ardura indibidualak eta kolektiboak aitortzea dakar, desberdintasunak zein pribilegioak ulertuz. Azken finean, *«bizitzera merezi duten bizitzak eta herriak nahi ditugu»* eta hori lortzeko, ezinbestekoa da Administrazio Publikoaren eta eragileen arteko lotura sendotzea, bizitza jasangarriagoa egingo duen egiturak sortuz.

Eredu hau ez da soilik ahaidetasun-harremanetan oinarrituko, baizik eta elkarren arteko laguntza sustatuko duten **zaintza-sare komunitarioak** bultzatuko ditu, bakardadea eta norbanakoaren ahultasuna murriztuz. Ildo horretan, kohesio soziala eta egitura organizatibo berrien sorkuntza –malguak, anitzak eta moldagarriak– funtsezkoak dira elkarbizitza eta ongizate kolektiboaren erronkei erantzuteko (Arangure et al., 2023).

Prozesu honetan behin eta berriz azpimarratu dugun bezala, **gizakiok funtsean zaurgarriak eta elkarrekiko menpekoak gara**, eta, hortaz, zaintzak bestearen beharrei erantzuteko etika arduratsua osatzen du. Ondorioz, **premiatzkoa da zaintzak esparru politikoaren erdigunean kokatzea, demokrazia garaikidearen zentzua eraldatzeko**. Azken finean, **zaintzak politikoak dira**.

Tolosako zaintza kolektiboarekin lotutako ekimen eta programen artean, hainbat proiektu nabarmendu behar dira; ekintzailatza eta merkataritza dinamizatzeko, **Ekin Programa eta Berriz Programa** daude, hurrenez hurren, negozio berriak martxan jarri edo lehendik daudenak hartu eta kudeatu nahi dituztenentzako dirulaguntza planak eskainiz. Era berean, **Tolosako azoka**, herriaren hauspo gisa, ia larunbatero egiten den topagunea da, ekoizle eta saltzaileentzako gunen nagusiak eskainiz. **Emari**

Coworking, berriz, ekintzailletza eta berrikuntza sustatzeko erreferentziazko espazioa da, *startup-en* sorrera, sormen-lana eta sare-lana bultzatuz.

Bestalde, diagnostikoan zuzenean jasota ez dauden baina komunitatearen ongizatean eragin handia duten ekimen batzuk ere identifikatu dira. Hauek dira, besteak beste: **Mintzalagun Programa**, euskarazko praktika espazioa; **Bizilagunak ekimena**, kulturartekotasuna bultzatzen duen proiektua; eta **Aholku Sarea**, herritarrei baliabide sozialen inguruko orientazioa eskaintzeko gunea. Gainera, egoera ahulean dauden pertsonen laguntzeko, **Abegi eguneko eta gaueko arreta zerbitzua** eta **Indarkeria matxistaren aurkako arreta programa** funtsezkoak dira, azken honek indarkeria jasaten duten emakumeei arreta integrala eskainiz. **Asanblada eta herriko mugimendu feminista**, berriz, berdintasunaren eta emakumeen* eskubideen aldeko borrokan aritzen dira. **Andragora** Tolosaldeko Emakumeen Etxeak, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailarekin elkarlanean, **autolaguntza taldea** eskaintzen du; indarkeria matxistei aurre egin dieten edo aurre egiten ari diren emakumeentzako erreparazio, babes eta segurtasun espazio bat eskainiz.

Horrez gain, hainbat eragile komunitario ere ezinbestekoak dira zaintza kolektiboaren eta elkarlanerako sarearen barruan. **Auzo elkarteak eta elkartegintza bere osotasunean** komunitatearen kohesioa eta herritarren parte-hartzea sustatzen dute. **Tolosatzen Aliantza komunitatearen** kohesioa eta lankidetzat sustatzeko proiektu ere garrantzitsua da. Guztiak batera, ekimen hauek komunitate sendoagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko bidean laguntzen dute. Era berean, Emeterio Arrese kaleko **Tolosako zentro sozio-kulturala** gune garrantzitsua da, herritarren arteko topaketa, kultur ekimenak eta komunitate-lana sustatzeko.

Atal honetan, zaintza-ekosistemaren parte diren espazioak ere sartu ditugu, hala nola **Andragora**, **Liburutegia**, **Musika Eskola**, **Kiroldegia**, **Euskaltegia** eta **Kultur Etxea**. Nahiz eta hasiera batean bestelako helburu bat izan, espazio hauek zaintza eskaintzeko gune bihurtzen dira euren eguneroko jardueretan.

Adibidez, liburutegiak ikasketa- eta aisialdi-eremu seguruak eskaintzen ditu haur, nerabe eta helduentzat, gizarte-harremanak eta ezagutza sustatuz. Musika Eskolak eta kiroldegia, bestalde, aisialdi osasungarria eta garapen pertsonala sustatzen dute, herritarrek euren gaitasunak lantzeko eta komunitatean parte hartzeko aukera izan dezaten. Euskaltegiak eta Kultur Etxeak, berriz, hizkuntza- eta kultur-integraziorako espazioak dira, pertsonen arteko loturak sendotuz eta gizarte-kohesioa sustatuz.

Beraz, **nahiz eta espazio horiek hasiera batean beste helburu batzuekin sortuak izan, egunerokoan zaintza-espazio bihurtzen dira**, ongizatea sustatuz eta komunitateko kide guztiei arreta eta laguntza eskaintzeko aukera emanez.

8.2. Tolosako Zaintza Ekosistema: Zainketa kolektiboarekin lotutako zerbitzuen, programen eta egituren multzoa

Atal honetan, zaintza-sarearen parte diren zerbitzu eta programak aztertuko ditugu. Horien artean, udalaren eta komunitatearen artean garatzen diren ekimenak daude, biztanleriaren ongizatea eta bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko helburua dutenak.

Garrantzitsua da azpimarratzea zerbitzu batzuk ez daudela xehetasunez azaldu atal honetan, baina **Tolosako zaintza ekosistema publiko komunitarioaren mapa (l. eranskinean)**.kontsulta daitezkeela.

Erakunde publikoak			
Jasotzaileak	Zerbitzu edo prestazioa	Konpetentzia	Izaera
Belaunaldien arteko esperientziak			
Herritarrak	Alokairuko etxebizitza kolaboratiboak	Udala	Zuzena
Herritarrak	MUGI TOLOSA!	Tolosako Udala, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoak eta Osakidetza	Zuzena
Gazteak	Iurreamendiko Auzolandegiak	Udala	Sinbolikoa
Formakuntza eta sentsibilizaziorako guneak			
Emakumeak	Jabekuntza Eskola – GURETZAKO: jatorri anitzeko emakumeentzako gunea	Tolosaldea Garatzen	Sinbolikoa
Herritarrak	Tolosatzen eskola irekia	Udala	Sinbolikoa
Elkarbizitza eta Irisgarritasuna			
Herritarrak	Adineko, gazte eta behar bereziak dituzten pertsonei zuzendutako etxebizitzak	Udala	Zuzena
Herritarrak	Harrera programa - Harrera protokoloa	Tolosaldea Garatzen	Sinbolikoa
Herritarrak	Irisgarritasun Plana	Udala	Estrukturala
Komunitatea: zaintza espazio eta Zerbitzuak:			
Emakumeak	Andragora	Udala/Tolosaldea Garatzen	Zuzena
Herritarrak	Emari coworking	Udala	Zuzena
Herritarrak	Euskaltegia	Udala	Zuzena
Herritarrak	Kultur Etxea	Udala	Zuzena
Herritarrak	Liburutegia	Udala	Zuzena
Herritarrak	Musika Eskola	Udala	Zuzena
Herritarrak	Udal kirol instalazioak	Udala	Zuzena

Herritarrak	Tolosako Azoka	Udala	Zuzena
Herritarrak- elkarteak	Emeterio Arrese espazio soziokulturala	Udala	Zuzena

Jarraian, zerbitzu eta programen aurkezpena egingo dugu, haien jardueraren eremuaren arabera antolatuta.

1. MUGI TOLOSA!

MUGI TOLOSA! Tolosako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoak eta Osakidetza zerbitzuek sustatutako tokiko gizarte-estrategiako ekimena da, astero egiten dena. 2014. urtetik hona, jarduera fisikoa eguneroko bizitzan sustatzea du helburu, bereziki 65 urtetik gorako pertsonen osasun-ohiturak indartzeko.

Ekimena sare sozial bat da, gizarte arloko, osasun-hezkuntzako eta zahar egoitzetako hamabi bat eragilerekin osatua. Helburua aldaketa pertsonala eragitea da, jarduera fisikoa, elikadura osasuntsua eta ongizate psikologikoa sustatuz. Horren bidez, ohitura osasungarriak sendotzea eta bizitza aktiboa duten pertsonen kopurua handitzea lortu nahi da, sedentarioen kopurua murriztuz.

MUGI TOLOSA! ekimenak eragindako berrikuntza nagusienetako bat belaunaldien arteko harremanak sendotzea izan da, adin ezberdinetako pertsonen arteko sare sozial emozional paregabea eratuz. Jarduera fisikoaren bitartez, gizarte-loturak eta ongizatea sustatzen dira.

Egun bakoitzeko antolaketa eragile ezberdinen eta Udalaren artean elkarbanatzen da. Parte-hartzaileei txartel bat emango zaie, eta itzuli bakoitza egitean zigilua jasoko dute. Boluntarioen lana funtsezkoa da, eta horretan hainbat talde eragiletako kideak dabilta.

Parte hartzen duten eragileak:

- › Amarotz.
- › Asuncion Klinika.
- › Goyeneche Fundazioa.
- › Gurutze Gorria.
- › Harizpe.
- › Herrikide.
- › Illarki.
- › Inmakulada.
- › Ituriza.
- › Iurramendi Egoitza.
- › Laskorain.
- › Nagusilan.
- › Orixe.
- › Tolosako anbulatorioa (OSI Tolosaldea).
- › Tolosako Udala.
- › Tolosaldea Lanbide Heziketa.

- › Uzturre Egoitza.

2. Iurreamendiko Auzolandegiak:

Lan komunitarioa bidez herriari ekarpenak egiteko proiektua. Generazio arteko lankidetzeta eta kolaborazioa oinarri hartuta.

- › 2023: 40 parte hartzaile, 2 asteetan zehar. Horietatik 24 neska eta 16 mutil. Jatorria, nagusiki, autoktonoak, baina kanpo jatorriko parte-hartzaileak ere izan ziren.
- › 2018: 20 parte-hartzaile.

3. Belaunaldi arteko etxebizitza proiektua

Tolosako Udalak 2025ean lurramendi pasealekuan belaunaldi arteko etxebizitza proiektua abiaraziko du, gaur egungo etxeen eta eraikitzen ari diren eraikinen arteko orubean. Egitasmo honek belaunaldi desberdinen arteko bizikidetzeta eta elkarrekintza sustatzea du helburu, komunitatean oinarritutako bizi-eredu jasangarriago bat bultzatzeko. Azaroan aurkeztutako proiektuak interes handia piztu zuen, eta geroztik, Udalak talde-elkarrizketak eta eragileekin bilkurak egin ditu, proiektua definitzeko. Datozen hilabeteetan, saio irekiak antolatuko dira Topagunean, interesa duten herritar guztiei zuzenduta, proiektuaren izaera, arkitektura-programa eta komunitatearen beharrak jorratzeko. Lehen saioa 2025eko otsailean egingo da, gazteen ikuspegia jasotzeko, eta martxoa eta apirilean beste hiru saio izango dira. Gainera, herritarren ekarpenak biltzeko online galdetegi bat ere prestatu da, belaunaldi arteko etxebizitzaren diseinua herritarren beharrianetara egokitzeko.

4. Tolosatzen Eskola Irekia

Tolosako Udalak 2020an abiatu zuen Tolosatzen Eskola Irekia proiektu pilotua, herritarren, Udalaren eta herriko talde antolatuen arteko harreman zuzena sustatzeko helburuarekin. Helburua da herritarren parte-hartze aktiboa eta ahalduztze pertsonal zein kolektiboa bultzatzea. Programa hau nazioarteko proiektu baten barruan kokatzen da, eta Tolosa hautatua izan zen esperientzia pilotu bezala, parte-hartze arloan egindako ibilbideagatik eta herritarren inplikazio aktiboagatik. Gainera, ekimen honen bidez, tokiko esperientziak eskolaren esparrura eramatea bilatzen da, sare komunitarioa sendotzeko. Proiektua elkarlanaren eta elkarrizketaren inguruan eraikia dago, eta Udalaren, herritarren, herriko talde antolatuen eta tokiko eragileen arteko sinergiak eta harremanak sustatzea du xede.

Horretarako, hiru ardatz nagusitan egituratzen da:

- › Gaitasun sozialak.
- › Gizarte-komunitatearen sendotzea.
- › Herria ezagutzea.

Emakumeen parte-hartze handia

2023-2024 ikasturtean, 193 pertsonak hartu dute parte Tolosatzen Eskola Irekia programaren jardueretan.

- › Parte-hartzaileen % 83 emakumeak izan dira, eta % 17 gizonak, parte-hartzearen genero-arrakala islatuz.
- › Jarduera eta tailer jendetsuenak honako hauek izan dira: zaintza pertsonala, osasun mentala eta harreman pertsonalak, herritarren interes nagusiak islatuz.

Hezkuntza-esparru anitza

Programak hainbat gai jorratu ditu, besteak beste, hezkuntza digitala, harreman osasuntsuak, osasun mentala eta sexualitatea. Jarraian, parte-hartze handiena izan duten jarduerak aurkezten dira:

- › "Geure burua zainduz" (27 parte-hartzaile).
- › "Pornografia gaur egungo sexu-heziketa ote?" (25 parte-hartzaile).
- › "Osasun mentala eta nerabeak" (25 parte-hartzaile).
- › "Do Re Ni" tailerra (+60 urte) (23 parte-hartzaile).

Parte-hartze txikiena izan duten ekintzak "*Origen y desarrollo del canto coral*" (2 parte-hartzaile) eta "Egungo zailtasunei esperantzaz begiratu eta heldu ahal izateko baldintzak eta posibilitateak " (3 parte-hartzaile) izan dira, balitekeelarik interesa txikiagoa izatea edo zabalkunde handiagoa behar izatea.

Parte-hartze maskulino urria gehienetan

- › Jarduera gehienetan, gizonen parte-hartzea oso baxua izan da.
- › Hala ere, zenbait tailerretan, hala nola "Loaren nahasmenduak" (% 46 gizonak) eta "Osasun mentala eta nerabeak" (% 32 gizonak), gizonen parte-hartzea altuagoa izan da, beste jarduerekin alderatuta.

4. Irisgarritasun Plana

2024. urtean Tolosako Udalak Irisgarritasun Plana eguneratu du. Dokumentua egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzeko helburuarekin, udalerriko kale eta eraikin publikoen irisgarritasun-maila ebaluatu eta hobekuntzak identifikatu ditu.

Prozesu horren barruan, Udalak Irisgarritasun Plana berrikusten eta eguneratzen aritu zen, herritarren eta eragileen iritzia jasotzeko bi saio ireki antolatuz. Bigarren saioan, diagnosa aurkeztu zen, eta bertaratutakoek ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Eguneratutako Irisgarritasun Plana lau ardatzetan oinarritzen da:

- › Erabilera publikoko espazioak.
- › Garraioa.
- › Komunikazioa.
- › Eraikin publikoak.

Duela 20 urteko planaren berrikuspen honek Tolosa irisgarriago bihurtzeko pauso garrantzitsua izan nahi du, herritarren parte-hartzea eta beharrak oinarri hartuta.

5. Adineko, gazte eta behar bereziak dituzten pertsonen zuzendutako etxebizitzak

Tolosako Udalak hainbat etxebizitza ditu adinekoei, gazteei eta behar bereziak dituzten pertsonen zuzenduta, gizarte inklusiboa eta bizikidetzat errazten duten espazioak sortzeko helburuarekin. Etxebizitza hauek kolektibo bakoitzaren behar espezifikoetara egokituta daude, autonomia sustatuz eta komunitatearen laguntza bermatuz.

6. Harrera programa – Harrera protokoloa

Tolosaldeko Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun saila harrera programa koordinatzen ari da, eskualdera iristen diren biztanleentzat informazio-moduluak eta eguneratutako baliabideak eskainiz. Horrez gain, une honetan Tolosaldeko harrera protokoloa diseinatu ari dira eskualdeko ordezkari politiko, tekniko eta gizarte-eragileekin elkarlanean, eta baliabideen gida interaktibo berria ere eskura dago.

Harrera protokoloaren diseinuan bertako herritarren parte-hartzea nagusi izan da, talde eragilearen % 73 tokiko biztanleek osatzen dutelarik, eta jatorri atzerriar pertsonen parte-hartzea % 27koa izanik. Datu honek erakusten du inklusioa ematen ari dela, baina oraindik espazio gehiago ireki daitezkeela parte-hartzea sustatzeko, hizkuntza, informazio falta edo bestelako oztopoak eragin izan ditzaketelako.

7. JABEKUNTZA ESKOLA- GURETZAKO: jatorri anitzeko emakumeentzako gunea

Tolosaldeko Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailak, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin, GURETZAKO gunea eskaintzen du Emakumeentzako Jabetze Eskolaren programazioaren barruan. Espazio hau Tolosaldean bizi diren jatorri anitzeko emakumeentzat sortu da, haien ahalduntzea eta integrazioa sustatzeko.

Tailerrak eta jardueren laburpena

Udaberri eta uda (2023):

- › Xaboi naturalak egiten ikasteko tailerra (18 parte-hartzaile).
- › Ikasketen homologazioari buruzko tailerra (5 parte-hartzaile).
- › Teatro terapeutiko tailerra (8 parte-hartzaile, balorazio oso positiboa).
- › Xaboi naturalak egiten ikasteko tailerraren 2. fasea (18 parte-hartzaile, itxaron zerrenda).
- › Sendabelarren tailerra (18 parte-hartzaile, itxaron zerrenda).

Udazkena (2023):

- › Kosmetika naturalaren tailerra (15 parte-hartzaile).
- › Hilerokoa, autoezagutza eta ziklikotasuna (11-14 urteko 15 neska gazterentzat).
- › Interseksionalitatea eta feminismo dekoloniala (10 parte-hartzaile).


Zaintza lanetan dabiltzan emakumeentzako aholkularitza

- › Sos Arrazakeriak aholkularitza laborala eskaini du telefonoz eta emailaz.
- › Kasu konkretuetan akonpainamendu pertsonalizatua ere egin da.


GURETZAKO espazioa arrakastatsua dela ondorioztatu dezakegu, emakume migratuentzako topagune eta ahalduentzako gisa. Tailer gehienetan parte-hartze handia izan da, eta hainbatetan itxaron zerrenda ere egon da. Horrek erakusten du behar handia dagoela horrelako espazio eta ekimenen alde jarraitzeko.

30. MUGI TOLOSA! parte-hartzaileen eta boluntarioen banaketa, generoaren arabera


30.1. Parte-hartzaileen banaketa generoaren arabera (Iturria: Tolosako Udal Kirol Zerbitzuak)




30.2. Parte-hartzaileen banaketa generoaren arabera (Iturria: Tolosako Udal Kirol Zerbitzuak)



30.3. Boluntarioen banaketa generoaren arabera (Iturria: Tolosako Udal Kirol Zerbitzuak)



30.4. Boluntarioen banaketa generoaren arabera (Iturria: Tolosako Udal Kirol Zerbitzuak)



Emakumeen parte-hartze handia

- › Programan parte hartzen duten pertsonen % 70 emakumeak dira, eta % 30 gizonak.

Boluntariotzaren oreka

- › Partaidetza orokorrean aldea dagoen arren, boluntarioen kopurua orekatua dago: % 50 emakumeak dira eta % 50 gizonak.
- › Horrek iradokitzen du boluntariotza inklusiboagoa dela generoari dagokionez, eta horrek indartu egiten du komunitatearekiko konpromisoa eta jarduera fisikoan parte hartzea genero-arrakala berak markatzen ez duelako ideia.

Parte-hartzaileen eta boluntarioen arteko adin-aldea

- › Parte-hartzaileen batez besteko adina 67 urtekoa da, eta boluntarioen batez besteko adina askoz txikiagoa da (12-18 urte).
- › MUGI TOLOSA! programa arrakastatsua da adinekoen artean jarduera fisikoa sustatzeko eta belaunaldien arteko laguntza-sareak sortzeko.

8.3. Ekarpenak eta korapiloak

Atal honetan, zaintzan modu multidimentsionalean diharduten gizarte eragileen iritziak eta ekarpenak bildu ditugu, eta, aurretik azaldu bezala, hauek funtsezko papera dute arlo honetan.

Prozesu honetan ateratako ondorioek agerian uzten dute zaintzek dimentsio transbertsala dutela eta bizitzako esparru guztietan eragina dutela. Hau da, haurren eta gazteen zaintzarekin, mendekotasunarekin eta desgaitasunarekin lotutako dimentsio guztietan islatzen dira. Hori dela eta, zaintzak ezin dira gai isolatu gisa ulertu, baizik eta bizitzako etapa guztietan eta komunitate osoaren ongizatean funtsezko ardatz gisa kokatu behar dira.

BOLUNTARIOTZA TOLOSAN

Boluntariotza betidanik izan da Tolosako komunitatearen oinarrietako bat, baina azken urteetan, **beheranzko joera nabarmena** izan du. Boluntarioen kopurua murrizten ari da, eta horrek eragin zuzena du **zaintzan, laguntza sareetan eta gizarte kohesioan**.

Gaur egun, **erretirodunak dira nagusi boluntariotzan**, eta parte-hartze maskulinoa oso txikia da. Gainera, **gazteen inplikazioa mugatua da**, eta boluntario askok ezin dute konpromiso jarraitu bat hartu. Hori dela eta, gero eta gehiago planteatzen da **boluntariotza profesionalizatzeko beharra**, nahiz eta horrek baliabide ekonomiko gehiago eskatzen duen.

Udalak eta hainbat **erakundek boluntariotza sustatzeko ekimenak martxan jarri dituzte**, hala nola boluntariotza azokak edo sensibilizazio programak. Hala ere, oraindik zaila da **konpromiso iraunkorra duen jendea lortzea**, eta horrek arriskuan jartzen ditu hainbat programa sozial eta komunitario.

“Lehen boluntario gehiago zegoen, orain, ordea, gero eta gutxiago. Ez bakarrik Tolosan, Gipuzkoa osoan. Konpromisoa eta jarraikortasuna murriztu egin dira. Boluntariorik gabe, gure lana ez da aurrera ateratzen.”

“Boluntariotza sustatzeko denetarik probatu dugu, baina oso zaila da. Jende askok bakardadea sentitzen du Tolosan, eta ez dugu nahikoa pertsona haiek laguntzeko.”

“Tolosan, boluntariotzan aritzen diren pertsonen artean, erretirodunak gazteak baino gehiago dira. Gehienak emakumeak dira: 10 emakume eta 4 gizon bakarrik. Konpromisoa asteen behin ordu eta erdikoa da, baina batzuek ezin dute bileretan parte hartu, eta soilik laguntza ematera etortzen dira.”

"Boluntarioen batez besteko adina 70 urtekoa da. Etortzen diren gazteak, normalean, ikasgai batengatik edo psikologia ikasi dutelako etortzen dira, baina berehala uzten badute, ez du balio. Etxe batean sartzen bazara eta desagertzen bazara, ez du zentzurik."

"Guk boluntariotzaren krisiaz hitz egiten dugu. Zaintzak ardura dakar, eta inoiz bizi ez baduzu, ulertzea zaila da."

"Udalak antolatutako boluntariotza azoka ekimen ona izan zen. Jende asko etorri zen, baina % 90 ikasleak izan ziren."

"Tolosaldean gero eta pertsona gehiagok behar dute laguntza eta akonpainamendua, baina ez dago boluntario nahikorik. Boluntariotzak erantzuten ez badu, profesionalizatu beharko dugu, baina horretarako dirua behar da."

"Boluntariotza eta zaintza eredua aldatu behar da. Ezin da emakumeen ardura izaten jarraitu."

"Boluntariotza ezin da zaintza sistema sostengatzeko irtenbidea izan. Profesionalizazioa eta baliabide publiko gehiago behar dira, eta ez emakumeen lan eskusiboa izaten jarraitzea."



HAUTATU EZ DEN BAKARDAEA ETA ONGIZATE EMOZIONALA

Diagnostikoan behin eta berriz agertu den korapiloa hautatu gabeko bakardadea eta ongizate emozionala dira. Horregatik, atal honetan, zaintzarako espazio gisa ez diren baina zeharka funtzio hori betetzen duten guneak ere sartu ditugu. Zaintzen duen herri batek espazio publikoak eskaini behar ditu, doakoak eta irisgarriak, kontsumorako alternatiba bat izango diren gune irekiak.



"Institutuekin lankidetzan aritzen gara, hautatutako eta hautatu gabeko bakardadeari buruzko hitzaldiak emateko. Bakardadea ez da soilik adinekoen arazoa, bizitzako etapa guztietan agertzen da. Sentikortasuna lantzea eta boluntario berriak lortzea dugu helburu."

"Pandemiaren ostean, jendeak askoz gehiago sentitu du bakardadea. Konturatu gara gero eta bakarrago egongo garen joera dagoela, eta hau edonori gerta dakiokela."

"Bakardadea ez da soilik adinekoen arazoa, baina sarri hala ikusten da. Gazte askok ere isolamendua sentitzen dute, batez ere bizitza-erritmo azkarra dela eta harreman esanguratsuak eraikitzea gero eta zailagoa delako."

"Ez dago bakardadeari aurre egiteko espazio nahikorik. Askotan, sozializatzeko aukera bakarra kontsumoarekin lotuta dago: tabernak, kafetegiak... Alternatiba publiko, doako eta irisgarriak behar ditugu."

"Bakardadeak ondorio larriak izan ditzake osasunean. Ongizate emozionalerako estrategiak garatu behar ditugu, eta horretarako herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da."

"Gizartea gero eta indibidualistagoa bihurtzen ari da, eta horrek harreman sozialak eraikitzea zailtzen du. Herritarren arteko loturak sendotzeko estrategiak behar ditugu."

Mintzalaguna programaren esperientziak ere joera hau islatzen du:

“Gerturatzen ari den jende profila aldatzen ari dela nabaritu dugu. Bakardadea sentitzen duten pertsonak gero eta gehiago datoz Mintzalagunera (eta ez bakarrik adinekoak). Ez dute zertan euskara hobetzeko beharrik edo motibazio berezirik, baina taldetxo batekin elkartu eta sozializatzeko espazio bat bilatzen dute. Horrek kezka piztu digu: bidelagunek (mintzalagun-taldeak bideratzen dituzten boluntarioek) egoera horiek kudeatzeko beharrezko prestakuntza al dute?"



FUNTSEZKOAK, FEMINIZATUAK ETA AITORTZARIK GABEKOAK

Zaintza funtsezkoa da bizitzaren jasangarritasunerako, eta, nahiz eta historikoki emakumeen esku egon den, gero eta kontzientzia handiagoa dago ardura hori gizarte osoaren erantzukizuna dela.

Gaur egun, zaintza-sistemak erronka handiak ditu, baina baita aukera berriak ere. Zaintza komunitarioaren ideia indartzen ari da, eta geroz eta gehiago lantzen da eredu bidezko eta inklusiboago baterantz aurrera egitea. Hala ere, oraindik badago lana egiteko, batez ere zaintza-lanak aitortzeko, banatzeko eta baldintza duinetan bermatzeko.

“Zaintza ez da borondate hutsez bermatu daitekeen zerbait. Egiturazko arazo bat daukagu: ez dago baliabide nahikorik, eta oraindik ere emakumeen esku uzten da ardura nagusia. Eredu aldaketa behar dugu, ez konponbide partzialak.”

"Zaintza guztion ardura izan behar da, ez soilik emakumeena. Gizarte gisa ez dugu oraindik ulertu benetan zer den zaintza kolektiboa. Guztiok hartuko bagenu parte, sistema ez litzateke hain jasangaitza izango."

"Zaintza-sistema jasangaitza da. Ezin dugu pertsona guztien bizitza emakumeen lanaren bidez soilik sostengatzen jarraitu."

"Orain zaintza komunitarioaz asko hitz egiten da, baina non gaude emakume migratuak eta zaintzaren langileak espazio horietan? Ez gaude, lanean ari garelako."

"Zaintza betidanik izan da emakumeon ardura. Asko lan-munduratu dira, baina hala ere, gu gara oraindik zaintza-sistema sostengatzen dugunak."

"Bizitza osoan zaintzen dugu, jaio garenetik hil arte. Dugun gauzarik garrantzitsuena da."

"Zaintza komunitarioaz hitz egiten dugu, baina egia da migratutako emakume asko horretatik kanpo geratzen direla, lanaldi osoa betetzen ari direlako besteak zaintzen. Nork zaintzen ditu haiek?"

"Beti esaten dugu zaintzak garrantzitsuak direla, baina eguneroko praktikan, oraindik emakumeek daramate zama nagusia. Zaintza publikoki aitortu eta banatu behar dugu."

"Etxean ikusten duguna eredu bihurtzen da. Gizonak zaintzan hezi behar ditugu txikitatik, bestela beti izango da emakumeen ardura nagusia."

"Gizonak zaintzan gehiago inplikatzan ari direla esaten da, baina eguneroko bizitzan aldaketa hori ez da nabari. Zaintza guztion ardura izan behar da, eta ez aukera bat gizonentzat."

"Zaintzaren eredu aldaketa ez da soilik politiketan eta zerbitzuetan islatu behar, baizik eta etxe barruan ere. Emakumeak ez dira zaintza naturalizatu behar; lan bat da, eta aitortua eta banatua izan behar du."

"Askotan zaintza lanetan dihardutenak emakume migratuak dira, eta haien baldintzak ez dira justuak. Zaintza lanak ondo ordaindu behar dira eta baldintza duinetan egin, ez esplotazio moduan."

"Zaintza guztion ardura da, baina gaur egun errealitatean ez da horrela. Zergatik da emakume batek zaintzea normalizat jotzen den bitartean, gizon batek egiten duenean goraipatzen den zerbait?"

**INKLUSIOA ETA IRISGARRITASUNA: GUZTION ARDURA DEN ERRONKA**

Komunitate inklusibo bat eraikitzea ez da soilik zerbitzu espezifikoak eskaintzea, baizik eta herriaren eguneroko bizitzan aniztasuna aitortu eta errespetatuko duen ingurune bat sortzea. Hala ere, oraindik badaude oztopo fisiko, sozial eta kulturalak, pertsona askok espazio publikoetan eta komunitatean parte hartzea zailtzen dutenak.

Tolosa hainbat ekimen abiarazten saiatu da aniztasun funtzionala duten pertsonen, adinekoen eta mugikortasun-arazoak dituztenen inklusioa bermatzeko, baina errealitateak erakusten du oraindik bide luzea dagoela egiteko. Piktogramen falta, irisgarritasun fisikoaren gabeziak eta inklusio sozialaren inguruko enpatia falta dira aipatu diren arazoetako batzuk.



"Gure herriak inklusiboa izan nahi duela esaten du, baina aniztasun funtzionala duten pertsonentzat ez dago espazio errealik. Eguneroko jardueretan parte hartzeko oztopo asko dituzte, eta gehienetan beraiek egokitu behar izaten dira, ez ingurunea."

"Jendeari entzutea eta benetan kontuan hartzea falta da. Irisgarritasuna ez da soilik aldapan edo arrapaletan pentsatzea; informazioa erraz ulertzeko moduan ematea ere bada."

"Ezin da onartu oraindik espazio publikoetan piktogramak ez egotea. Ospitalean, batzuetan neuk ere ez dut seinaleztapena ulertzen; nola ulertuko dute haiek?"

"Irakurketa erraza behar dugu dokumentu ofizialetan. Bestela, jende askok ez ditu ulertzen."

"Eskeletan inklusioa lantzen da, baina haur asko kalean topatzen dute benetako muga. Jolastokietan, parkeetan edo herriko ekitaldietan ez dago espazio egokiturik."

"Pertsona nagusientzat egokitutako espazio gehiago behar ditugu, batez ere neguan. Tabernak topagune bihurtzen dira, baina espazio publiko ireki eta doakoak behar ditugu."

"Zaintzaren ikuspegitik, inklusioa ezin da 'egokitutako' zerbitzu bat izan soilik. Benetako inklusioa pertsonak bere gaitasunekin eta behar guztiekin onartzea da, eta horrek harreman sozialetan aldaketa bat eskatzen du."

"Mugi ekimena polita da, baina ez da inklusiboa. Ez da pertsonen arteko elkarrizketarik sortzen. Trastorno bat duen norbaitekin konektatzea zaila izan daiteke, baina saiatu egin behar da. Hezkuntza eta enpatia falta zaizkigu."

"Oztopo arkitektonikoak oraindik ere badira. Auzoetan adineko asko bizi dira, eta oraindik ez da ezer egin horri buruz."

"Adineko askok taxia erabiltzen dute eguneroko jardueretarako, bereziki baserrietan bizi direnek. Hau mugikortasunaren eta garraio publikoaren plangintzan kontuan hartu beharko litzateke."



HEZKUNTZA ETA GAZTERIA: ALDAKETARAKO AUKERAK

Gazteak **etorkizuneko aldaketaren motorra** dira, eta horretarako, boluntariotza eta parte-hartze soziala **beren garapen pertsonalaren** parte izan behar dira. Hezkuntzak funtsezko papera du **gizartearekiko konpromisoa eta zaintzarekiko ardura** sustatzeko. Hala ere, erronka nagusietako bat da **gazteek espazio eta aukera errealak izatea inplikatzeko**.

Tolosa beti izan da boluntariotza aktiboa izan duen herria, baina azken urteetan parte-hartzea beherantz egiten ari dela sumatzen da. Horrek hausnarketako galderak birpentsatzea eskatzen du: **zer ari da aldatzen? Zerk zailtzen du gazteek boluntariotzan eta gizarte-ekimenetan parte hartzea?**



"Boluntariotza gazteen garapen pertsonalaren parte izan behar da. Institutuan saiatzen gara haiek boluntario izatearen garrantzia ulertzen."

"Lehen, arratsaldeko 18:00etan gurasoen bilera bat antolatzen zenuen eta jende asko etortzen zen. Orain, 15:00etan egiten dugu, eta ondo bidean, 20 pertsona biltzen dira. Denok gaude okupatu egia."

"Tolosan beti egon da boluntariotza sendoa, baina orain desaktibatu dela uste dut. Zergatik gertatu den galdetu beharko genuke."

"Gazteek aldaketak ekar ditzakete, baina inplikatzeko espazioak behar dituzte."

"Ikasleekin ongizate emozionala lantzen dugu. Besteak zaindu aurretik, beren burua zaintzen ikasi behar dute."

"Gaur egungo gazteek prestakuntza handia dute, baina parte-hartze soziala bigarren planoan geratzen da. Beharbada, boluntariotza eta ekintza komunitarioa eskolan gehiago integratu beharko lirateke."

"Boluntariotza jarduera isolatu bezala planteatzen da askotan, eta ez bizimodu baten parte gisa. Gazteek ingurune natural batean parte hartu beharko lukete, ez soilik kanpaina edo ekimen puntualekin."

"Aldaketa soziala sustatzeko, gazteei espazio errealak eskaini behar zaizkie, non beren ahotsak entzunak izango diren eta benetan eragina izan dezaketen."

"Teknologiak harremanak aldatzen ari dira, eta gazteen sozializazio moduak ere bai. Boluntariotza horretara egokitu beharko genuke, sare sozialen eta plataforma digitalen bidez aukera gehiago eskainiz."

8.3.1. Ondorio nagusiak: ekarpenak eta korapiloak

Laburbilduz...

Gaur egungo gizarteak aldaketa sakonak bizi izan ditu, eta horrek ezinbestean eskatzen du behar indibidualak zein kolektiboak aitortzea ez ezik, **zaintzak ekintza politiko gisa** ulertuta politika publikoen **erdigunean kokatzea** ere. Hori dela eta, zaintza-zerbitzu tradizionaletatik haratago doan eredu bat eraiki behar da, **kolektibotasuna eta erantzukidetasuna** ardatz hartuta.

Ikuspegi multidimentsional horretatik abiatuta, **zaintza-ekosistema sendo** bat identifikatu dugu, **65 ekimen baino gehiagorekin**, programak, zerbitzuak eta eragile komunitarioak barne hartzen dituenak. Ekimen horiek guztiek tokiko laguntza-sarea indartzen dute, eredu inklusibo eta jasangarriago baten alde eginez.

Hala ere, etorkizunean erronka garrantzitsuei aurre egin beharko diegu:

- › **Boluntariotzaren beherakada**, gero eta parte-hartzaile gutxiago dago, eta zaila da epe luzearako konpromisoak lortzea.
- › **Hautatu gabeko bakardadea eta ongizate emozionala**, eta horri aurre egiteko, espazio publiko, doako eta irisgarriak izatea, isolamendu sozialaren alternatiba gisa.
- › **Herria bizigarriagoa eta inklusiboagoa izatea**, oraindik ere badira oztopo fisiko, sozial eta kulturalak, komunitatean parte hartzea zailtzen dutenak.

Indargune nagusiak

Komunitate-sarea

Elkartasuna eta kohesio soziala sustatzen dituzten programa eta eragile ugari daude. Gainera, herritarrek *"Tolosan jarduera asko daudela"* sentitzen dute, eta horrek komunitatearen parte-hartzea eta dinamismo soziala indartzen laguntzen du.

Zaintza ardatz politiko gisa aitortzea

Zaintzak funtsezko ardatz gisa aitortzen dira, eta politika publikoen erdigunean kokatzeko lan egiten da, ongizate kolektiboak lehenetsiko duten eredu berriak sustatuz.

Bizitzeko espazioen geureganatzea zaintza-gune gisa

Zenbait espaziok, beren funtzio nagusia beste bat izan arren, zaintzan funtsezko eginkizuna betetzen dute modu transbertsealean, hala nola liburutegiak, kultur etxeak edo kirol-guneak.

Belaunaldien arteko programak

MUGI TOLOSA! eta *Belaunaldi arteko etxebizitza-proiektua* bezalako ekimenek belaunaldi desberdinen arteko elkarrekintza eta elkarren arteko laguntza sustatzen dute, komunitate-loturak indartuz.

Kolektibo espezifikoaren inklusioa

Kolektibo espezifikoari zuzendutako programak eta espazioak daude, hala nola Guretzako, jatorri atzeritako emakumeentzat, eta indarkeria matxistaren biktimetarako laguntza-zerbitzuak edo Andragorako autolaguntza-taldea, besteak beste.

Erronkak

Boluntariotzaren indartzea

Partaidetza murriztu egin da, batez ere gazteen eta gizonen artean. Boluntariotza profesionalizatzeko aukerak aztertu behar dira, zerbitzuen iraupena bermatzeko.

Bakardadearen aurkako estrategiak

Dagoeneko badaude doako eta irisgarriak diren espazio publikoak, eta horiek mantentzea eta indartzea funtsezkoa da isolamendu sozialari aurre egiteko.

Irisgarritasuna eta inklusioa hobetzea

Oraindik badira mugikortasun-arazoak, irisgarritasun fisikoaren gabeziak eta aniztasunarekiko enpatiarik eza.

Eragileen arteko koordinazioa indartzea

Ekimen komunitarioen arteko lankidetzak areagotzea, eragin handiagoa izateko. Batzuetan, hainbeste eragile, programa, zerbitzu... dira, ez direla behar bezala ezagutzen edo koordinatzen, eta horrek aukera galduak sortzen ditu. Beraz, informazio-fluxua eta elkarrekintza indartzea funtsezkoa da.

Erronka guzti hauei aurre egiteko eragileentzako berariazko prestakuntza eskaintzea

Proiektuen parte hartzaileek formazio espezifikoa behar dutela adierazi dute, erronka berriei aurre egiteko (adibidez, bakarrik sentitzen direlako ekintzetara hurbiltzen diren pertsonak nola lagundu).

Ekimenek duten eragina neurtzea

Adierazle argiak ezartzea programen eraginkortasuna neurtzeko eta etorkizunerako plangintza hobetzeko.

Estrategia ekofeministak errealitate bihurtzea

Beharrezkoa da jakintza teoriko guztia lurreratzea eta praktikara eramatea. Izateko eta bizitzeko modu berriez ari gara, espazioak, harremanak eta zaintza ulertzeko moduak birpentsatuz.

9. NORK ZAINTZEN DU TOLOSAN ETA NOLA EGITEN DU?

9.1. Sarrera

Atal honetan, taldekako eta banakako elkarrizketen bidez, baita entzute-taldeen bidez ere, **zaintzaileen eguneroko errealitatera** hurbiltzea bilatu dugu. Helburua haien lana nola egiten duten, zein baldintzatan garatzen den, erantzukizunak partekatzen diren ala ez, eta erronka nagusiak zein diren aztertzea da. Ikuspegi honek aukera ematen digu **zaintzarekin lotutako dinamikak, aukerak eta erronkak ikusarazteko**, baita horiek hobetzeko eta birbanatzeko estrategia posibleei buruz hausnartzeko ere.

Alde batetik, familia-testuinguruan zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen bizipenetara hurbiltzea izan dugu helburu; bestetik, zaintza-zerbitzuetan edo etxeko langile gisa lan egiten dutenen errealitatea ezagutzea. Pertsona eta talde hauek **zaintzaren errealitatea gertutik ezagutzen** dute, izan ere, lehen pertsonan bizi izan dute edo egunero bizitzen dute. Haien artean daude amak, aitak, aiton-amonak, bikoteak, lagunak, etxeko langileak eta zaintza-sektoreko profesionalak, bai beren etxeetan, bai ingurune profesionaletan beste pertsona batzuk zaintzen dituztenak. Horrez gain, antzeko egoerak bizi izan dituzten edo bizi dituzten pertsonen zaintzako esperientziak garatu dituzte, eta beren egunerokoan, errealitate horien lekuko eta protagonista bihurtu dira.

9.1.1. Zaintzen hiperfeminizazioa

Zaintza eta haren banaketa funtsezko arloa da, bai sinbolikoki bai materialki, genero-dinamikak eraldatu edo iraunarazi daitezkeen esparru garrantzitsua izanik. Historikoki, **zaintza-lanak emakumeen gain erori dira**, jendarte-arauen presiopean, eta, aurrez adierazi bezala, ikusezin bihurtu dira (Aranguren et al., 2023).

Gaur egun, bikote batez osatutako familia-ereduetan, bi kideek lan ordaindua izaten dute, hornitzaile-rola partekatuz. Diru-sarrera bikoitza duten familia-ereduak gero eta ohikoagoak dira, eta pixkanaka eredu tradizionala ordezkatzeko ari dira. Hala ere, aldaketa horrek **ez du bermatu zaintzaren banaketa bidezkoa izatea**.

Horregatik, funtsezkoa eta beharrezkoa da jendarte osoarentzat, bereziki emakumeentzat, gizonak zaintza-lanetan gehiago inplikatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko ekoizpenaren balioa 21.296 milioi eurokoa izan zen 2018an, urte horretako Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 27,7ari dagokiona, Eustaten arabera.


Hego Euskal Herrian **182.000 pertsona aritzen dira eskusiboki ordaindu gabeko etxeko lanetan**. Gehienak emakumeak dira, eta ez dute inolako prestazio edo soldatarik jasotzen (Ipar Hego, 2022).

Desoreka horrek zuzenean eragiten die erosteko ahalmenari, autonomiari eta denboren kudeaketari, pobrezia eta bazterkeria izateko probabilitate handiagoarekin (Epelde, 2021). Gaur egun, ordaindutako lana duten biztanleen % 48 emakumeak dira -18,4 puntu igo da 1981etik- (EUSTAT, 2022), baina zaintzarekin lotutako eremuetan ez da lana murriztu, eta **zaintzaile nagusiak dira bizi-zikloaren une guztietan**.



Laneko Prekarietatea eta Genero Arrakalak (2023) txostenaren arabera, zaintzak dira lanaldi partzialaren bigarren arrazoi nagusia. Era berean, zaintzagatik lanaldi partzialean ari diren emakumeen % 45ek adierazi zuten beraiek hartzen zutela ardura, beste senide edo gurasoaren ordeztu, soldata txikiagoak izateagatik.


Tolosako errealitatea hobeto ulertzeko, lagungarria izan daiteke Familia-Ingurune Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa jasotzen duten pertsonak zaintzen dituztenen profila aztertzea. Profil horretan, gehiengoak emakumeak dira (155).



Tobioren arabera (2012), gizonek zaintza saihesteko aurkitzen dituzten arrazoiak hiru kategoriatan sailka daitezke: **jakintza, boterea eta nahia**. Hauek dira zaintzaren kultura osatzen duten eta elkar indartzen duten hiru elementu nagusiak. Emakumeek eta gizonek zaintza-lanetan duten parte-hartze desberdina ez da **sortzetiko gaitasun edo joera biologikoen** ondorio, baizik eta **genero sozializazioaren** emaitza.

Haurren zaintzak **hazkundearekin eta bizitzarekin** lotura duenez, **onarpen sozial handiagoa** du eta etorkizuneko inbertsio gisa ikusten da. Gizonentzat, zaintza mota hori **modernitatearen pizgarri** gisa aurkezten da **eta generoen arteko berdintasun-idealekin** lotzen da. Horrek erraztu egiten du gizonak erantzukizun horiek **partekatze**ko jarrera handiagoa izatea.

Aitzitik, **mendekotasuna duten adinekoen zaintzak** galerarekin lotura duenez, **balorazio sozial txikiagoa** jasotzen du, ez baita **etorkizuneko balioaren sortzaile** gisa ikusten. Zaintza mota hori maiz **halabeharrezko erantzun** gisa ulertzen da, hautu kontziente bat baino gehiago. Ondorioz, zaintza-lan horiek **gehienetan emakumeen gain** erortzen dira (Comas d'Argemir eta Chirinos, 2017).



Tolosan, familia-inguruneke zaintzetarako prestazio ekonomikoaren testuinguruan, familia-loturak aztertuta, parekideagoa da zaintzailearen banaketa, zaindutako pertsona semea edo alaba denean: **% 57 emakumeak eta % 43 gizonak**.

Hala ere, ehunekoaren arteko aldea nabarmen handitzen da emakumeen alde, **zaindutako pertsonak gurasoak direnean: % 86 emakumeak eta % 14 gizonak**.

Ezkontideen kasuan, emakumeen kopurua oraindik ere nabarmen handiagoa bada ere (% 64), gizonen artean **kopuru esanguratsu bat** aurkitzen da (% 36).

Egindako elkarrizketen arabera, adineko pertsonen kasuan, gero eta ohikoagoa da bikoteak aurkitzea, non **gizonak beren bikotekideak -emakumeak-** zaintzen dituzten.



(Bai ustekabeen zaintzaile bihurtuta, bai familia-zaintzaren esparruan agente berri gisa txertatuz).

Emakumeek zaintza-lanak osatu ezin dituztenean edo horiek ez hartzea erabakitzen dutenean, familia askok **familia-berrantolaketa** izeneko eredia hautatzen dute, zaintza-lanak beste emakume batzuen esku utziz. Hauek zaintza-lan ordainduaren bidez betetzen dituzte eginkizun horiek.

Euskal Autonomia Erkidegoan, pertsona askok **etxeko langileak kontratatzea** erabakitzen dute senideei beharrezko zaintza bermatzeko. **Aranguren et al. (2023)-ren arabera**, Euskadin **kontratazio horiek % 26ra iristen dira**, Espainiako batez bestekoaren % 14aren aldean.

Tolosaldean 461 pertsona zeuden etxeko langile moduan afiliatua (Tolosaldea Garatzen, 2024)³⁵.

Tolosan **Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoak** jasotzen dituztenen artean kontratatutako pertsona emakumea da kasu gehienetan (% 93).




Tolosan PEAP laguntza ekonomikoa jasotzen zuten 253 herritarretatik, 154ek lan kontratua sinatua dute etxeko langilearekin zuzenean, gainontzekoak (99) merkataritza kontratu bidez.


³⁵ Tolosaldea Garatzen (2024ko urrian) Enpleguaren Inguruko txostena

Zaintza-lanen desfamiliarizazioa prozesu bat da, non mendeko pertsonen zaintzaren ardura ez den soilik familiaren esku geratzen, baizik eta erakunde publiko, pribatu edo komunitarioetara transferitzen den. Hala ere, nahiz eta desfamiliarizazioak zaintzaren ardura banatzea bilatu, praktikan, lan horiek gehienetan emakumeek betetzen dituzte oraindik. Espazio pribatutik lan-esparrura aldatu diren arren, sarri prekarietatea eta soldata baxuak jasaten dituzte. Zaintzaren feminizazioa, beraz, ez da desagertu, baizik eta forma berrietara egokitu.

Tolosako errealitatera gerturatzeko asmoz, Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzua, Gurutze Gorria eta lurreamendiko Egoitzako langileen profilak aztertutako dira, lagin adierazgarri moduan.



Guztira, zaintza zerbitzu ezberdinetan lan egiten duten 285 pertsonen lagina hartu da. Hauen artean **256 (% 90) emakumeak** dira, 29 (% 10) berriz gizonak.



Tolosako Zaintza Zerbitzuetako langileen adin-banaketa anitza da, baina adin-talde jakin batzuen nagusitasuna nabarmentzen da. Gehiengoa 51-60 urte bitartekoak (%31) dira, hau da, langileen herena inguru. Ondoren, 61 urtetik gorakoak (%21) eta 41-50 urte bitartekoak (%20) kokatzen dira, adin ertain-altuko profila indartuz. Bestalde, gazteen presentzia nabarmen txikiagoa da, 20-30 urte bitartekoak %17 eta 31-40 urtekoak %11 izanik. **Datu hauek adierazten dute zaintza-sektorean belaunaldi aldaketa mugatua dela eta langileen zahartzea nabaria dela.**

9.1.2. Zaintza lanaren nazioarteko banaketa


Gaur egun, zaintzaren antolaketa sozialak kontrajartzen diren bi eredu erakusten ditu:

- › Eredu tradizionala, non emakumeek etxeko eta zaintza-lanak hartzen dituzten beren gain, eta gizonek lan ordainduetan diharduten.
- › Eredu eguneratua, non emakumeek bai lan produktiboa (kanpoko lana) bai erreproduktiboa (zaintza eta etxeko lanak) betetzen dituzten. Horrek "presentzia edo ausentzia bikoitza" eragiten die, bi esparruen artean banatu behar baitute euren denbora eta energia, behar adina laguntzarik jaso gabe. Aldi berean, gizonek oraindik parte-hartze eskasa dute zaintzan, eta erakunde publikoek ez dute nahikoa baliabide eskaintzen behar horiei erantzuteko.


Sistema horretan, **klase soziala, etnia, arraza eta migrazio-egoera** bezalako faktoreek zaintza-lanen banaketa hierarkikoa sortzen dute. Honek **"zaintza-kate feminizatua"** eratzen du. Iparraldeko herrialdeetan gertatzen ari den zaintza-krisiak emakume migratzaileen fluxua areagotu du Hegoalde Globaletik. Askotan, emakume horiek hartzen dituzte zaintza-lanen ardura nagusiak hainbat esparrutan:

- › Administrazio publikoek sustatutako zerbitzuetan.
- › Merkatu formalean, lan ordainduen bidez.
- › Etxeko lan ez-ofizialetan, ikusgaitasun txikiarekin eta eskubideak bermatu gabe.

Horrela Zaintza Zerbitzuen kasu eta aurrez landutako lagina jatorriaren arabera aztertuta langileriaren % 26ak (71 pertsona) jatorri atzerritarra duela ikus daiteke. Egoitzaren kasu 52 pertsonetatik % 94 emakumeak dira. Etxez-etxeko Laguntza Zerbitzuaren kasu langileria osoaren % 45a atzerritar jatorriko pertsonak dira.



Jatorriaren araberako datuak aztertuta, gehiengo esanguratsu batek Amerikar jatorria duela ikus daiteke (% 74) horien artean gehiengo bat Hego Amerikar jatorria duelarik. Jarrian Afrika (% 20), Europa (% 4) eta Asia (% 1) ageri dira.



Kontinente bakoitzeko herrialde ohikoenak hauek dira:

- > Amerika: Nikaragua (18), Ekuador (13).
- > Europa: Portugal (2), Errumania (1).
- > Afrika: Maroko (12), Mali (1).
- > Asia: Pakistan (1).

Etxeko langileen errealitateari dagokionez, 2019an Euskadiko biztanleria atzerritarraren % 16a etxeko lanen sektorean afiliatuta zegoen, ostalaritzaren sektorea (% 17) soilik gaudituta (Ikuspegi, 2020).

Gizarte Segurantzako (EAE) datuen arabera, 2017an 37.243 pertsona afiliatuta zeuden etxeko langile gisa, eta horietatik % 38 atzerritarrak ziren. Euskadiko Autonomia Erkidegoko etxeko langileen egoeraren diagnostikoa eta estaltzen dituzten beharren ikerketaren arabera, Euskadin 6.213 etxebizitza zeuden barneko erregimenean etxeko langileekin. Ikerketa berak adierazi zuen, estatu mailan, Gizarte Segurantzako afiliatuen datuak (418.964 pertsona) eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (641.700) alderatuta, sektore honetako enpleguaren % 30 baino gehiago, hau da, 220.000 pertsona baino gehiago, ezkutuko ekonomian ari zirela lanean (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Civersity, 2019).

Hala ere, etxeko zaintza-lanari buruzko datuak aztertzean, **ezinbestekoa da neurketaren mugak kontuan hartzea**. Lan horren zati esanguratsu bat ekonomia informalean garatzen da, lan-araudiaren eta zientzia sozialetako informazio-bilketa tresnen eragin-eremutik kanpo. Horrek zaildu egiten du **sektorearen benetako tamaina zehaztea**, eta estatistika ofizialen eta errealitatearen arteko desoreka eragiten du.

Arazo horren arrazoi nagusietako bat atzerritar jatorriko migratzaileek sektorean duten presentzia handia da. Ondorioz, **lanpostu horien zati handi bat ez da erregistratzen estatistika ofizialetan**. Zenbait kalkuluren arabera, guztira enplegu horren heren bat baino gehiago ez da kontabilizatzen, nahiz eta benetako ehunekoa handiagoa izan litekeen.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak (OIT) arazo hau hainbat txostenetan nabarmendu du, **ohartaraziz estatistika ofizialek etxeko langileen benetako kopurua gutxiesten dutela**. Erakundeak azpimarratzen duenez, eskuragarri dauden datuak lan horren benetako hedaduraren gutxieneko muga besterik ez dira, eta horrek esan nahi du lan-prekarietatea eta eskubide-falta are zabalduagoak izan daitezkeela txosten ofizialek erakusten dutena baino³⁶.

Egoera honek ez du soilik **etxeko langileen babeserako politika publiko eraginkorrak diseinatzea zailtzen, haien aitorten sozial eta laboral falta ere areagotzen ditu**. Estatistiketan behar bezala jasota ez daudenez, haien beharrak eta aldarrikapenak

³⁶ Yamilia Simonovsky eta Malte Luebker (d.g.). Trabajadores domésticos: estimaciones a nivel mundial y regional. 4. informazio-oharra. Lanaren Nazioarteko Erakundea, Geneva.
http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/@ed_protect/@protrav/@travail/documents/publication/w

bigarren mailan gelditzen dira, eta horrek bultzatzen du zaintza-lanak funtsezkoak

Zaintza kate globalak

Zaintza kate globalak nazioarteko migrazioarekin eta lan banaketarekin lotutako fenomenoari dagokio, non emakumeek, batez ere Hegoalde Globaletik datozenek, beste herrialde batzuetara migratzen duten zaintza lanetan aritzeko.

Prozesu hau modu honetan gertatzen da:

- i. Jatorri atzerrikako emakumeek beren jaioterriko senideak (askotan seme-alabak edo adinekoak) utzi behar izaten dituzte.
- ii. Harrera herrialdeetan zaintza-lanak egiten dituzte (etxeko lanak, umeak edo nagusiak zaintzea).
- iii. Jaioterrian utzitako zaintza-lanak beste emakume batzuek (senideek edo kontratatutako pertsona batek) hartzen dituzte bere gain.

Fenomeno honek zaintza-lanen banaketa bidegabea eta genero-arrakala areagotzen du, jatorri atzerrikako emakumeak posizio ahulean jarritz.

Jatorri atzerrikako emakumeen lan-prekarietatea zaintzaren sektorean

Etxeko eta zaintzako enplegua funtsezko diru-iturria da emakume migratzaile askorentzat, baina kontraesan handiak ere baditu:

- › Funtsezkoak dira gizarte-ongizaterako, funtsezko zereginak egiten baitituzte familia eta zerbitzu publiko askorentzat.
- › Hala ere, baldintza eskasetan lan egiten dute, askotan oinarritzko lan-eskubiderik eta gizarte-segurantzarako sarbiderik gabe.

Beraz, esan dezakegu jatorri atzerrikako emakumeek lan-aukerak oso mugatuak dituztela eta, normalean, "*emakumezkoen lanak*" deituriko sektoreetan kokatzen direla: menpekotasuna duten pertsonen zaintza eta etxeko lanak. Lan horiek gizartean gutxietsita daude, eta ezaugarri nagusi hauek dituzte: lanaldi luzeak, soldata eskasa, higie-ne eta segurtasun-baldintza urriak, prestigio sozial txikia, babes sozial gutxi, eta lan-kontratuen baldintzen gainera kontrol eskasa, besteak beste (Vicente, 2006).

Gainera, kualifikazio txikiko lanak, hala nola garbiketa, etxez etxeko laguntza, menpekotasuna duten pertsonen zaintza, sukaldeko laguntza, zerbitzari-lanak, eta abar, ez dira jatorri atzerrikarrek emakumeek beren hezkuntza-mailagatik egiten dituzten lanak, helmuga-herrialdeko lan-merkatuaren egokitzapen-estrategiaren ondorioa baizik.

Lan-prekarietatea eta arrazakeria gurutzatzen diren testuinguru honetan, emakume migratuek egoera desatsegin eta bidegabeak jasan behar izaten dituzte askotan.

Arazo hori, ez da soilik familia batzuen arazo pribatu bat, **gizarte osoaren problematika bat baizik** (Noble, 2006).

Etxeko langile egoiliarrak

Lehen aipatutako Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak eta Osalanek 2019an egindako etxeko langileen eta haien beharrianen diagnostikoaren arabera³⁷:

Etxeko langileen kopuru osoa Espainian eta Euskadin

- › 2018an, Espainia osoan 415.868 pertsona inguruk lan egiten zuten etxeko zerbitzuaren sektorean (Gizarte Segurantzaren arabera).
- › 2018ko azaroan, Euskadin 15.452 pertsona kontratatuak zeuden etxeko langile gisa.
- › Langileen % 95,6 emakumeak ziren.
- › Euskadi da etxeko zerbitzuetan gastu handiena egiten duen autonomia erkidegoetako bat.

Etxeko zerbitzuaren banaketa Euskadin (2015)

- › Araba: 490 etxe (% 7,9).
- › Gipuzkoa: 1.263 etxe (% 20,3).
- › Bizkaia: 4.460 etxe (% 71,8).

Guztira (EAE): 6.213 etxe etxeko langile egoiliar.

Etxeko langile egoiliarrak Euskadin

- › Etxeko langile egoiliarren gehiengoa atzeritar jatorriko emakumeak dira.
- › % 24,30 egoera administratibo irregularrean dago, 2017tik 10 puntu gehiago.
- › 7 langile egoiliarretatik 10ek (% 72,85) astean 60 ordu baino gehiago lan egiten dute, legezko gehieneko muga gaindituz.
- › % 28,40k ez du atsedunik egunero (ezin dute etxetik libreki irten).
- › % 22,22k ez du astean atsedunik jasotzen.
- › % 95,88 zaintza-lanetan aritzen da, menpekotasuna duten pertsonak artatuz.
- › Kasu gehienetan (% 88,33), langilea bakarrik bizi da zaintzen duen pertsonarekin.
- › % 90,12k gutxieneko soldata profesionalaren (SMI) azpitik kobratzen du.
- › % 37,86ri soldata eskuz ordaintzen diete, inolako dokumentaziorik gabe.
- › % 53,92k ez du 10 orduko atsedunik gabe, zaintzen dituen pertsonari lagundu behar diotelako (mugitu, botikak eman, etab.).
- › % 7,82k gabe behin baino gehiagotan arreta eman behar du.

³⁷ <https://www.euskadi.eus/albisteak/2019/etxeko-langileen-egoeraren-diagnostikoa/web01-a2publi/eu/>

- › % 4,12k ez du 8 orduko atsedetik gaez.
- › Enplegatzailea hiltzen bada edo egoitza batean sartzen bada, % 26,34 langabezian geratzen da bat-batean eta langabezia-prestaziorik gabe.
- › Egoera administratibo irregularrean dauden langile egoiliarrek soldata okerragoak jasotzen dituzte.

Etxeko langile egoiliarren lan-baldintzak askotan **gogorrak eta prekarioak** izan daitezke, bereziki babesik gabeko egoeran daudenean. Kasu askotan, ordutegi mugagabea dute, atsedetik gabe, eta lanetik deskonektatzeko aukerarik ez dute. Gainera, espazio propioaren gabezia da ohikoa; batzuetan, ez dute logela egokirik ere. Horrez gain, egin beharreko lanen mugak ez daude argi zehaztuta, eta horrek gehiegizko lan-karga ekar dezake. Egoera horiek **are gehiago larriagotzen dira emakume migratzaileen kasuan**, izan egoera administratiboa erregularizatuta edo ez, askotan egoera ahulagoan aurkitzen direlako eta lan-baldintzak negoziatzeko aukera txikiagoa dutelako.

Etxeko langileen **lan-baldintzetan hobekuntzak ekarri dituzten lan-arriskuen prebentziorako neurriak eta lege-erreformak egon diren arren**, oraindik ere arazo handiak daude neurri horiek praktikan jartzeko. Etxea espazio pribatua denez, zaila da bertan lan-baldintzen kontrola egitea, eta horrek langileak babesgabeago uzten ditu. Adibidez, lan-inspekzioak egitea askotan ia ezinezkoa da, eta horrek lan-prekarietatea eta eskubide-urraketak larriagotzen ditu. Horrela, askotan legeak aitortzen dituen eskubideak ez dira eraginkorki bermatzen, eta etxeko langile egoiliarrek egoera zaurgarriagoan geratzen dira.

Etxeko lan ordainduaren inguruko araudia eta atzerritartasunaren legea

Espainian, atzeritarren enplegurako sarbidea eta erregularizazioa **4/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 11koak (Atzeritartasun Legea)**³⁸ arautzen ditu. Lege honek jatorri atzeritako pertsonen eskubideak eta askatasunak ezartzen ditu, baita bizileku- eta lan-baimena eskuratzeko baldintzak ere. Hala ere, lege honen mugaketa nagusietako bat da **bizileku-baimena lortzeko lan-kontratu bat behar izatea**, eta horrek zaildu egiten du egoera irregularrean dauden pertsonen erregularizazioa. Oztupo hori gainditzeko, atzeritartasunaren araudia hainbat aldiz

³⁸ **1155/2024 Errege Dekretuak** aldaketa esanguratsuak ezarri ditu atzeritarren araudian, eta horrek eragina du formazio bidezko errotzean, orain **errotze sozioformatiboa** deituko dena. Aldaketa nagusien artean, **Espainian egon beharreko gutxieneko denbora bi urtera murriztu da**, aurretik hiru urtekoa bazen. Horrela, erregularizaziorako sarbidea errazten da.

Gainera, araudi berriak **formazioa lanarekin bateragarri egitea ahalbidetzen du**, gehienez 30 orduko lanaldi batekin, eta horrek aukera ematen die migratzaileei **diru-sarrerak lortzeko bitartean formakuntza osatzeko**. Neurri horiek migratzaileen **gizarteratzea eta lan-merkatuan sartzea erraztea** dute helburu.

Beraz, jatorrizko edukiak indarrean jarraitzen duen arren, kontuan hartu behar da **2024ko 1155/2024 Errege Dekretuak** **malgutasun berriak ezarri dituela**, migratzaileen lan-merkaturako sarbidea eta egonkortasuna hobetzeko.

egokitu da, eta erregularizazio-bide alternatiboak sortu dira, hala nola **errotzea formakuntzaren bidez**.

Errotzea formakuntzaren bidez, **2022an onartutako 629/2022 Errege Dekretuaren bidez**, aukera ematen die Espainian gutxienez **bi urtez egoera irregularrean dauden pertsonen 12 hilabeteko bizileku-baimena lortzeko (24 hilabetera luzagarria)**, baldin eta lan-eskaera handia duten sektoreetan formakuntza arautua egiten badute. Formakuntza hori amaitutakoan, lan-baimena eskura dezakete, eta horrek lan-merkatuan integratzeko aukera ematen die.

Lan-eskaera handiena duten sektoreetako bat **etxeko zaintza da**, non jatorri atzerriako emakume askok jada modu informalean lan egiten duten. Testuinguru horretan, Gipuzkoan etxeko zaintzaren profesionalizazioa bultzatu da, **Mendekotasuna duten Pertsonen Etxez Etxeko Arreta Soziosanitarioko Profesionaltasun Ziurtagiriaren bidez**. Formakuntza hau jada sektorean lanean ari diren pertsonen zuzenduta dago, bereziki **PEAP (Pertsonen Arretarako Enplegu Programa) bidez kontratatutako langileei**, eta une honetan behin-behineko baimena duten zaintzaileei, etxez etxeko laguntzaileei eta laguntza pertsonalei. Ziurtagiri honek haien lan-baldintzak hobetzea, egoera erregularizatzea eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sisteman lanpostu egonkorretara sartzea ahalbidetzen die.

Gipuzkoan, non biztanleriaren zahartzeak etxeko zaintzen beharra handitu duen, horrelako ekimenak funtsezkoak dira, bai mendekotasuna duten pertsonen kalitatezko arreta jasotzeko, bai langileen egoera hobetzeko. **Errotzea formakuntzaren bidez eta profesionaltasun ziurtagiria aukera** ona dira, jatorri atzerriako emakume askorentzat ekonomia informaletik irten, kontratu erregulatuetara sartu eta haien ekarpen soziala aintzat hartu dadin.

Hala ere, **erronka nagusietako bat da nola eta noiz egin dezaketen formakuntza hori emakume askok, bereziki barneko langile gisa lan egiten dutenek, astean 60 ordu baino gehiagoko lanaldiak eta atsedeen eskasak dituztenean**. Langile askorentzat, lanaldiaren eta aurrez aurreko formakuntzaren bateragarritasuna ia ezinezkoa da, eta horrek erakusten du formakuntza hauen errealitatera egokitze beharra, hau da, malgutasun handiagoa, eta aurrez aurreko, erdi-presentzial edo urrutiko modalitateetarako aukera gehiago izatea.

Azkenik, eta laburpen gisa, hauek dira sektoreko araudi nagusiak:

Eremua	Araudia
1424/1985 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa	Etxeko lanaren harreman berezia arautzen duen lehenengo legea. Ez du langabezia-eskubiderik aitortzen, ezta kaleratze-babesik ere, eta baldintza prekarioak ditu beste sektoreekin alderatuta. 2011ko azaroaren 18an indargabetua.
27/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa	Gizarte Segurantzaren sistema modernizatzeko legea. Etxeko langileei eragiten die, baina ez du gainerako sektoreekiko eskubideen berdintasuna bermatzen.
1620/2011 Errege Dekretua, azaroaren 14koa	1424/1985 Errege Dekretua ordezkatzeko du. Etxeko lana arautzen du, hobekuntza hauekin: kontratu idatzizkoa derrigorrezkoa da, 30 eguneko opor-eskubidea aitortzen da eta lanaldiaren gehienezkoa 40 ordu asteen ezartzen da. Hala ere, ez du langabezia-eskubiderik edo kaleratze-babes osorik barne hartzen.
126/2019 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa	Euskal Autonomia Erkidegoko adinekoentzako egoitza-zentroak arautzen ditu. Ez da zuzenean etxeko lanari zuzendua, baina zaintza-sektorean eragina du.
189 OIT Hitzarmenaren berrespena (2022ko ekaina)	Espainiak konpromisoa hartzen du etxeko langileen lan-baldintzak hobetzeko. Hitzarmenak honakoak jasotzen ditu: Gizarte segurantzaren eta kaleratze-babesa, gutxienezko solda, lan-baldintza justuak eta laneko indarkeriaren prebentzioa. Erronka nagusiak: informalitate handia eta ezarpen-zailtasunak.
16/2022 Errege Dekretu-Legea, irailaren 6koa	Etxeko langileen eskubideak gainerako langileen pareko bihurtzen ditu. Hobekuntza nagusiak: Langabezia-prestazioa eskuratzea, kaleratze-babes handiagoa, FOGASaren estaldura eta lan-arriskuen prebentzio kontrol zorrotzagoa.
893/2024 Errege Dekretua, irailaren 10ekoa	Etxeko lanaren segurtasuna eta osasuna arautzen du. Ezarritako neurriak: Enplegatzaileak arrisku ebaluazioa egitea, hiru urtean behin osasun-azterketak eskaintzea, babes-ekipoak hornitzea eta laneko eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloak ezartzea.

9.2. Tolosako Zaintza Ekosistema: zaintzaileei zuzendutako zerbitzu nagusien azterketa

Azterketa honetan, zaintzaileentzako funtsezko zerbitzuak aztertzen dira, bai etxeko ingurunean zaintza-lanak egiten dituztenentzat, bai etxeetan jarduera profesionala garatzen duten langileentzat. Eskuragarri dauden baliabideen ikuspegi integrala eskaintzeko asmoz, hainbat esku-hartze eremu hartu dira kontuan, besteak beste, laguntza psikologikoa, elkartasuna eta laguntza kolektiboa, prestakuntza espezializatua eta atsedeen-programak.

Halaber, hainbat elkartek eta erakundek sustatutako ekimenak jasotzen dira, eta horietako asko familien babeserako bideratuta daude. Ekimen horiek ez dira soilik zaintzaren kalitatea hobetzeko diseinatu, baizik eta erantzukizun hori beren gain hartzen duten pertsonen ongizatea eta prestakuntza indartzeko ere. Zerbitzu horien bidez, zaintza-lanak egiten dituzten pertsonen lana ikusgarri bihurtzea eta aitortzea bilatzen da, baita haien garapen profesionala eta pertsonala sustatzea ere, ongizate emozionala eta fisikoa bermatzek.

Erakunde publikoak			
Jasotzaileak	Zerbitzu edo prestazioa	Konpetentzia	Izaera
Familia inguruneko zaintzaileak:			
– Mendekotasuna duten adineko pertsonen zaintzaileak	1. Sendian Programa	Foru Aldundia	Zuzena
– Mendekotasuna egoeran dauden pertsonen zaintzaileak FIZPE jasotzaileak	2. Senitarteko Zaintzaileei Formakuntza	Foru Aldundia	Zuzena
– Mendekotasuna egoeran dauden pertsonen zaintzaileak	3. Zaintzaileak Zainduz	Udala	Zuzena
– □ Desgaitasuna edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen Zaintzaileak	4. Adi Baterako Egonaldiak	Foru Aldundia	Zuzena
– Mendekotasuna egoeran dauden pertsonen zaintzaileak	5. Zaindoo	Eusko Jaurlaritza	Zuzena
Etxeko eta zainketa zerbitzuetako langileak:			
Zaintzan diharduten emakumeak.	6. Kafe-tertulia espazioa (Sos Arrazakeria)	Udala Tolosaldea garatzen	Sinbolikoa
Zaintzan diharduten langileak eta bere horretan zerbitzuaren beharra duten emakumeak.	7. Atzerriko ikasketan homologazio zerbitzua (Bidez Bide)	Udala Tolosaldea Garatzen	Zuzena
Etxeko langileak eta familia enplegatzaileei laguntza.	8. EtxekoLan Programa	Tolosaldea Garatzen	Zuzena
– Etxeko langileak eta familia enplegatzaileei laguntza.	9. Etxeko Langileentzako Lan Aholkularitza (Sos Arrazakeria)	Udala Tolosaldea Garatzen	Zuzena
– Institutuziotan eta/edo etxebizitzetan, zaintzaren eremuan lan egin nahi duten pertsonentzat.	10. Zaintzaren testuinguruan Profesionaltasun Ziurtagiriak (Inmakulada Lanbide Ikastola)	Eusko Jaurlaritza (Lanbide)	Sinbolikoa

Eragile komunitarioak	
Jasotzaileak	Jarduera eremua
5. Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten pertsonen zaintzaileak.	6. Buru Bihotzez Elkartea. 7. AFAGI Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste Dementziaren bat duten Pertsonen Elkartea.
8. Bizitzaren amaierako prozesuak, dolua eta galerak humanizatzea eta naturalizatzea.	9. Bihotzetik Elkartea.
10. Desgaitasun intelektuala eta/edo mugako adimena duten pertsonen familiak.	11. Atzegi Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte. 12. Ortzadar mugako adimen duten pertsonen elkarte.
13. Pertsona gorren familiak.	14. AransGI Gipuzkoako Familia Gorren Elkartea.

9.2.1. Tolosako Zaintza Ekosistema: Familia inguruneko zaintzaileei zuzendutako zerbitzuak

39/2006 Legea, Mendekotasunaren Legea, familia-inguruneko zaintzaileen figura aitortzen du, eta mendeko pertsonari senide batek arreta emateko aukera ezartzen du, betiere zenbait baldintza betez: elkarbizitza, gaitasun eta formakuntza besteak beste. Euskadin, 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak zaintzaileek beren zama arintzeko eta ongizatea hobetzeko laguntza jasotzeko eskubidea dutela zehazten du. Laguntza ekonomiko ezberdinez gainera zaintzaileei eta mendeko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko prestakuntza-programak, atsedeen zerbitzuak, laguntza psikologikoa eta auto-laguntza taldeak ere jasotzen dira, besteak beste.

1. Sendian Programa

Tolosa kasuan, Udalak Sendian Programaren ezarpenean laguntzen du, haren garapena tokian bertan erraztuz eta udalerriko zaintzaileei zerbitzu horiek eskainiz. Lankidetzat horri esker, programa Tolosan eskuragarri dago, nahiz eta ekimenaren ardura eta koordinazio orokorra Gipuzkoako Foru Aldundiarena izan.

Mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza emateko programa da honakoa. Jarduera ezberdinak eskaintzen ditu zaintzaileen beharrei erantzuteko: besteak beste, prestakuntza, laguntza psikologikoa eta auto-laguntza taldeak. Horrela zaintzaileen artean sortu ohi diren egokitzapen arazoak, gatazkak, eta ezinak gainditzeko tresnak eskaintzen dira, elkarbizitza mantentzea sustatuz. Era berean, eguneko zaintza zerbitzua asteburu eta jaiegunetan eskaintzen da, familiei zaintza-lanen zama arintzeko eta pertsonari ingurune egokia bermatzeko.

Onartzeko betekizunen artean daude: mendeko adineko pertsonak gutxienez bi urtez Gipuzkoan bizitzea, familia-unitatearekin elkarbizitza egiaztatzea eta gizarte-langilearen gizarte txostena. Salbuespenetan, elkarbizitza baldintza ez da beharrezkoa izango, baldin eta udal gizarte zerbitzuek arreta eta zaintza egokia bermatzen dutela egiaztatzen badute.

Araudiari dagokionez, aipatzekoa da **2008ko apirilaren 29ko 29/2008 Foru Dekretua**, zeinak adineko pertsona ezinduen ardura duten familiei laguntzeko Sendian programa onartzen duen.

2. Senitarteko zaintzaileei zuzendutako formakuntzak

6/2023 Foru Dekretua, apirilaren 18koa, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari buruzko 2006ko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen prestazio ekonomikoak arautzekoak, helburutzat du mendekotasuna duten pertsonen jasotzen duten zaintzen kalitatea bermatzea eta zaintzaileen ongizatea eta bizi kalitatea bermatzea.

Helburu bikoitz honekin, eta berrikuntza bezala, prestakuntza jasotzeko eskubidea onartzen zaie zaintzaileei. Prestakuntza hori izango da mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako ezagupenak eta trebetasunak lortzea, eta baita alderdi legalen eta beste prestazio eta zerbitzuen inguruko informazioa lortzea ere.

Prestakuntza honen onuradunak, Familia ingurunean mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintza egiten duten profesionalak ez diren zaintzaileak dira, zaintza horretarako prestazio ekonomikoa (FIZPE) jaso eta prestazioan zaintzaile agertzen badira.

Prestakuntzak 16 orduko iraupena du eta 8 modulutan banatuta dago. Bertan, adinekoen zaintza eta adingabeen eta gazteen zaintzaileentzako oinarritzako prestakuntza espezifikoa lantzen dira. Formazio hauek hainbat udalerritan eskaintzen dira, eta horietako bat Tolosa da.

3. Zaintzaileak Zainduz

Tolosa Udala, zaintzaileek dituzten beharrak kontuan hartuta eta horiei erantzuteko beharraz jabetuta, 'Zaintzaileak Zainduz' programa jarri zuen martxan 2022. urtean. Programaren helburua mendeko pertsonen zaintzaz arduratzen direnen ongizate fisikoa eta emozionala hobetzea eta bermatzea izanik astean behineko 2 ordutako saioak eskaintzen zaizkie bi taldeei.

Helburu nagusia zaintza-lanetan diharduten pertsonen autozainketarako denbora eta espazio egoki eta atsegina eskaintzea zen, zaintzaileek beren beharrak, esperientziak eta sentimenduak partekatu ahal izateko, emozioei beharrezko lekua eman eta haien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Hasieran parte-hartzaileen gehiengoa zaintzaileak baziren ere, azken urteotan profila aldatu egin da. Gaur egun, zaintzatik haratago, autozainketarako eta ongizaterako espazio irekiago bilakatu da, publiko zabalago bati zuzenduta.

4. Aldi baterako Egonaldiak

Honakoaren helburu nagusia **mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen behar duten arreta bermatzea da**, familiek eta haien zaintzaileek atseden hartzeko aukera izan dezaten. Era berean, **zainketen jarraipena arriskuan jar dezaketen edo zaintza-eredua berriz planteatzea beharrezko egin dezaketen egoerei aurre egitea ere helburu du.**

12/2015 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonen egoitzetan aldi baterako egonaldiak egiteko aukera arautzen du. Eskerak udaleko gizarte zerbitzuen bidez kudeatzen dira.

Hala ere, aipatzekoa da Gizarte Zerbitzuetako katalogoaren baliabide gehienak eskaintzen dutela aldi baterako edo unean uneko beharrei erantzuteko aukera, baldin eta, zaintzaileen beharra justifikatzen bada.

Aldi baterako egonaldiak	
Baldintza nagusiak	– Mendetasun egoeran dagoen adineko pertsona gisa edo desgaitasun egoeran dagoen pertsona gisa aintzat hartua izatea. – Gipuzkoan erroldatua egotea. – Aldi baterako, etxean egoteko beharrezkoa den laguntza sarea ez izatea. – Osasun txosten eguneratua (diagnostikoa eta tratamenduak jasotzen dituen). – Egokitasuna eta plaza mota jasotzen dituen orientazioa, mendetasun-egoeran dauden adinekoen eta desgaitasuna duten aldi baterako egonaldietarako lekuei dagokiena. – Gizarte-txostena.
Modalitateak	– Egonaldiak kanpainen (Gabonak, Aste Santua eta Uda) barruan edo kanpainetatik kanpo egin ahal izango dira. Iraupen laburra edo iraupen luzekoak izan daitezke. – Adineko pertsonentzako egonaldiak. – Desgaitasuna duten pertsonentzako egonaldiak.
Zenbatekoa eta baldintza ekonomikoak	– Zerbitzuaren kostua Foru Aldundiak eta erabiltzaileek partekatzen dute. Erabiltzaileek beren gaitasun ekonomikoaren arabera zenbateko bat ordaindu behar dute.

5. Zaidoo


Zaidoo, etxeko zaintzaileei laguntzeko zerbitzua da. Zerbitzu honek zaintzaren egunerokotasuna errazten du, autozainketa errazten du eta kalitate handiagoarekin zaintzea ahalbidetzen du. Zerbitzua erabilera errazeko app baten bidez ematen da.

Zaidook honakoak jasotzen ditu:

- Banakako saioak espezialistarekin. Erabiltzaileei online laguntza-saioetarako hitzorduak eskaintzen zaizkie, familia-zaintzako espezialista batekin, prozesuan zehar laguntza eskaintzeko.
- Egoeraren diagnostikoa. Lau hilean behin, erabiltzaileen gainkarga-maila ebaluatzen da, haien ongizatea zehazteko.
- Zaintzaileen online komunitatea. Erabiltzaileek esperientziak partekatu eta egoera berean dauden pertsonak emandako laguntza jaso dezakete.
- Online prestakuntza eta trebetasunen entrenamendua. Zaintzaren eguneroko egoerak kudeatzeko eta autozainketa hobetzeko trebetasun praktikoak garatzeko aukera eskaintzen da.
- Zaintzaren antolaketa. Erabiltzaileek eguneroko zaintza-lanak antolatu eta koordinatzeko tresnak izango dituzte eskura.

31. Generoaren araberako banaketa familia inguruneke zaintzaileei zuzendutako zerbitzuetan


31.1. Familia inguruneke zaintzaileei zuzendutako Zerbitzuak generoaren arabera **2023. urtean** (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



Sendian Programa

- > Generoaren araberako banaketa: laguntza psikologiko indibidualaren kasu zenbatekoa parekoa da % 50 emakumeak dira (7) eta % 50 gizonak (7). Aldiz, Laguntza taldearen kasu gizonen zenbatekoa % 74koa da (6) da, emakumeak % 34 (3) suposatzen dutelarik.
- > Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, bi alditan gizonak suposatzen dute erabiltzaileen artean gehiengoa. Laguntza psikologiko indibidualaren kasu % 40ko hazkundea izan du, laguntza taldea berriz % 25eko jaitsiera.
 - o Emakumeak -laguntza psikologiko indibiduala-: % 3 pertsonatako hazkundea (4tik 7ra).
 - o Emakumeak -laguntza taldea-: 2 pertsonatako jaitsiera (5tik 3ra).
 - o Gizonak-laguntza psikologiko indibiduala- 1 gehiago dago (6tik 7ra).
 - o Gizonak-laguntza taldea - bat gutxiago dago (7tik 6ra).

31.2. Familia inguruneko zaintzaileei zuzendutako Zerbitzuak generoaren arabera **2018. urtean** (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)




Senitartekoei Formakuntza

- > Generoaren araberako banaketa: senitartekoei zuzendutako formakuntza parte hartzaileen artean gehiengoa **emakumeak dira, % 74** (14). Gizonak, berriz, % 26a dira (5).
- > Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta formakuntza jaso dutenen zenbatekoak **% 11ko hazkunde izan du**.
 - o Emakumeak: 1 gutxiago (15tik 14ra).
 - o Gizonak: 3 pertsonatan igo da (2tik 5era).

Aldi Baterako Egonaldiak

- > Generoaren araberako banaketa: zenbatekoak nahiko parekoak dira. Gehiengoa **emakumeak % 55** (5) suposatzen badute ere. Gizonak, % 45a (4) suposatzen dute. (Honakoak zaintzak jasotzen dituen pertsonen datuei egiten die erreferentzia.)
- > Konparaketa: 2018ko datuekin onuradunen zenbatekoak **% 55ko jaitsiera izan du**.
 - o Emakumeak: % 61ko jaitsiera (13tik 5ra).
 - o Gizonak: 2 pertsonatan igo da (2tik 4era).

32. Adinaren eta generoaren arabera familia ingurune zainzailei zuzendutako zerbitzuetan




Sendian Programa (laguntza psikologiko indibiduala +laguntza taldea)

- Adinaren arabera joera orokorra: adin-tarteak gora egin ahala, parte-hartzaileen zenbatekoa handitzen da, **80 urtetik gorakoak** izanik gehiengoa (% 78). Zerbitzuaren erabiltzaileen **batzete adina 82 urtetakoa da**.
- Adinaren eta generoaren arabera joera: parte-hartzaileen gehiengo handi bat 80 urte edo gehiago dituzten taldean kokatzen da. Zenbatekoak hala ere, altuagoak dira emakumeen artean % 90ak adin hau duelarik, gizonen kasuan berriz % 69a suposatzen du.

Senitartekoei Formakuntza

- Adinaren arabera joera orokorra: Parte hartzaileen adinaren arabera joera ohikoagoa da 40-59 urte bitarteko pertsonen artean, parte-hartzaileen % 58a suposatzen duelarik. Era berean, 60-79 urte bitartean dituzten pertsonak

32.2. **Senitarteko zaintzaileei formakuntza**, genero bakoitzaren barneko ehunekoa adin-taldeka, 2023 (Iturria: Tolosako Udal Gizarte Zerbitzuak, 2024)



parte hartzaileen % 31 suposatzen dute. Parte-hartzaileen batz besteko adina 53 urtetakoa da.

- › Adinaren eta generoaren arabera joera: nahiko antzeko joerak aurki daitezke kasu honetan, non gizonen (% 60), zein emakumeen (% 58) gehiago batek 40-59 urte bitartean dituen. Hala ere, ohikoagoa da emakumeen artean 60-79 urte bitartean dituztenak aurkitzea (% 36). Gizonen artean berriz 20-39 urte bitartekoan artean aurkitu daitekeen proportzioa altuagoa da (% 20) emakumeekin alderatuta (Hala ere pertsona bata dira bi kasuetan). Parte-hartzaile emakumeen batz besteko adina 54 urtetakoa da, gizonena berriz 49.
- › 2018an erabiltzaileen batz besteko adina 2023an aurki daitekeena baina handiagoa zen (47 urte). Emakumeen kasu 58 urtetakoa, gizonena ordea 54 urtetakoa.
 - 2018an erabiltzaileen batz besteko adina 82 urtetakoa zen. Emakumeen batz besteko adina 87 urtetakoa zen, gizonena berriz 74.

33. Jatorriaren eta generoaren arabeko banaketa zaintzaileei zuzendutako zerbitzuetan

- › Jatorriari dagokionez, atzerritar jatorriko pertsona bakarra ageri da aztertutako zerbitzu eta aldietan. Kasu honetan 2023an eta Zaintzaileei zuzendutako formakuntzen kasu.

9.2.1.1. Familia inguruneko zaintzaileei zuzendutako zerbitzuen ondorio nagusiak

39/2006 Mendekotasunaren Legeak eta 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak zaintzaileak aitortzen dituzte, eta haien ongizatea bermatzeko neurriak jasotzen dituzte, hala nola laguntza ekonomikoa, prestakuntza-programak, laguntza psikologikoa eta auto-laguntza taldeak.

Tolosa Udalak zaintzaileen babesean duen konpromisoa nabaria da.

Sendian Programa eta Zaintzaileak Zainduz ekimenen bidez, zaintzaileei laguntza psikologikoa, prestakuntza eta autozaintza espazioak eskaintzen zaizkie. Gainera, aldi baterako egonaldiak eskaintzen dira, zaintza-lanen zama arintzeko.

Genero-desberdintasuna zaintza-lanetan oso nabarmena da.

- › Senitarteko zaintzaileei zuzendutako formakuntzetan, parte-hartzaileen % 74 emakumeak dira, eta gizonak % 26 soilik.
- › Sendian Programan, laguntza psikologiko indibidualean parte-hartzaileen banaketa orekatua da (% 50 emakume, % 50 gizon), baina laguntza taldeetan gizonak parte-hartze handiagoa dute (% 74 gizonak eta % 34 emakumeak).
- › Aldi baterako egonaldietan, emakumeak gehiengoak dira (% 55), nahiz eta gizon parte-hartzaile kopurua igo den.

Adinaren arabera, adineko zaintzaileek laguntza gehiago behar dute

- › Sendian Programan, parte-hartzaileen % 78k 80 urte baino gehiago dituzte, eta gehienak emakumeak dira (% 90).
- › Senitarteko zaintzaileentzako formakuntzetan, parte-hartzaileen %58k 40-59 urte dituzte, eta emakumeen artean 60-79 urte bitartekoen kopurua gizonen artean baino altuagoa da.
- › 2018ko datuekin alderatuta, erabiltzaileen batz besteko adina apur bat jaitsi da, baina adineko zaintzaileak oraindik talde nagusia dira.

Jatorri aniztasuna ez da islatzen zaintzaileentzako zerbitzuetan.

Zaintzaileentzako programetan atzeritar jatorriko pertsona bakarra ageri da, eta hori 2023ko formakuntzen kasuan. Horrek adierazten du migratutako pertsonen irisgarritasun handiagoa izan behar dutela laguntza eta prestakuntza zerbitzuetara.

Aldi baterako egonaldien erabilera jaitsi da, behar berrietara egokitze beharra adieraziz.

- › 2018ko datuekin alderatuta, onuradunen kopurua % 55 jaitsi da, eta emakumeen kasuan % 61ko jaitsiera izan da.
- › Gizonen parte-hartzea handitu den arren, oro har, zerbitzuaren erabilera txikitu da, eta horren arrazoiak sakonago aztertu behar dira.

Zaintzaileentzako prestakuntza eta laguntza indartzea funtsezkoa da.

- › Senitartekoei zuzendutako formakuntzak esanguratsuak dira zaintzaren kalitatea bermatzeko, baina genero- eta adin-banaketek erakusten dute irisgarritasuna hobetzeko beharra dagoela.
- › Prestakuntza hauetan parte-hartzea igo da (% 11ko hazkundera), baina emakumeak nagusi dira oraindik (% 74 emakume, % 26 gizon).

Zaintzaileentzako zerbitzuen hobekuntza estrategiko bat behar da.

- › Genero- eta jatorri-aniztasuna sustatzea, zaintza-lanak berdintasunez banatu daitezen.
- › Aldi baterako egonaldiak sustatzea, zaintzaileentzako atsedeen aukera zabalagoak eskaintzeko.
- › Zaintzaileen prestakuntza eta laguntza psikologikoa areagotzea, haien ongizatea bermatzeko.
- › Zerbitzuen irisgarritasuna hobetzea, bereziki migratutako pertsonen baliabide hauetara sarbidea izan dezaten.

9.2.2. Etxeko eta zainketa zerbitzuetako langileak

Azken urteotan, etxeko lanarekin lotutako hainbat programa eta ekimen garatu dira, etxeko langileei, zein Egoiliarrei zuzendutakoak laguntza gune eta aholkularitza eskaintzea helburu dutenak. Jarraian, horietako batzuen ezaugarri nagusiak aipatzen ditugu.

6. Kafe tertulia

SOS Arrazakeriak mugimenduko etxeko langileen taldeak sustatuta, Andragoran Kafe tertulia izeneko elkargune bat daukate. Jatorri anitzeko emakumeei bideratutako espazioa da, eta asteazkenero biltzen dira, 17:00etatik 19:00etara. Bertan, kafea edo tea baten bueltan, elkarrekin tarte bat partekatzeaz gain, euren bizipenak elkarbanatu eta zalantzak argitu ahal izateko espazioa da. 2024ko otsailean hasita, egun **8-10 bat emakumek parte-hartzen dute** espazioan; bereziki Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikako jatorria duten emakumeak izanik, zaintza lanetan dihardutenak nagusiki, horietako asko egoiliarrak izanik.

7. Atzerriko Ikasketen homologazio Zerbitzua

Bidez-Bide Elkartek kudeatutako zerbitzu hau Andragoran eskaintzen da 2024. urtetik. Bertan, informazioa, orientazioa eta aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen dute, batxilergoko, bigarren hezkuntzako, lanbide-heziketako eta unibertsitateko ikasketak aitortzeko beharrezkoak diren baldintzei, prozesuari eta izapideei buruz. Hilabetean behin, emakume migratuentzako tituluen

homologaziorako aholkularitza eskaintzen dute Andragoran. Zerbitzu hau doakoa da.

8. Etxekolan programa

Zerbitzua Tolosaldea Garatzenetik kudeatzen da eta doako zerbitzuari dagokio. Etxeko langile moduan lan egin nahi dutenentzako zein etxeko lanetarako pertsona bila dabiltzanentzako zerbitzua eskaintzen dute. Zerbitzu honek informazioa, aholkularitza eta bitartekaritza ematen ditu, sektore honetan lan egin nahi duten pertsonak eta langile bila dabiltzanak elkartuz.

- › **Etxeko edo zaintza lanetan aritu nahi dutenentzat:** lanerako orientazioa eskaintzen dute, kontratazioaren baldintzei buruzko informazioa emanez. Gainera, lan-poltsan izena emateko eta prestakuntza jasotzeko aukera eskaintzen dute, hala nola gaitasun ziurtagiriak eskuratzeko, euskara ikasteko edo beste trebakuntza-saioetan parte hartzeko.
- › **Etxean lan egiteko norbait behar dutenentzat:** doako aholkularitza eta bitartekaritza zerbitzua eskaintzen dute, hautaketa-prozesuan lagunduz eta lanposturako pertsona egokia aurkitzen laguntzeko.
- › **Informazio-zerbitzua:** kontratazio prozesuari buruzko aholkularitza eskaintzen dute, eskubide eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, atsedeen-egunak eta ordu libreak, gizarte segurantzako kotizazioak, baimenak, kaleratze-prozedurak eta alta emateko urratsak argituz.

2023. urtean, **31 lan-eskaintza kudeatu ziren** programa honen barruan. Horietatik **17 barne-erregimeneko lanpostuak**, eta 14 eskaintza orduka lan egitekoak. EtxekoLan programaren arduradunarekin osatutako elkarrizketaren bitartez jakinarazi zen, Honakoen artean gehiengo handi bat emakumeak eta Hego Ameriketakoak direla.

9. Etxeko langileentzako lan aholkularitza

Andragora Tolosaldeko Emakumeen Etxeak, SOS Arrazakeriak mugimenduaren eskutik eta Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin, etxeko lanari buruzko aholkularitza- eta informazio-zerbitzua eskaintzen du. 2024. urteko urrian abiarazitako zerbitzu honek astelehenetan eskaintzen da, bi astez behin 16:15etik 18:30era. Helburu nagusia eremu horretan jarduten duten langileen eskubideak bermatu eta egon daitezkeen tratu diskriminatzailerak saihestea da, bai eta, langile zein enplegatzaileek etxeko lanari buruz izan ditzaketen zalantzei erantzutea, hala nola, kontratuak, nominak, gizarte segurantzako kotizazioa, ordainsariak, lan istripu eta gaixotasun arruntagatiko bajak edota kitapenak, betiere, Etxeko Langileentzako Sistema Bereziko araudiaren arabera.

10. Zaintzaren testuinguruan Profesionaltasun Ziurtagiriak

Inmakulada Lanbide Ikastolak Profesionaltasun Ziurtagirien prestakuntzak eskaintzen ditu: Gizarte-erakundeetako mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa eta Etxean mendekotasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa. Prestakuntza hauek % 100ean Lanbidek diruz lagunduta daude.


Ondorengo ataletan ikusiko dugun bezala, ikastetxeak ahalegin handia egin du ordutegi eta egutegiaren malgutasuna handitzeko, pertsonen sarbidea hobetzeko.

Horrez gain, etengabeko prestakuntza-programak ere eskaintzen dituzte, arreta pertsonarengan zentratutako ereduari oinarritzko gaitasunekin lotuta.

Era berean, Erdi Mailako Teknikari titulua lortzeko prestakuntza eskaintzen dute, Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta emateko espezialitatean.

34. Generoaren araberako banaketa Profesionaltasun Ziurtagiriak zaintzaren testuinguruan

1.1. Profesionaltasun Ziurtagiriak zaintzaren testuinguruan generoaren arabera 2018-2023 urteetan **Inmakulada Lanbide Ikastolan**
(Iturria: Inmakulada Lanbide Ikastola, 2024)



- › Generoaren araberako banaketa: Parte-hartzean feminizazio nabarmena ikusten da, izan ere, prestakuntza jaso dutenen artean **ia guztiak emakumeak dira konkretuki % 94a (139)**. Gizonek ordea, % 6a suposatzen dute (9).
- › Konparaketa: 2018ko datuekin alderatuta, Urte horretan formakuntza bakarra osatu zela adierazi da. Kasu horretan parte hartzaileen artean % 100 emakumeak izan ziren.

* Datu kuantitatibo zehatzik ez dagoen arren, elkarrizketetan behin eta berriz adierazi da halako prestakuntzetara joaten diren pertsonen zati esanguratsu bat jatorri atzerritarreko emakumeek osatzen dutela. Pertzepzio horrek adierazten du migrazio- eta genero-osagaiek garrantzi handia dutela parte-hartzaileen profilaren konfigurazioan

9.2.3. Tolosan zaintzaileen errealitatean eragiten duten komunitate eragileak eta hauen egitasmoak

Tolosako testuinguruan zaintzaileentzako zerbitzu eta programa ezberdinak garatzen dituzten elkarte eta taldean daude. Datozen lerroetan honakoen egitasmo nagusiak azpimarratuko dira:

- › **Buru Bihotzez Elkartea:** 2018an, Tolosaldeako familia talde txiki batek Buru Bihotzez elkartea sortu zuen, Alzheimerra eta beste dementzia batzuk dituzten pertsonen senideei laguntzeko. Elkartek familia testuinguruko zaintzaileei sostengua eskaintzen die, Elkar Laguntza Taldeen bidez, gaixotasunaren diagnostikoaren ondoriozko larritasuna arintzeko. Halaber, zaintzaileak prestatzen dituzte, senideen bizi-kalitatea hobetzeko eta zaintza-lana eraginkorragoa izan dadin. Horretarako, 15 egunean behin laguntza-taldeak osatzen ditu psikologian aditu batek gidatuak, bai eta, banakako psikologia-saioak eskaintzen ere. Gainera, Inmakulada Lanbide Ikastolarekin lankidetzan, urtero prestakuntza-saioak antolatzen dituzte, zaintzaren oinarriko trebetasunak lantzeko. Gizartea sentsibilizatzeko ekimenak ere garatzen dituzte, gaixotasuna ikusgarri bihurtu eta normalizatzeko.
- › **AFAGI:** Aurrez aurkeztutako, AFAGI, Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen elkartetik, zaintzaileei zuzendutako laguntza ezberdinak garatzen dira. Horien artean, Tolosan, arreta psikosoziala eskaintzen da, honen helburua nagusia zaintzaileari laguntzea da eta akonpainamendua osatzea, senidearen gaixotasunaren ibilbidean zehar, informazioa eta orientazioa eskainiz. Horretarako, pertsona nola tratatu, eskuragarri dauden baliabideak eta gaixotasunaren fase ezberdinei buruzko aholkularitza ematen da besteak beste. Era berean, formakuntzak, elkarbizitzak edo topaketak osatzen dira senideen artean, bai eta sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak osatu ere. Halaber, Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen zerbitzu hau eskaintzen zaie. Arreta astero eskaintzen da, eskariaren arabera.
- › **Bihotzetik Elkartea:** Bizitzaren amaierako prozesuak, dolua eta galerak humanizatzea eta naturalizatzea dute helburu. Heriotza bizitzaren parte bezala onartzeak kontzientziazioa jokatzen laguntzen du. Bihotzetik elkartek Euskadiko komunitate errukitsuekin lan egiten du, udalerrietan erreferentziazko taldeak sortzeko, heriotza eta galerak sostengatzeko tresnak eskainiz. Helburua da udalek erreferentziazko baliabide propioa izatea arlo honetan. Halaber, herritarrek beren heriotzaren aurrean ahaldundutzea eta sentsibilizazio ekintzak dinamizatzea dute xede, komunitate errukitsuekin elkarlanean. Beste ekintzen artean, Death Café-ak, Gabonetako

aulki hutsak, "Hiltzeko aurretik nahi dut" hormak, heriotzari buruzko eztabaidak zentro gerontologikoetan, eta azken borondateen dokumentuari buruzko jardunaldiak antolatzen dituzte besteak beste.

- › **Atzegi** Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak zaintzaileei eta familia-inguruneko pertsoneri laguntza eskaintzen die, erreferente bat izateko eta behar duten informazioa, orientazioa eta sostengua emateko, senidearen bizitzan zehar. Horretarako, bazkide diren familientzako programak eta gizarte osoari zuzendutako ekintzak garatzen dituzte. Familientzako laguntzen artean, guraso berrientzako sostengua, gizarte-laguntza, eskolaratze-laguntza, hezkuntza indartzea, gerorako aholkularitza eta atsedeen zerbitzua eskaintzen dituzte. Halaber, familiekin elkarlanean gizartea sentibilizatzeko programak lantzen dituzte, hala nola Inguruan Programa, Gure Txanda da eta Gizarte Mentalizazio Programa.
- › **Ortzadar** adimen-muga profila duten pertsonen eta familien elkarte da. Aurrez aipatutakoez gain, familientzako hainbat zerbitzu eskaintzen ditu, haien beharrak identifikatzeko eta seme-alaben beharrei erantzuteko baliabideak eskaintzeko. Elkartearen eta erakundeen laguntzetarako sarbidea errazten du, haurraren garapenean eta Autonomia Sustatzeko Planaren inplikazioa sustatuz. Halaber, familientzako babes- eta prestakuntza-taldeak bultzatzen ditu, baita haien parte-hartzea Elkartearen estrategian ere.
- › **AransGI**-tik, alegia Gipuzkoako Familia Gorren Pertsonen Elkartetik, familientzako Orientazio eta Babes zerbitzua eskaintzen da. Zerbitzu honek familiei informazioa eta sostengua ematen die, gorreriak seme-alaben bizitzan dituen ondorioak ulertzen lagunduz. Halaber, familia-harremanak eta komunikazioa indartzea, eskolatze-prozesuan orientatzea eta laguntza produktuen inguruko informazioa eskaintzea ditu helburu besteak beste. Gainera, elkartean parte-hartzea sustatzen du, familiek babes-sarea eta erreferentzia espazioa izan dezaten.

9.2.3.1. Etxeko eta zainketa zerbitzuetako langileen ondorioak

Etxeko eta zaintza-langileentzako zerbitzuen beharra gero eta handiagoa da.

Etxeko langileen eta zaintza-lanen sektorea funtsezkoa da, eta horretarako, hainbat programa eta zerbitzu eskaintzen dira, hala nola aholkularitza, orientazioa, homologazio zerbitzuak eta bitartekaritza lan-eskaintzetan.

Jatorri atzerrikako emakumeak dira sektore honen gehiengoa, eta haien egoera hobetzeko neurriak behar dira.

- › Kafe tertuliak eta homologazio zerbitzuak jatorri atzerrikako emakumeentzako sare eta laguntza gune gisa funtzionatzen dute, baina sarbidea eta babesa gehiago indartu behar dira.
- › Etxekolan programaren bidez, langileen eta enplegatzailen arteko harremanak bideratzen dira, baina parte-hartzaileen gehiengoa emakume eta Hego Amerikako jatorrikoak dira, eta lan-baldintzak hobetzeko neurriak behar dira.

Lan-baldintzen inguruko aholkularitza eta babesa indartzea ezinbestekoa da.

- › Etxeko langileentzako lan aholkularitza zerbitzuak, Andragoran eskaintzen direnak, langileen eskubideak bermatzea du helburu.
- › Kontratazioei, soldatei eta eskubideei buruzko informazioa hobetzea funtsezkoa da, etxeko langileen prekarietatea eta diskriminazioa saihesteko.

Zaintza-lanen profesionalizazioa beharrezkoa da.

- › Profesionaltasun Ziurtagirien programetan parte hartzen duten gehienak emakumeak dira (% 94), eta gizonen parte-hartzea oso baxua da (% 6).
- › 2018tik hona prestakuntza-programak hazi badira ere, parte-hartzaileen profila ez da aldatu, eta sektore honetan gizonen parte-hartzea sustatzeko estrategia berriak behar dira.

Genero-arrakala oso nabaria da zaintza eta etxeko lanetan.

- › Zaintza-lanetan eta etxeko langileen prestakuntzan emakumeak dira nagusi, eta gizonen parte-hartzea oso murriztua da.
- › Emakume migratuek osatzen dute langile gehiengoa, eta horrek migrazio eta genero-arrakala sakontzen du.
- › Lan- eta prestakuntza-eskaintza malgutzea eta gizonen parte-hartzea sustatzea beharrezkoa da zaintza-lanen banaketa bidezkoagoa izateko.

Lan-eskubideen inguruko sentsibilizazioa eta informazioa zabaltzea beharrezkoa da.

- › Etxeko langileen informazio eta aholkularitza zerbitzuek oinarri sendoa dute, baina langile gehiagorengana iristeko beharrezkoa da estrategiak indartzea.
- › Lan prekarietatea saihesteko, eskubideei buruzko informazioa eta prestakuntza areagotu beharko lirateke.

Sektore honetan lan egiten duten pertsonen babes eta prestakuntza gehiago behar dira.

- › Etxeko lanetan diharduten emakumeek beren eskubideak ezagutzea funtsezkoa da, kontratu bidezko lan-baldintza egokiak bermatzeko.
- › Zaintza-lanak lan duin gisa aitortzeko politikak sustatu behar dira, soldatak eta lan-eskubideak hobetuz.

9.3. Ekarpenak eta korapiloak

Atal honetan, eskura dauden laguntza-sareak, zaintzaileek dituzten zailtasunak eta beharrak, eta zaintzaren eragin emozionala eta soziala aztertzen ditugu. Lekukotasun zuzenak eta aholkularitza-zerbitzuen analisia bilduz, gure inguruko zaintzaren antolaketa argitara ematea eta eredu bidezkoago eta jasangarriago baterako hobekuntzak proposatzea dugu helburu.

Hauek dira elkarriketatutako eragileak:

Zaintzaileentzako laguntzarako elkartek eta erakundeak

- AFAGI, Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen elkartetik,
